


# JAKINTZA ELKARRIZKETA

UPV/EHUK eta gizarte-mugimenduek  
Euskadiko gatazkari, indarkeriari  
eta bakeari heltzea



Ehunberri 6. koaderno  
Xavi Mínguez Alcaide  
2015eko Abendua

Hirugarren pertsonak argitalpen honetako edukia banatu, kopiatu edo erakuts dezakete, betiere jatorria aipatzen badute. Alabaina, ezin da merkataritza-helburuetarako erabili.

*Egilea:*

Xavier Mínguez Alcaide

*Diseinua:*

Otzarreta Komunikazioa (Zarautz)

*Maketazioa:*

Goitik (Tolosa)

*Edizioa:*

DSS2016

*ISSN:*

2444-8311

*Jakintza elkarrizketa*

*UPV/EHUK eta gizarte-mugimenduek  
Euskadiko gatazkari, indarkeriari  
eta bakeari heltzea*

*Donostia 2016*  
*Bakearen Itsasargia*

*Ehunberri: espazioak eta elkarguneak gizarte ehun berri baterako, arloko azterlanen inguruko ikerketa psikosoziala da, eta Donostia 2016 Fundazioak, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gune Irekiak taldeak sinaturiko hitzarmena dela-eta abiarazi da.*

*Ehunberri ikerketaren bidez, bakeari ekarpena egin eta Euskadiko gizarte-egitura berreraiki nahi da, jakintza, partaidetza eta elkarrizketa oinarri hartuta. Ehunberriren diseinuak gatazken eraldaketa sistemikoaren ikuspegi psikosozialari jarraitzen dio. Ikuspegi horren arabera, garrantzitsua da bakearen arloko eragile gakoek parte hartzea, honako hauek ardatz harturik: inklusibotasuna, konpromiso kritikoa eta eraikitzailea, sormenaren eta irudimenaren sustapena, eta alderdi ugariako elkarrizketa. Era berean, Ehunberri proiektuarekin, bakearen alde diharduten gizarteko sektoreak ahaldundu nahi dira, haien ezaguera, balio eta nahiei indarra emanez.*

*Ikerketaren zuendaritza eta koordinazioa*

Xavier Mínguez Alcaide  
Psikologian doktorea  
Gune Irekiak


*Antolaketa eta finantzaketa*

Bakearen Itsasargiaren arduraduna  
Donostia 2016 Fundazioa

*Gainbegiralea*

Ramón Alzate Sáez de Heredia  
Gatazken konponbidean katedraduna  
UPV/EHU

**guneirekiak**  
INVESTIGACIÓN Y TRANSFORMACIÓN SOCIAL



DSS2016.EU

emari ta zabalazari  
  
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## AURKIBIDEA

Sarrera	6
1. Kapitulua. Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimak. Erreparazioarako esperientziak	15
▪ Gema Varona. Justizia konponarazlea, Euskadin bakea lortzeko: proposamena, gure ikerketa unibertsitarioaren balantze kritikotik abiatuta	15
▪ Laura Pego. Egia torturaren aurkako erreparazio-tresna gisa	24
▪ Bakeola. Bakeaz blai. Biktima hezitzaileekin egindako programa pedagogikoa	33
▪ Nola egin dezakegu aurrera biktimen erraparazioan?	60
2. Kapitulua. memoria eta historia. elkarbizitza eraikitzeko iraganaren lanketa	63
▪ Magdalena Bobowik eta Maitane Arnoso. Memoria kolektiboa eta biktimizazioaren kontakizun inklusiboak vs lehiakorrak: euskal kasuaren inguruko hurbilketa bat	63
▪ Gernika Gogoratuz, Gernikako Bakearen Museoa eta Bakeola. «MemoriaLab» ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoan memoriaren erakuntza sozialerako laborategiak.	77
▪ Nola hel diezaiokegu oroimenaren aldeko lanari?	80
3. Kapitulua. genero ezberdintasunak eta nagusitasunak gatazkan, indarkerian eta bakean	82
▪ Susana Conejero. Identitatea, ideologia, emozioak eta generoa indarkeriaren eta bakearen aurrean	82
▪ Zuriñe Rodríguez. Maskulinitate eta feminitate hegemonikoa: ezinbesteko irakurketa indarkeria, gatazka eta bake-aukerak ulertzeko	101
▪ Argituz. Emakumeen aurkako motibazio politikoko indarkeria euskal kasuan	109
▪ Nola ezar ditzakegu genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista bakearen eraikuntzan?	116
4. Kapitulua. hedabideak , gatazka eta indarkeria	118
▪ Mario Zubiaga. Komunikabideak gatazkaren eta indarkeriaren aurrean: prentsa-binetak "Tirabirak/Tiras que aflojan" proiektuan	118
▪ Josune Murgoitio. Bake-kazetaritza: informatu, (trans)formatu	125
▪ Txema Ramírez de la Piscina. Prentsa eta euskal gatazka: 1975-2015	130
▪ Zer ekarpen egin diezaiokete hedabideek bakeari?	154
Eranskina. Open Spacen aktak	155

## SARRERA

Bakearen ikerketaren alorreko egile nagusietako bat da John Paul Lederach, eta hark dio bakea eraikitzea, indarkeriak zatitutako gizarteak eraikitzea eta adiskidetzea *leku fisikoak* besterik ez direla, hau da, gune sozial jakin batzuk dira eta horietan jardunbide berriek erlazio berriak eragiten dituzte, eta erlazio horiek ikusi, pentsatu eta sentitzeko era berriak. Hala, bakea eraikitzea da topo egiteen eta hartu-eman sozialen bide bat, eta, bertan, errealitatea hautemateko eta errealitatean jarduteko era berriak sortzen dira, baita, diferentzia sozial, politiko edo identitarioak onartuta, elkarrekin bizitzeko borondate berriak ere. Ikuspegi honen arabera, bakea da jardunbide etengabe, dinamiko eta mugikor bat, etorkizunera begira dagoena, baina iragana ikuspegi zabalarekin, soseguz eta gaitasun kritikoarekin berrikusteari bizkar eman gabe. Hartara, leku fisiko horiek etorkizunera begirako borondate kolektiboen sorreran aurrera egiteko bideak dira, baita iraganaren gaineko ikuspegi konplexuago eta integratzaileagoetara hurbiltzeko ere.

Fenomeno dinamiko eta konplexutzat joz gero, bakeak ez du kentzen, besteak beste, interes, behar, ideologia, balioek eta gainerakoek sortutako gatazka sozialak eta politikoak egotea, baina era baketsuan eta eraikitzailean lantzeko aukera ematen du. Giza harremanek berezkoa dute gatazka; gainera, justizia eta berdintasun handiagoko egoera sozialak eskuratzeko tresna bat ere bada. Gatazkari nola aurre egin, nola kudeatu eta nola ezarri erlazio-aldaketa errazten duten guneak zein prozesuak, hori da gakoa; izan ere, indarkeriak markatutako gatazken alde politikoa lantzeko moduak eraldatzen lagun dezake. Gatazkek eraldatzeko elementu garrantzitsu batzuk hauek dira: interdependentzia onartzea, desberdina dena onartzea, oinarri sendoak eraikitzea. Hala, onetsi egingo da elkarrizketa eta akordioa direla eztabaida politiko/alderdikoiak konpontzeko tresna egokienak eta proiektu sozialak zein politikoak bazterketarik gabe garatu behar direla.

Bakea eraikitzeak interakzioa zein elkarrizketa eskatzen ditu, baita ezagutzak, ideiak eta borondateak batera lantzea ere, hala nola sormen kolektiboa erraztea, tresna berritzaileak erabilita. Hala, tresna horiek bizipenak eta politika, elkarrizketa eta artea, emozioak eta erlazioak, prozesuak eta zehaztasuna elkartuko dituzte. Gune sozialean dago, erlazio sozialak eraldatzeko esparruan, hain justu, besteak beste, a) norberaren, bestearen eta gatazkaren pertzepzioak eraldatzeko aukera; b) besteari buruzko estereotipoak eta aurreiritziak ikuspegi zabal eta konplexuengatik ordeztzeko aukera, batzuetan gizatasuna ukatzera eta deabruzera ere iristen baitira; c) giro emozional berritu bat sortzen laguntzeko aukera, beldurretik, ezinikusitik, frustraziotik eta gorrototik aldentzea eta itxaropenetik eta en-

patia errealistatik gertu; d) desberdinaren bazterketatik inklusio moralera iragateko aukera, kolektibo sozialak egindako urraketak ikuspegi etiko batetik berriz baloratzen hastean. Gainera, gune sozialean, ikuspegi desberdinen arteko interakzio dialogikoan, sortzen dira aurrez ezarria genuenetik harago eramango gaituzten ideia berritzaileak.

Bakea eraikitzeke bidea luzea da, era prozesual, dinamiko eta askotarikoan heldu beharreko fenomeno bat da, eta fenomeno horri esker *bakeez, adiskidetzeez eta elkarbizitzen eraikuntzaz* pluralean hitz egin dezakegu, Paco Muñozek esaten zuen bezala. Hiru ezaugarri horiek (prozesua, dinamismoa eta ugaritasuna) adierazten digute bizikidetzaren eraikitzeke prozesuek gune eta dinamika ugari eskatzen dituztela bakeari era integralean ekiteko, baita gune instituzional eta sozialak ere, biktimak (bir)duintzeke, gertatutakoa ikuspegiko askotatik (berr)interpretatzeko eta kultura demokratiko eta bakezko bat eraikitzeke. Bake egoerak nola erraztu eta horretarako ekimenak nola ezarri egile eta espezialista askoren azterketarako gaia izan da. Nazioartean esperientzia ugari daude indarkeria-aldi baten ondoren erlazio sozial eta politiko berriak eraikitzeke prozesuak ezartzeari buruz eta horiek Euskadiko egoerara egokitu daitezke.

Diziplina zientifiko guztietan, bai naturaletan bai sozialean, konplexutasuna bizi garen munduko fenomenoek ekiteke paradigma berritzaile gisa nabarmendu da. Ezagutzak zoria eta ziurgabetasuna berezkoak dituela onartzeaz gain, fenomeno konplexuak elkarri eragiten dioten elementu-sareak direla adierazten digu, eta horiek elementu bakar bat balira bezala funtzionatzen dutela, eta sarea, *sistema*, ikusten saiatu behar dugula, batik bat, elementuen arteko erlazioetan arreta ipinita. Gatazka sakonak interes-talde sozial askok eratutako sistemak, sareak, ehunak dira, norabide anitzeko eragin-harremanekoak; era berean, gatazka sakonek beren artean erlazioetatuta dauden gai estruktural, sozial, kultural, politiko eta psikologiko asko barne hartzen dituzte. Horrela, ikuspegi konplexu bat hartuz gero, gatazka bere osoan ikustera hel gaituzke, gatazka osatzen duten elementuen artean gertatzen diren erlazio ugariak kontuan hartuta. Erlazio horien egonkortasuna dela eta, orekan dago gatazka; alegia, ez atzera ez aurrera eta betikotzeke bidean.

Gatazkari aplikatutako ikuspegi konplexuak adierazten digu eraldatu egin behar direla inplikaturatuta dauden aktoreen eta gaien arteko erlazio egonkorak, eta erlazio mota berri bat sortu behar dela bakerako egoera sozial berriak eta oreka sozial berriak lortu ahal izateko. Ikuspegi honen bi erakusle dira *Dynamics of Conflict psikologoaren taldea eta Berghof Foundation for Peace Support* bakerako ikerketa-institutua. Bi taldeak bat datoz bakea ikuspegi konplexu batetik eraikitzeak esan nahi duenarekin: inklusibitatean, alderdi-aniztasunean eta konpromiso kritikoan oinarritutako aktore anitzeko elkarrizketak, eragile gakoan

konplizitatea ezinbestekoa izango dena; aldaketa-eragileak bakearen alde mobilizatzea eta erakundeak zein mugimenduak ahalduntzea, horien gaitasun biderkatzailea bultzatzeko; eta irudimena zein sormenak mobilizatzea, bake-egoera iraunkor bat ezartzeko irtenbideak asma daitezzen.

Elementu horietatik ideia konstruktibista bat har dezakegu ardatz, hau da, giza harremanetan arreta jartzea eta askotariko eragileak elkarrekin ariko diren gune sozialetan lankidetzaz zein konfiantza sustatzea. Horrekin interdependentziaren eta aldeaniztasunaren balioak areagotuko dira eta erronkei intersubjektibotasunetik egingo zaie aurre. Era berean, sormenari balioa ematen zaio, irtenbide berritzaile eta alternatiboen iturri izan daitekeen aldetik. Bestetik, maila anitzeko ikuspegi batetik lan egiteko beharra nabarmentzen da, kontuan izanik estratu sozial desberdinen erabakimen erreala, baina gizarteko bitarteko mailetan, esaterako, erakundeetan eta mugimendu sozialetan edo akademikoetan, enfasi berezia eginez. Bitarteko maila gorantz eta beherantz eragiteko aukera handienak dituen mailatzat jotzen da, behetik/gorantz eragin-bideak sortzeko kanala izateaz gain.

Horrela, *Jakintza Elkarrizketa* erakunde sozialen eta EHUko kideen arteko topaketa errazteko helburuarekin asmatu zen, eta betiere Euskadiko gatazka, indarkeria eta bakea eraikuntza jorratu dute. Bi agenteek gaia landu dute azterketaren, ikerketaren eta zuzenean esku hartzearen bidez, ezagutza eraikitzeke logika propioak erabiliz eta beren artean harreman gutxi izanda. Ildo horretan, ekimen honen xedea zen erakunde sozialetan eratutako jakintza uztartzea akademian landutakoarekin.

Jardunaldien planteamenduak kontuan hartu zuen Irakasleen eta Ikertzaileen Pertsonaleko (IIP) hainbat kidek eta Euskadin bakearen alde lan egiten duten eta *Ehunberri* ikerketa-proiektuan parte hartu duten erakunde sozialek adierazitako iritzia: garrantzitsua da lehen lerroan lan egiten duten akademikoekin eta erakundeekin artean erlazioak sortzea. Ideia hori hartuta, *Ehunberri*, *espazioak eta elkarguneak gizarte-ehun berri baterako* proiektua *Ehugune*-ekin bateratu zen, bizikidetzari buruzko gogoeta akademikoak sustatzeko eta unibertsiitatearen zein gizartearen artean harremanak sortzeko. Elkarrizketari esker ezagutza kolektiboa eraiki dezakegu, eta ezagutza indibidualaren mugak harago eraman ditzakegu. Euskadiko gatazka, indarkeria eta bakea nolabait lantzen dituzten EHUko IIPeko kideen arteko komunikazio-maila eskasa egiaztatuta, interes komuneko gaiei buruzko gogoeta egiteko guneen premia betetzeaz gain, *Jakintza Elkarrizketa* jardunaldiak behar horri erantzuteko komunikazio-aukerak ireki nahi izan ditu.

Bi egun horietan helburu hauek proposatu ziren: ikusgai bihurtzea Euskadin bakearen aldeko erakunde sozialek egingo dako lana; ikusgai bihurtzea gatazkari, indarkeriari eta bakeari buruz EHUk sortutako ezagutza; ezagutza eta esperientziak



partekatzea alor sozial eta akademikotik; eta alor desberdinen arteko harremanak estutzea.

Egokitzat jotako lau gairi buruz (biktimen erreparazio integrala; memoria eta historia; bakea, feminismoa eta generoa; komunikabideak) alor akademikotik eta sozialetik egindako lana ikusgai bihurtzeko eta ideiak trukatzeko lehen gune bat sortzeko helburuarekin diseinatu zen lehenengo eguneko dinamika. Horretarako, lau gaikako mahai antolatu ziren; horietako bakoitzean EHUko bi kidek eta erakunde sozial bateko kideek parte hartu zuten. Mahai bakoitzeko aurkezpenak egin ondoren, ekitaldira joandakoak elkarrizketa-taldetan banatu ziren mahaian planteatutakoari buruz hitz egiteko eta beren ekarpenak egin ahal izateko. Ekarpen horiek jaso, ordenatu eta kategorizatu egin ziren, eta, horren ondoren, liburu honen amaierako atalak idatzi ziren, Uzta izenekoak.

*Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimak. Erreparazioarako esperientziak* mahaiko lehenengo hitzaldian, Gema Varonak justizia konponarazleak justizia penala osatzeko eskaintzen dituen aukerak aurkeztu zituen, Euskadin bakea sendotzeko xedez. Justizia konponarazlean –hala biktima nola biktimarioa barnean hartzen dituen «erreparazioarako topaketa edo elkarrizketarako partaidetza-prozesua»-, pertsonak eta horien aldatzeko gaitasuna dira ardatza, delituari aurre egiteko ikuspegiari dagokionez. Euskadiren kasuan, hainbat praktika konponarazle egin dira, esaterako, ETArekin biktimen eta «Langraiz bidea» hartutako presoen arteko topaketa konponarazleak mikro mailan; meso mailan, *Gleen Cree* eta *Eraikiz* ekimenak, horietan jatorri desberdineko biktimak (ETA, GAL, tortura) dira topaketa edo elkarrizketarako prozesuen protagonistak; eta makro mailan alderdi politiko desberdinetako kideen arteko elkarrizketa-prozesuak, esaterako, Errenteriaren kasua, edo Eusko Jaurlaritzaren barkamen-eskaera instituzionalak. Aurkezten digun testuan, Euskadiko testuinguruan justizia konponarazlearen printzipioak zein neurritan aplika daitezkeen adierazten du, zalantzan jarriz ETAz bestelakoak diren egileen biktimekin topaketa konponarazleak egiteko aukera, eta Egiaren Batzorde bat sortzekoa, egian oinarrituta, gutxienean justizia eta erreparazioa eskaintzeko argitu gabeko eta/edo preskribatutako kasuen biktimei; bertan, biktimarioek parte hartu ahal izango dute partaidetza-formula konponarazlearen bidez. Horretarako, egileak adierazten du, batetik, erakunde egonkor eta independente bat behar dela –ez du ofiziala edo instituzionala zertan izan behar-, denboran zehar era etengabean praktika konponarazlearen eskaerari erantzuna eman ahal izateko eta, bestetik, unibertsitatea inplikatzeko justizia konponarazleari buruzko ezagutzaren eta justizia horren azpian dauden balio kulturalen ikerketan eta zabalkundeetan.

Bestetik, Laura Pegok, egian oinarrituta, torturen biktimen erreparazioan aurrera egiteko aukerari buruz hitz egin zizun; alegia, gertakarien, parte hartu zuten pertsonen eta horien arrazoen zein motibazioen gaineko ezagutza erabateko eta osoa izateko

eskubidea dute biktimek, baita giza eskubideen urraketak gertatu ziren baldintzen gainekoa izateko ere. Egia jakiteko eskubidean ez dira soilik biktimak eta beren familiartekoak sartzen, baizik eta gizarte osoa, gertatutakoari buruzko memoria mantentzeko helburuarekin. Printzipio hori betetzeko beharrezkoa da Estatuak ikerketa independenteak eta inpartzialak, judizialak izan ala ez, sustatzea eta horietan biktimen lekukotzak kontuan hartzea. Euskadin, azken bost hamarkadetan, torturen salaketa asko argitaratu dira. Giza Eskubideen Europako Epaitegiak, Torturaren aurkako Batzordeak eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak adierazi dute Estatuak ez dituela bete tortura prebenitzeko nazioarteko erakundeen gomendioak edo maila judizialean ikerketa eskasa egin duela. Laura Pegok «1960-2003 aldiko Euskadiko torturari buruzko ikerketa» (Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzak Kriminologiaren Euskal Institutuari eskatua) proiektuaren emaitza partzialak aurkeztu zituen, zehazki, 2015eko otsailera artekoak. Tartean, torturaren edo sozialki edo judizialki salatutako tratatu txarren 3.580 kasu dokumentatu. Egiaztatutako 2.820 kasuetatik, gehienak 1980ko hamarkadan zehar gauzatu ziren eta, gehienbat, Gipuzkoan.

Lehenengo mahai tematikoa ixtean, Bakeolaren kide Maider Martirenak 2011 eta 2012 urteen artean ezarritako *Bakeaz Blai* esperientzia aurkeztu zigun. Programa pedagogiko hau EAEko pertsona gazte batzuekin egindako esperientzia pilotu gisa eratu zen eta bertan, biktima hezitzaileek parte hartu zuten. Programak harrera- eta enpatia-espazioak sortu eta eguneroko bizikidetzak hobetzeko tresnak txertatu nahi izan ditu, bakegintzaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntzan oinarrituta. Programa hau inguru pedagogiko babesle baten esparruan garatu da, alderdien arteko konfrontazio-gunetik urrun. *Bakeaz blai* proiektua biktima hezitzaileek bakea eraikitzeke duten ahalmenaren baliabide pedagogikoaz baliatu da eta, orobat, heriotza batek eragindako nahigabea gizarte-justiziaren bilaketa eta harekiko konpromiso bihurtzeko ahalmena ere baliatu du. Bestalde, esperientzia honek gure lurraldean indarkeriaz eta indarkeriaren ondorioez mintzatzeko bidea eman du. Azken batean, zauria ukitu du ixten laguntzeko.

*Memoria eta historia, elkarbizitza eraikitzeke iragana osatzea* mahaiaren lehenengo aurkezpena Magdalena Bobowikek egin zuen. Eman zuen hitzaldian, psikologo sozialak adierazi zuen indarkeriaren alderdia duten gatazka politiko traumatikoak giza taldeen memoria kolektiboan erregistratuta geratzen direla, eta memoria ondorengo belaunaldiei transmitituko zaien moduak eztabaida sakonak sortzen dituela, komunitate-mailan landu beharrekoak. Iraganari buruzko kontakizun posible guztien artean, kontakizun lehiakorrek agertu ohi dira. Horiek aldeetako baten sufrimendua azpimarratzen dute, eta beste aldekoa erlatibizatu edo ukatzeko joera dute. Literatura zientifikoan, mota horretako kontakizun baztertzaileak taldeen arteko etsaitasun-maila han-

diagoarekin lotzen dira, eta gatazkaren konponbidea zailtzen duten elementuetako bat dira. Alabaina, kontakizun horiekin batera, posible da askotariko kontakizunak agertzea, eta horietako batzuek biktimazio inklusiboa onar dezakete, hau da, beste giza talde batzuk ere norberaren taldea bezala biktima izan direla eta sufrimendu hori bidezkoa izan ez dela onartzen duen kontakizun bat egin dezakete. Aurkezpen horretan, gai horren inguruko berrikusketa teoriko bat aurkeztu zuen, Euskal Herriko testuinguruan dinamika horiek izan dituzten datu eta hausnarketak batzuekin batera.

Magdalena Bobowiken aurkezpenaren ondoren, Josu Chuecak hitz egin zuen historiaren ikerketak iragana idazten eta memoria eraikitzen bete dezakeen paperari buruz, betiere bakea eta bizikidetzatza sendotzeko xedez. Ildo horri jarraikiz, historialariak adierazi zuen zintzotasuna, zorrotasuna eta inpartzialtasuna behar direla gertakarien kontakizun historiko bat eraikiko bada; alegia, historia ez-teleologiko bat. Izan ere, horrelakoek konfrontazioaren logika luzatu besterik ez dute egiten, eta helburu alderdikoiak dituzte, hain zuzen Euskadin bakea eraikitzeko prozesuan behar ez direnak.

Memoria eta historiari buruzko mahaia Álex Carrascosaren hitzaldiarekin amaitu zen. Gernika Gogoratuz elkarteko kideak *MemoriaLab* esperientzia azaldu zuen. Ekimen horren helburua, bakegintzako eta sare soziala berreraikitzeke beste ekimen batzuetan inspiratua, harreman sozial berriak ezarri eta memoria zabal, landu eta konplexuagoen eraikuntza soziala sustatzea da. Programa hau laborategi sozial bat da, *Prozesukako lana eta U Lab* metodologietan oinarri hartuta diseinatua; bertan, parte-hartzaileek Euskadin bizitako indarkeria politikoarekin erlazioatutako gogoetak eta esperientziak partekatzen dituzte, eraldaketa helburu izanik. Álex Carrascosak adierazi zuen eran, esperientzia honek «*Head, heart and hands*» konbinatzen ditu, hau da, pentsamendua, emozioa eta ekintza; izan ere, prozesuaren funtsezko hiru alderdiei ekiteko -iragana ikustea, hortik ikastea eta etorkizuna proiektatzea-, hizkuntza eta adierazpen sinbolikoa, gorpuztasuna eta adierazpen artistikoa lantzen dira.

*Genero-desberdintasunak eta -nagusitasunak gatazkan, indarkerian eta bakean* mahaiko lehenengo hitzaldian, Susana Conejerok adierazi zuen euskal espazio politiko eta sozialean gizonaek gailentzen direla eta emakume gutxi daudela, eta emakumeak baztertu egiten direla garrantzia handieneko erabaki politikoak hartzen diren espazioetatik, tartean, bakea eraikitzeke bideratuta dauden negoziazio politikoak. Errealitate horren aurrean, emakume gehiagok gune horietan parte hartu izan balute, topaketa, elkarrizketa eta negoziazio guztien protagonistak izan balira, gauzak bestelakoak ote lirakekeen egin zuen galde. Susana Conejerok aurkeztutako lanean zenbait emozioen aurrean (barkamena eta tolerantzia) gizonaek eta emakumeek zein desberdintasun dituzten aztertu zen, hala nola ETArekiko

jarreran eta indarkeriarekiko jarreran, orokorrean. Lanaren ondorioen arabera, emakumeek gehiago parte hartu behar dute alor politikoan eta sozialean, eta gatazka politikoak konpontzeko negoziazio-guneetan, ez soilik eskubide eta berdintasun kontu batengatik, baizik eta emakumeek bakearen eragile gisa duten potentziala nabarmentzen duten ebidentzia zientifikoak baitaude.

Zuriñe Rodríguezek ekarpena euskal gatazka eratzen duten maskulinitate eta feminitate hegemonikoei buruzkoa izan zen, bakea eraikitzeko fase honetan nahi dugun feminitatearen eta maskulinitatearen inguruan gogoeta egiteaz gain. Zuriñe Rodríguezek honakoak aztertu zituen: genero-erlazioak gatazkan; zein feminitate- eta maskulinitate-eredu indartu diren emakumeek eta gizonen izandako rolen arabera; eta bakea bizitzeko era, gatazka eta indarkeria era desberdinean bizi izan badira. Era berean, adierazi zuenez, gatazkaren kontakizun feminista bat osatzeko, besteak beste, zalantzan jarri behar da «euskal matriarkatua»ren mitoa, eta Euskal Herriko gatazka eta indarkeria politikoaren osagai patriarkal sendoa ikusezin bihurtu duen elementua izan dela. Hala, generoaren arabera egindako kategorien esleipenak emakumearen feminizazio handiagoa eta gizonaren maskulinizazio handiagoa ekarri du.

Hirugarrenik, Argituz giza eskubideen elkarteko kide Andrés Krakenbergerrek euskal kasuan emakumeen aurka arrazoi politikoengatik izandako indarkeriari buruzko azterlan baten emaitzak aurreratu zizkigun. NBERen 1325 Ebazpenetik abiatuta, azterlanaren xedea da emakumeen eta gizonen arteko aldeak ikusgai bihurtzea eta nabarmentzea, indarkeriari eta bere ondorioei dagokienez. Azterlanak mugak izanda ere, azterlanaren emaitzek adierazten dute euskal kasuan bizitza-eskubidearen zapalketa desberdin banatzen dela generoaren arabera, talde parapolizialek edo eskuin muturreko taldeek egindako sexu-indarkeria soilik emakumeen aurkakoa izan baita, emakumearen gorputza gerra-armatzat jotz. Azkenik, azterlanak generoaren ikuspegitik memoria barneratzaile bat berreraikitzaera edo araudi-esparrua eta horren ezarpena hobetzera bideratutako gomendioak eskaintzen ditu.

Azken mahaia, *Hedabideak, gatazka eta indarkeria*, «Tirabirak/Tiras que aflojan» Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren ikerketa-/erakusketa-proiektuko Mario Zubiagaren aurkezpenarekin abiatu zen eta egunkarietako binetetan euskal gatazka eta indarkeria politikoak nola tratatu den adierazi zuen. Proiektuaren helburuetako batzuk hauek dira: Euskal Herrian iragan gatazkatsu bat izan dela ezagutu eta onartzea, gogoeta eta pentsamendu kritikoa mobilizatzea, bizikidetzaren eraikitze gatazkari buruz gogoeta egiten dela sustatzea, eta komunikabideen paperari buruzko debate publikoa sustatzea. «Tirabirak» erakusketak hiru modulu tematiko ditu: bata, enfrontamendu politikoari buruzkoa; bestea, sufrimendu eta giza eskubideen

urraketari buruzkoa eta, hirugarrena, Euskadiko bakearen eta giza eskubideen aldeko herritarren mobilizazioari buruzkoa. Erakusketa aurreko ikerketa-lanean hau egin da: azken hamarkadetan Euskadin izandako indarkeria- eta gatazka-egoerako funtsezko 150 gertakari hautatu eta gertakari horiek aipatzen zituzten 30.000 bineta aztertu dira. 3.500 bineta hautatu dira eta horietako 448kin osatu da erakusketa.

Bigarrenik, Josune Murgoioki bakearen kazetaritzak defendatzen duen paradigmatikoa elementu nagusiak aurkeztu zituztuen, gerra-kazetaritzari kontrajarrita. Gerra-kazetaritza propaganda, komunikabideak bat egiten duen aktore politikoaren garaipenera eta eliteetara bideratuta dago; bakearen kazetaritza, aldiz, egiara, irtenbideak bilatzera eta gizarte zibilera dago bideratuta. Kazetariak adierazi zuen bakearen kazetaritzak, ikuspegi sortzailearen bidezko gatazken eraldaketa baketsurako tresna den aldetik, informazio ez polarizatu, manikeo eta sinplifikatzailearen balioa nabarmentzen duela, aktore guztien elementu positibo eta negatiboak ikertuz eta jakitera emanaz. Bestetik, bakearen kazetaritzak gatazkaren eta indarkeriaren arteko aldea nabarmen agertzen du, indarkeriaren alderdi estruktural, zuzen eta kulturalari erreparatuz, baita gatazkek dakartzaten arazoei eta kontraesanei ere.

Jardunaldiko azken hitzaldia Txema Ramírez de la Pisciarena izan zen. Euskal gatazka 1975etik 2015era bitartean egunkarrietan izan duen islari buruzko analisi bat egin zuen. Fenomeno konplexu gisa ulertuta, adierazi zuen prentsaren portaera ulertzeko, kontuan izan behar direla etapa bakoitzeko testuinguru politikoa, ETaren jardueraren intentsitatea eta karakterizazioa, egunkarien argitalpen-tokia eta horien ildo editoriala. Bere analisisian hiru etapa bereizi zituen. Lehenengo etapan (1975ean hasi eta 1988an Ajuria Eneako Hitzarmena sinatu zen arte), bereizgarriak dira prentsak irizpide bateraturik ez izatea, indarkeria-gertakariak bigarren mailako albisteetan aipatzea edo Euskadiko kazetaritza-espazioa berregituratzea. Bigarren etapan (1989an hasi eta 2000. urtean Terrorismoaren aurkako Hitzarmena sinatu zen arte), bereizgarriak dira, egilearen arabera, irizpideak bateratu izana, polarizazio mediatikoa eta kazetaritzaren kode deontologikoa zalantzan jartzea. Hirugarrena (2001ean hasi eta 2011ko urrira arte, hau da, ETak indarkeria behin betiko utziko zuela iragarri zuen arte), trintxeren kazetaritza deitu da, komunikabideak gatazkaren aktore bihurtu ziren eta. Azkenik, 2011tik 2015era, egileak adierazi zuen Madrilen editatzen diren komunikabideek aurreko etaparen inertziarekin jarraitzen badute ere, Euskadiko prentsa bakearen prozesua bultzatzen ari dela pixkanaka, distentsio mediatikoa areagotuz eta normalkuntza politiko gero eta handiagoa islatuz.

Bigarren egunean elkarrizketa-jardunaldi bat egitea planteatu zen, ezagutza kolektiboa eraikitze eta Euskadin bakea eraikitze bideratutako proposamenak sortzeko. Horretarako,

elkarrizketa-tresna bat erabili zen, pertsona-talde handiekin ezartzekoa: *Open Space Technology*. Talde handiekin egiten diren elkarrizketa metodoak helburu asko lortzen ahalegintzeko tresnak dira. Helburu horietako bi dira erakunde- eta/edo komunitate-garapena eta arazoak zein gatazkak konpontzea. Metodo hauek interdependentzia nabarmentzen dute, aldaketa era kolektiboan eraikitzeko funtsezko balioa den aldetik, pertsonak elkarlanean inplikatur helburu komun bat lortzeko, kasu honetan, Euskal Herrian bakea sendotzeko. Tresna hauei esker «komunikazioa irekia da, zintzoki hitz egiten da eta benetan entzuten da. Jendeak bere ikaskuntzaren eta bere ideien ardura har dezake. Gune seguru bat sortzen dute jendeak beren baiez-tapenak azaleratzeko, beren usteak zein ikuspuntuak zalantzan jartzeko eta beren pentsamendu-bideak aldatzeko. Norberak lehen pentsatzen zuenetik harago dauden ideia edo irtenbide berriak sortzen ditu. Pertsonak eta arazoak ulertzeko beste maila bat sortzen dute. Testuinguruaren araberakoagoak eta holistikoagoak diren ikuspegiak sor daitezke.» (Boyer et al. Pioneers of Change, 2006: 6). Metodo hauei esker aldaketak era azkarrean sor daitezke, baita hainbat eragileren eta estamenturen arteko komunikazio-kanalak ireki, kolektibo bateko kideek aldaketak bere egiteko bidea eman eta ideia berri eta sortzaileak bultzatzea da. Tresna hauek aplikatzeko xedea da sormena azaltzeko giroa sortzea, ikaskuntza berriak eraikitzeari eta ikuspegi guztiak bat datozen elementuak bilatzeari begira. Nahitaezkoa da interes zein behar desberdinak gogobeteko dituzten eta guztien onerako alternatibak aztertzea. Euskal testuinguruan metodo hauek erabiltzean izandako esperientzien bidez, egiaztatuta dago potentziala, eta gehiago ezarriko dira.

Horrela, *Jakintza Elkarrizketaren* bigarren jardunaldian, metodologia hau ezarri zen eta parte-hartzaileen elkarrizketa-gaiak hauek izan ziren: bake-kontzeptua eta bakea gaur egun; familiar, eskolan, Unibertsitatean eta gizartearen pluraltasuna baliosten eta errespetuarekin eta beldurrik gabe eztabaidatzen hezteak; egiari, kontakizunari eta memoriari buruzko adostasuna artikulatzea; eta giza eskubideen eta justiziaren kultura eraikitzeko aurrerapausoak. Jardunaldi honetan, berebat, gai hauei buruz hitz egin zen: gizarteak bakea zein bizikidetzat sendotzeko duen papera; erakunde bakezaleen ahalduntzea; ikuspegiak eta bizipenak partekatzeko elkarrizketarako eta entzuteko gune berritzaileak eta sortzaileak sortzea; eta enpatia indartzea eta aurreiritziak gainditzea. Era berean, bakea eraikitzeko prozesu honetan emakumeek izan beharko luketen parte-hartze nagusiari buruz eta belaunaldien arteko topaketa-guneak sortzeak duen garrantziari buruz hitz egin zen.

2015eko abenduaren 12ko larunbat hartako arratsaldean, parte-hartzaileek Euskadin bakea eraikitzearen aldeko ekimen eta ekintza zehatzak proposatu zituzten, horien artean daude hauek: herritarren bakerako ekimenak eta proposamenak ikusgai bihurtzea; akademikoak eta erakunde sozialak biltzeko tresnak



sortzea; erakunde sozial bakezaleen esperientziak unibertsitateetako ikasgeletara eramatea; eta justizia konponarazlearen praktikak dinamizatzeko gune bat eraikitzea edo erraztaileak elkartzeko guneak sustatzea.

## 1. KAPITULUA. INDARKERIAREN ETA TERRORISMOAREN BIKTIMAK. KONPONKETARAKO ESPERIENTZIAK

### JUSTIZIA KONPONARAZLEA, EUSKADIN BAKEA LORTZEKO: PROPOSAMENA, GURE IKERKETA UNIBERTSITARIOAREN BALANTZE KRITIKOTIK ABIATUTA

**Gema Varona Martínez**

Doktore ikertzaile iraunkorra Kriminologiaren Euskal Institutuan (UPV/EHU)

*“Munduko (...) bi eredu nagusiak, biak egia nor bere eremuan, bateraezinak dira oinarri-oinarrian. Aurrerako bidea finkatzen dutenen gisako paradoxa bat da.” (Sampedro 2015, 12)*

#### 1. Sarrera, eszeptizismotik abiatuta

Hala gizartea nola politika asaldatuta dauden mundu honetan, berdintasunaren, klima-aldaketaren, gatazka armatuen, terrorismo jihadistaren eta mugimendu migratzaile behartuen erronken aurrean, euskal herritarren eta bertako erakundeen zati batek jakin nahi du nola lortu bidezko bakea, azken urteotan eta bereziki ETA erakundeak 2011ko urrian su-etena iragarri ondoren. Beste arrazoi batzuen artean, euskal kasua ezohikoa da fenomeno terroristak lau hamarkada baino gehiago iraun duelako, Europako testuingurua demokratikoa zenean (López Romo 2014). Jardun terroristen bukaeraz harago, iraupen horren ondorio nabariena eta iraunkorrena zuzeneko eta zeharkako biktima-kopuru handia izan da, erailketen, lesioen, mehatxuen, bortxen eta kalte materialen eraginez, bai gauzatu zirenak bai saiakera izan zirenak kontuan hartuta. Horrez gain, kaltea soziala eta politikoa ere izan da, horixe baita terrorismoaren helburua, gizartearen zati handi bat izutuz eta proiektu totalitarioa inposatuz; proiektu horretan, bitartekoen indarkeriak kutsatu egiten ditu xedeak, azkenean.

Testu honetan aztertzen da zer neurritan erabil daitezkeen justizia konponarazlearen printzipioak euskal kasuan, hartan justizia eskatzen baita terrorismoan —ETArena eta biktimari herritar-izaera ukatzen zioten beste talde terrorista batzuen—, baina baita Estatuaren gehiegikerien kasuetan ere, batik bat, tortura-kasuetan. Nolanahi ere, gaizki-ulerturik eta manipulazio ideologikorik ez gertatzeko, komeni da giza eskubideen urraketak testuinguruan kokatzea eta banan-banan lantzea.

Xede horrekin, geure buruari galdetuko diogu zergatik erabili jus-

tizia konponarazlea eta zergatik ez besteren bat, baita protagonistak nor diren ere. Nahiz eta ekarpen teorikoa den eta justizia konponarazleari buruzko zenbait teoria labur-labur azaldu nahi diren, zenbait ideia adibidez adieraziko dira eta gure testuinguruko esperientzia praktikoekin alderatuko dira. Amaitzeko, laburbilduma egingo dugu proposamen gisa, alderdi kulturalen garrantzia birpentsatzeko. Proposamen hori IVAC-KREIn azken urteotan biktimologiaren ikuspegitik eginiko ikerlanen emaitzen ondorio da (Varona 2015). Biktimologia oso gizarte-zientzia gaztea da, kriminologiaren barruan dago, eta modu enpirikoan eta diziplinartekoan aztertzen ditu biktimizazio- eta osatze-prozesuak, baita gizarteak horien aurrean duen erreakzioa ere.

Euskal kasuan, zailtasun asko daude justizia konponarazlea erabiltzeko. Ez da nahikoa hura aipatzea, izan panazea gisa izan akats gisa, ezta mito jakin batzuk aipatzea ere. Edonola ere, Euskadiko terrorismoa dela-eta erabilitako ikerketa kriminologikoaren ikuspegitik, justizia konponarazlea aipatzea eta hari aurka egitea bera interesatzen zaizkigu; egiatan, polarizazioa islatzen dutenez, ustez bateraezinak diren balioak azaleratzen dituzte, eta honelako galderak sortzen dira:

- Konponaraztearen muga behar bezain handia izango al da erreparazioaren, birgizarteratzearen eta berrespen normatiboaren kontzeptuak praktikan txertatzeko, aldi berean eta elkarrizketarako irekita?
- Zer lotura daude demokraziaren eta justizia-sistema penalarren artean, norbanakoen eskubideez harago?

## 2. Hurbilketa justizia konponarazlearen konplexutasunera eta hura Euskadin erabiltzera

Justizia konponarazleak oinarri enpirikoa du, eta badu zerikusia hala filosofiarekin nola psikologia sozialarekin, baita teoria normatibo kriminologikoekin ere; horren barruan, nabarmentzekoa da Braithwaiten zentsura konponarazlea (1989). Zenbait balio eta printzipio biltzen ditu, eta delituaren ikusmolde klasikoarekin alderatuta —bereziki, haren erantzunarekin alderatuta—, begirada desberdina dakarte. Aurrekariak aspaldikoak dira, eta XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan sortu zen anglosaxoien artean, garai hartan birgizarteratzeari buruz zegoen eszeptizismoaren barruan, zigorren eta espetxeen kudeaketa hutsaren aukera gisa. Esan daiteke pertsona askoren frustrazioak sortu zuela justizia konponarazlea:

- justizia penaleko profesionalen frustrazioak, haien egunerokoak ez omen du eta zerikusirik justiziaren idealarekin, baina bai, ordea, kaltetuen benetako beharrei arreta ematen ez dieten mekanismo burokratikoekin;
- akusatuen eta haien eskubideak defendatzen dituzten aktibisten frustrazioak, estigmatizazioa eta desberdintasunak sendotzea dakartzalako;



- biktimen frustrazioak, justizia-sistema nagusiak ustezko erruduna duelako ardatz. Gainera, kontuan hartu behar da askotan erruduna ez dutela atxilotu (edo akusatu, edo zigortu), eta atxilo badago ere, gerta daiteke delitua edo zigorra preskribatu izana, eta beraz, baliteke justiziak erantzun egokirik ez ematea biktimei.
- gizartearen frustrazioak, oro har, gizarteak zalantzan jartzen baitu zuzenbide penala prebentzio-mekanismo aproposa ote den.

Justizia konponarazlearen desberdintasun erradikala da ardatza biktimizazioaren erreparazioa dela, ahal den heinean<sup>1</sup>. Kontua ez da justizia egitea soilik, baizik eta bidegabekeria desegitea, testuinguruan kokatuta, pertsonalizatuta eta arrazoiak nahiz emozioak aintzat hartuta. Biktimizaziora hurbiltzea dakar, eta hurbiltze hori erlazionala da, normatiboa baino gehiago (Pemberton 2015); hartan, mezua da pertsona aldatu egin daitekeela: biktima osa daiteke, nahiz eta zauri sakonak eta iraunkorrak izango dituen; eta biktimagilea gai izan daiteke gizatasuna itzuliko dioten keinuak egiteko —egindako kaltea bere gain hartzeko borondatezik abiatuta—, nahiz eta eragin duen kalteak konponbiderik ez duen. Gizartearen babesa behar da horretarako. Dinamika horrek aktore guztien ahalduntzea ekar dezake, beren erabakien gaineko kontrol handiagoa dutelako, eta beraz, baita beren bizitzen gainean ere.

Justizia konponarazleko erreparazioan, arlo materiala edo ekonomikoa baino harago joaten da, ekintza sinboliko eta sozialera jotzen baita, eta hori elkarrizketen eta borondatezko topaketen bidez gauzatzen da. Ez da emaitza bat, baizik eta, nagusiki, biktimen bidezko beharrak eta interesak arretaz entzuteko prozesu luze bat, asko prestatu behar dena; hartan, biktimagileen beharrak eta interesak ere entzun behar dira, baita haien inguruko gizartearen ere, debeku penalen erantzunaren alde tradizionalak eta birgizarteratzearenak bateratzeko, gizartean biktima osatzeko prozesu konplexuaren barruan. Horrenbestez, elkar topatzeko edo elkarrizketarako partaidetza-prozesu inklusiboa da, erreparazioa lortzeko.

Aurreko paragrafitik abiatuta, ondorioztatzen da justizia konponarazleak dakarren zailtasun handiena dela ustez justizia penal klasikoaren balioen aurkakoa izatea; berez, justizia penalean apenas dago borondatez parte hartzeko espazioa, entzuteko, elkarrizketarako edo erreparazio sinbolikorako espazioa. Horretarako espazioa balego ere, zenbaitetan ez dirudi kaltetuek, biktimek, biktimagileek eta gizarteak erreparaziorako topaketarik egin nahi dutenik, adierazi den zentzuan behintzat. Are

---

<sup>1</sup> Ikusi Olalde (2015) eta Igartua (2015). Orobat, ikusi Tonry (2013). Bi justizia-moten osagarritzko zentzuan, alderatu Dancig-Rosenberg eta Galen lanarekin (2013).

gehiago, horrelakorik gertatuko balitz, pentsatu beharko litzateke nola lotu justizia konponarazlea eta justizia penal klasikoa. Amaitzeko, munduan gero eta gehiago erabiltzen da justizia konponarazlea, batzuetan zentzu sinbolikoan eta beste batzuetan ez hainbeste, baina goranzko erabilera hori ezin da azaldu gizatasun-printzipioarekin soilik. Egile batzuek uste dute erabilera gorantz doala moralizazio berria eta espiritualismoa bilatzen diren testuinguruan gaudelako; jatorria kristautasuna eta komunitate indigenak izan daitezke, baita presio ekonomikoak ere bai, non ahalduntzearen erretorikaren atzean justizia neoliberalaren jarrerak baitaude (Green 2015). Hala ere, kritikoak direnek ere justizia konponarazlearen ahalmena aitortzen dute, hasierako interesak eta benetako ondorioak alde batera utzita.

### 3. Mikro, meso eta makro eskaletan, nor dira justizia konponarazlearen protagonistak, haien jardunen arabera?

Hala, justizia konponarazlean biktimizazio baten ondoriozko aldean protagonismoa —erreparazioaren zentzuan, beti ere— handiago bada, bereizi egin behar da justizia konponarazleak nola diharduen zenbait eskalatan: norbanakoen eskalan, taldeen eskalan, eta gizartearen eta egituraren eskalan. Eskala horiekin lan egin ahal izateko, *jardun konponarazleak* deritzon nozioa erabiliko dugu. Hartan, programa konponarazle oro sartzen da, berdin du erakundeek bultzatzen duten ala ez, berdin du legezkoa ala legez kanpoko den; dena den, justizia konponarazleari buruzko nazioarteko corpusa osatzen duten printzipioak bete behar ditu, hein batean behintzat<sup>2</sup>.

#### 3.1. Mikrojardun konponarazleak

Norbanakoen eskalan, euskal kasuko jardun konponarazlerik ezagunena topaketa konponarazleak izan dira<sup>3</sup>. Topaketa horiek 2011n hasi ziren, Langraiz bideko zenbait presok eskatuta, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren biktimei laguntzeko Zuzendaritzaren laguntzaz. Hamar topaketa baino gehiago egin dira; hala ere, gobernu zentrala aldatu zenean, 2012ko amaieran, hutsaldu eta geldiarazi egin ziren praktikan. Haatik, biktima batzuek topaketak eskatu izan dituzte, eta hasita zeuden batzuekin ere aurrera jarraitu da, modu informalean.

Funtsean, topaketen protagonistak biktimek —erailketen eta bahiketen biktima zuzenak eta zeharkakoak— eta biktimagi-leek izan behar zuten, gizartearen laguntza egokiarekin, baita topaketak bideratzeko profesionalekin ere. Eta horrelaxe an-

---

<sup>2</sup> Nazio Batuen alorrean, ikusi *Los principios básicos sobre la utilización de los programas de la justicia restaurativa en asuntos penales (2002) eta Manual de programas de justicia restaurativa (2006)*.

<sup>3</sup> Ez dago kanpo-ebaluazio zientifikorik, baina barne-ebaluazioa Pascualen lanean jasota dago (2014).

tolatu ziren, hein handian. Beste arazo batzuen artean, justizia konponarazlearen balioei eta inpaktuari buruzko ezagutzarik eza aurkitu zuten aurrean, nahiz eta badauden barne-ikerke-ta enpiriko eta ikerketa konparatu ugari, bereziki delitu larriei buruzkoak (Varona eta Soletto 2014). Ezagutza falta hori, edo bestela esanda, erakunde akademikoen, politikoen eta sozialen arteko lankidetzarik eza hori, giro jakin batean kokatu behar da, alegia, indarkeria dela-eta Euskadin pixkanaka sortu den minberatasunez eta mesfidantzaz beteriko giroan.

Biktima batzuek, bereziki elkarteetan aktibista gisa jarduten dutenek, topaketa konponarazleak kritikatu zituzten, inpunitateari bide ematen ziotela argudiatuta, benetakoa ez zen damua erakutsiko zutelakoan biktimaren eta biktimagileen topaketaren bitartez. Horretarako, adierazi zuten ez zuela funtsik damutu izanak eta justiziarekin ez kolaboratzeak. Zenbait alderdi politikok onartu egin zituzten haien aldarrikapenak.

Zigortutako pertsona gehienek, baita haien babesten dituzten ezker abertzalekoek ere, traidoretzat estigmatizatu zituzten biktimagile damutuak, eta umiliagarritzat eta helmen txikikotzat jo zituzten topaketa konponarazleak, anbizio handiagokoa omen den justizia trantsizionalarekin alderatuta.

Bestalde, zenbait talde bakezalek eta beste eragile sozial askok, baita komunikabide gehienek ere, interes handia erakutsi zuten topaketen eta parte-hartzaileen bizipenen gainean; hala ere, justizia konponarazlearen jatorriari, esanahiari eta inpaktuari buruzko ezer gutxi zekiten, bereziki oso delitu larrietan.

Inpunitate-maila eta denboraren igarotzea direla-eta zaila izango den arren, litekeena da etorkizunean ere topaketa konponarazleak egitea ETA ez diren beste talde terrorista batzuen zuzeneko eta zeharkako biktimekin, biktimizazio terroristaren beste forma batzuen (lesioak, mehatxuak eta bortxak) biktimekin, eta torturaren biktimekin ere bai, dagokion testuinguruan. Topaketa horiek egin ahal izateko, agentzia sustatzaile eta koordinatzaile bat behar da; ez du zertan agentzia ofizial bat edo erakunde bat izan, topaketa gehienak jada aske dauden zigortutako pertsonekin edo erantzuleekin egin baitaitezke.

Edonola ere, nazioarteko printzipioei jarraikiz eta biktimekiko begirunez, uste dugu biktimei adierazi egin behar zaiela zer espetxe-onura lor ditzaketen parte hartzen duten biktimagileek. Horri buruz esan ohi da ezin dela benetako damua ziurtatu espetxe-onurak jokoan badaude, baina, eskuarki, horrela izan da justizia konponarazlean. Bideratzaileek, hau da, biktimaren, biktimagileen eta gizartearen artean topaketa eta erreparaziorako komunikazioa bideratzen dituzten pertsonak, ziurtatu egin behar dute topaketa horrek ez dakarrela berriz biktimizatzea, biktimagileak oinarrizko egitateen berri duela, eta erreparazioa eskaini nahi duela. Alabaina, damua eta barkamena —ekintza

hauek jasota daude Espainiako legeetan, terrorismoaren eta delinkuentzia antolatuaaren arloan, baina modu erabat frustragarrian— ezin zaizkio guztiz ziurtatu biktimari, barne-prozesuak baitira, denboran zehar adarkatu egiten direnak<sup>4</sup>.

### 3.2. Mesojardun konponarazleak

Euskal kasuan, 2010eko hamarkadatik aurrera, hein batean konponarazleak diren jardunak egin dira taldetan, eta horietan, ETA ez diren beste talde terrorista batzuen biktimak egon dira, baita beste indarkeria batzuen biktimak ere. Glen Cree eta Eraikiz proiektuak dira ezagunenak, eta IVAC-KREIn antolatutako eztabaida-taldeak ere bai. Horietan, gainera, herritar-multzo jakin batekin egin nahi izan da lan: indarkeria helburu politikoekin erabiltzea zilegi ote den eztabaidatu behar duten ikasle gazteak, biktimen lekukotzatik eta haren ekarpen sozialetik abiatuta.

Alabaina, meso eskalako adibide horiek hein batean soilik dira konponarazleak, ez baitute biktimagileek parte hartzen, zuzenean edo zeharka, biktimizazioaren ondorioak erreparatzeko.

Biktima eta alderdi politiko batzuek jardun horiek ere kritikatu dituzte, zenbait taldetako biktimak nahasteagatik eta gatazka-ren narratiba jakin bat eta indarkerien konpentsazioa justifikatzeko arriskua hartzeagatik. Beste batzuek uste dute helburu alderdikoekin erabili direla eta biktimen egiazko protagonismoa diluitu dela, beste pertsona batzuek antolatu dituztelako eta dinamikan interesa duen edozein pertsonak parte hartzeko gonbidapen irekia ez dagoelako; ondorioz, horren arabera, gizarteari transmitituko litzaiokeen mezua ez letorke bat biktima gehien gogo-aldartearekin eta iritziarekin.

### 3.3. Makrojardun konponarazleak

Nahiz eta paradoxikoa ematen duen, jardun hauek justizia konponarazleko konplexuenak eta errazenak dira aldi berean: konplexuenak dira aktore askok hartzen dutelako parte, eta haietako bakoitzak bere boterea eta eragina du; errazenak ere badira, ordea, justizia konponarazlearen politika goitik behera doalako nolabait, erakundeek bultzatuta (hori ez da komeni mikrojardunetan eta mesojardunetan, parte-hartzaileak ahalduntzeko egiazko protagonismoa arriskuan jar dezake eta).

Atal honetan, nahiz eta konponarazleak izan diren hein batean soilik, zenbait udalerritan sustatutako elkarrizketak aipatu behar dira (Errenteriakoa nabarmena izan da), non alderdi politiko guztiek parte hartu baitute. Bestalde, eskala orokorrago batera jota, aipatu behar da erakundeetako zenbait ordezkari barka-

---

<sup>4</sup> Ikusi Gómez Ríos (2015). Terrorista ohiak diren pertsonak eragile moralizateko baldintzei buruz —azalpen mediatikoen formatua barne—, erkatu McEvoyren eta Shirlowren lanarekin (2009).

mena eskatu dutela bigarren mailako biktimizazioa dela eta. Horien artean, Iñigo Urkullu lehendakariarena azpimarratu behar da; zehazki, 2015eko ekainean izan zen, biktimekin eginiko ekitaldi batean.

Lehen mailako biktimizazioaren harira, oraindik ere zain gaudela ezker abertzaleak gaitzespen argia adierazteko, ETA dela eta. Beste talde terrorista batzuei begiratuta, erakundeek ere barkamena eskatu behar lukete, biktimekiko erantzukizuna onartzeko, erantzukizun pertsonala eta politikoa baino askoz harago. Ildo horretatik, etorkizunean aproposa izango litzateke PSOEk barkamena eskatzea gobernuan eginiko kudeaketagatik, GAL jardunean ari zenean. Gobernu zentralak ere berriz hausnartu beharko luke pertsona batzuei biktima-izaera aitortzeari buruz, baita indultuen politikari buruz ere, benetako birgizarteratzerik ez dago eta.

Torturen kasuan, beharbada, konplikatua da, baina zalantzarik gabe, egokia izango litzateke adieraztea polizia-indar eta gobernu guztiek —udalerrietakoak, autonomikoak eta estatukoak— torturaren aurkako konpromisoa dutela, iraganari, orainari eta geroari begira (tortura ez baita soilik gertatu ETaren terrorismoarekin lotutako kasuetan); adibidez, torturaren aurkako nazioarteko egunean adieraz liteke konpromiso hori.

Amaitzeko, hainbatek eskatu dute egiaren batzorde bat eratzeko aukera (de la Cuesta 2013), batik bat argitu ez diren eta jada preskribatu diren kasuetarako; izan ere, biktima ugari utzi dituzte justiziarik gabe, eta horrelako batzorde batekin nolabaiteko justizia lor liteke haientzat, egia eta erreparazio gisa behintzat<sup>5</sup>. Balizko batzorde horretan, biktimagileek parte hartzeko modu konponarazleak finkatu beharko lirateke<sup>6</sup>.

#### 4. Laburbilduma: agentzia egonkor koordinatzaile baten beharra, eta ikerketa unibertsitarioak justizia konponarazlearen kulturari ekarpena egiteko beharra

Ikerketa enpiriko ugariak ikusita, justizia konponarazlearen jardunen balantza nahiko ona izan da zenbait arlotan, batik bat biktimenentzat (Walters 2015). Orobat, justizia konponarazleak ez dakar inpunitatea, justizia konplexuagoa eta borondatezkoagoa baizik. Hala izanik, beraz, zergatik ez eman pauso zehatzak jus-

---

<sup>5</sup> Kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren Balorazio Batzordearen lana; poliziaren gehiegikeriaren biktimak aitortzean dihardu, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuari jarraituz.

<sup>6</sup> Kolonbiako egoerarekin alderatu daiteke. Han, FARC gerrillak justizia konponarazlea erabili du; aitzitik, talde politiko, biktimen talde eta giza eskubideen aktibista batzuek inpunitatetzat jotzen dute.

tizia konponarazlearen bidean? Azalpena ez da konplexutasuna, ezta baliabide falta ere, inbertsio handia egin baita bakearen eta bizikidetzaren arloan. Era berean, ezin da esan prestakuntzarik gabeko profesionalak ditugunik, pertsona asko baitaude justizia konponarazlean espezializatuta.

Esan bezala, erakunde egonkor bat behar da, jardunak koordinaatzeko eta ebaluatzeko gai izango dena. Halaber, gauza izan behar luke jardun konponarazleen eskaerei aske erantzuteko denboran eta belaunaldietan zehar, biktimen eta biktimagileen topaketak, talde zabalagoen dinamikak eta memorializazioa antolatuz.

Unibertsitateak lagundu egin behar du justizia konponarazlea aztertzen eta gizartean zabaltzen. Hori da bide bakarra kulturak babes ditzan haren oinarrian dauden balioak: partaidetza, borondatea, inklusioa, elkarrizketa, erreparazioa... Inor ez da demokratiko jaiotzen, eta inor ez da justizia konponarazlearen balioekin jaiotzen. Hala ere, herritarren justizia-eskaera berriak aintzat hartuta, justizia-mota horrek aproposa dirudi, baina badaude gaingaitu beharreko zailtasunak eta inertziak. Hartara, kultura biktimologiko gehiago behar dugu biktimen politika baino, nahiz eta hura beharrezkoa den justizia konponarazlearekin kritikoa izango den kultura babesteko (eta ez kultura hori bideratzeko); kultura horrek, bestalde, justizia konponarazlea lortzeko berdintasuna ziurtatu beharko luke, biktimizazio- eta osatze-prozesuen tartea errespetatuta. Humanitateen foroak desagertzen eta gizarte-zientziak gutxiesten diren —bigarren mailakoak omen— mundu honetan, erronka bera dugu oraindik, alegia, gure gizarteak eraikitzen dituzten balioez interesatzen diren pertsonak hezteko erronka, sarritan balio horiek teknizismoen artean ezkatuta geratzen dira eta. Besteak beste, balio horietako bat biktimizazioarekiko elkartasuna da, prozesu gisa, eta ez kategoria baztertzaile, antagoniko edo hierarkizatzaile gisa.

Sarrerako Sampedroren aipamena gogora ekarrita —fisikaren munduaz mintzatzen da bera—, balioen eta jardunen funtsik ezak eta bateraezintasunek modu konstruktiboan hausnartzeko aukera ematen digute, eta hausnar horren zerumugan desberdinen arteko elkarrizketa erraztuko duen jakintza-elkarrizketa begiztatu daiteke, abiapuntua bidegabekeria argi eta garbi aitortzea izanik. Banantzen gaituen distantziak traumatikoki elkartzen gaitu aldi berean. Distantzia hori nola birpentsatu izango da gakoa indarkeria zokoratzeko hitzen eta isiltasunaren mesedetan, eta apika, konponarazleak izango dira hitzak eta isiltasuna. Egiaz, aldarrika dezagun isiltasuna, zenbaitetan eta hasieran behintzat isiltasun interpelatazailea eta konprometigarria geratzen baitzaigu hain larriak diren biktimizazioen aurrean, baita gure Unibertsitatean ere. Hori guztia lortu behar dugu norberaren bi- zipenek emandako objektibotasunaren metodo zientifikoa urratu gabe, behatzaile gisa behintzat, eta ez gorantz doan bakearen industriako enpresaburu moral gisa (Walklate 2015). Horixe da

demokrazia komunikatiborako baldintzak lortzeko bide bakarra, deliberazioko demokrazia baino harago. Demokrazia komunikatibo horrek, halaber, erraztu egin behar du askotariko iritziak ere onartzeka eta ulertzea (Young 2001; Paltamolla 2015), boterearen eta indarkeriaren asimetriak murrizteko.

## BIBLIOGRAFIA

Braithwaite, John. 1989. *Crime, Shame, and Reintegration*. Cambridge: Cambridge University Press.

De la Cuesta Arzamendi, José Luis, zuz. 2013. *Terrorismo e impunidad*. Madril: Dilex.

Dancig-Rosenberg, Hadar eta Tali Gal. 2013. Restorative Criminal Justice, *Cardozo Law Revue* 2313.

Gómez Ríos Silvia. 2015. Ni con tres vidas que vivieras cumplirías tu condena, *El Mundo*, 15-05-18.

Green, Simon. 2015. *New-age, neo-liberal and moralising: Locating restorative justice within contemporary social and political thought*. Komunikazio hau Eurocrim 2015en aurkeztu zen, Kriminologiaren Europako Elkartearen 15. Biltzarrean, Porton, irailaren 2tik 5era bitartean.

Igartua, Idoia. 2015. *Justicia penal restaurativa y justicia penal negociada, retórica y práctica. Estudio empírico del programa de mediación intrajudicial penal en Bizkaia*. Doktore-tesia. Leioa: UPV/EHU.

López Romo, Raúl. 2014. *Informe Foronda. Los contextos históricos del terrorismo en el País Vasco y la consideración social de sus víctimas 1968-2010*. Vitoria-Gasteiz: Valentín de Foronda Institutua.

McEvoy, Kieran eta Peter Shirlow. 2009. Re-imagining DDR. Ex-combatants, Leadership and moral agency in conflict transformation, *Theoretical Criminology* 13, 1: 31-59.

Olalde, Alberto. 2015. *Estudio multidimensional de algunas prácticas de justicia restaurativa en el País Vasco con lentes de trabajo social*. Doktore-tesia. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea.

Pallamolla, Raffaella. 2015. *Restorative justice and the decision-making process: Beyond deliberative democracy?* Komunikazio hau Eurocrim 2015en aurkeztu zen, Kriminologiaren Europako Elkartearen 15. Biltzarrean, Porton, irailaren 2tik 5era bitartean.

Pascual, Esther, koord. 2014. *La mirada del otro*. Santander: Sal Terrae.



Pemberton, Antony. 2015. *The ethics of Victimology, the morality of criminal justice*. Komunikazio hau Eurocrim 2015en aurkeztu zen, Kriminologiaren Europako Elkartearen 15. Biltzarrean, Porton, irailaren 2tik 5era bitartean.

Tonry, Michael. 2013. *Anormative conceptions of punishment and humanitarian ideals* Minnesota Legal Studies Research Paper No. 13-50. Hemen: <http://ssrn.com/abstract=2329844> (2015-12-03an kontsultatu da).

Sampedro, Javier. 2015. Cien años de una ventana al cosmos, El País, 2015-11-29, 12. or.

Varona Martínez, Gema eta Helena Soletto Muñoz. 2014. *Restorative Justice in Terrorist Victimisations: Comparative Implications: Introduction* (Justizia konponarazlea biktimizazio terroristetan: konparaziozko inplikazioak: sarrera), Oñati Socio-Legal Series 4, 3. Hemen: [http://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract\\_id=2462903](http://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract_id=2462903) (2015-06-02an kontsultatu da).

Varona, Gema. 2015. *Guía general de buenas prácticas en el trato con víctimas del terrorismo que evite la victimización secundaria*. Eusko Jaurlaritz: Vitoria-Gasteiz.

Young, Iris Marion. 2001. *Inclusion and democracy*. New York: Oxford.

Walklate, Sandra. 2015. Jock Young, left realism and critical Victimology, *Critical Criminology* 23: 179-190.

Walters, Marc Austin. 2015. 'I thought "he's a monster" ... (but) he was just ... normal'. Examining the therapeutic benefits of restorative justice for homicide, *British Journal of Criminology* 55, 6: 1.207-1.225.

## EGIA TORTURAREN AURKAKO ERREPARAZIO-TRESNA GISA

**Laura Pego**  
**IVAC-KREIko ikerlaria**

### 1. Egia: torturaren biktimen eta gizartearen eskubidea

Indarkeriazko gatazkak konpontzeko prozesu batzuetan, bereziki Latinoamerikan, giza-eskubideak urratzen dituzten pertsonen zigorgabetasuna ahalbidetzen duten mekanismoak erabiltzeko joera geroz eta nabarmenagoa zela eta, kezka azaldu zuen 1991n Diskriminazioak Prebenitzeko eta Gutxiengoak Babesteko Nazio Batuen Azpibatzordeak. Esperientzian oinarrituta, zigorgabetasunak indarkeriaren errepikapen kronikoa dakarrela gogoan izanik, gai honi buruzko ikerlan bat egiteko ardura eman zion Azpibatzordeak Luis Joinet ikertzaileari.



1996an, Zigorgabetasunaren aurkako borrokan giza-eskubideak babesteko eta sustatzeko printzipioak<sup>7</sup> izeneko txostena aurkeztu zuen, eta honela definitu zuen zigorgabetasuna: «Giza-eskubideak urratzen dituzten pertsonen beren erantzukizun penala ez egotea, de iure nahiz de facto, ez eta erantzukizun zibil, administratibo eta diziplinazkoak ere. Hala, ihes egiten diete beren egozpena, atxiloteta, epailetza eta, errudun direla frogatzekotan, zehapen egokien bidezko zigorra ahalbidetzeko xedea duten ikerketei, eta ezin dira ordaindu beren biktimak jasari dituzten kalteak.»

Giza eskubideekiko begirunea sustatzeko eta jomuga gisa bakea duten gizarteetan zigorgabetasuna ekiditeko esparru orokor eta estrategiko gisa proposatzen ditu dokumentu horrek egiaren, justiziaren eta ordainaren printzipioak. Giza eskubideen inguruko estandar bilakatzera iritsi dira nazioarteko printzipio juridiko hauek, eta gatazkak konpontzeko izan beharreko jokabideari buruzko gidalerro objektiboak ematen dizkiete Estatuari<sup>8</sup>.

Egia jakiteko eskubideari dagokionez, eskubide autonomo deritzen Joinetek, justizia-sistemak biktimen eta beren senideen esku jar ditzakeen ekintza ezberdinak gauzatzearen menpe ez dagoena. Ezinbesteko eskubidea da eta, hortaz, ezin da kendu ez murriztu<sup>9</sup>.

Honako hauek hartzen ditu barne bere edukiak: izandako jazoerak erabat eta osorik ezagutzea, haietan parte hartu duten pertsona guztiak identifikatuz, eta giza-eskubideak urratzeko izan diren arrazoiak eta zein baldintzatan urratu ziren jakitea.

Banakako eta taldeko aspektuak ditu egiak. Kaltea jasan duten zuzeneko biktimei, beren senide eta ahaideei eta gizarte osoari aintzatesten zaie eskubide hori<sup>10</sup>. Jazoerak etorkizunean ez errepikatzea, hau da, indarkeriara ez itzultzea bermatzea du xede nagusizat egia jakiteko eskubidearen talde-dimentsio honek.

Printzipio hau betetzeko, ikerketak sustatu behar ditu Estatuak. Beren independentzia eta inpartzialtasuna bermatzen duten eta nahitaez judizialak ez diren erakundeak arduratuko dira ikerketa horiek gauzatzeaz.

---

<sup>7</sup> E/CN.4/2. Azp./1997/20/1. berr., II. eranskina. Jatorrizko bertsioa frantsez eta ingelesez dago. Nizkor taldeak egin du kontsultatutako gaztelarazko itzulpena.

<sup>8</sup> BONET PÉREZ, J., ALIJA FERNÁNDEZ, R. A., *Impunidad, Derechos Humanos y Justicia transicional*, aip., 109. or.

<sup>9</sup> ACNUDH; Egiari buruzko ikerketa. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren txostena. E/CN.4/2006/91, 2006ko urtarrilaren 9koa. Paragrafo bera. 4

<sup>10</sup> INTERNATIONAL HUMAN RIGHTS LAW INSTITUTE, "The Chicago Principles on Post-Conflict Justice". United States of America, 2007,

Halabeharrez, eskubideak urratzeko izandako arrazoiak eta urratze horien baldintzak ezagutu behar dira egia ezagutzeko<sup>11</sup>. Horrela, egia osoa ezagutuz, gertatutakoaren «memoria» mantendu ahal izango da, eta historiaren itxuragabetzeak ekidingo dira, hala nola errebisionismoa eta negazionismoa. Helburu honekin, biktimen testigantzak jasotzeko ekimenak bultzatuko dira, eta bai iraganeko urratzeei buruz dugun informazioa gordetzeko xedea duten artxiboak sortzekoak ere.

## 2. Egia taldeko eskubide gisa: tortura Euskadin

Giza eskubideen urratze larria izateaz gain, sistema demokratikoaren oinarriak berak ahultzen dituen jarduera da tortura. 1984ko abenduaren 10eko Torturaren eta bestelako tratu krudel, anker edo umiliagarrien aurkako Konbentzioak<sup>12</sup> zera dio torturari buruz:

«1. Konbentzio honen ondorioetarako, «tortura» hau izango da: pertsona bati nahita min edo sufrimendu –fisiko edo mental– larria eragiteko ekintza oro, harengandik edo hirugarren-go batengandik informazioa edo aitortpena lortzeko egina, bai eta egin duen ekintzagatik edo egin duelako susmoa dagoen ekintzagatik zigortzeko, pertsona hori edo beste batzuk beldurtzeko edo hertsatzeko, edo diskriminazio mota orotan oinarritutako edozein arrazoiengatik egina ere, min edo sufrimendu horiek funtzionario publiko batek eginez gero, edo funtzio publikoak betetzen dituen beste norbaitek, hark bultzatuta edo haren adostasun edo baimenarekin. Ez dira torturatzat hartuko legezko zigorren ondoriozkoak edo haiek atxikitakoak edo intzidentalak diren minak edo sufrimenduak.

2. Artikulu honek ez du baztertuko irismen handiagoko xedapenak jasotzen dituen edo jaso ditzakeen nazioarteko edozein tresna edo lege nazional.»

Izaera unibertsala duen arazo baten aurrean gaude. Herrialde gehienetan gertatzen da, baita finkatuta dauden demokrazietan ere. Segurtasun-indar eta -erakunde guztiek jaso dituzte torturaren eta tratu txarren ziozko salaketak, eta askatasuna kentzean gertatzen dira: atxilotzean eta espetxeratzean<sup>13</sup>.

---

<sup>11</sup> CDIH, Urteko txostena, 1985-1986, OEA/Ser. L/V/II.68, Dok. 8. berr. 1, 1986ko irailaren 26a. V. kapitulua, ( 12. eta 13. paragrafoak, neure oharpena). Hemen kontsulta daiteke testua:

<http://www.cidh.oas.org/annualrep/85.86span/Indice.htm>

<sup>12</sup> Haren aurrekaria Pertsona guztiak Torturatik eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Iraingarrietatik Babesteko Adierazpena da, NBEk 1975ean emana. Hartan, tortura tratu gizagabe eta iraingarrien adierazpide «larriagotua» dela esaten da.

<sup>13</sup> Hala salatzen dute giza-eskubideen aldeko erakunde ezberdinek, hala nola Amnistia Internazionalak, Stop tortura izeneko txosten batean (2014an aurkeztua). Hartan, praktika hauek gauzatzen dituzten 141 herrialde agertzen dira, eta Europar Batasunean daude haietako batzuk (Grezia, kasu).

Euskadin, azken bost hamarkadetan, torturaren eta tratu txarren ziozko salaketa asko argitaratu dira. Egoera anitzetan gertatzen dira kasu hauek; haietako asko, atxiloa inkomunikaturik dagoenean. Diktadura frankistatik hona, gorabeherak izan ditu praktika hauek salatzeke maiztasunak, baina nazioarteko erakunde eta giza eskubideen alde lan egiten duten elkarte ezberdinek kezka azaltzen jarraitu dute, Estatuan halako praktikak gauzatzen jarraitzen baita<sup>14</sup>.

Alde horretatik, besteak beste, nabarmengarriak dira Amnistia Internazionalaren txostenak<sup>15</sup>, Europako Kontseiluaren Tortura Prebenitzeko Batzordearen txostenak<sup>16</sup>, Nazio Batuen errelatore berezien txostenak<sup>17</sup> eta praktika hauei eta salaketei buruzko informazioa ematen zuten Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordearen behaketak.

Berebizikoa da beti testuingurua. Gure kasuan, dagokigun gaia giza-eskubideekin zerikusia duen arazo gisa jorratzeko oztopoa izan da hamarkada hauetan guztietan zehar izandako gatazka politikoa. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, Torturaren aurkako Batzordeak edo Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak ebazpen askotan adierazi duten bezala, jazoerak ezeztatzearen eta ikerketa eraginkorrak ez gauzatzearen ondorioz, arretarik gabe gelditu dira biktima horiek<sup>18</sup>.

---

<sup>14</sup> IVAC-KREI: ikerlanaren diseinuari eta lehen urratsei buruzko 2015eko otsailko torturari buruzko atariko txostena. <http://www.parlamento.euskadi.net/irud/10/00/026964.pdf> helbidean kontsulta daiteke.

<sup>15</sup> Amnistiak Espainiako Estatuari buruz egindako lehen txostenak espetxeetako torturak izan zituen aztergai 1972an. Espainia 1983ko maiatza/ekainean bisitatu zuen Alren misio batek baieztatu zuen torturaren eta tratu txarren etengabeko erabilera (*Tortura* txostena, 1984, 187. or.). Amnistia Internazionalak txosten hau argitaratu zuen 2007an: *Espainia: gatza zaurian*. Poliziaren zigorgabetasuna. Eta bi urte geroago, 2009an, haren eguneraketa bat. 2004an, *Espainia: bidegabekeria bikoitza amaitzea. Erreparaziorik jaso ez duten torturaren eta tratu txarren biktimak* txostena argitaratu zuen.

<sup>16</sup> Horren adibide dira Batzordeak Espainia bisitatu ondoren egindako txostenak: besteak beste, 2007ko irailaren 19tik urriaren 1era; 2005eko abenduaren 12tik 19ra; edo 1997ko urtarrilaren 17tik 19ra.

<sup>17</sup> Hauek nabarmendu behar ditugu, besteak beste: Torturari buruzko Theo Van Boven errelatore bereziaren txostena, Espainiarako bisita, 2004; Terrorismoaren aurkako borrokan giza-eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatzeko eta babesteko Martin Scheinin errelatore bereziaren txostena, Espainiarako bisita, 2008.

<sup>18</sup> Isasaren kasua, 2010eko irailaren 28ko ebazpena; Espainiaren aurkako Beristain Ukar kasua, 2011ko martxoaren 8ko ebazpena; Otamendi Egiuren Espainiaren kontra, 2012ko urriaren 16ko Epaia; Espainiaren aurkako Etxebarria Caballero kasua, 2014ko urriaren 7ko ebazpena; Espainiaren aurkako Ataun Rojo kasua, 2014ko urriaren 7ko ebazpena. 1998koa da Torturaren aurkako Batzordearen lehen ebazpena; hots, Encarnación Blanco kasuan emandakoa (CAT/C/20/D/59/1996). Geroago, 2005ean, Kepa Urria kasua izan zen (CAT/C/34/D/212/2002). Azkenik, zigor-epaia eman du Giza Eskubideen Batzordeak Mari Cruz Atxabal kasuan (CCPR/C/107/D/1945/2010).

Nazioarteko organismook adierazitako arazoak oso anitzak dira:

- Estatuak nazioarteko eta tokiko kontrol-organoek torturari aurrea hartzeko egindako gomendioak ez betetzea.
- Auzitegiek tortura-salaketen inguruan ikerketa eskasa egitea.
- Auzitegiko medikuek esku hartzearen ondoriozko arazoak.
- Absoluzio-epaiak eta indultuak.

Duela zenbait urtetatik hona, indarkeriaren biktimei zuzendutako hainbat laguntza- eta aintzatespen-ekimen sustatu dituzte erakunde publikoek. Hasieran, terrorismoaren biktimei zuzendutakoak ziren, baina, pixkanaka, politika horiek giza-eskubideen urratzeak jasan dituzten bestelako biktimei helaraztearen garrantziari buruzko eztabaidak hasi ziren<sup>19</sup>.

Lehenago esan bezala, Estatuaren betebeharra da eskubideen urratzeak ikertzea eta, horrela, urratze horiek ez errepikatzea bermatzen da eta biktimak neurri batean gogobetetzea lortzen da. Egia esatearren, torturaren ikusgaitasuna murriztu dute fenomeno honen ikerketetan izaten diren oztupoek, eta egoera konpondu edo prebenitzeko politikak martxan jartzea zail egin dute. Kasu hauetan gertatu ohi denez, ikerkuntza zientifikoak falta dira eta, horren ondorioz, ezineto gertatzen da jorratu beharreko arazoaren tamaina ezagutzea. Horixe da egia kolektibo lortzeko bidean den lehenbiziko zailtasuna.

Erakunde eta elkarte batzuek gai hauek salatu eta jorratzeko ekimenak sustatu badituzte ere, kontrastatutako daturik eza errealitate bat da; Argituzek egindako infografia honetan ikus daiteke era oso grafikoan hala dela. 1960-2013 denboraldian jasandako beste indarkeria mota batzuk identifikatuta eta kuantifikatuta daudela ikus dezakegu. Egiteke dago torturaren eta tratu txarren inguruko ikerketa<sup>20</sup>.

Eskakizunak eta iradokizunak egin dituzte behin eta berriz torturaren eta tratu txarren aurka borrokatzen diren nazioarteko erakunde ezberdinek, eta torturaren inguruko neurri prebentiboak hartzea eta esparru judizial eta sozialean ikerketa egoiak egitea eskatu dute. Haiei erantzunez, 2013-2016 Bake eta Bizikidetzaren Planaren proposamenean, gure gizarteak gai honen inguruan duen egoerari buruzko diagnostiko bat egiteko beharrezana hartu du barne Eusko Jaurlaritzak 6. ekintzan<sup>21</sup>.

---


<sup>19</sup> IVAC-KREI: ikerlanaren diseinuari eta lehen urratsei buruzko 2015eko otsailko torturari buruzko atariko txostena.

<sup>20</sup> Giza-eskubideen aldeko Euskal Herriko elkarteak

<sup>21</sup> Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia; 2013- 2016 Bake eta Bizikidetzaren Plana, gizarte elkartearen helburu, 2013ko azaroa.

[http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/3872/bake\\_bizikidetzaren\\_plana.pdf](http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/3872/bake_bizikidetzaren_plana.pdf)

- Hildakoak eragindako ETAren atentatuak
- ETAk zauritutako pertsonak
- Talde parapolizialen atentatuak, hildakoak eragindakoak
- Talde parapolizialek zauritutako pertsonak
- Estatuko Segurtasun Indarrek hildako pertsonak
- Estatuko Segurtasun Indarrek zauritutako pertsonak
- Estatuko Segurtasun Indarrek torturatutako pertsonak



Tortura salaketetarako, beharrezkoa da nazioartean errekonozitutako egiaztatze-metodoak aplikatzea, Istanbulleko Protokoloa esaterako.

Gai honen ikerketan nabarmen daitezkeen aurrekarien artean, Euskadiko kasuan (1960-2013) izandako giza-eskubideen urratzei buruzko txostena azpimarratu beharra dago; Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramón Múgica eta Juan M<sup>a</sup> Uriarte jaun-andreek egin zuten txosten hori, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz. 2013ko ekainean argitaratu zen. Torturak Euskadin izandako intzidentziari buruzko gutxi gorabeherako datuak ematen ditu dokumentu horrek: ikertutako denboraldian, 5000 kasu inguru gertatu ziren. Gainera, arazo hau era zientifikoan ikertzeko garrantzia xedatzen du.

Proposamen hauek oinarritzat hartuz, «Tortura ikertzeko proiektua» izeneko ikerkuntza egiteko enkargua eman dio Eusko Jaur-laritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Kriminologiaren Euskal Institutuari.

Irizpide zientifikoetan oinarrituz, era zorrotz eta independentean garatu da ikerkuntza, eta 1960 eta 2013 urteen artean hiru lurralde historikoetan izandako torturaren egiazko intzidentzia ikertzea izan du helburu, eta bai errekonozimendu- eta prebentzio-neurri egokiak orientatzea ere<sup>22</sup>.

Bost ikerketa osagarri ditu proiektuaren diseinuak:

- 1.- Dokumentu bidezko azterketa, torturaren zigorgabetasuna justifikatzen duten balizko elementuak eta torturak irauten duela adierazten duten zentzuzko aztarnak izateari buruzkoa.

<sup>22</sup> IVAC-KREI: ikerlanaren diseinuari eta lehen urratsei buruzko 2015eko otsailko torturari buruzko atariko txostena.

- 2.- Torturak nahiz tratu txarrak jasan omen dituzten pertso-  
nen errolda sortzea. Horrela, arazoaren tamaina globala  
ulertzeko bidea emango da.
- 3.- Salaketen sinesgarritasunaren balorazioa Aditu-ikuspe-  
gia Istanbulgo Protokoloaren bidez, salaketen banakako  
sinesgarritasuna aztertzeko.
- 4.- Kasu adierazgarrien azterketa kualitatiboa, jakiteko zein  
den biktimen giza esperientzia, zein izan diren ondorioak,  
zein jasotako erantzun sozialak eta instituzionalak, eta  
zein biktimen bizitzan izandako eragina.
- 5.- Txostena bera idaztea. Torturaren eta tratu txarren iker-  
ketaren, errekonozimenduaren, erreparazioaren eta pre-  
bentzioaren arloko nazioarteko esperientzia konparatuan  
oinarritutako ondorioak eta gomendioak.

2014ko ekainean ekin zitzaion ikerketari eta, aurreikusitakoaren arabera, 2016aren amaieran bukatuko da.

### 3. Euskadin izandako tortura-kasuen ikerketa, 1960-2013. Ikerlanaren diseinuari eta lehen urratsei buruzko 2015eko otsaileko torturari buruzko atariko txostena.

2015eko otsailean, proiektuan lortutako lehen datuak jasotzen zituen atariko txosten bat aurkeztu zen. Gehienbat, 1. eta 2. ikerketen garapenari zegozkion datu horiek<sup>23</sup>.

Unera arte bildutako datuen artean (2015eko otsaila), ikergaiaren inguruko 140 txosten edo adierazpen zehatz baino gehiago zeudela frogatu zen. Nazioarteko erakunde eta organismo ezberdinek sortuak ziren; haien artean, Nazio Batuen Errelatoreak edo Tortura Prebenitzeko Batzordea zeuden. Euskadin izandako torturari buruzko argitalpen kopuru handia ere bazen, eta bai gai honi buruz euskal udalek emandako 11 mozio baino gehiago ere.

Praktika hauek gaitzesten zituzten Espainiako auzitegien 20 ebazpen baino gehiago bildu ziren. Euskadiko esparruan burututako kasuei nahiz Euskaditik kanpo hiru lurralde historikoetako jendeak jasandako kasuei buruzkoak ziren ebazpenok. Haiez gain, kontuan hartu behar dira Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordearen ebazpenak, torturaren ziozko salaketak ez ikertzeagatik gaitzesten baitute Espainiako estatua.

Proiektuaren lehen sei hilabeteetan, bideoan jasotako testigantzak biltzeari ekin zitzaion, tortura jasan duten biktimek haien esperientzia konta zezaten. Txostena aurkeztu zen datan (2015eko otsaila), 38 ziren jada egindako grabazioak.


---

<sup>23</sup> 2015eko otsailean bidali zitzaion Eusko Legebiltzarrari aipatutako dokumentua. Hemen kontsulta daiteke testu osoa:  
<http://www.parlamento.euskadi.net/irud/10/00/026964.pdf?>

Azkenik, unera arte gauzatutako jardueri buruz emandako datuen artean, nabarmendu beharra dago dokumentatutako tortura eta tratu-txarren 3580 kasu bildu ditugula. Salatu egin dira kasu horiek guztiak, bai auzitegietan edo bai jendaurrean. Argitu beharra dago biktimen kopurua txikiagoa dela; izan ere, batzuetan, pertsona berak hainbat aldiz jasaten ditu tortura edo tratu-txarrak.

Txostenaren VI. eranskinean, kasuen zati handi bati buruzko atariko analisi bat aurki daiteke; zehazki, 2820 kasurena, ez duela egiten aurkeztutako salaketen funtsari buruzko baloraziorik; georogoko fase batean egingo da lan hori, Istanbulgo Protokoloa aplikatuz<sup>24</sup> kasu kopuru jakin bati.

Salatutako 2820 kasu egiaztatuen profilari dagokionez, 2394 (% 84,9) gizonak dira, eta 426 (% 15,1) emakumeak.



Lurraldeen arabera, unera arte, Gipuzkoan jaso dira salaketa gehien. Emakumeei dagozkien kasuen proportzioa oso antzekoa da lurralde guztietan: % 17ren ingurukoa (Araba: % 16,15; Gipuzkoa: % 17,9; Bizkaia: % 17,47).

Atxiloketaren lurraldea	Gizonak	Emakumeak
Araba	130	21
Gipuzkoa	1251	224
Bizkaia	824	144

Gogora ekar dezagun ikerlan honetan aztertutako denboraldia 1960tik 2013rako dela. Datuak hobeto ulertzeko eta aztertzeko, hamarkadatan eta sexuen arabera banatu dira. 1980ko hamarkada da salaketa gehien dituen denboraldia, bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan.

<sup>24</sup> Istanbulgo Protokoloa Tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo lotsarazle batzuk eraginkortasunez ikertu eta dokumentatzeko eskuliburua. 1999

Hamarkadak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
60ko hamarkada	138	130	8
70ko hamarkada	474	412	62
80ko hamarkada	914	780	134
90ko hamarkada	687	592	95
00ko hamarkada	540	429	111
10ko hamarkada	67	52	15
<b>Guztira</b>	<b>2820</b>	<b>2395</b>	<b>425</b>

Azkenik, aipatu beharra dago txosten honetan emandako datuak ikerlanaren lehen faseari dagozkiola (2015eko otsailera arte), eta aldaketak izan ditzaketela guztiek. Izan ere, artikulua honen sortze-datara arte (2015eko abendua) erregistratutako kasuak 4000 baino gehiago dira.

## BIBLIOGRAFIA

ACNUDH; Egiari buruzko ikerketa. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren txostena. E/CN.4/2006/91, 2006ko urtarrilaren 9koa

BONET PÉREZ, ALIJA FERNÁNDEZ; Impunidad, Derechos Humanos y Justicia transicional. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2009

CDIH, Urteko txostena, 1985-1986, OEA/Ser. L/V/II.68, Dok. 8. berr. 1, irailak 26

DE LA CUESTA; PEGO; PEREZ MACHÍO; FERNANDEZ; Evaluación de las políticas públicas de impulso de la paz y de fortalecimiento de la memoria de las víctimas. Editorial EAE, Alemania, 2012

INTERNATIONAL HUMAN RIGHTS LAW INSTITUTE, *"The Chicago Principles on Post-Conflict Justice"*. United States of America, NY, 2007

LANDA; Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimak. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 2008

MORENTIN; LANDA; *"La tortura en relación a la aplicación de la normativa antiterrorista: una aproximación estadística multifactorial"*. Eguzkilore, 25. alea, IVAC-KREI, 2011



ORBEGOZO; PEREZ MACHÍO; PEGO: La suspensión individual de derechos en supuestos de terrorismo: especial consideración a la detención incomunicada. Arartekoa. Gasteiz, 2009

## **BAKEAZ BLAI. BIKTIMA HEZITZAILEEKIN EGINDAKO PROGRAMA PEDAGOGIKOA**

**Gorka Ruiz Santana eta Rocío Salazar Torre**

**Bakeola, Gatazkak bideratzeko eta bitartekaritzarako EDE Taldearen zentroa**

### **Laburpena**

Programa pedagogiko hau EAEko pertsona gazte batzuekin egindako esperientzia pilotua da eta bertan, biktima hezitzaileek parte hartu zuten. Programak harrera- eta enpatia- espazioak sortu eta eguneroko bizikidetzak hobetzeko tresnak txertatu nahi izan ditu, bakegintzaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntzan oinarrituta. Programa hau inguru pedagogiko babesle baten esparruan garatu da, alderdien arteko konfrontazio-gunetik urrun.

Bakeaz blai proiektua biktima hezitzaileek bakea eraikitzeko duten ahalmenaren baliabide pedagogikoz baliatu da eta, orobat, heriotza batek eragindako nahigabea gizarte-justiziaren bilaketa eta harekiko konpromiso bihurtzeko ahalmena ere baliatu du. Bestalde, esperientzia honek gure lurraldean indarkeriaz eta indarkeriaren ondorioez mintzatzeko bide eman du. Azken batean, zauria ukitu du ixten laguntzeko.

Gako-hitzak: biktima hezitzaileak, motibazio politikoko indarkeria, terrorismoa, giza-eskubideak, hezkuntza

Esker onak: Programa hau bakeaz “blai” dauden hainbat pertsonari esker egin ahal izan zen: Jesús Abril, Jon M. Landa, Txema Urkijo, Mónica García, Inés Ibañez, Jaime Arrese, Mariló Vera, Carmen Hernández, Josu Elespe, Pedro M. Baglietto... mila esker horiei guztiei.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Herrizaingo Sailaren Terrorismoaren Biktimen Arretarako Bulegoaren laguntza eta babesa ere jaso zuen programak; gainera, EDE Taldearen funtsek, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Biktimen Zuzendaritzak, Hezkuntza Sailak eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak finantzatu dute elkarrekin.

### **1. Atarikoak**

Bakeolak (Gatazkak bideratzeko eta bitartekaritzarako zentroa) biktima hezitzaileekin eta gazteekin 2011 eta 2012an Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan egindako espe-

rientzia pedagogiko baten berri ematen du artikulu honek. Gaur egun esperientziak aurrera darrai, nahiz eta artikulu honetan eskaintzen diren datuak bi urte horietan sistematizatutakoak diren.

Halako izaera duen ekimena martxan jartzeko motibazio nagusia da 2008an aski emaitza onekin garatutako "Trazos y puntadas para el recuerdo. Una ventana de paz en Euskadi" (Trazuak eta Puntadak Oroitzapenerako. Euskadiko Bake Leiho bat) izeneko erakusketa. Erakusketan Madrilgo martxoaren 11ko atentatuen ostean pertsona anonimoek biktimen senideei emandako opariak (koadroak, tapizak, patchwork...) zeuden ikusgai. Bertan parte hartu genuen M11 Biktimen elkartearekin eta Eusko Jaur-laritzarekin batera.

Erakusketak esku-hartze pedagogikorako programa bat hartzen zuen barne, erakusketaren osagarri. Programa Bakeolak burutu zuen: hain zuzen, horixe izan zen biktimen parte-hartze aktiboa eta zuzena duen esku-hartze programen ibilbidearen abiapuntua.

Biktimen parte-hartzea zuen esku-hartze programa bat egiten zen lehen aldia zen Euskadin. "Zergatik egin zitekeen halako jarduera bat Bilbo erdigunean Euskadi osoko ikasleekin eta 4 urte lehenago Madril txikitu zuen terrorismo jihadistaren biktimekin? Eta zergatik ez orduan terrorismoaren Euskadiko biktimekin?" (Eusko Jaur-laritzak, 2012, 62-63. or.). Programa hark hemen Euskadin terrorismoaren eta motibazio politikoko biktimen aurrean zer jarrera zuen hausnartzera bultzatu zuen Bakeola. Esperientzia hari esker ulertu genuen biktima hezitzaile bat zer zen eta bakea eraikitzeke zer nolako ahalmena zuen; ulertu genuen biktima hezitzaileak ahalmena zuela heriotza bidegabe batek eragindako nahigabea bakearen eta bizikidetzaren aldeko lan bihurtzeko.

Bigarren motibazioa gobernu autonomikoek heziketa-prozesuetan, dela formalean dela informalean, biktimak sartzeko egindako lehenagoko saiakerak izan ziren. Saiakera horien emaitza "Dando pasos hacia la paz - Bakerako urratsak" (2006 eta 2010) eta "Historias que nos marcan" (Aztarna uzten dituzten istorioak) (2006-2008) unitate didaktikoak izan ziren. Bi esperientzia horiek izan ziren Bakeaz blai proiektuaren sorreraren eta garapenaren oinarri eta gida.

Testuinguru horretan erabaki zuen Bakeola - EDE taldeak berezko programa pedagogiko osoa eta autonomia abiaraztea. Alderdien, erakundeen eta instituzioen arteko konfrontazio publikorik izango ez zuen programa bat, parte hartzaileei eta prozesu pedagogikoaren baldintzei eta testuinguruari arreta jartzea eta horiek zaintzea helburu zuena.

Hasieran biktima hezitzaileek parte hartuko zuten programa pedagogikoa izan nahi zuen eta azkenean, kontatzea eta ezaguta-

raztea merezi duen osoko esperientzia hezigarri eta sendagarri bihurtu zen.

Artikulu honetan garatutako esperientziaren berri ematen da eta bost zatitan dago egituratuta. Lehendabiziko zatian definizioak daude eta bigarren zatian, aldiz, justifikazioa dago; atal horretan, bizi izandako indarkeriaren errealitate sozialean eta indarkeriak ekarritako ondorioetan kokatzen da programa. Hirugarren zatian Bakeaz blai proiektua zehazten da: nola sortu zen, programa pedagogikoaren garapen osoa eta haren ebaluazioa. Artikuluaren laugarren zatiak biktima hezitzaileekin garatutako esperientzia honetatik ateratako konklusioak, ikasketak eta gomendioak azaltzen ditu labur-labur. Artikulua iturri eta erreferentzia bibliografikoekin eta erabilitako taula eta grafikoekin aurkibidearekin amaitzen da.

## 2. Definizioak

Arartekoak (2009b: 49. or.), DDNBBk dioena aipatuz, honela ulertzen du **indarkeria terrorista**: “jardueren metodo iraunkorra da. Antsietatea sortzen du eta banan banako, taldeko edo estatuko jardule (erdi) ezkutuek erabilitakoa da arrazoi idiosinkrasiakoak, kriminalak edo politikoak izanda. Bertan, hilketa kasuetan ez bezala, indarkeriaren xede zuzenak ez dira helburu nagusiak. Indarkeriaren giza biktimak ausaz aukeratzen dira normalean (aukera helburuak) edo xede den biztanleriaren barruan aukeratuta bestela (helburu ordezkatzaileak edo sinbolikoak), eta mezuaren sortzaile gisa balio dute. Terroristaren (bere erakundea), biktimen (arriskuan jarritakoak) eta helburu nagusien arteko mehatxu eta indarkerian oinarrituriko komunikazio prozesuak helburu nagusia (entzuleak) manipulatzeko erabiltzen dira eta hura terrorismo, eskari edo arretaren xede bihurtzen da, nagusiki lortu nahi dena larderia, derrigortzea edo propaganda den gorabehera”.

Euskal Autonomia Erkidegoan **talde terroristak** barne araudian zehaztutakoak dira (ETA, ETApn, Komando Autonomo Antikapitalistak, ATE, Batallón Vasco-Español, GAL eta Triple A). GRAPO eta terrorismo islamista ere horien baitakotzat jotzen dira, baina gertaerak EAEn izaten direnean edota EAEko herri-tarrei eragiten dietenean bakarrik.

Eusko Jaurlaritzak, Mariano Sánchez Solerren definizioari jarraiki, honela ulertzen du **indarkeria politikoa**: “indarraren (fisikoa zein hitzezkoa) erabilera kontziente, mehatxu bidezkoa, giza-banakoek, talde ideologikoen, erakunde publikoen, Estatuaren administrazio sektoreek, alderdiek edo erakundeek gauzatutakoa, herrialde bateko gertaera politikoen norabidean esku hartzeko edo aldatzeko, gobernuen erabakiak kontrolatu edo inposatzeko, edo Estatuaren boterea lortu, zuzendu edo mantentzeko asmoz”. Era berean, Mariano Sánchez Solerren arabera, jatorri instituzionaleko indarkeria politikoa aipatzen denean,

hauxe esan nahi da: “ezarritako ordenari eusteko erabiltzen den indarkeria oro, Estatuaren erakundeetatik antolatua, bultzatua, inspiratua edota onartua eta erabilia” (Eusko Jaurlaritza, 2008, 12. or.).

Euskal auzian 1960 eta 2013 urte bitartean giza-eskubideen urraketak eragin dituzten eragile eta egoeren deskribapena egingo dugu jarraian (Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Bake-gintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2013):

## 1. ETA eta indarkeria erabili duten beste talde batzuk

- 1.1 Bizitzeko eskubidearen urraketak
- 1.2. Osotasun fisikorako eta psikikorako eskubidearen urraketa larriak
- 1.3. Askatasunaren aurkako delituak
- 1.4. Kalte-delitua

## 2. Estatua eta Estatuko Segurtasun Indarrak

- 2.1. Bizitzeko eskubidearen urraketak
- 2.2. Osotasun fisikorako eta psikikorako eskubidearen urraketa larriak
- 2.3. Jurisdikzio militarra, auzitegi bereziak eta eskubide zibilen urraketa
- 2.4. Espetxe-eremuan gertaturiko giza eskubideen urraketak

## 3. Talde parapolizialak eta eskuin-muturreko taldeak

## 4. Egile ezezaguna

**“Giza eskubideen urraketa larriak pairatu dituzten pertsona guztiek** egiarako, justiziarako eta ordainerako eskubideak izan behar dituzte; eskubide horiek biktimak honako hauetarako eskubidea izatean laburbiltzen dira: a) justiziarako sarbide berdina eta eraginkorra izateko eskubidea; b) pairaturiko kaltearen ordain egokia, eraginkorra eta azkarra jasotzeko eskubidea, leheneratzea, ordaina, birgaitzea, gogobetetzea eta berriz horrelakorik gertatuko ez dela bermatuz; c) indarkeriei eta ordain-mekanismoei buruzko informazio egokia lortzeko eskubidea. Hori guztia Nazio Batuen 2005eko abenduaren 16ko Batzar Nagusian onarturiko «Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak pairatu dituzten biktimek errekurtsoak aurkezteko eta kalte-ordainketak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideetan» bilduriko baldintzen arabera. Printzipio horiek bat datoz 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunarekin, eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbide osoarekin; Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikulua dioenaren arabera, horiek guztiek dute gai hau interpretatzeko erreferentzia-esparrua. (Eusko Jaurlaritza. Lehen-

dakaritza. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2013, 6. or.)

Delituen eta botere-abusuaren biktimetzako justiziaren gaineko funtsezko printzipioei buruzko deklarazioarekin bat etorriz — NBEren Biltzar Nagusiak 40/34 ebazpenaren bidez onartua—, **biktimatza** hartuko dira, «estatu kideetan indarrean dagoen zigor-legeria —botere-abusua galarazten duena barne— urratzen duten egite edo ez-egiteen ondorioz, banaka edo taldeka, kalteak (lesio fisiko edo mentalak barne), sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo oinarrizko eskubideen galera nabarmena jasan dituztenak».

Nabarmendu beharrekoa da, Deklarazioaren arabera pertsona bat biktimatza hartu ahal izango dela «nahiz eta kaltea eragin duena identifikatu, atzeman, auzipetu edo kondenatu ez eta kaltea eragin duenaren eta biktimaren arteko familia-harremana edozein dela ere». «Biktima» terminoaren barruan, gainera, zuzeneko biktimarekin harreman zuzena duten familiartekoak edo haren kargura daudenak sartuko dira, baita arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartzean kalteak izan dituztenak.

Pertsona bat **biktima hezitzailea** dela diogu ondorengo hiru baldintza ezinbesteko hauek betetzen dituzten:

“Lehenik eta behin, ikastetxeetako kontaketeak eta ekarpenek alderdien gatazkaren gainetik egon behar dute. Bigarrenik, kontaketeak eta ekarpenek pertsonen duintasuna eta bizitzeko eskubidea errespetatuko dute, baita terroristenak ere; eta hirugarrenik, egindako kontaketeak eta ekarpenak bake-eta adiskidetzeko-kulturatik eta kultura horren alde egingo dira”. (Jares, 2006, 44-45 or.).

### 3. Justifikazioa

*“Gela ilun hauetan, egun astunak ematen  
ditudanetan, alde batetik bestera ibiltzen naiz  
leihoak edireteko. -Leiho bat  
irekiko denean kontsolamendua izanen da-.  
Ez dira baina leihoak aurkitzen, edo ezin ditzaket  
kausi. Eta agian hobe aurkitzen ez badira.  
Agian argia tirania berria izanen da.  
Nork jakin zeintzuk gauza berriak erakutsiko dituen”*

*Kavafis*

Zalantzarik gabe, indarkeria sozial eta politikoa bizi izan dugu iraganean eta komenigarria da hori sentitzea, horretaz mintzatzea eta horren inguruan lan egitea. Galduak genituen zenbait balio berreskuratzeke premiatik sortu zen programa hau, hala nola, etika, parte-hartzea, gizarte-justizia eta gure lurraldean hainbes-

tetan urratu izan diren giza-eskubideen errespetua. Azken batean, iraganeko kalteak konpondu, oraina hobetu eta, batez ere, bizikidetzako etorkizunerako oinarriak finkatu nahi izan zituen.

Jarraian indarkeria terroristak eta motibazio politikoko indarke-riak gure herrialdean izan dituen **gizarte-ondorioen** berri eman-go dugu (M. Beristain, 2012):

Gizartearen polarizazioa: “Indarkeriaren eragina polarizazioa berrelikatzen duen eta aldaketa-itxaropenak ixten dituen fak-tore bihurtu da eta horrek ondorio larriak ditu gizarte-egituran. Martín Baróren arabera, polarizazioa da, gizarte-esparru jakin batean, arazo baten aurrean dauden jarrerak kontrako bi eske-ma baztertzaile murriztearen prozesu psikosoziala (M. Beris-tain, 2012 105. or.).

Estereotipoak indartzea: Ekarrirako bigarren ondorioa ispiliko irudiarena da. M. Beristainek (2012) Gara egunkaritik ateratako 1998ko adibide batekin azaltzen du: “Guk borroka armatua egi-ten dugu, haiek gerra zikina”. Beste kasu batzuetan, aldi batxue-tan maizago eta beste batzuetan ez hain maiz egindako tortu-ra-salaketei dagokienez, haxe izan da erantzun ofiziala: “Hori ez da egia juridiko bat, ETAren kanpaina bat baizik”. Amnistía Internacional erakundeak eta Nazio Batuetako errelatoreek, or-dea, Estatu Espainolaren eskutik gertatutako urraketa horien berri eman dute txostenetan.

M. Beristain eta Páezek (2000: 80. or.) Raven eta Rubin (1976) aipatzen dute estereotipoek sortutako irudiak azaltzeko: “a) Etsaiaren irudia deabruzkoa da. b) Norberaren irudia pertsona adoretu eta kementsuarena da: “onenak gara”. c) Norberaren indarrean konfiantza itsua. d) Arreta selektiboa, egoeraren alde txarrak eta egindako hutsak kontuan hartzen ez dituen eta e) Etsaiarekiko enpatiarik eza”.

Gizatasuna galtzea: Estereotipatu ondorengo urratsa bestea azpigizakitzat jotzea da, errukirik eta estimurik merezi ez duen izakitzat.

Gaizkiaren hutsalkeria: Urraketek izandako ondorioei garrantzia kendu diegu, “gerra justu” edo “beharrezko gerra” gisa justifi-katuz. Bestela “eginkizunarekin bete” duela edo egoerak hona ekarri gaituela entzun izan dugu. Beste batzuetan, urraketak ez ebaluatzeak gorespen morala ekarri du.

Bestea ez aitortzea: Liskarrean dauden taldeek elkarren artean baztertzailak diren memoria kohesionatuak eraiki dituzte. Nork bere nahigabea aldarrikatu du baina bestearena alboratuz edo gutxietsiz.

**Hezkuntzaren arloan ere ondorioak** ezagutu ditugu denbora honetan.

Urte hauetan indarkeria terroristak eta motibazio politikoko indarkeriak hainbat motatako erantzuna izan du hezkuntza-aren arloan: gaitzespena, axolagabekeria edo isiltasuna. Jaresek (2006: 32 or.) dioen bezala, "lehen erantzun hori beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Bigarrena, zalantzarik gabe, gaitzesgarria da, baina, zoritxarrez, beldurra dela-eta, ohikoena izan da Euskal Herrian".

Hezitzaile batzuek iritzi zuten, indarkeriaren aurrean, onena jarrerera neutroa hartzea zela. "Horrek praktikan inhibizio hutsa eta soila dakar, indarkeria inondik inora aipatu gabe eta inolaz ere haren balorazioa egin gabe. Halako jarrera hartzen da, ordea, indarkeria hori giza-eskubideek uzten dutenaren esparruaren baitan aukera legitimoa dela aldarrikatzen delako edo, bestela, hezitzailearen neutraltasuna zer den ongi ulertu ez delako" (Etxeberria, 2003, 64. or.).

Xabier Etxeberriaren hitzetan, "irakasleen artean, sarritan ez dira ongi bereizi inpartzialtasuna eta neutraltasuna". Ezin daiteke neutral izan indarkeriaren aurrean, baina inpartzial izan daiteke proiektu politikoen eta gizartearen ikuspegiaren aurrean. "Irakasle batzuek neutral izan nahi izan zuten ETAren gaiaren aurrean, ni ez naiz sartuko ez A-rekin ezta B-rekin ere. Bada ez, ETAk hil egiten zuen, giza eskubideak zapaltzen zituen, eta horren aurrean ezin zitekeen neutral izan" (Eusko Jaurkitza, 2012, 88. or.).

Harillo, Prieto eta Ugarte koordinatzaileek (2010: 13. or.) adierazi zuten, "Euskal Herrian bakegintzaren hezkuntzak ia ez dio orain arte inoiz heldu terrorismoaren biktimen zuzeneko presentziari gure hezkuntza-sisteman. Hutsune handi horrek biktimizekiko enpatia eza, koldarkeria morala, nahasketa teorikoa, miseria politikoa, edo, besterik gabe, beldurra erakusten du; horiek guztiak gizartearen gaixotasun baten sintomak izan daitezke, eta aurre egin behar zaie".

Gazteek indarkeria politikoaren aurrean duten jarrerari dagokionez, Arartekoak txosten berezi bat argitaratu zuen 2009an, ETAren, terrorismoaren eta bere ondorioen aurrean gazteek zer jarrera zuten aztertzen zuena. EAEko 1.829 ikasleren iritziak jaso eta aztertu zituen txostenak.

Bertatik ondorioztatu ahal izan zenez, "eskola-ume askoren artean, giza eskubideak inolaz ere errespetatzen ez dituzten balorazio eta jarrerak bizirik dira. Ekintza terroristei justifikazioa ematen diete, eta areago, ETAren jardunak positiboki baloratzen dituzte" (Ararteko, 2009b, 371. or.).

<b>Adostasun-maila</b>	<b>ETAko kideen giza eskubi-deak errespetatu egin behar dira beti</b>	<b>Gaizki iruditzen zait inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dut kale borroka</b>	<b>ETAren ekin-tzak onak dira Euskadirentzat</b>
Oso ados	12,5	130	8
Nahiko ados	11,7	412	62
Erdi ados	23,5	780	134
Ez oso ados	19,2	592	95
Batere ados ez	26,2	429	111
Ed/Ee	6,9	52	15
<b>N=762</b>	<b>100%</b>	<b>2395</b>	<b>425</b>

1. taula: Zenbait adierazpenekiko adostasun maila (%bertikalak)  
Iturria: Arartekoa. Herriaren defendatzailea (2009b) 135.C taula, 275. or.

Halaber, kezkarria da ikustea, nerabeen beren erantzunen arabera, "ETAren aldeko jarrera horiek familia-ingurunean transmititzen direla, eta beste ingurune batzuetan indartzen (adiskide-taldean; eskola ingurunean), inhibizioen eta isiltasunen bidez, eta haren egokitasunaren eta baliagarritasunaren gaineko mezu esplizituen bidez ere bai" (Arartekoa, 2009b: 30. or.).

Orobat, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako 2012ko martxoko Soziometroak, ETA talde terroristaren jarduera armatuaren etenaren testuinguruan, honako datu hauek erakutsi zituen elkarrizketatutako adin nagusiko 2.254 pertsonaren laginarekin (504 Araban, 1.134 Bizkaian eta 616 Gipuzkoan).


Datuen arabera, jende askok uste du oraindik terrorismoak errezelo politikoak eta zauri sozialak utzi dituela eta ez direla sekula desagertuko. Elkarrizketatuen % 34k babesten dute halako iritzia. Aldiz, % 42k uste du urte asko beharko direla desagertu arte.

Halaber, gehienen iritziz, indarkeriaren amaierak ez zituen zenbait gai funtsean aldatu, hala nola, politikaz mintzatzeko askatasuna, alderdi politikoen arteko harremanak, biktimen aitopena, ideologia desberdineko pertsonen arteko bizikidetzeta edo edozein ideia politiko aldarrikatzeko aukera (Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Idazkaritza, 2012).



		Guztira
ETAren amaiera gertu egon daitekeela pentsatuz, zure ustez indarkeriak herritarren artean utzitako errezelo politikoak eta zauri sozialak desagertuko dira...?	Urte gutxi barru desagertuko dira	15
	Urte asko barru desagertuko dira	42
	Ez dira desagertuko	34
	Ed/Ee	10
Ehuneko bertikalak		100

2. taula: Errezelo politikoak gaintzea  
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2012, 12. or.)



\* En abril de 2011, la pregunta realizada fue: "Suponiendo que el final de ETA puede estar cerca, ¿cree que los recelos políticos y culturales que ha dejado el terrorismo entre la ciudadanía desaparecerán...?"

1. grafikoa: Errezelo politikoak gaintzea  
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2012, 12. or.)

Lehenago ere azaldu dugunez, Bakeaz blai ez zen biktimekin egindako lehen lan-esperientzia izan. Lehenago bidea zabladu zuten beste hainbat programa pedagogiko egin ziren eta Bakeaz blai proiektuak haietatik ikasi zuen. Jarraian, Bakeaz Blai garatu zen arte, euskal testuinguruan biktimen presentzia zuzena edo zeharkakoa izan zuten programen kronologia azalduko dugu.

Hainbat hezitzailek eta erakundek aspaldi ohartarazi zuten indarkeriari eta terrorismoari zilegitasuna kentzeko helburua zuten eta biktimen presentzia zuten Euskal Herriko bakegintzaren aldeko programen premia.

2006ko maiatzean, Eusko Jaurlaritzak "terrorismoaren biktimen eta beraien testigantzen presentzia euskal hezkuntza-sarean bermatuko lukeen programa pedagogikoa, behar bezala sistematizatua lantzeko asmoa onetsi eta Legebiltzarrera bidali zuen". Garai hartan Juan Jose Ibarretxe lehendakaria buru zuen Jaurlaritzak, Legebiltzarrera bidalitako testu horretan adierazten zuen "presentzia hori oinarrizko exigentzia zela, oso lagun-

garria lehen mailako zenbait helburu pedagogiko bete ahal izateko” (Eusko Jaurlaritzak, 2012).

Halaxe hasi ziren abian jartzen indarkeriari zilegitasuna kentzeko eta giza-eskubideak sustatzearen inguruan eta bakearen alde lan egiteko helburua zuten hainbat esperientzia hezigarri.

<b>Erakunde sustatzailea</b>	<b>Programaren izena:</b>	<b>Argitaratze urtea</b>
Bakeaz	<b>“MARKA UZTEN DIGUTEN ISTORIOAK” TERRORISMOAREN BIKTIMAK BAKE HEZKUNTZAN. Bigarren Hezkuntzarako Gida didaktikoa</b>	2006. Geroago, 2010ean, gida berrikusi eta zabaldu egin zen.  <a href="http://www.eskolabakegune.euskadi.net/web/guest/historias-que-nos-marcan">http://www.eskolabakegune.euskadi.net/web/guest/historias-que-nos-marcan</a>
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila	<b>“UNA SOCIEDAD QUE CONSTRUYE PAZ- BAKEA ERAIKITZEN ARI DEN GIZARTEA” ETA “DANDO PASOS HACIA LA PAZ- BAKERAKO URRATSAK”</b>	2006-2007. Esperientzia hura zuzendu egin zen eta “Dando pasos hacia la paz- Bakerako urratsak” izeneko beste proba pilotu bat garatu zuten 2007-2008 ikasturtean.  <a href="http://www.gizagela.net/">http://www.gizagela.net/</a>
Bakeola	<b>M-11 PROGRAMA PEDAGOGIKOA “TRAZUAK ETA PUNTADAK OROITZAPENERAKO. EUSKADIKO BAKE LEIHO BAT”</b>	2008
Baketik	<b>BIHOTZETIK MODULU DIDAKTIKOA. IZAN PROPOSAMENA, EUSKAL AUZIAN IZANDAKO GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEN BIKTIMEI ESKOLAN ADIERAZI BEHARREKO ELKARTASUNARI APLIKATUA</b>	2010
Eusko Jaurlaritzak	<b>ESKU HARTZE PROGRAMA JAKIN BATEN BABESIK EZ DUTEN HEZKUNTZAREN ARLOKO BESTE ZENBAIT ESPERIENTZIA BIKTIMIKIN.</b>	2011
Bakeola	<b>BAKEAZ BLAI. EUSKAL AUZIAN INDARKERIA POLITIKOA PREBENITZEKO ETA GIZA ESKUBIDEAK SUSTATZEKO BIKTIMA HEZITZAILEEKIN EGINIKO PROGRAMA PEDAGOGIKOA</b>	2011

3. taula: Euskal auzian biktimen presentzia zuzena edo zeharkakoa izan duten programen kronologia.  
Iturria: Geuk egina

## 4. Bakeaz blai programa pedagogikoa

*"Gauzak konpontzeko aukera dugu aurrean, gure gazteekin eta gure gazteentzat biktimei begietara begiratzeak beldurra emango ez digun gizarte hobea eraikitzeko aukera, pertsona haiengan gu topatzen jakingo dugun gizarte hobea, jazotako bidegabeke-rien erantzukizuna hartuko dugun gizarte, berriro errepika ez daitezen. Erakunde guztiek giza-eskubideen aplikazioa zehazteko berehalako erronka dute haien aurrean, eta aplikazio hori zati-zintzasunean eta elkarrekiko mendetasunean, terrorismoaren biktimekiko tratuan eta haien parte-hartzean gauzatuko da, gazteei gizarte ikaskuntzako eredu okerrak ez eskaintzeko, bai, ordea, zailagoa den zerbait: justiziaren aldeko borroka bakeza- learen unibertsaltasunarekin benetako konpromisoa" Ararteko-koa, (2009a: 387. or.).*

Bakeaz blai Euskadiko gazte-talde batekin egindako esku-hartze programa hezitzailea izan zen eta, gauzatzeko orduan, bi osagai esanguratsu izan zituen; biktime hezitzaileen parte-hartze akti-boa eta zuzena eta proiektua garatuko zen testuingurua: progra- maren zati bat ikasgelan egin zen eta bestea aterpetxean.

Programak bi hartzaile izan zituen; Ikastetxeak (ikasleak eta irakasleak) eta aisialdi-taldeak (hezitzaileak eta gazteak). Pro- grama hezkuntzaren alorreko hainbat eragilek jarri zuten abian:

- Ikastetxe/Aisialdi-taldeetako irakasleak/hezitzaileak.
- Dinamizatzaile espezializatuak eta indarkeriaren ondorioak beren azalean pairatu dituzten biktime hezitzaileak, ater- petxeetan.

Programa hainbat mailatan gauzatu zen eta hainbat lan-dimen- sio izan zituen. Bizipenetan eta parte-hartzean oinarritutako metodologia baliatu zuen, hausnarketara bultzatzen duena; har- tara, gazteek aukera izan zuten hurbileneko ingurua ezagutzeko, sentitzeko eta horren azterketatik ondorioak ateratzeko, indar- keriarik gabeko jarrerak eskuratzeko bidea emango ziena.

Planteamendu honek Euskal Herriko indarkeriaren eta terroris- moaren ondorioz eman diren indarkeriak eta giza-eskubideen urraketak landu ditu; pixkanaka sufrimenduaren bizipenarekiko entzute aktiboaz eta enpatia-jarrerez "blaitu" zen eta biktimeki- ko elkartasun-konpromiso pertsonala zein taldekakoa eta jus- tiziarekiko eta indarkeriarik ezarekiko konpromisoa izan zituen helburu.

### 4.1 Bakeaz blai proiektuan biktimak ardatz

*Gizarte zibilak eta hezkuntza-sistemak era bateko zein besteko indarkeriari zilegitasuna kenduko dion kultura- eta balio-siste- ma sustatzeko ardura izan beharko lukete (Jares, 2006).*

Bakeaz blai programa pedagogikoa biktimen presentzia zuzena eta aktiboa zuen bakegintzaren hezkuntzari buruzko lan baten baitan kokatu zen. (Bilbao eta Etxebarria, 2005):

- Heziketa-prozesu horren erdigunean biktimek egon behar zutelako eta orduan bai, bakea justizian oinarrituko litzateke.
- Biktimen errealitateak hunkitzen gaituenean ikasten ditugulako indarkeriaren alderdi erabakigarriak. Indarkeria ikasteko definizioek ez dute balio, biktimen aurrean ikasten dugu zer den.
- Eta, Xabier Etxebarria adierazten duenez, Euskal Herriko bakegintzaren hezkuntzaren alorreko esperientzia pedagogiko gehienetan biktimek ez dutelako presentzia zuzenik: "indarkeria oso nabarmena da eta oso hurbilekoa dugu, eta biktima ugari sortzen ditu, baina ikastetxeetan arrotza eta urrutikoa izango balitz bezala funtzionatu du." (Etxebarria, 2009, 8. or.)

Programa honetan biktimekin zerikusia duten zenbait baldintza eta irizpide beteko zirela bermatzeko lan egin zen (Etxebarria, 2009):

- Talde-giro babeslea izatea, biktimak erabateko gaitzespena jasan ez zezan (nahiz eta parte hartzaileen onarpen-maila ez zen zertan berdina izan).
- Biktimak duela-prozesu bat egin izana eta biktimak berak bizipena kontatzea aurrerapausotzat hartzea eta ez, ordea, atzerapausotzat.
- Biktima bizitako indarkeriaren eta sekula berriro errepikatu behar ez denaren lekuko moralak izatea eta, beraz, biktimaren parte-hartzea maila aurrealderdikoi batean edo alderdikeria neutralaren mailan kokatzea.
- Biktimak, hezkuntza-eragile zen neurrian, ikasle-taldeekin esku hartzeko komunikazio-gaitasunak eta gaitasun pedagogikoak izatea.

Programa honetan biktimek modu zuzenean eta aktiboan parte hartu zuten. Bizitako indarkeriaren lekuko moralak ziren eta, hala, biktimek iraganaz duten ikuskeratik abiatuta, sortutako kaltea berriro ere gerta ez dadin nola lan egin beharko genukeen hausnartzeko bidea zabaltzen da.

Gure gizarteak indarkeria handia pairatu izan du eta halakoetan, gizarte-justiziak hala aginduta, sufrimenduari aurre egitea funtsezko urratsa da gizarte berriro eraikitzekeko prozesuan.

"Lehendabizi, ikasleek eta, oro har, hezkuntza-komunitateak elkartasun-prozesuak ikasi behar ditu biktimekiko eta haien nahigabearekiko elkartasuna adierazteko eta gure laguntza eta babesa adierazi ahal izateko. Ez dezagun ahaztu sufritzen dutenekiko elkartasuna adieraztea eta besteen nahigabearekiko

axolagabeak ez izatea bakegintzaren hezkuntzaren oinarritzko helburu klasikoetako bat dela (Jares, 1991 eta 2004). Helburu horrek, beraz, axolagabekeria-egoerarekin eta biktimekiko susmo-egoerarekin (“zerbait egingo zuen bada”) amaitu behar du; izan ere, ikuskera hori oso errotuta egon da eta oraindik ere irauten du euskal herritarren zenbait sektoretan. Bigarrenik, biktimei protagonismoa eman behar diegu hezkuntzan, hau da, biktimek hezkuntza-eragileak izan behar dute” (Jares, 43. or.).

Bilbao eta Etxeberriak (2005, 20. or.) Gesto por la Paz (1999) aipatuz dioten bezala, biktimak “Euskal Herrian, bertan eta bertatik, sortutako motibazio politikoko indarkeriaren ondorio zuzenak jasan dituzten pertsonak dira. Definizio honek barne hartzen ditu: a) ETaren, GALen eta antzeko ezaugarriak dituzten beste talde batzuen terrorismoaren biktimak, hau da, eraildako pertsonak edo fisikoki zein psikikoki kalteak jasan dituzten pertsonak eta haien senideak edo gertukoak, eta baita mehatxuen, estortsioen edo bahiketen biktimak; b) kale borrokaren biktimak; eta c) segurtasun-indarrek terrorismoaren aurkako borrokan dituzten legezko eskudantzien gehiegikeriaren ondorio izan diren neurritz kanpoko jokabideen biktimak”.

## 4.2 Bakeaz blai programaren helburuak

### Helburu nagusia

- Parte-hartzaileak indarkeria gaitzesteko ezagutza eta jarrera sendo eta aktiboak eraikitzeke gai izatea eta giza-eskubideak sustatzeko tresnak eskuratzea.

### Ikasleentzako eta aisialdi-taldeetako gazteentzako helburu bereziak

- Bidegabekeriak eta giza-eskubideen urraketak antzemateko gai izatea.
- Dauden indarkeria motak ulertzeko, identifikatzeko eta bereizteko gai izatea (indarkeria zuzena, psikologikoa, egiturazkoa eta kulturala).
- Beste pertsona batzuekin dituzten gatazkak erregulatzeko tresnak eskuratzea.
- Indarkeriarik gabeko komunikaziorako gaitasunak eskuratzea.
- Gorrotoa, mesfidantza eta gaitzespena prebenitzeko gaitasunak eskuratzea.
- Aldaketa emozionalak gertatzea, hala nola, enpatia izateko gaitasuna, besteen nahigabea ezagutzeko gaitasuna eta bestea humanizatzeko gaitasuna.
- Eraikitzen ditugun estereotipoak, aurreiritziak eta “etsaien irudia” identifikatzeko gai izatea.
- Estereotipoekin eta aurreiritziekin hausteko gai izatea.

- Biktimekiko eta indarkeriarik ezarekiko elkertasuna erakusten duten jarrera-aldaketak gertatzea.

### Irakasleentzako eta hezitzaileentzako helburu bereziak

- Euskal Herrian gertatutako giza-eskubideen urraketek buruzko isiltasunaren espiralarekin hausteko gai izatea.
- Jarrera-aldaketak gertatzea eta hartara, giza-harremantarako eta gatazkak erregulatzeko, elkarrizketaren garrantziaz ohartzea.
- Indarkeria terroristaren biktimekiko sentsibiltatea areagotzea.

### 4.3 Parte-hartzaileak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hautatu zituen hezkuntza formaleko taldeak. Bost talde hautatu zituzten hainbat irizpidetan oinarrituta, besteak beste, ikastetxeek bizikidetzaren inguruan aurretiaz eginiko lanaren ibilbidean oinarrituta edo halako programa bat abian jartzeko motibazioan oinarrituta.

Hezkuntza formala				
Jatorria	Talde kopurua	Ikasle kopurua	Irakasle kopurua	Guztira
Araba	1 talde	23 ikasle	2 irakasle	25
Gipuzkoa	1 talde	29 ikasle	2 irakasle	31
Bizkaia	3 talde	78 ikasle	2 irakasle	80

4. taula: Hezkuntza formaleko ikasle eta irakasle parte-hartzaileen kopurua guztira  
Iturria: Geuk egina

Hezkuntza formala	
Irakasleak	Ikasleak
6	5 talde, guztira EAEko hiru lurraldeetako DBH 4. mailako 130 ikasle

5. taula: Hezkuntza formaleko ikasle eta irakasle parte-hartzaileen kopurua guztira  
Iturria: Geuk egina

Aisialdi-taldeak Euskalerriko eskautak elkartearen baitako gazteen zenbait elkarte-sareren bitartez hautatu ziren. Euskalerriko eskautak irabazi asmorik gabeko elkarte da eta aisialdia eskaut metodologiaren bitartez lantzen du eta komunitate kristauak ditu oinarrian.

### Hezkuntza ez-formala

Jatorria	Talde kopurua	Gazte kopurua	Hezitzaile kopurua	Guztira
Durango	1	5 gazte	2	7
Galdakao	1	6 gazte	2	9
Arrigorriaga	1	5 gazte	2	7
Getxo	1	5 gazte	2	7
Ermua	1	5 gazte	1	6
Muskiz	1	6 gazte	-	6
Ortuella	1	5 gazte	-	5
Gallarta	1	8 gazte	-	8

6. taula: Hezkuntza ez-formaleko ikasle eta irakasle parte-hartzaileen kopurua guztira  
Iturria: Geuk egina

### Hezkuntza ez-formala

Hezitzaileak	Gazteak
9	8 grupos, un total de 45 personas del territorio histórico de Bizkaia.

7. taula: Hezkuntza ez-formaleko ikasle eta irakasle parte-hartzaileen kopurua guztira  
Iturria: Geuk egina

## 4.4 Programaren garapena



2. grafikoa: Bakeaz blai programaren faseak  
Iturria: Geuk egina

## LEHEN FASEA: PROGRAMAREN DISEINUA ETA KOORDINAZIOA

Bakeolaren eta Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzen eta sailen arteko koordinazioa ezarri zen.

Koordinazioa ezarri ondoren, esku-hartze programa pedago-



giaren ikuspuntutik diseinatzeari ekin zitzaion. Erreferentzia bibliografikoak eta iturri dokumentalak bilatu eta, pixkanaka, programa pedagogikoa sortu genuen. Halaber, bakegintzaren, bizikidetzaren eta giza-eskubideen aldeko hezkuntzaren alorreko adituen laguntza eta kontrastea ere izan genuen.

Sortze-prozesuaren une horretan, Bakeaz blai programaren bi elementu adierazgarrienak landu genituen batez ere: biktima hezitzaileen presentzia aktiboa eta zuzena eta aterpetheen testuingurua; biktimak ikasgeletatik atera nahi izan genituen hasieratik, denborak eta egiturak markatutako ingurutik urrundu nahi izan genuen. Gure asmoa espazio babestua eskaintzea zen, biktimei eta hezigaiei esperientziaren ikuspuntutik emozioak eta jarrera enpatikoak bizitzeko bide emango zien espazio "erosoa" eskaintzea. Eta halaxe hasi zen Bakeaz blai programaren ibilbidea.

## **BIGARREN FASEA: INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA**

Parte-hartzaileak hautatu ostean, informazio-saio bat egin genuen parte hartuko zuten ikastetxe eta taldeekin lehen harremana izateko eta informazioa emateko. Halaber, zalantzak argitzeko eta biktima hezitzaileekin egindako programa bat abian jartzearekin lotutako beldurrak mahai gainean jartzeko ere balio izan zuen.

## **HIRUGARREN FASEA: PRESTAKUNTZA**

### **a) Bakearen dinamizatzaileei eta biktimei zuzendua.**

Aterpetheen testuinguruan, bake-dinamizatzaileei eta biktimei zegokien programa abian jartzea.

Dinamizatzaileekin informazio-tailer bat egin zen eta bertan, programaren bigarren zatia jorratu zen batez ere, horixe baitzen haiek abian jarriko zutena, nahiz eta, ikuspegi integral batetik, programa osoa testuinguruan kokatu zen.

Biktimen zuzendaritzak ireki zigun biktimekin topatzeko bidea. Programari eta bere ezaugarriei buruzko informazio-bilera bat egin genuen. Bakeolak Euskal Herriko biktima hezitzaileekin egindako lehen hartu-emanak izan zen.

### **b) Irakasleei eta hezitzaileei zuzendua.**

Irakasleei eta hezitzaileei zegokien ikastetxeen eta aisialdi-taldeetan testuinguruan programa abian jartzea.

Prestakuntza-saio bat egin genuen haiekin programaren inguruan sakontzeko. Helburua zen irakasleak eta hezitzaileak programaren lehen zatia bakoitzari zegokion ikastetxean edo taldean era autonomoan abian jartzeko gaitzea.

Irakasleek 2011ko urriaren 17 eta 2012ko urtarrilaren 11 bitartean garatu zuten programaren lehen zatia. Begiraleek, ordea, 2012ko urtarrilaren 11 eta martxoaren 1 bitartean.

Prozesu horretan, Bakeolak aholkularitza eskaini zien irakasle/hezitzaileei sortzen ziren zalantzak argitzeko.

## LAUGARREN FASEA: IKASTETXEA

**Programaren lehen zatiaren garapena. Lehen zatia ikastetxetan edo aisialdi-taldeetan gauzatzen zen:**

Bost saio ziren eta erraz egokitu zitezkeen ikastetxe edo talde bakoitzaren programaziora.

**Bost saio** horiek tutoretza-, bizikidetzeta- eta etika-programen eta antzeko espazioen baitan erraz moldatzeko moduan diseinatu ziren. Hala ere, curriculumaren beste arlo batzuetara (euskara, gaztelania, ingurumenaren ezaguera) edo elkarteek eta aisialdi-taldeek hiruhileko oso baterako programatutako jardueretara ere erraz egokitzeko aukera ematen zuten.

Lehen zatiaren **edukiak** bloketan egituratzen ziren:

---

### Ikastetxea/ Aisialdi-taldea

---

#### **0. Blokea:**

Programaren aurkezpena. Partaideak ezagutu eta aurkeztu.

---

#### **1. Blokea:**

Giza-eskubideak berreskuratu. Gure erreferentzia-esparru etiko eta moralak. Identitate berriak sortuz. Indarkeriarik gabeko erreferenteak.

---

#### **2. Blokea:**

Indarkeria naturalizatzea. Bizitzaren arloetan bizi izandako eta gauzatutako indarkeriak.

---

#### **3. Blokea:**

Gure iragana eta oraina. Gaur egungo errealitatea egituratzen lagundu zuten iraganeko gertaerak. Gauzak ikusteko eta ulertzeko hainbat modu.

---

Eduki-bloke hauek guztiak bost saiotan banatu ziren. **5 saio** horietako lana bakearen, bizikidetzaren eta giza-eskubideen barioak lortze aldera bideratu zen, hasi ikuspegi global edo orokor batetik eta pixkanaka tokiko eta pertsona arteko ikuspegira hurbilduz.

Hurbileko testuinguruan ditugun indarkeriak aztertu zituzten eta sufrimenduaren bizipenera hurbildu ziren.

Informazioa egiaztatzea, gertaeretara jotzea, atzean ezkutatzen diren interes partikularrak aztertzea, historia berraztertzea, "hitzik ez dutenei" hitza ematea, justizia eta berdintasunaren irizpideak gidalerro hartzea... Ariketa horiek guztiak egia (beti inperfektua eta berrikusi beharrekoa) eraikitzeko erabilgaitako estrategietako batzuk baino ez dira.

Giza-eskubideak dira erreferentzia-esparru etiko eta morala. Pertsona guztien bizitzeko eskubidea eta duintasun-eskubidea jorratuko dira bereziki. Jaresek (2006) dio bizitza erdeinatzeak haustura adierazgarri bat dakarrela berekin: helburuen eta bi-tartekoen artean egon behar duen batasuna hautsi egiten da. Indarkeria gatazkei aurre egiteko modu bat da, baina ez ditu, ordea, gatazkek erregulatzen. Eta horixe da, hain justu, jorratuko dugun edukietako bat. Indarkeriak aurkako aldean dagoena hutseratzeko, hiltzeko edo haren aurka lehiatzeko balio du, baina ez du, ordea, gatazka konpontzen eta beraz, berriro ere agertuko da.

Azken batean, indarkeria zalantzan jarri behar dugu gatazkek indarkeriarik gabe konpontzearen, demokraziaren eta moralaren oinarritzko printzipioekin kontraesanean dagoelako.

Hona hemen jarduerak jarraitu zuten **ibilbide metodologikoa**:



3. grafikoa: Bakeaz blai programaren ibilbide pedagogikoa  
Iturria: Geuk egina

### BOSGARREN FASEA: ATERPETXEA

Programaren bigarren zatiaren garapena. Bigarren zatia aterpetxeetan gauzatzen zen

Dinamizatzaileek eta biktimek 2011ko abenduaren 21 eta 2012ko apirilaren 29 bitartean garatu zuten programaren bigarren zatia. Bakeolaren eginkizuna dinamizatzaileei eta biktimei aterpetxe-ko lanean laguntzea izan zen.

Bi egun eta erdiko egonaldia zen, mantenu osoan. Gernika-Lumon egin zen, Bakeraren Hirian, Bakegintzaren, bizikidetzaren

eta Giza Eskubideem hezkuntzari buruzko programak gauzatzeko toki aproposa.

Hona hemen programaren bigarren zatiaren oinarritzko edukiak (hauek ere bloketan egituratu ziren):

---

### Gernikako aterpetxea

---

#### 4. Blokea:

Gatazkak ulertzeko beste modu bat eta haiei modu egokian nola heldu.

#### 5. Blokea:

Komunikazio-gaitasunak (entzute aktiboa, jarrera irekia..)

#### 6. Blokea:

Etsaiaren irudia deseraikitzea.

#### 7. Blokea:

Emozioak: enpatia eta bestearen onarpena landu. Mesfidantza, beldurra, gorrotoa eta mendekua alde batera utzi.

#### 8. Blokea:

Biktinekiko eta indarkeriarik gabeko errealitatearekiko konpromisoa.

---

Eduki-bloke horiek guztiak aterpetxean eginiko 2 egun eta erdiko egonaldian landu ziren. Gatazkak modu egokian erregula ditzaten trebatu zituzten gazteak egonaldian eta ulertarazi zieten gatazka bizikidetzari eta desberdintasunari datxekien zerbait dela. Hori kontuan ez hartzeak edo saihesteak ez du indarkeria-egoera desagerrarazten. Hori azalaraztea eta kudeatzea harremanetan jartzeko beste modu batzuk abian jartzeko aukera aparta dira; labur-labur esanda, gazteak era egokian, eraikitzailean eta indarkeriarik gabe jarduteko prestatu zituzten.

Komunikazio-gaitasunak jorratu zituzten, hala nola, jarrera irekia izatea, entzute aktiboa egitea, besteari entzute horretan arreta jartzea edo berdintasunetik entzutea. Horretarako, zinezko jarrera batetik abiatuta, bestearekin topo egiteko alde aurretik halako jarrera izateak zenbateko garrantzia duen nabarmendu zuten.

Halaber, etsaiaren irudia (beste mehatxutzat hartzen dugunean) ere landu zuten; irudi hori baloraziozko iritzien bidez (estereotipoak eta aurreiritziak) eta taldearen erantzunetan oinarrituta (mesfidantza, indarkeriazko jarrerak) eraikitzen dugu. Hortaz, etsaiaren irudiaren eragina murrizteko dinamikak baliatu zituzten.

Emozioak nola bideratu ere landu zuten. Emozioak izatea naturala da, eta beraz, emozioak ez dira gaitzesgarriak, sentitutako emozioa edozein dela ere. Arreta, ordea, honako honetan jarri zen: emozioak nola bideratu. Garrantzia zuena zen emozio ho-

riek indarkeriaren espirala ez areagotzea. Horretarako, empatia-gaitasuna jorratu zen bereziki, hau da, beste pertsonaren emozioak zein diren identifikatzeko eta bere sentimenduak zein diren ezagutzeko ahalegina egitea. Horrek ez du esan nahi pertsona horren arrazoiak geure egin behar ditugunik edo justifikatu behar ditugunik, baina bai, ordea, bere sentimenduetara hurbildu behar dugula.

Aterpetxeko egonaldian, parte hartzeko eta, zuzenean edo zeharka, indarkeriaren ondorioak jasan dituzten biktimekiko elkartasuna adierazteko guneak eta bideak sortu ziren. Programan modu aktiboan parte hartu zuten biktimek beren eskutik etorri zen hori.

Programa bizi izan zuten gazteek lekukoa hartzeko eta beren gertuko errealitatean bake-eragile bihurtzeko aukera izan zuten.

## SEIGARREN FASEA: EBALUAZIOA

Eusko Jaurlaritzarekin batera, taldeen (ikasleak eta aisialdi-taldeetako gazteak), irakasle eta hezitzaileen eta dinamizatzaileen ebaluazioak egin zituzten helburu horrekin diseinatutako tresnak baliatuz.

### Ebaluazioa

Ebaluazio-galdetegiak izan ziren ebaluatzeko erabilitako tresnak. Galdetegien helburua programako parte-hartzaileen eta bere garapenean esku hartu zuten hezkuntzaren alorreko eragileen iritzia eta pertzepzio subjektiboa jasotzea zen.

Parte-hartzaileentzako ebaluazio-galdetegiak azken saioan banatu zituzten, esperientzia ixteko mekanismo gisa.

Galdetegiaren alderdi kuantitatiboak esperientziaren ikuspuntuari buruzko eta beste alderdi batzuei buruzko informazioa (antolaketa, iraupena, ordutegia, dinamika, metodologia, edukiak, ezartzeko modua, motibazioa, sortutako giroa) eskatzen zuen 1etik 10era bitarteko estimazio-eskala batean.

Bestalde, galdera irekiak ere bazeuden hainbat alderdiri buruzko informazio kualitatiboa jaso ahal izateko: zer jarduera iruditu zitzaion interesgarriena, zergatik, eta aldatuko luketen elementurik bazegoen ala ez. Balorazio eta iritzi guztiekin ebaluazio-txosten bat idatzi zen.

Azken ebaluazio-txostena aurkezten dugu jarraian. Bertan, programaren alde onak eta etorkizuneko edizioetarako hobetu beharreko alderdiak bereizi ditugu.

---

## Eusko Jaurlaritza

---

### Alde onak

Programa bikain garatu zen eta bere gidalerroak argiak ziren.

---

Zuzendaritza-teknikariek jakin zutenez, irakasleak eroso sentitu ziren, nahiz eta hasieran mesfidati zeuden programaren zati bat beharrik bakarrik jarri behar zutelako abian.

---

Programak aukera ematen zuen bakegintzaren hezkuntza ikaste-txeetan/aisialdi-taldeetan lantzen jarraitzeko

---

Aterpetxearen testuinguruak balio erantsia eman zion programari, kontakizunaren ekarpena egiteaz gain, biktimek aterpetxeko dinamikan ere parte hartu zutelako.

---

### Hobetu beharreko alderdiak

Programak ez zuen finantzaketa egonkorrik.

---

Zaila izan zen esperientzia orokortzea, biktima hezitzaile izatearen eskakizunarekin betetzen zuten biktimen giza-kapitala murrizta zelako.

---

---

## Irakasleak eta hezitzaileak

---

### Alde onak

Biktima zuzenean ezagutzea eta elkarrekin hobeto nola bizi erakusten duen irakaskuntza emozionala.

---

Gure lurraldean gertatutako urraketekin lotutako alderdiak jorratzeko bide eman zuen programak eta gertuko hezkuntza-ingurunean horiek berriro ez gertatzeko tresnez hornitu zituen parte-hartzaileak. Azken batean, prebentziozko kontzientzi etiko baten aldeko lana abiarazi zen.

---

### Hobetu beharreko alderdiak

Aterpetxeko esku-hartzea amaitu eta gero, programari jarraipena emateko gehiago zehaztu behar da eta oinarriak jarri behar dira.

---

### Hobetu beharreko alderdiak

Aterpetxeko esku-hartzea amaitu eta gero, programari jarraipena emateko gehiago zehaztu behar da eta oinarriak jarri behar dira.

---

---

### **Ikasleak eta gazteak:**

---

Programari buzuz dituzten iritziak eta ondorioak labur-labur jaso ditugu eta esan dezakegu esperientziak oso balorazio ona izan duela. Programa 1etik 10era bitartean baloratzeko eskatu genien. Asebetetze-maila pertsonala 8,25ekoa izan da 10 punturi dagokionez.

---

#### **Alde onak**

Biktimen testigantza "hunkigarria, hurbilekoa, sakona" izan zen eta ordura arte ikusezin ziren bizi-esperientziak ezagutzeko aukera eman zien.

---

Askori oso urruneko iruditzen zitzaien gertuko errealitate batez jabetu dira.

---

Gatazken aurrean zer jarrera hartzen dituzten hausnartzea eta errealitate gertukoenean bakea sustatzeko duten rol aktiboaz ohartzea.

---

#### **Hobetu beharreko alderdiak**

Antolamendua (jarduera gehiegi, talde bakoitzeko pertsona-kopurua).

---

---

### **Bakeolako taldea**

---

#### **Alde onak**

Indarkeria politikoa eta soziala prebenitzeko programa bat egin izana.

---

Humanizazio-politiken alde egitea eta hemen Euskal Herrian bizikidetza-kultura berri bat sustatzea.

---

#### **Hobetu beharreko alderdiak**

Ziurgabetasuna, erakundeek halako programen aldeko apustua ez egitea.

---

## **5. Ondorioak eta gomendioak**

Bakeaz blai programa irakasleek/begiraleek programaren lehen zatian modu aktiboan parte hartzeko egin zen. Asmoa zen irakasleek/begiraleek beren larrutik ezagutzea geroago ikasleekin egin behar zituzten jarduerak zer zailtasun edo aukera eskaintzen zituzten. Horrek martxan jartzeko arazoak baloratzeko eta programa desmitifikatzeko bide eman zien; izan ere, biktimekin modu aktiboan eta zuzenean lan egingo zuen programa pilotua izanik, halako izaera zuen programa bat abian jartzeko beldurra adierazi zuten hasieran.

Irakasleekin egindako trebakuntza-saioak proiektuaren dimentsioan kokatzen lagundu zien irakasleei, garatu beharreko edukiak eta jarduerak zein ziren ezagutzen. Gainera, gure on-



doan biktima bat izan genuen eta berak ere bere testigantza kokatu zuen (balioak, esparru etiko eta morala...).

Bakeolaren hasierako hipotesia zen ikasleek ez ezik, irakasleek ere aldatuko zituztela komunikazioarekiko eta indarkeriazko jokabideekiko jarrerak eta gaitasunak; eta beraz, espero izatekoa zen, orobat, irakasleen eta ikasleen arteko harremanak hobetzea.

Irakasleek eta Bakeolak esku-hartze programaren alderdi pedagogikoak elkarrekin aztertu zituzten eta horrek balorazio ona izan du; izan ere, programaren erantzukizuna bi alderdiek hartu zuten eta hartara, ikastetxeak konpromiso handiagoa hartu zuen.

---

#### **Ondorioa (1)**

Ikastetxeetako (familiak eta irakasleak) inplikazioa, prestakuntza eta trebakuntza gako-faktorea da programa modu egokian garatuko dela bermatzeko

---

#### **Gomendioa (1)**

Ikastetxeetako prestakuntza, parte-hartze eta inplikazio prozesuak zaintzea

---

Esperientzia honen beste ezaugarri interesgarri gisa, parte hartu zuten ikastetxeek bakegintzaren eta bizikidetzaren hezkuntzan ibilbidea zuten eta horrek asko lagundu zuen programaren garapenean.

---

#### **Ondorioa (2)**

Ikastetxeak bakegintzaren eta bizikidetzaren hezkuntzaren arloan aurretik esperientzia izatea eta horren aldeko kultura izatea lagungarria da halako programa pedagogikoak garatzeko

---

#### **Gomendioa (2)**

Bakegintzaren eta bizikidetzaren hezkuntzaren eremuan lanean diharduten ikastetxeak indartzea, zabaltzea eta laguntzea.

---

Bakeolak onartzen du etorkizunean programaren garapenari arreta jarri eta "oxigenatzen" utzi behar duela, eta ez duela jarduera gehiegirekin saturatu behar.

---

#### **Ondorioa (3)**

Gizartearen, politikaren eta komunikabideen ingurunearen itzaropen eta exijentzia handiek antsietate-egoerak eta gehiegizko presio-egoerak sortzen dituzte eta ez dira egokiak programa modu naturalean gara dadin

---

#### **Gomendioa (3)**

Mota honetako programek giro lasaia eta ingurune soziopolitiko mingarrietatik babestuko dituzten baldintzak behar dituzte

---

Bakeaz blai programan parte hartu zuten pertsona guztiengandik jasotako datu orokorren lehen azterketak adierazi duenez, programa pilotu honek energia eraldatzaileen korrante positiboa sortu du bakegintza-kultura bat eraikitzearen inguruan.

---

#### **Ondorioa (4)**

Hezitzaileen gaitasun pedagogiko eta dinamizatzaileak ezinbesteko baldintza dira programa modu egokian garatuko dela bermatzeko

---

#### **Gomendioa (4)**

Programako dinamizatzaileen gaitasun tekniko eta pedagogikoa bermatzea

---

Biktimen testigantza zuzenaren eta haien bizi-esperientziaren bitartez, bizi izandako nahigabea eta sufrimendua bakea erai- kitzeko ahalmen eta gizarte-justizia bihurtzearen alde lan egin genuen.

Bakeolak asko ikasi du ikasleekin eta gazteekin. Haien haus- narketekin eta euskal gatazka ulertzeko moduarekin asko ikasi dugu. Haatik, desberdintasun handiak daude elkarren artean: Euskal gatazkari buruzko informazio gutxiago dute, gertaera historikoek ez dituzte ikasleak hainbeste mugatzen, baina bes- talde, freskotasun handiagoa dute eta ez daude ideologikoki hain kontaminatuta...

Biktimen kontakizunaren ostean, galdera eta gogoeta asko egon ziren. Beste ezein jarduerarekin lortu ez zen erabateko isiltasuna nagusitu zen.

Parte hartzaileen adierazpen guztiak zinezko errespetu sako- naz esan ziren, kuriositateak bultzatuta, xalo-xalo, eta batez ere, aurrez aurre.

Biktimei egindako galderak sentimenduei, barkamenari, adis- kidetzeari buruzkoak izan ziren eta alderdi emozionalekin, ho- betzeko nahiarekin eta ausardiarekin lotuta zeuden.

**Bazirudien zauria ukitzen zutela ixten laguntzeko.**

---

#### **Ondorioa (5)**

Biktima hezitzailea egoera eta jarrera aurrealderdikoi batean koka- tzeak bizitako sufrimenduarekin eta bidegabekeriarekin emozional- ki konektatzeko aukera ematen du eta justiziarekiko eta giza-es- kubideekiko konpromisoa indartzen du

---

#### **Gomendioa (5)**

Biktima hezitzaileen taldea mantentzea, indartzea eta zabaltzea, axolarik izan gabe zein den biktimizazioaren jatorria edo egilea.

---

Esperientzia pilotu honetan, Hezkuntza Sailak ikastetxeen parte-hartzea bermatzen zuen eta halaxe izan da. Lau ikastetxek eta bost taldek hartu dute parte.

Taldeek berek aukeratu dute Gernikan programa noiz gauzatu.

Berebiziko garrantzia izan zuen Bakeaz blai programaren **ku-deaketarako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren** lankidetzaz izatea, parte hartzen zuten ikastetxeekin koordinatzen lagundu baitzuen.

Bien artean sortutako harremana egokia izan da, tratua eta harremana bera gertukoa izateaz gain, egindako jarraipena egokia izan delako.

Koordinazio ona eta informazioaren transmisio egokia modu **positiboan** baloratzen ditugu.

Halaber, **Biktimen Zuzendaritzarekin** izandako koordinazioak ez du ezein momentutan trabarik izan.

Zuzendaritzak biktima baten telefono zenbakia ematen zigun; guk biktimari deitu eta berekin hitzordua egiten genuen esku-hartze programaren berri emateko (lan-ildoak, orientabide pedagogikoak).

---

#### **Ondorioa (6)**

Ez da beharrezkoa "bi biktima ekartzea, alderdi bakoitzeko bana". Izan ere, biktima hezitzailearen funtzioa jasan duen bizipena eta bidegabekeria kontatzea da, eta beraz, ez du axola zuzenean testigantza ematen duen pertsonaren biktimizazio-jatorria zein den. Programaren esparruak, prozesuak eta baliatutako material pedagogikoek bermatzen dute giza-eskubideen ikuspegi integrala.

---

#### **Gomendioa (6)**

Programaren esparruan, prozesuan eta material pedagogikoetan osotasuna bermatzea.

---

Programa ingurune ez formal batean gauzatzearen aldeko apustua oso ideia ona izan da. Parte-hartzaile guztiak beste giro batean aritu dira, konfidentzialagoa. Biktima gehienek, kontakizunaren ekarpena egiteaz gain, modu aktiboan parte hartu dute aterpetzeko dinamikan.

---

#### **Ondorioa (7)**

Aterpetzeko giroak nabarmen egin dio mesede programaren giroari, bai kalitateari bai epeltasunari dagokionez

---

#### **Gomendioa (7)**

Programa pedagogikoetan ingurune ez formalak sartzea, ikasgela edo eskola-taldeko ohiko hezkuntza-testuingurutik urrun

---

## Biktimekiko harremana:

“Giza-kapitalarekin” arazoak nabarmendu dira. Gutxi ziren programan parte hartzen zuten eta testigantza emateko irizpi-deak betetzen zituzten biktimak eta, beraz, batzuetan zaila izan da aterpetxeetarako biktimak aurkitzea.

Hala ere, biktimek egindako lana oso ona izan dela iruditzen zaigu. Gernikako egonaldi osoan erakutsi duten epeltasun eta gizatasunak, beren bizi-testigantzak eta bakea eraikitzekeo duten ahalmenak **aparteko balio pedagogikoa** eman diote programari. Horiek gabe, programa hau ez zen posible izango.

---

### Ondorioa (8)

Halako izaera duen programa pedagogiko baten gako-faktorea pertsonak, biktima hezitzaileak eta biktimen gizatasuna dira. Horiek gabe, programa hau ez zen posible izango.

---

### Gomendioa (8)

Antzeko programa eta esperientzien hedatze- eta orokortze-prozesuak zaintzea

---

## 6. Bibliografia

Arartekoa. Herriaren defendatzailea (2009a). “*Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*”, (Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia). Vitoria-Gasteiz: Gema Varona.

- (2009b). “*Adingabekoei balioak transmititzea*”, (Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia). Vitoria-Gasteiz: Ikerketa Sozialak- Deustu Fundazioa.

Bakeola, Gatazkak bideratzeko eta bitartekaritzarako EDE Taldearen zentroa (2008). M11 programa pedagogikoa (Argitaratu gabeko programa). Bakeola, Bilbo

Baketik (2011) *Modulu didaktikoa. Bihotzetik. Izan proposamena, euskal auzian izandako giza eskubideen urraketen biktimei eskolan adierazi beharreko elkartasunari aplikatua*. Oñati: Baketik.

Bilbao, G. eta Etxeberria X. (2005). *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*. Bilbo: Bakeaz.

Delituen eta aginte-abusuen biktimentzako Oinarrizko Justizia Printzipioei buruzko Deklarazioa, Nazio Batuen Erakundearen Asanblada Nagusiak 40/34 Ebazpenean onartu zuena <http://www2.ohchr.org/spanish/law/delitos.htm>

Etxeberria, X. (2003) *La educación para la paz ante la violencia de ETA*. Bilbo: Bakeaz.

- (2009) *La educación para la paz vertebrada por las víctimas*. Bilbo. Bakeaz. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia (2013) Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarriko txostena (1960-2013). Vitoria-Gasteiz: Carmena M., Landa J.M., Múgica R., Uriarte J. M<sup>a</sup>.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2012). *Biktimak Euskal Hezkuntzan. Testigantza baliotsua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Saila (2008) *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketearen eta sufrimendu bidegabeen biktimak*.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2007) Dando pasos hacia la paz- Bakerako urratsak. Maiatzaren 20an berreskuratua <http://www.gizagela.net/>

Harillo S., Prieto J eta Ugarte J koord. (2010) Marka uzten dituguten istorioak. *Terrorismoaren biktimak bake-hezkuntzan* (2. ed.). Bilbo: Bakeaz.

Jares, X. (2006). El papel de la investigación y la educación para la paz ante la violencia terrorista. La respuesta educativa en el País Vasco. X. Jares, J. Ugarte, M. Mancisidor eta M. Oianguren (koord.). *El papel de la investigación para la paz ante la violencia en el País Vasco* (27-47. or.). Bilbo. Bakeaz.

Martín Beristain C., Paez Rovira D. (2000) Violencia, apoyo a las víctimas y reconstrucción social. *Experiencias internacionales y el desafío vasco*. Madril: Fundamentos.

Martín Beristain (2012). Violencia, polarización y reconstrucción de la convivencia. El caso vasco. M. García de la Torre, M. Oianguren, G. Ruiz eta J. Ugarte (koord.) *Derechos humanos y construcción de paz en el País Vasco* (97- 122. or.). Bilbo: Bakeaz.

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Idazkaritza (2012). *Terrorismoaren bukaera* (48. soziometroa) Vitoria-Gasteiz. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.

## NOLA EGIN DEZAKEGU AURRERA BIKTIMEN ERREPARAZIOAN?

*Jakintza Elkarrizketa* topaketako parte-hartzaileen ekarpenen arabera, biktima kontzeptua eta bere esanahia argitu egin behar dira eta sufrimenduaren kontzeptutik bereizi. Horrekin adierazten da giza eskubideen urraketa guztiak eta biktimizazio-prozesuak aintzatetsi behar direla, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko legedian urraketa gisa sailkatu gabe dauden eta, hortaz, erreparazioari lotuta ez dauden sufrimenduak ere.

Inklusibotasuna biktimen erreparazioaren arloko alderdi nagusi moduan planteatzen da. Sufrimendua edo biktima izatea ukatzeak bigarren biktimizazioa eragiten du, etikoki baztergarria eta politikoki gaitzesgarria izateaz gain. Biktima batzuen erreparazio- eta aintzatespen-neurriak beste batzuentzako zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-iturri ez izatea komeni da. Hori indarkeria politikoen, terrorismo-erakundeen, estatu-krimenen eta abarren biktimei aplikatu ahal izango litzaieke, baina indarkeria matxistaren biktimei edo lehengo horien eskubide berberak ez dituzten beste batzuei ere zabal lekieke.

Biktimen erreparazioa alderdien norgehiagokatik kanpo utzi beharko litzatekeen elementu bat da. Biktimen eta sufrimenduaren erabilera politikoa eta alderdiek, erakundeek edo gobernuek egiten dituzten ekintzen atzeko alderdi-interesak biktimak erreparatzeko bidetik kanpo geratu beharko liriateke. Biktimen erreparazioak blindatuta egon beharko luke sufrimendua manipulatzearen edo alderdi- edo hauteskunde-xedeekin erabiltzearen aurrean.

Biktimen erreparazioan aurrera egiteak elkartasunaren, umiltasunaren, berdintasunaren eta enpatiaren balioetan sakontzea eskatzen du, bestelako pertsonak eta haien sufrimendua aintzatesteko bai gizarte-arloan bai politika-/instituzio-arloan. Horretarako, gizartea eta biktimak beraiek ahalduetzeko topaketa- eta partaidetza-espazioak ahalbidetzea kontuan eduki beharreko elementu bat da; izan ere, horietan eragindako mina eta norberaren akatsak aitortu daitezke, iraganaren beraren irakurketa kritikoak eginez. Hori posible izan dadin, guztion aldetik ausardia behar dela adierazi da. Horrekin batera, txikitasantetik, tokian tokitik, jardun behar dela eta erreparaziorako prozesuak eta ekintzak planteatzeko orduan sortzaileak eta irudimentsuak izan beharra dagoela azpimarratu da. Gainera, hainbat alorretan gauzatzen diren ekintzak koordinatzeko beharra onartzen da, eta, alor horien artean, hezkuntzak garrantzi berezia hartzen du kontzientzia kritikoak sortzeko zereginean.

Biktima guztiak ez daude egoera pertsonal, sozial edo psikologiko berdinean, ez dira pertsona-talde homogeenak eta ezin zaizkie erantzun bakar eta unibertsalak eman, baina denek asebeste beharreko eskubideak dauzkate. Biktimen erreparazioari nola heldu behar zaion jakiteko, biktimekin beraiekin lan egin behar dela adierazi da. Galderak egin behar zaizkie, beraiekin etengabe egon eta hitz egin, beraien beharrak eta erreparazio-nahiak ezagutzeko; azken batean, beren erreparazio-rako boterea eta protagonismoa eman behar zaie. Beren egoera agerian utzi nahi duten biktimak eta anonimotasunari eutsi nahi diotenak aurki ditzakegu; trauma psikologikoa gainditu duten batzuk eta hori egiteko laguntza profesionala behar duten beste batzuk; laguntza-sare sozial garrantzitsua behar duten eta daukaten batzuk eta hurbileneko jendearen eta gizarte-mailako aintzatespen zabalagoaren beharra duten beste batzuk; bestelako biktimekiko topaguneetan parte hartu nahi duten batzuk eta halako esperientziarik bizi nahi ez duten beste batzuk. Hala, horien eskubideak betetzea alde batera utzita, erreparazio-rako zenbait tresna sortzea eta demokratizatzea interesgarritzat jotzen da, biktimek erreparazio-rako egokiek zaizkien prozesuei heldu ahal izan diezaieten. Horretarako, planteamendu orokor eta koordinatu bat egiteko baliabideak jarri behar direla planteatu da.

Biktimen erreparazioa egia, justizia eta erreparazio-neurri espezifikoa biltzen dituen gai integraltzat hartzen da. Gizarte, etika, ekonomia, politika eta instituzio arloko aitorpena eskatzen du eta gizabanakoaren, taldearen eta kolektiboaren ikuspegitik jorratu behar da.

Erreparazio integralerako lehen urrats gisa, giza eskubideen urratze guztiak, biktimizazio-prozesuak eta sufrimendua sorrarazi duten eragileen ekintzak edo ez-egiteak argitzea funtsezkotzat jotzen da. Ildo horretan, ezinbestekoa da urraketen atzeko egia bilatzea, gertatutakoaren eta testuinguruaren gainean argia jartzea eta ez jartzea inolako biktimizazio- eta sufrimendu-prozesurik zalantzan, bizipen pertsonalak diren neurrian.

Egiaren auzia erronka nagusia da, eta kalteilea identifikatzea eta hark egindakoa argitzea dakar berekin. Hori zeregin zaila izaten da maiz, krimena burutu duenak hura argitzen laguntzen ez duenean, edo bere burua kaltegiletzat hartzeari uko egiten dionean, bereziki botere politikoa eta instituzionala dutenen artean.

Egia ezagutzeko eskubidea justiziari lotuta dago; izan ere, zigor-zuzenbidea aplikatzen den unetik, botere judizialak ikerketa judizialaren bidez gertakariak argitu behar ditu, erantzukizunak zehaztu, gertakariak frogatzen badira epaiak eta zigorrak eman, eta epai horiek betearazi. Hala ere, egia ezagutzeko eskubidea gertakariak maila judizialean argitzetik haratago doala adierazi da.



Egia, kontakizuna eta iraganaren elaborazioa orainaldian eta etorkizunean gainditu beharreko erronkak dira, oraina erakitzen eta etorkizuna proiektatzen baitute. Iragan hurbilaren interpretazio bakar batean oinarritutako azalpen bakar eta monokromatiko bat ematea ia ezinezko auzia dela dirudi, euskal gizartearen ezaugarri sozial, identitario, politiko, ideologiko edo kulturalengatik. Dena dela, kontakizun ezberdinek, hau da, iraganaren interpretazio ezberdinek abiapuntu izan dezaketen egia baterantz aurrera egiteko *egiaren batzorde* baten esku-menak bere gain hartuko dituen erakunde bat sortzen bada, organo horrek independentea izan beharko du eta alderdi-interesekin zerikusirik ez eduki, etapa berri batera igarotzeko lagungarriak izango diren neurriak abiarazteko.

Ahots guztiak entzuteko, topalekuak sortzeko eta iraganari buruz hitz egiteko eskatzen da, ikuspuntuak eta interpretazioak partekatzeko eta kolektiboki eraikitako kontakizunak hurbiltzeko, gertakarien kokaleku komuna kontuan edukita, ezer ezkutatu gabe. Baliteke hurrengo belaunaldiei oroimen alderdikoia, desitxuratua eta sinpletua transmititzea mesedegarria ez izatea iragana ez errepikatzeko, eta askotan aipatzen den ez errepikatze hori biktimen erreparazio osorako beharrezko osagarria da. Zenbait esperientziaren balioa nabarmentzea garrantzitsua da, adibidez Errenteriakoarena. Han, herrian indarkeriarekin lotuta jazotako gertakari guztiak argitzea ahalbidetu da, eta elkarrizketaren bidez kontakizunak hurbiltzea lortu da, nahiz eta kontakizunok, euskal egituraketa soziopolitikoak aintzat hartuta normala denez, anitzak eta askotarikoak izaten jarraituko duten.

Justizia, bestalde, urratzeak pairatu dituzten pertsonen balio, jardunbide eta eskubide bat da. Justiziak adiera eta planteamendu ugari dauzka, eta bizitza errealean modu askotan aplikatu daiteke. Eskuarki, justiziaz mintzatzen garenean, zigor-arloko justizian oinarritzen gara; legearen urraketak, urratzaileak, egindako delitua eta prozesua ardatz hartuta erruduna nor den zehaztu, epai bat eman eta/edo zigor bat ezarri eta berau beteazten duen justizian. Baina justiziaren bestelako ikusmoldeak daude, justizia egiteko bestelako lanabesak, eta horrelakoak dira Euskadiko bake-eraikuntzaren esparruan aplikatzeko planteatu direnak. Ohartarazi denez, justizia erreparatzaileak eta justizia trantsizionalak ikusgaitasuna, aintzatespena eta legitimitasun soziala eta politikoa lortu behar dute, maila instituzional eta sozialean bideratzen den biktimen erreparazio osoaren aterkiaren azpian sartze aldera; izan ere, gizarte-eragileen eskutik erreparatze-ekintzak gauzatu daitezke, eta justizia *behetik* eraikitzeko bidea eman. Gizarteari horiek zer esanahi duten, zer justizia-eredu planteatzen duten, zer-nolako esperientziak dauden, zer alorretan aplikatu daitezkeen eta zer eragilek parte har dezaketen helarazi behar zaio. Horrela, kontzientzia soziala eta politikoa sortuko da, horri esker justizia mota horiek gaur egungo posizio periferikotik erdigunera eramango dira, euskal

testuingurura egokitu ahal izango dira eta zigor-justiziaren osagarri egin ahalko dira.

Azkenik, adiskidetzea bakearen eraikuntzarekin eta biktimen erreparazio osoarekin lotutako hainbat elementu biltzen dituen edo horiekin zerikusia duen termino polisemiko eta poliedriko gisa agertzen da. Hala, adiskidetzea kontakizunaren inguruko borroka alde batera uzteko eta bizikidetzarako kontakizun bat eraikiz aurrera egiteko beharrari lotzen zaio. Adiskidetzeak iraganeko urraketak eta sufrimenduak pairatu dituztenen gizatasuna eta duintasuna erreparatzea eta leheneratzea eskatzen du; oraina eraikitzea, oraindik ere dirauten indarkeria-espiralaren elementuak gaindituz eta, hortik abiatuta etorkizuna prestatzea, egia eta justizia oinarritzat hartuta. Adiskidetzea gizakien duintasuna halabeharrez errespetatzea da, *besteak* parekoak eta legitimoki desberdinak direla onartzea, kaltegileei autokritika egiten, gizarteratzen eta hala nahi duten biktimengana hurbiltzen laguntzea. Adiskidetzea pertsonen, taldeen eta instituzioen arteko harreman suntsitzaileek eragindako gizarte-egituraren hausturak berreraikitzea da, eta horretan barkamenak funtzio garrantzitsua betetzen du.

## 2. KAPITULUA. MEMORIA ETA HISTORIA. IRAGANAREN LANKETA ELKARBIZITZA ERAIKITZEKO

### MEMORIA KOLEKTIBOA ETA BIKTIMIZAZIOAREN KONTAKIZUN INKLUSIBOAK VS LEHIAKORRAK: EUSKAL KASUAREN INGURUKO HURBILKETA BAT

Magdalena Bobowik eta Maitane Arnoso-Martínez  
Euskal Herriko Unibertsitatea

#### 1. Laburpena

Gatazka politiko traumatikoak giza taldeen memoria kolektiboan erregistratuta geratzen dira, eta memoria ondorengo belaunaldiari transmitituko zaien moduak eztabaida sakonak sortzen ditu, komunitate-mailan landu beharrekoak. Iraganari buruzko kontakizun posible guztien artean, kontakizun lehiakorrek agertu ohi dira. Horiek aldeetako baten sufrimendua azpimarratzen dute, eta beste aldekoa erlatibizatu edo ukatzeko joera dute. Literatura zientifikoan, mota horretako kontakizun baztertzaileak taldeen arteko etsaitasun-maila handiagoarekin lotzen dira, eta gatazkaren konponbidea zailtzen duten elementuetako bat dira. Alabaina, kontakizun horiekin batera, posible da askotariko kontakizunak agertzea, eta horietako batzuek biktimazio inklusiboa onar dezakete, hau da, beste giza talde batzuk ere norberaren taldea bezala biktima izan direla eta sufrimendu hori bidezkoa izan ez dela onartzen duen kontakizun bat egin dezakete. Testu honetan gai horren inguruko berrikusketa teoriko bat aurkezten dugu, Euskal Herriko testuinguruan dinamika horiek izan dituzten datu eta hausnarketa batzuekin batera.

**Gako-hitzak:** memoria kolektiboa, biktimizazioa, indarkeria, Euskal Herria.

## 2. Memoria kolektiboa, iraganaren irudikapenak eta identitatea

Gizarte-psikologiaren esparrutik, ikerketa ugarian aztertu da gizarteek nola integratzen duten iragana beren memoria kolektiboan. Oro har, ikusi da ez direla esperientzia guztiak berreskuratzen; aitzitik, norbanakoek eta giza taldeek taldearen beraren identitatea mehatxatu duten eta emozio kolektibo indartsuak dituzten esperientziak gogoratzen dituzte (Arnosó, Arnosó eta Pérez Sales, 2012; Bobowik, Páez, Liu, Licata, Klein, eta Basabe, 2014; Páez, Bobowik, Liu, eta Basabe, prentsan; Techio, Bobowik, Páez, Cabecinhas, Liu, Zubieta eta Espinosa, 2010).

Memoria kolektiboa irudien eta ezagutzen bitartez eraikitzen da, eta horiek pertsonen arteko komunikazioaren bidez eta komunikazio instituzionalaren bidez sortu, transmititu eta gordetzen dira. Irudikapen horiek jarraitutasuna emateko, taldearen irudi positibo bat emateko eta taldearen balio eta arauak lantzeko balio dute (Pennebaker, Páez eta Rimé, 1997). Zehazkiago, orainaldiko interes eta erreferentzia-esparruen bitartez beren iragana berreraikitzen duten talde bateko kideen memoria bezala ulertu behar da memoria kolektiboa (Halbwachs, 1925/1950). Historia gizartearen eraldaketen berri ematen saiatzen den bitartean, memoria kolektiboak taldearen iraunkortasuna eta homogeneotasuna bermatzen du (Halbwachs, 1925/1950). Norbere iraganeko zerbaitez oroitzeko eta hori gogora ekartzeko aukera identitatearen oinarri bat da, jarraitutasunaren sentimendurako eta norberaren berreraikuntzari koherentzia emateko faktore izugarri garrantzitsua delako (Pollak, 1992). Gainera, memoria arau modukoa da, taldeak agintzen dituen jokamoldeei buruz transmititu beharreko ikasgai bat bezalakoa.

Irudikapen sozialen alorrean erreferente den Serge Moscoviciren iritziz (1979), ordea, ez dago memoria bakar bat; aitzitik, testuinguru jakin batean giza talde berak memoria asko izaten ditu aldi berean. Hau da, ez dago irudikapen bat, irudikapen asko baizik, komunitateko giza taldeek dituzten identitate sozial edo nazionaleri lotuta. Moscovicik pluraltasuna berreskuratzen du pentsamendu sozialean; anitzak diren eta elkarrengandik urruntzen diren kontzeptuei esker iraganean gertatu zenari buruzko kontakizun ugari ikus daitezke.

## 3. Trauma kolektiboak, indarkeriaren memoria eta taldeen arteko harremanak

Iragan politiko traumatikoak pertsona kopuru handi bati eragiten dioten muturreko gertakariak dira, gizarte egituran aldatuta garrantzitsuak edo kohesio nazionalerako mehatxu

handiak eragiten dituztenak (Hilton eta Liu, 2008; Páez, Bobowik eta Liu, prentsan; Pennebaker, Páez eta Rimé, 1997). Kasu horietan, iraganari buruzko kontakizun posibleen pluraltasuna agerikoagoa izan ohi da. Iragana berreskuratzerakoan, memoriak batzuk beste batzuei kontrajarri ohi zaizkie (Jelin, 2003), indarkeriaren historiaren kontakizun eta esperientzien pluraltasuna ikusaraziz. Azaldu den bezala, oroitzapen kolektiboa beharrezkoa da taldearen jarraitutasuna gordetzeko (Rivero, Bellelli eta Barkhurst, 2000; Smeekes, Verkuyten eta Poppe, 2011). Alabaina, indarkeria eta trauma kolektiboak esperimentatu diren testuinguruetan, norberaren taldearen sufrimenduaren oroitzapenek bi norako ondorioak izan ditzakete taldeen arteko harremanetan. Giza taldeen arteko gatazkaren ondorio psikologikoez luze iraun dezakete gatazkaren amaiera formalaren ondotik (Barkan, 2000; Licata eta Klein, 2010), eta ez dituzte zuzenean gertatutakoa bizi izan zutenek edo lekukoek bakarrik esperimentatzen. Giza taldeko kideek trauma esperimentatzen dute, gertakari traumatikoa zuzenean ikusi zutenen kontakizun edo lekukotzen hedapenaren ondorioz (Lickel, Miller, Stenstrom, Denson eta Schmader, 2006; Páez eta Liu, 2012; Volkan, 1997).

Ikerketa enpirikoaren bidez egiaztatzen da kontakizun historikoez, islatzen duten ikuspuntuaren arabera, giza taldeen arteko harremanak oztopatu (adib. Smeekes et al., 2011) edo hobetzen lagundu dezaketela (adib. Adwan eta Bar-On, 2004). Zenbaitetan, giza taldeen arteko harremanak polarizatzen edo zailtzen dituzte, baina beste batzuetan posible da ikustea kontakizun batzuk endotaldearen interesetatik haratago doazela eta herrien historia eraikitzeke elkartzen diren memoriak sortzen direla.

#### 4. Biktimizazio baztertzailerik edo lehiakorraren kontzientzia

Biktimizazio baztertzailerik edo lehiakorra kontakizun-forma jakin batean oinarritzen da. Horrek norberaren taldeak sufritu duen formak bakarrik nabarmentzen ditu edo biktima-estatusari buruzko edo gehien sufritu duen taldeari buruzko lehiaketa bat ezartzen du. Biktimizazio-modalitate hori belaunaldiz belaunaldi transmititzen den norberaren traumaren batasunari buruzko sinesmen sendo batean oinarrituko litzateke (ver Barkan, 2000). Kontakizun horiek taldeko kideek eta buruzagiek aipatzen dituzte, taldearentzako abantaila praktikoa eta psikologikoa dituztelako, hala nola irudi moral positibo bat izaten jarraitzea (Shnabel, Halabi eta Noor, 2013) edo kalte-ordaina edo laguntza jasotzeko eskubidea izatea (Noor, Shnabel, Halabi eta Nadler, 2012).

Kontakizun horiek partzialak dira atribuzio-prozesu defentsiboak direla-eta (Hewstone, 1990; Islam eta Hewstone, 1993), eta horien helburua da indarkeria erabiltzeak dakarren dilema etikoa murriztea, errua txikitzea eta «heroi eta martirien» isto-

rioen bidez indarkeriazko jokaerak justifikatzea. Aurkikuntza horiek erakusten dute biktimizazio baztertzailerekin lotutako mundu-ikuskerak giza taldeen arteko gatazkaren memoria ez oso bat sortzen duela (Noor et al., 2012), eta kontakizun horien bidez pertsonak ez direla gauza besteen sufrimendua aitortzeko eta beste taldeko kideen kontra indarkeria erabiltzea onartzen dutela (Bar-Tal, 2013; Lickel et al., 2006; Salomon, 2004). Esate baterako, Belgradeko Giza Eskubideen Zentroko datuen arabera (Pérez-Sales, 2011), serbiarren % 52k esaten du ez duela Serbiako armadak egindako gerra-krimenik eza gutzen, % 43k baino ez du uste Srebenicako musulmanen hilketa gerra-krimen bat izan zela eta % 50ek hilketa hori benetan gertatu ote zen galdetzen dio bere buruari (hildakoen gorpuak aurkitu diren arren). Aitzitik, ikerketa horren arabera, % 70ek gerra-krimenez zituen Kosovon edo Kroazian gertatutako serbiarren heriotzak.

Giza taldeen arteko esparruan, ikusi da kontakizun lehiakorrek bakea lortzeko oztopo izan direla, gatazkak «trataezin» bilakatu dituztelako eta konponbidea lortzea zaildu dutelako (Rouhana eta Bar-Tal, 1998). Exotaldearen mina eta sufrimendua ukatzeak edo ez aitortzeak (Salomon, 2004; Vollhardt, 2012), infraculturazio-dinamikek (Andrighetto et al., 2012) eta giza taldeen arteko konfiantza-faltak (Schori-Eyal et al., 2014) erraztu egiten dute exotaldearen kontrako jarreraren legitimazioa (adib. Vollhardt eta Bilali, 2015) eta lotura daukate besteekiko praktika bortitz edo errepre-siboak erabiltzeko adostasun handiagoarekin (Wohl eta Branscombe, 2008).

## 5. Biktimizazio inklusiboaren kontzientzia edo memoria pluralak

Alabaina, iraganaren ikuspegi lehiakorraren eta horren biktimizazioaren aurrean, biztanleriaren sektore batzuetan biktimizazio inklusiboa aurkituko genuke. Horrek onartu egiten du beste taldeak ere biktima izan direla, norberaren taldearen antzera, bai eta sufrimendu hori bidezkoa izan ez dela ere (Vollhardt, 2012, 2015; Noor et al., 2012; Shnabel et al., 2013). Biktimizazio inklusiboaren kontzientzia giza taldeen arteko harremanetatik sor daiteke (Andrighetto et al., 2012), besteen sufrimenduari buruzko istorioak partekatuz eta horiek norbere taldearen esperientzien antzerakoak direla ikusiz. Horren adibide dugu Israel eta Palestinaren testuinguruan egindako ekimen bat, «Gurasoen zirkulua: Bakearen aldeko Familien dolua». Bertan, gatazkaren ondorioz seme-alabaren bat galdu duten guraso israeldar eta palestinarrek bakeari buruz hitz egin dute partekatutako minaren ikuspegitik (Landa, 2009).

Duela gutxi argitaratutako ikerketek hainbat testuingurutan erakutsi dutenez, biktimizazio inklusiboak giza taldeen arteko harreman positiboak errazten ditu (Cohrs, Mc Neil eta Vo-

Ilhardt, prentsan; Vollhardt, 2013; Vollhardt eta Bilali, 2015; Vollhardt, Nair eta Tropp, prentsan). Adibidez, Holokaustoa modu inklusibo eta unibertsal batean aurkeztu zenean handitu egin zen egungo gatazka bateko biktimei laguntzeko presutasuna (Vollhardt, 2013). Beste ikerketa batean, biktimizazio inklusiboaren kontzientzia giza taldeen arteko jarrera prosozial positiboekin lotu zen Ruandan, Burundin eta Kongoko Errepublika Demokratikoan (Vollhardt eta Bilali, 2015). Era berean, taldeen arteko jarrera positiboak errazten zituen Ipar Irlandaren kasuan, baina inklusibotasun unibertsalaren nozioan oinarritu zenean bakarrik (Cohrs, Mc Neil eta Vollhardt, prentsan). Azkenik, era honetako sinesmenek etorkin eta errefuxiatuekiko jarrera positiboak ere indartzen dituzte (Vollhardt, Nair eta Tropp, prentsan).

## 6. Euskal Herriko indarkeriari buruzko kontakizun lehiakorrak eta inklusiboak

Euskal Herrian erraz egiazta ditzakegu dinamika horiek guztiak. Adibidez, gizarte-talde batzuek uko egiten diote poli-ziaren eskuetan tortura izan dela onartzeari, torturak modu sistematikoan zalantzan jarriz eta torturaren biktimei erakunde armatuak aurrez diseinatutako estrategia bati jarraikiz gezurretan aritzea leporatuz, horrela pertsona horiek gatazka politikoaren biktima-izaera dutela ukatuz eta horien mina eta sufrimendua aitortzeari uko eginez. Antzeko dinamika batzuekin, ETA erakunde armatuak *ekintza* kontzeptua erabili du hilketa politikoak dakarren gatazka morala murrizteko eta «Euskal Herriaren» kategoria erabili izan du, osotasunean, bere jardueri legitimotasuna eman nahian, euskal herritarren zati garrantzitsu batek bere helburu politikoekin eta bere metodoekin bat egiten ez zuela onartu gabe. Gizarte-polari- zazioaren logika batean, memoria defentsiboak eraiki dira, norberaren sufrimendua nabarmenduz eta exotaldearen su- frimendua gutxietsiz edo ukatuz (Martín-Peña eta Opotow, 2011; Sabucedo, Blanco eta de la Corte, 2003).

Jakina, gurea bezalako testuinguru plural batean, iragana iru- dikatzeko moduak eta indarkeriaren, horren arduradunen eta biktimen irudikapenek berek ikuspegi ugari barne hartzen di- tuzte, eta desberdinak dira giza talde batzuetatik besteetara, hainbat faktoreren arabera: biktimizazio-esperientzia des- berdinak, ibilbide psikosozialak, identitate nazionala, ideolo- gia, baita biztanleriaren belaunaldia ere (Arnosó, Cárdenas, Muratori, Zubieta, Páez eta Bombelli, 2014; Arnoso, Cárdenas eta Páez, 2012). Adibidez, komunitatearen esparruan, ohikoa da indarkeriazko gertakariei buruzko adierazpenek sortzen duten gizarte-tentsioa ikustea.

Gure lantaldeak ikerketa bat egin zuen duela gutxi, hainbat al- derdi landuz: zer irudikapen egiten zituzten herritarrek gai ho-







Ikerketa kualitatiboari dagokionez, biktimen sei tipologia aurkitu ziren: 1) ETAk erail eta bahitutako pertsonak; 2) ETAk mehatxatutako pertsonak eta haien familiak, bai eta atentatuetan zauritutako pertsonak; 3) Polizia-indarrek eta indar parapolizialek erail eta zauritutako pertsonak; 4) Polizia-indarrek eta indar parapolizialek torturatutako pertsonak; 5) ETArekin lotura duten pertsonak, preso daudenak, atzerrian errefuxiatu bizi direnak edo lehergaiak manipulatzeko hil direnak, eta 6) espetxean sakabaneta-politikak pairatu dituzten presoak eta haien senideak.

Oro har, Euskal Herriko indarkeria politikaren biktima-izaera handiagoa onartzen zitzaizen ETAk eraildako edo bahitutako pertsonen ( $BB = 6.68$ ;  $DT = .77$ ) edo ETAk zauritutako edo mehatxatutako pertsonen eta ETArekin indarkeria pairatu dutenen senideei ( $BB = 6.20$ ;  $DT = 1.16$ ), bai eta polizia-indarren edo GAL eta Batallón Vasco-Español eta antzeko indar parapolizialen biktimei ( $BB = 6.32$ ;  $DT = 1.97$ ). Horrek bat egingo luke erakundeetatik terrorismoaren biktima bezala definitzen diren taldeekin. Gainera, biktima bezala ikusten dira ere indar handiz polizia-indarren tortura pairatu duten pertsonak ( $BB = 6.23$ ;  $DT = 1.32$ ). Adostasun txikiagoarekin (baina batez besteko teorikoa den 4tik gora oraindik ere), biktima bezala onartzen dituzte sakabanaketa-politikaren ondorioz Euskal Herrikan kanpoko espetxeetan dauden pertsonak ( $BB = 5.01$ ;  $DT = 1.99$ ) eta ETArekin lotura duten pertsonak, preso daudenak, atzerrian errefuxiatu bizi direnak edo lehergaiak manipulatzeko hil direnak ( $BB = 4.06$ ;  $DT = 2.03$ ). Azken talde horrek desadostasun handiena sortzen du parte-hartzaileen artean. Laburbilduz, aurkikuntza deskriptibo horiek erakusten dute badagoela nolabaiteko hierarkia bat biktimen estatusetan, baina ia erabateko adostasuna dago Euskal Herriko indarkeria politikoa pairatu duten ia pertsona guztiei biktima-estatusa aitortzearen inguruan.

Alabaina, kontakizun lehiakorragoen aurrean, gero eta integratzaileagoak diren kontakizunak ere ageri zaizkigu, testuinguru horretan gertatu diren biktimizazio-mota eta -esperimentzia guztien berri ematen saiatzen direnak. Duela gutxiko ikerketa baten arabera, herritarrei indarkeriaren biktimei buruz galdetzean, parte-hartzaileek gutxienez elkarren kontrako bi biktimizazio-mota aipatzen zituzten, eta berez onartzen zuten indarkeriaren ondorioak sufritu zituzten hainbat talderen biktimizazioa (ikus 1. taula) (Bobowik, Pérez, Basabe eta Slawuta, 2016).

Era berean, gure lantaldeak egindako ikerketaren arabera, biztanleriaren ehuneko handi batek indarkeriaren kontakizun inklusiboak bere egiten zituen, kontakizun lehiakorrak baino. Batez bestekoan (k) klusterraren analisi baten bitartez, aztertutako biztanleriaren hiru azpitalde bereizi ziren, biktima-mota desberdinen inklusibotasun mailaren arabera. Horrela, talde-

<b>Biktimizazio baztertzailea (ETAk eragindako sufrimendua nabarmenduz)</b>	<b>Biktimizazio baztertzailea (Estatuak eragindako sufrimendua nabarmenduz)</b>	<b>Biktimizazio inklusiboa</b>
<p>Inork ez gaitu gaizki tratatu, baina terrorismoak guztioi egin digu min.</p> <p>Ez dut uste min eman didatenik. ETA dago, guztioi min eman ziguna; bonben bidez askatu nahi gintuzten terroristak.</p> <p>ETAren atentatuak: mehatxuak eskuineko pertsoneri. Zerga iraultzailea. Mehatxatutako politikariak. Klean zure ideiak ezin esan izatea.</p> <p>ETAk eskuin nazionalari mehatxuak egitea.</p> <p>ETAren atentatu gehienak nire talde politikoaren kontrakoak izan dira. ETAren heriotza-mehatxuak eta estortsioa.</p> <p>Bonba-mehatxuak.</p> <p>ETA politikari sozialisten kontrako hainbat atentatutan.</p> <p>Guztioi eragin digun indarkeria terrorista (ETA).</p> <p>Nafarrok asko sufritu genuen ETArekin.</p> <p>Ezker abertzaleak mespretxatu egiten du eta terroristek ahoa estaltzen digute.</p>	<p>Diktadura frankista osoan eta eskuineko gobernuarekin.</p> <p>Francoren garaian, euskarazko hezkuntzaren gaiarengatik, adierazpen-askatasunarengatik...</p> <p>Eskuin mutur ez abertzalea, GALen bitartez estatu-terrorismo egin zuena.</p> <p>Francoren garaian bidegabeberia asko egin ziren euskaldunen kontra, euskaraz hitz egitea debekatzen zieten.</p> <p>Urte guzti haietan euskararen eta Euskal Herriko berezitasun kultural guztien kontrako jazarpena izan zen.</p> <p>Atxilotuak, kartzelaratuak, torturatuak. Euskaldunoi gure kultura, gure hizkuntza ukatu dizkigute.</p> <p>Estatuaren indarkeria, torturak, alderdiak legez kanpo uztea, pertsonen askatasunari eraso egitea, estatu-terrorismoa.</p> <p>Torturak, hilketak, umiliazioak, ez zituzten ezertarako kontuan hartu: mespretxatuak, baztertuak, erbesteratuak, kartzelaratuak, familia eta lagunengandik bananduak, hori oraindik ere existitzen da, gertatu egiten da gaur egun.</p>	<p>Bi aldeetan izan dira erasoak eta biktimak, ez nuke bata edo bestea nabarmendu nahi.</p> <p>Estatuak egindako erasoak eta ETAko gaizkileek egindakoak.</p> <p>Poliziaren erruz ikaraldi bat izan dezakezu, baina terroristek biktima bihurtu zaitzake; beren helburuak lortzeko bakarrik.</p> <p>Bestalde Estatuak eta ETA borroka batean tematu ziren, eta horrek beste guztioi eragin digu. Estatuak ez zien inoiz euskalduneri susmo txarrik hartu behar izan, eta ETA ez zen inoiz existitu behar izan.</p> <p>Oro har kalteak izan dira alde guztietan eta guztiak dira, hein batean, errudun.</p> <p>Oro har guztiek berdina egiten dute.</p> <p>Alderdi politikoei, jarduerari terroristek kaltetu zuten, bi aldeek, aukera eta erabaki txarrak; barkamen- eta gizatasun-falta.</p>

rik handieneko kideek (% 55,3) aitortza-maila handia eman-go liekete ( $BB < 6$ ) indarkeria politikoaren ondorioak pairatu dituzten pertsona guztiei, polizia-indarren edo indar parapolizialen biktimei eta torturaren biktimei, eta biktima bezalako onarpen txikiagoa emango liekete ( $BB = 5,53$ ) ETArekin lotutako pertsoneri. Bestalde, galdeketa erantzun duten pertsonen % 31,9k ETAren biktimak eta haien senideak onartzen dituzten ( $BB < 6$ ), bai eta polizia-indarren eta batik bat torturaren biktimak, baina biktima-izaera ukatzen diete ETArekin lotu-

tako pertsoneri edo sakabanaketa-politikaren eragina pairatu duten pertsoneri. Azkenik, biztanleen % 12,5ek bat egiten du biktimaren definizio instituzionalagoarekin (hau da, terrorismoaren biktimekin), ETAk eragindako indarkeriaren ondorioak sufritu dituzten pertsoneri biktima-izaera indar handiz onartzen baitiete eta GAL edo BVE taldeen eta antzerakoek biktimei onarpen nahikoa ematen baitiete. Alabaina, pertsona horiek ez dute uste torturatutako pertsonak biktimak direnik eta goitik behera egiten diote uko ETArekin lotutako pertsoneri biktima-izaera aitortzeari.

## 7. Amaiera bezala: kontakizun inklusiboak bizikidetzaren eta komunitatearen erresilientziaren alde

Badakigu gizarteak ez direla pertsonak bezala adiskidetzen, baina keinuak eta politikak beharrezkoak dira estereotipoak eta jarrera baztertzailerak gainditzeko, horiekin lortzen den gauza bakarra zatiketak areagotzea eta gizarte-ehuna kaltetzea baita. Erresilientziaren kontzeptua pertsonaren ikuspuntutik erabili izan ohi da orain arte, biktimek esperientziatik nola ikas dezaketen eta, batzuetan, nola indartu daitezkeen aipatzeko. Orain, ordea, eremu kolektiboan ere hasi da erabiltzen kontzeptu hori, gizarteek indarkeriatik nola ikas dezaketen azaltzeko (Pérez Salez, Vázquez eta Arnoso, 2009).

Indarkeria politikoaren eta terrorearen fenomenoak bizi izan dituzten gizarteek modu berriak bilatu dituzte gizartean adostasunak bilatzeko eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako prebentzio bat lortzeko. Justizia trantsizionalaren helburuak dira biktimen mina arintzea, esperientzia errepresiboa onartzea eta gertakarien memoria integratu bat eraikitzea. Horrelako neurriak ezarri dituzten gizarteetan eztabaida nazional bat izan da, eta horrek gertatutakoaren inguruko kontzientzia kolektibo bat sortu du. Horren adibide dugu Hego Afrikako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen kontaktizuna: apartheidaren erregimen kriminal bat zela, haren aldekoek ez zutela erregimen hori babesteko bidezko arrazoirik eta bi aldeek giza eskubideak larriki urratu zituztela gatazka-garaian (Gibson, 2004).

Gainera, egiaztatu da herritarrek neurri horiek eraginkortzat dituzten herrialdeetan klima emozionala hobetu dela (Cárdenas, Páez, Arnoso y Rimé, 2013; Cárdenas, Páez, Arnoso y Rimé, 2015). Badirudi neurri trantsizionalek mendeku-zikloak prebenitzen dituztela eta indarkeria kolektiboa berriz piztea saihesten dutela (Sikkink eta Bott-Walling, 2007). Prozesu trantsizional eraginkorrak egin diren herrialdeetan, giza eskubideen errespetuaren igoera estatistikoki esanguratsu bat neurtu da. Horrelakorik ez da hauteman, ordea, batzorderik eratu ez duten herrialdeetan edo funtzionatu ez zuten batzordeak zituzten herrialdeetan (Beristain, Páez, Rimé eta Kanyangara, 2010).

Gure testuinguruan, azken urteotan hauspotuz joan da berreraikitze sozialeko prozesu batean sufrimendua lantzeko moduari buruzko eztabaida. Eztabaida horiek minaren eta itxaropenaren zikloetan eman dira; batzuetan indarkeria lausotu egiten zen eta gero indarkeria berriz areagotzen zen eta eztabaida eta partaidetzarako espazio politikoak itxi egiten ziren (Beristain, 2009). Azken urteotan aukera historikoak eta erronka berriak dakartzaten urratsak egin dira; ETAre indarkeria amaituta, beharrezkoak dira parte-hartze politikoa eta gizartearen bizikidetzaren berrezartzeko neurri eta ekimen berriak. Horrek esan nahi du, alde batetik, isilean gordetako memoriak era kolektiboan partekatzeko aukera, eta bestetik, besteen esperientziak humanizatzeko, taldeen arteko enpatia handitzeko eta klima emozionala hobetzeko aukera (Arnos, Cárdenas, Páez eta Beristain, 2014; Páez, Espinosa, eta Bobowik, 2013), horrela gizarteko ongizatea handituz (Bobowik, Basabe y Páez, 2015).

## 8. Erreferentziak

Adwan, S., y Bar-On, D. (2004). *Shared history project: A PRIME example of peace-building under fire*. *International Journal of Politics, Culture, and Society*, 17(3), 513–521.

Andrighetto, L., Mari, S., Behluli, B. y Volpato, C. (2012). *Reducing competitive victimhood in Kosovo: The role of extended contact and common ingroup identity*. *Political Psychology*, 33, 513–529.

Arnos, M., Arnos, A. y Pérez Sales, P. (2012). *Representaciones sociales del pasado: la dictadura militar argentina en la memoria colectiva*. *Revista de Psicología Social*, 27, 3, 259–272.

Arnos, M., Cárdenas, M., Muratori, M., Zubieta, E., Páez, D. y Bombelli, J. (2014). *Argentina: diferencias intergeneracionales ante las medidas de justicia transicional*. *Revista Latinoamericana de Derechos Humanos*, 25,2, 151–158.

Arnos, M., Cárdenas, M. y Páez, D. (2012). *Diferencias intergeneracionales en la mirada hacia el pasado represivo chileno y en el conocimiento y valoración de los procesos de justicia transicional*. *Psicología Política*, 45, 7–26.

Arnos, M., Cárdenas, M., Páez, D. y Beristain, C. (2014). *Paraguay: de las violaciones a los derechos humanos a la justicia transicional*. *Salud y Sociedad*, 5,1, 98–114.

Beristain, C. (2009). *El conflicto vasco: violencia, polarización o ¿(re)conciliación?* En Márquez, I., Fernández-Liria, A. y Pérez-Sales, P. (Eds.), *Violencia y salud mental*. Madrid: Asociación Española de Neuropsiquiatría.

Barkan, E. (2000). *The guilt of nations: restitution and negotiating historical injustices*. New York: Norton.

Bar-Tal, D. (2013). *Intractable Conflicts: Socio-Psychological Foundations and Dynamics*. Cambridge: Cambridge University Press.

Beristain, C., Páez, D., Rimé, B. y Kanyangara, P. (2010). *Los efectos psicosociales de los rituales de justicia transicional: un análisis colectivo y una revisión de los estudios sobre los efectos de las Comisiones de Verdad y de los juicios sobre violaciones de los derechos humanos en América Latina*. *Revista de Psicología Social*, 25(1), 47-60.

Bobowik, M., Basabe, N., y Páez, D. (2015). *The Bright Side of Migration: Hedonic, Psychological, and Social Well-being in Immigrants in Spain*. *Social Science Research*, 51, 189-204.

Bobowik, M., Páez, D., Basabe, N. y Slawuta, P. (2016). *How Framing Past Political Violence Affects Reconciliation through Responsibility Attributions and Ingroup Victimhood: the Basque Case*. Manuscrito enviado a publicación.

Bobowik, M., Páez, D., Liu, J. H., Espinosa, A., Techio, E., Zubietta, E. y Cabecinhas, R. (2010). *Psychosocial bases of a "culture of war": Beliefs about History, the Meaning of Second World War and willingness to fight in Portuguese and Spanish speaking cultures*. *Revista de Psicología*, 28, 111-146.

Bobowik, M., Páez, D., Liu, J., Licata, L., Klein, O. y Basabe, N. (2014). *Victorious justifications and criticism of defeated: involvement of nations in world wars, social development, cultural values, social representations of war, and willingness to fight*. *International Journal of Intercultural Relations*, 43(part A), 60-73.

Cárdenas, M., Páez, D., Arnoso, M. y Rimé, B. (2013). *Percepción del Clima Socioemocional y la Confianza Institucional en Víctimas de Violencia Política: Valoración del Impacto de la Comisión Nacional de Verdad y Reconciliación*. *PSYKHE*, 22(2), 111-127.

Cárdenas, M., Páez, D., Arnoso, M., y Rimé, B. (2015). *How transitional justice processes and official apologies influence reconciliation: the case of the Chilean "Truth and Reconciliation" and "Political Imprisonment and Torture" commissions*. *Journal of Community y Applied Social Psychology*, doi:10.1002/casp.2231

Cohrs, J. C., McNeill, A. y Vollhardt, J. R. (en prensa). *The two-sided role of inclusive victimhood for intergroup reconciliation: Evidence from Northern Ireland*. *Peace and Conflict: Journal of Peace Psychology*.

Gibson, J. L. (2004). *Does truth lead to reconciliation? Testing the causal assumptions of the South African truth and reconciliation process*. *American Journal of Political Science*, 48(2), 201-217.

Halbwachs, M. (1925/1950). *Les cadres sociaux de la mémoire*. Paris: PUF.

Hewstone, M. (1990). *The "ultimate attribution error"?: A review of the literature on intergroup causal attribution*. *European Journal of Social Psychology*, 20, 311-335.

Hilton, D. J. y Liu, J. H. (2008). *Culture and inter-group relations. The role of social representations of history*. En R. Sorrentino y S. Yamaguchi (Eds.), *The Handbook of Motivation and Cognition: The Cultural Context* (pp. 343-368). New York: Guilford.

Islam, M. R. y Hewstone, M. (1993). *Intergroup attributions and affective consequences in majority and minority groups*. *Journal of Personality and Social Psychology*, 64, 936-950.

Jelin, E. (2003). *La escala de acción de los movimientos sociales*. En E. Jelin (Comp.), *Más allá de la nación: las escalas múltiples de los movimientos sociales*. Buenos Aires: Libros del Zorzal.

Landau, Y. (2009). *Healing the Holy Land: Interreligious peacebuilding in Israel/Palestine*. Washington, DC: United States Institute of Peace.

Licata, L. y Klein, O. (2010). *Holocaust or benevolent paternalism? Intergenerational comparisons on collective memories and emotions about Belgium's colonial past*. *International Journal of Conflict and Violence*, 4, 45-57.

Lickel, B., Miller, N., Stenstrom, D. M., Denson, T. F. y Schmader, T. (2006). *Vicarious Retribution: The Role of Collective Blame in Intergroup Aggression*. *Personality and Social Psychology Review*, 10, 372-390.

Martín-Peña, J. y Opatow, S. (2011). *The Legitimization of Political Violence: A Case Study of ETA in the Basque Country*. *Peace and Conflict: Journal of Peace Psychology*, 17(2), 132-150.

Moscovici, S. (1979). *Psychologie des minorités actives*. Paris: University Presses of France.

Noor, M., Shnabel, N., Halabi, S., y Nadler, A. (2012). *When suffering begets suffering: The psychology of competitive victimhood between adversarial groups in violent conflicts*. *Personality and Social Psychology Review*, 16, 351-374.

Páez, D., Bobowik, M. y Liu, J. H. (en prensa). *Social representations of past and competences in history education*. En M. Carretero, S. Berger y M. Grever (Eds.), *Handbook of Research in Historical Culture and History Education*. Palgrave Macmillan.

Páez, D. y Liu, J. H. (2011). *Collective Memory of Conflicts*. En D. Bar-Tal (Ed.), *Intergroup Conflicts and their Resolution: Social Psychological perspectives*. New York: Psychology Press: Frontiers of Social Psychology Series.



Páez, D., Bobowik, M., Liu, J. H., y Basabe, N. (2016). *Shared beliefs about world history and cultural context: a theoretical review and a collective-level analysis*. En C. Stone y L. Bietti (Eds.), *Contextualizing Human Memory: An interdisciplinary approach to understanding how individuals and groups remember the past* (pp. 102-123). Routledge: New York.

Paez, D., Espinosa, A., y Bobowik, M. (2013). *Emotional climate: How is it shaped, fostered, and changed?* En D. Hermans, B. Rimé, y B. Mesquita (Eds.), *Changing emotions* (pp. 113-119). London, UK: Psychology Press.

Pennebaker, J. W., Paez, D., y Rimé, B. (Eds.). (1997). *Collective memory of political events: Social psychological perspectives*. Mahwah, NJ: Erlbaum.

Pérez-Sales, P. (2011). *Estudios sociológicos internacionales en población general sobre la percepción de la violencia y reparación a víctimas: revisión de datos y análisis comparado*. En D. Páez, C. Martín Beristáin, J.L., González, N. Basabe, y J., De Rivera (Eds.), *Superando la violencia colectiva y construyendo cultura de paz*. Madrid: Ed. Fundamentos.

Pérez-Sales, P., Vázquez, C. y Arnosó, M. (2009). *Aprendizaje postraumático individual y colectivo ante situaciones de terrorismo y violencia colectiva: Datos para un debate*. En Márquez, I., Fernández-Liria, A. y Pérez-Sales, P. (Eds.), *Violencia y salud mental* (pp. 349-376). Madrid: Asociación Española de Neuropsiquiatría.

Pollak, M. (1992). *Memoria e identidad social*. *Estudios Históricos*, 5, 10.

Rivero, A. R., Bellelli, G. y Bakhurst, D. (2000). *Memoria colectiva e identidad nacional*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Rouhana, N. N., y Bar-Tal, D. (1998). *Psychological dynamics of intractable ethnonational conflicts: The Israeli-Palestinian case*. *American Psychologist*, 53, 761-770.

Sabucedo, J. M., Blanco, A. y de la Corte, L. (2003). *Creencias legitimadoras de la violencia política contra inocentes*. *Psicothema*, 15, 550-555.

Salomon, G. (2004). *A narrative-based view of coexistence education*. *Journal of Social Issues*, 60, 273-288.

Schori-Eyal, N., Klar, Y, y Roccas, S. (2014). *The shadows of the past Effects of historical group trauma on current intergroup conflicts*. Manuscrito enviado a publicación.

Shnabel, N., Halabi, S., y Noor, M. (2013). *Overcoming Competitive Victimhood: Re-categorization into Common Victimhood Identity*

*Increases Forgiveness among Israelis and Palestinians.* Journal of Experimental Social Psychology, 49, 867-877.

Sikkink, K. y Booth Walling, C. (2007): *The Impact of Human rights in Latin America.* Journal of Peace Research, 44(4), 427-445.

Smeeke, A., Verkuyten, M., y Poppe, E. (2011). *Mobilizing opposition towards Muslim immigrants: National identification and the representation of national history.* British Journal of Social Psychology, 50(2), 265-280.

Techio, E., Bobowik, M., Páez, D., Cabecinhas, R., Liu, J. Zubieta, E. y Espinosa, A. (2010). *Social Representations of History, Wars and Politics in Latin America, Europe and Africa.* Revista de Psicología Social, 25(1), 11-26.

Volkan, V. D. (1996). *Bosnia-Herzegovina: Ancient fuel for a modern inferno.* Mind and Human Interaction, 7(3), 110-127.

Vollhardt, J. R. (2012). *Collective victimization.* En L. Tropp (Ed.), *Oxford handbook of intergroup conflict* (pp. 136 -157). New York, NY: Oxford University Press.

Vollhardt, J. R. (2013). *"Crime against humanity" or "Crime against Jews"? Acknowledgment in construals of the Holocaust and its importance for intergroup relations.* Journal of Social Issues, 69, 144-161.

Vollhardt, J. R. (2015). *Inclusive Victim Consciousness in Advocacy, Social Movements, and Intergroup Relations: Promises and Pitfalls.* Social Issues and Policy Review, 9(1), 89-120.

Vollhardt, J. R. y Bilali, R. (2015). *The role of inclusive and exclusive victim consciousness in predicting intergroup attitudes: Findings from Rwanda, Burundi, and DRC.* Political Psychology, 36, 489-506.

Vollhardt, J. R., Nair, R. y Tropp, L. (en prensa). *Inclusive victim consciousness predicts minority group members' support for refugees and immigrants.* Journal of Applied Social Psychology.

Wohl, M. J. A. y Branscombe, N. R. (2008). *Remembering historical victimization: Collective guilt for current ingroup transgressions.* Journal of Personality and Social Psychology, 94, 988-1006.



## «MEMORIALAB» EKIMENA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MEMORIAREN ERAIKUNTZA SOZIALERAKO LABORATEGIAK

María Oianguren Idigoras. **GERNIKA GOGORATUZ. Bakearen Aldeko Aztertegia.**  
Gernika Gogoratuz Fundazioa.

MemoriaLab topaketa-programa 2013an sortu zen, «Glencree»<sup>25</sup>, «Bakeaz Blai»<sup>26</sup>, «BatzART!»<sup>27</sup> eta antzeko ekimenek inspiratuta, ETak jarduera armatuari amaiera eman eta urte eta erdira. Testuinguru horretan, ordura arte ezezaguna zen eszenatoki bat ireki zen, Euskal Autonomia Erkidegoan terrorismoa eta indarkeria hamarkada askoan jasan ondoren. Errealitate sozial eta politiko berri horrek giro aproposa ekarri zuen herritarren topaketak sustatzeko, eta arrazoi politikoa zuen indarkeriaren eraginari buruzko eta euskal gizartean, hamarkadetan zehar (azken laurak aldi demokratikoan), elkarbizitzan izan ziren aldaketei buruzko (enpatiarik eza, harreman sozialak haustea, beldurra, isiltasuna...) lekukotasunak partekatzeko.

MemoriaLab Euskal Autonomia Erkidegoan memoriaren eraikuntza sozialerako herritarren parte-hartze programa gisa diseinatu dago. Hastapenetan, bakearen kulturen eta giza eskubideetan ibilbide zabala duten hiru antolatzailek sustatu zuten, hiru fundaziok: Gernikako Bakearen Museoa (1998); Bakeola, Bizikidetzak, Gatazka eta Giza Eskubideen Zentroa (2003); eta Gernika Gogoratuz, Bakearen Aldeko Aztertegia (1987).

Proiektuak profil, adin eta populazio-ingurune desberdineko 28 parte-hartzaile bildu zituen topaketa batekin hasi zen; Berrizeko Barnetegian izan zen (Bizkaia), eta Bakeolak eta Gernikako Bakearen Museoa antolatuta zuten.

---

<sup>25</sup> «Glencree», beste inguru politiko batekoak izateagatik giza eskubideen urraketak jasandako pertsona-talde baten ekimen bat da; 2007an hasi ziren biltzen [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/listado\\_glencree/es\\_listado/adjuntos/RELATO%20INICIATIVA%20GLENCCREE%20DEFINITIVO.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/listado_glencree/es_listado/adjuntos/RELATO%20INICIATIVA%20GLENCCREE%20DEFINITIVO.pdf)

<sup>26</sup> «Bakeaz blai» hezkuntza-arloko esku-hartze programa bat da, eta programa hori aplikatzeko bi osagai garrantzitsu ditu: biktima hezitzaileen parte-hartze aktiboa eta zuzena, eta programa egikaritu den testuingurua: programaren zati bat ikasgelan egiten da, eta bestea, ingurune pedagogiko babesle batean, [http://www.bakeola.org/bakeazblai/euskera/bakeaz\\_objetivos.html](http://www.bakeola.org/bakeazblai/euskera/bakeaz_objetivos.html)

<sup>27</sup> «BatzART!», «Asamblea creActiva de apoyo al diálogo y a la democracia participativa», in Fernández-Cavada, Esther y Altamira, Basterretxea, Fernando (koord.) (2014): *Polifonía Abierta. Voces que incorporan a la sociedad civil en a búsqueda de paz*, INCYDE [https://issuu.com/gernikagogoratuz/docs/polifonia\\_abierta](https://issuu.com/gernikagogoratuz/docs/polifonia_abierta)

Landa-eremuko toki bat bilatu zen, norberaren hausnarketari bide emango ziona, gero denen artean partekatzeke, elkarrizketa eraldatzaile bati eusteko moduko espazio bat, honako gaiei heltzeko: arrazoi politikoak atzean zituen gatazkari eta indarkeriari, horiek euskal gizartean izan zuten eraginari eta esperientzia traumatikoei; leialtasun eta erresumin historikoen kudeaketari; autokritikarako erresistentziari; gizartea sendatzeko prozesuetan datorrenaren bertigoaren aurreko bizipenei; giza duintasunaren inguruan eta giza eskubideen konplexutasunean sakontzeari, hori guztia elkarbizitza berritu baterako.

Hastapenetatik, Memorialab bi espezialisten<sup>28</sup> parte-hartzearekin diseinatu zen, gatazka-ondoko inguruetan gizarte-aldaketaren eta -eraldaketaren prozesuak errazten nazioarteko esperientzia zuten espezialistak; haiek koordinatzen eta laguntzen zuten topaketen espazioa. Hastapenetan, behatzaile gisa ere aritu ziren, kanpoko erakunde sustatzaileei<sup>29</sup> eta laguntzaileei lotutako pertsonen esperientziari lagun egiteko eta hura sistematizatzeko.

Programak honako entitate sustatzaile hauen finantziazioa izan du: Gernika-Lumoko eta Abantoko Udalak, eta Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza.

Orain arte, bost topaketa egin dira Bizkaian, lehena 2014an, proiektu pilotu modura. Beste laurak herritarrekin egin dira, Gernika-Lumon, Berrizen eta Abanton, Bizkaiko udalerrriak, 2015 eta 2016 urteetan zehar.

## 1. Metodologia eta prozesuaren osagai esanguratsuak

Programa gizarte-laboretegiaren logika batean proposatzen da, inguru babestu batean egingina, bakarleku modura, gatazkari eta indarkeriari buruzko bizipenak partekatuz, materia transformatzaile eta sortzaile gisa. Programak bi xede ditu: bate-tik, memoriaren eraikuntza soziala bultzatzea, eta bestetik, elkarrizketa demokratikoan euskarri duten indarkeriazkoa ez den elkarbizitzan eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako harremanak erraztea. Taldea osatzen duten pertsonen bizipenen esperientziatik lan egiten da, sentimenduak, emozioak eta pentsamenduak integratzeko. Horretarako, elkarrizketa kognitiboa bultzatuko duten proposamen hautemangarriak

---

<sup>28</sup> Retolaza, Iñigo (2011): *Teoría del Cambio. Un enfoque de pensamiento-acción para navegar en la complejidad de los procesos de cambio social*. Guatemala: PNUD/HIVOS. Carrascosa, Alex (2009): *Dia Tekhne: Diálogo a través del Arte*, Red Gernika 11, Bakeaz eta Gernika Gogoratuz.

<sup>29</sup> Iratxe Momoitio eta Idoia Orbe, Gernikako Bakearen Museoko zuzendaria eta hezkuntza-arloko arduraduna; Rocio Salazar, Bakeolako koordinatzailea; Andreas Schäfter eta María Oianguren, Gernika Gogoratuz Fundazioko Eguneroko Bizitza eta Bakea eremuko arduraduna eta zuzendaria. Hastapenetan EDE Fundazioko Gorka Ruizek eta Xurdana Imatzek ere parte hartu zuten.

gorputz-ikaskuntzarekin eta adierazpen artistikoarekin konbinatzea lortu nahi du.

Topaketa bakoitzaren deialdiak, osagai gisa, euskal gizartearen ordezkariak mikrokosmiko baten antzera parte hartzen duten pertsonak bildu nahi ditu, gizarte horren beraren osagai pluralaren adierazgarri. Topaketaren formatuak bi aukera ditu: egun bateko erretiroa hirian ala bi eguneko erretiro landa-eremuan. Honako bi premisa metodologiko hauek konbinatzen dira: *Lan-prozesuak (Process Work)*, gatazkak eraldatzeko, eta «U» prozesua, aldaketa kudeatzeko. Ikerketak hiru denborari erantzuten die, eta hiru galderari:

- 1) *Zer gertatu da?*, gure iraganaren azterketa, gertaera gatazkatsuetatik abiatuta.
- 2) *Zer ikasi dugu?*, sortzen ari diren taldearen ikaskuntzak, iraganetik orainera eginez.
- 3) *Zer egin dezakegu?* Esperientzia integratzea, arreta etorkizuneko ekimenetan jartzeko.

Denbora zirkularreko proposamen horrek orainean iraganeko gertakizunekin dugun harremana (aldaezinak, berez) aldatzeko aukera ematen digu, eta hala, arrazoi politikoek eragindako indarkeriarik gabeko etorkizun komun bat irudikatu ahal izateko. Aulkien zirkuluak lekukotasunen bidezko entzuteko pedagogia baterako prestatzen du espazioa, eta aztertutako hiru galderak ikuspegi metodologiko desberdinetatik egiten dira, honako ikuspegietatik, hain zuzen: 1)- adierazpen sinbolikoa, 2)- gorputz-hizkuntza, eta 3)- lan artistikoa. Hiru osagai horien konbinazioak hitzekin esan ezin denaren konplexutasuna adierazteko aukera ematen du, «sendaketa kolektiboa esanezinaren aroan» adierazpenaren esparruan<sup>30</sup>.

Lehen hurbilketa modura, honako osagai hauek nabarmendu nahi ditugu oroimenaren prozesu sozialak errazten dituzten ekarpen metodologiko gisa:

- Elkarrizketaren kultura, noizean behin errealitate konplexuaren beste egia zatikatu batzuetan egoteko, hizkuntza-, gorputz-adierazpenak eta adierazpen artistikoak (soinudunak, plastikoak) konbinatzen dituzten hizkuntza integratuen bidez. Isiltasuna eta hutsunea, espazio sortzaile gisa.
- Sinesmen-sistemak kritikoki zalantzan jartzera bultzatzen duen unibertso sinbolikoa. Oroimenaren zentzua eta denbora, denbora lineal eta barne hartu ezinezko horretatik zirkulu-formako harremanen denborazkotasun ulerker batera egiten duena.

---

<sup>30</sup> Lederach, John Paul (2014): *Cuando la sangre y los huesos claman. Travesías por el paisaje sonoro de la curación y la reconciliación*, Red Gernika 14, Gernika Gogoratuz.

- Oroimena eta arte bakearen pedagogia gisa, «*helburuak bitartekoak justifikatzen ditu*» paradigma zalantzan jartzeko. Eta afektuak sortu eta efektuak lortu, *garen gareneko inguruan bitartekoak zainduz*. Inguru natural, kultural eta soziala.

Bestalde, ekimena eremu akademiko eta sozial desberdinetan aurkeztu da: «*Seminario Justicia Transicional*», Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea, 2014; «*Europen Seminar, RNC Justice & Democratie*», Brusela; «*l Encuentro Internacional de Experiencias de Participación*», Bogotá; «*Diálogo de saberes*», EHU, Donostia, beste batzuen artean, 2015. urtean zehar, eta «*Experiencias de aplicación de la Teoría “U” y las administraciones públicas*», Gasteiz, 2016.

Eta Eamonn Bakerrek egiaztatu du; Baker komunitate-artearen trebakuntzan eta Ipar Irlandako «*Towards understanding and Healing*» erakundearen bakea bermatzeko proiektuen koordinatzaile da. Baita erakunde bultzatzaileek Gernikako Bakearen Museoan antolatutako sesio hezigarrietan, eta Giza eskubi-deen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Elkarteen Foroaren kide diren elkarrekin eta gizartea sendatzeko prozesuetan adituak diren erraztaileekin ere. Topaketa horietan, parte hartu zuten pertsonak landutako hainbat dinamika eta proposamen azaltzen ziren, eta ulertzeko asmoz entzunez eta bizi-testigantzen bidez gizartea sendatzeko prozesuei ekiteko espazioak sortzearen garrantzia nabarmendu zen.

Proiektuak esku-hartzearen, kontrastearen eta sistematizazioaren eremuetako jarduerekin jarraituko du. Alde batetik, espazio gehiagotan aurkeztuko da: batetik, Medellingo Museo Casa de la Memorian, eta bestetik, Kolonbiako espazio akademiko eta sozialetan, Institut Català Internacional per la Pau erakundeak zuzendutako «*Intercambio de experiencias en construcción de paz, resistencia y reconciliación*» proiektuaren esparruan, eta Kontseilu Europarrak, Belgikan antolatutako «*Connection Law & Memory*» kongresuan, biak 2016ko irailean. Aurreikusita dago beste topaketa batzuk egitea, horietako bat Iparaldean, Europako MEFRO proiektuaren esparruan.

2017rako webgune bat sortuko da; bertan proiektuaren kartografia soziala eta egindako metatuak eta ezagutza metatuak jasoko dira. Bestalde, dokumentu bat argitaratuko da praktika onen esperientzia gisa, Red Gernika argitalpen-sailean. Azkenik, Gernikako Bakearen Museoan egingo den erakusketa batekin bukatu nahi da; erakusketa horretan, «*MemoriaLab*» ekimeneko topaketetan eta herritarren elkarrizketetan parte hartu duten pertsonak sortutako objektuak eta obrak izango dira.

## **NOLA HEL DIEZAIKEGU OROIMENAREN ALDEKO LANARI?**

«Iragana kontrolatzen duenak etorkizuna kontrolatzen du. Oraina kontrolatzen duenak iragana kontrolatzen du.» *Jakintza Elkarrizke-*

*tako* parte-hartzaileen ekarpenen artean jaso zen George Orwell idazlearen 1984 laneko esaldi hori, denboraren irudikapenen kontrolari buruzkoa. Orainaldian botere-tresnak kontrolatzen dituenak etorkizuna kontrola dezake, iraganeko irudikapenen edukia zehaztearen bidez. Iraganaren elaborazioa eta oroimen kolektiboaren eraikuntza eraikitzen ari den orainarekin eta proiektatzen den etorkizunarekin lotuta daudela erakusten du esaldi horrek. Ideia horretatik abiatuta, iragana aniztasunetik eta nahasketatik elaboratzeko beharra adierazten da, eta etorkizuneko proiektu kolektibo bat artikulatzearen komenigarritasuna; izan ere, iragana, oraina eta etorkizuna elkarren mendekoak direnez, zaila da bata beste biak gabe eraikitzea. Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren eraikuntza hori koipetzeko, iragarritako aukera bat kolektibitate- eta kidetza-zentzu berri bat garatzea da, heterogeneoagoa; alderdi komunak onartuta eta ezberdintasunak modu positiboan kudeatuta gizabanakoari, pertsonari garrantzi handiagoa ematea ahalbidetuko duen zentzu berri bat.

Oroimen kolektiboa gizartearen eraikuntza bat da, hortaz, topaketa plurala eta inklusiboa, elkarrizketa irekia eta entzute aktiboa dira hura orainaldiko bizikidetzaren eta etorkizunaren eraikuntzaren alde elaboratzeko tresna nagusiak. Ezartzen diren testuingurueta egokitutako askotariko espazioak sortzea, hots, esperientzia pertsonalak eta taldekoak partekatu eta analiaren, emozioen, gorputzaren eta ekintzaren bidez landu ahal izateko espazioak, oroimen kolektibo konplexuago, irekiago eta integratzaileagoa baten eraikuntzan aurrera egiteko giltzarrietako bat dela dirudi. Beste batzuek beren bizipenetatik eta emozioetatik azaltzen digutena ikuspuntu berriekin interpretatu ahal izateak kasu askotan kontraesanak sortu diezazkiguke, interpelatu gaitzake, gure ikuskerak aldaraz ditzake eta helduagoak izatea eragin diezaguke.

Espazio horiek eratzeko sormena, irudimena, berrikuntza eta diziiplina-aniztasuna behar dira, eta diziiplina horien artean, gizarte-psikologia aplikatuaren eta artearen arteko uztarketa nabarmentzen da. Independentzia ere eska dezake, eta, horrela, ekintzen diseinua helburu instituzional edo politikoen mende ez egotea, eragileen eta profesionalen lanaren mende baizik. Horregatik, mota horretako espazioen finantzazioak alderdi-interesetik haratago joan beharko luke, ez luke kontuan hartu behar oroimen zabal eta konplexuagoak garatzeak plano politikoan nori egin diezaiokeen mesede, eta, hala, bakerako esku-hartze sozialean ibilbide luzea duten pertsonen eta erakundeen esperientziak nahikoa baliabiderekiko diseinatzeko eta abiarazteko aukera eman beharko lieke. Instituzioetako ordezkariak herritarrekin batera espazio bateratuetan parte hartzeko ariketa egin lezakete, ariketa horiek duten eraldaketa-gaitasuna ikuste aldera.

Euskal gizartean iraganaren interpretazio eta oroitzapen ezberdinak, gertatutakoaren hainbat kontakizun, daudela eta egongo direla onartzen da. Alabaina, azken hamarkadetan izandako

giza eskubideen aurkako urraketa guztiei erreparatzea izan liteke oroimen-aniztasun horren oinarri komuna, horiek aniztasunetik eraiki daitezela ahalbidetze aldera. Ildo horretan, oroimenaren eraikuntzan demokratikoki sakontzea aipatzen da. Horretarako, gizarte-sektore interesdun guztiak parte hartzera bultzatu behar dira eta ikuspuntu ezberdinak errespetuz elkartrukatzera motibatu, norberaren kontakizuna inposatzen saiatu gabe, baina ikuspuntu etikotik edozer kontakizun berdin onartu ezin daitekeela zalantzan jarrita.

Gizakia *sentipentsatzailea* da, Galeanok esango lukeen moduan. Kontakizunaren eraikuntzan, emozioa pentsamendutik edo afektua arrazoitik ez banantzea garrantzitsua da. Azken horrek ezin dezake lehena menderatu; aitzitik, bien arteko elkarriketa bat sortzen ikasi beharra dugu, geure buruak, gainerako jendea eta mundua hobeki ezagutze aldera. Kontakizunak ezin dezake kanpoan utzi hura eraikitzen duen pertsona; pertsona hori osorik integratu behar du, eta, horregatik, ezinbestekoa da emozioa pentsamenduan integratzea, bestea enpatiatik ezagutu ahal izateko.

Instituzioen eta politikaren funtzioa funtsezkotzat jotzen da, bereziki, adostasunetara iristeko aukeran eredu izateko beharra dagoelako, giza eskubideen urraketa guztiak nazioarteak babestutako egiaren batzorde baten bidez argitzeari bide emateko beharra; biktimen eta biktimen eragileen lekukotasunak bilduz biktimizazioaren irudi globala ezagutarazi ahalko lukeen batzorde baten bidez, alegia. Udalen funtzioa garrantzi handikoa dela dirudi, jendearekiko hurbiltasuna dela medio, bai eta herri bakoitzak azken hamarkadetan bertan gertatutakoa ezagutzeko aukera edukiko lukeelako ere; horrela, lurralde historikoen araberrako oroimen-mapak eraiki ahalko lirerateke, azkenean irudi globala eduki ahal izateko. Udalek edo mankomunitateek dokumentazio-lan hori, artxibo-lan hori, egin ahal izateko funtsak jaso ahalko lituzkete.

### 3. KAPITULUA. GENERO EZBERDINTASUNAK ETA NAGUSITASUNAK GATAZKAN, INDARKERIAN ETA BAKEAN

#### IDENTITATEA, IDEOLOGIA, EMOZIOAK ETA GENEROA INDARKERIAREN ETA BAKEAREN AURREAN

Susana Conejero  
Euskal Herriko Unibertsitatea

*Ehuneko ehun arrazoi duzunean ere, eta bestea erabat oker dagoenean ere, mesedegarria izaten da bestearen lekuan jartzea (35. or.). Amos Oz (2007)*

Lan hau nire doktorego-tesiaren parte da. Tesia Itziar Etxebarria doktoreak (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Ignacio Montero doktoreak (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa) zuzendu zu-

ten. Aipatutako ikerketa-proiektua Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Unibertsitateko Irakasleen Trebakuntzak (FPU) emandako beka baten bidez finantzatu zen (AP2002-0839). Hemen aurkezten den lana lehenago nazio eta nazioarteko bil-tzarugaritan azaldu da, eta 2014an argitaratu zen:

Conejero, S., Etxebarria, I., & Montero, I. (2014). «Gender differences in emotions, forgiveness and tolerance in relation to political violence». *The Spanish Journal of Psychology*, 17(E9), 1-15. DOI: 10.1017/sjp.2014.9

Euskal esparru politiko eta sozialeko protagonistak arretaz behatzean, berehala deigarri gertatzen zaigun kontu bat ageri da: gizonezkoen ugaritasuna eta emakumezkoen agerpen eskasa. Emakumeak lehen lerrotik sistematikoki baztertu izan dira, eta baztertuak jarraitzen dute, erabakien, negoziazioen esparrutik kanpo, ia agerpenik gabe. Ez da Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren berezko kontua, hala gertatzen baita testuinguru politiko askotan. Jolas bat proposatzen dizuet. Idatz dezagun *Google* bilatzailean «diputatuak», «europarlamentarioak», eta aukera dezagun Irudiak. Zergatik hainbeste gizonen argazki?, zergatik ikusten dugu hain emakume gutxi irudi horietan? Bila ditzagun Euskal Autonomia Erkidegoko politika-eremuan egon diren horien argazkiak. Irudi-joko bera. «EAJko gizonetzko diputatuak», «PSEkoak», «EAKoak», «Batasunakoak», «Aralarrekoak»... Non daude emakumeak? Zergatik azpiordezkatzen dituzte emakumeak, ordezkatzen gaituztenek, euskal herritarren arazo handiak konpondu behar dituzten horiek? Zergatik dirudite emakumeak ia ikusezinak?

Lan hau, hain zuzen ere, kontu honekin lotutako galdera batetik, kezka batetik sortu da: Zer gertatuko zen, igaro diren urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoan, egoera horietan emakume gehiagok parte hartu izan balute? Zer gertatuko zen, emakumeak gertaera gogoangarri, topaketa, elkarrizketa, manifestazio, eta abar guztietan protagonista izan balira?, Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruko talde politiko eta sozial esanguratsuetan agerpen handiagoa izan balute?

Emakumeak esparru horietatik baztertzea haien eskubidearen kontrakoa da, emakume guztien eskubideen kontrakoa. Baina gainera, honakoa galdetzen diogu gure buruari, honako galdera egiten diogu: desberdinen arteko bizikidetzan garrantzia duten alderdi batzuetan, emakumeak gizonen desberdinak izan litezkeela kontuan hartuta, delako bazterketak galera ekar lezake gizartearen beraren helburuei dagokienez: indarkeriarekin bukatu, bizikidetzak baketsua lortu, bakea lortu. Hori izan zen, hain zuzen ere, azterketa honen abiapuntua.

Hemen aurkezten den lana zenbait emoziotan gizonen eta emakumeen arteko alde posibleak aztertzeko helburuarekin diseinatu zen: barkamenean eta tolerantzian, hala nola ETAre-



kiko jarreran eta indarkeriarekiko jarreran, orokorrean. Lan hau proiektu zabalago baten parte da. Proiektu horretan bi helburu nagusi proposatu ziren: aldagai soziodemografiko batzuk (identitatea, ideologia, biktimizazioa, eta abar) aldagai emozional batzuekin duten harremana aztertzea; eta aipatutako aldagai guztiek barkamenarekin, tolerantziarekin, eta ETArekiko jarrearekin duten harremana aztertzea. Kapitulu honetan emakumeen eta gizonen arteko aldeei buruz arituko gara bakarrik.

Jarraian, emozioetan sexu desberdintasunak aztertu dituzten azterketetatik ekarritako ondorioak labur aipatuko ditut, indarkeriarekiko jarreran, barkamenean eta tolerantzian, hain zuzen.

Batetik, genero-desberdintasunak aurkitu dira **emozioetan**, adibidez, intentsitate handiagoa emakumeetan beldurrari, trisurrari edo lotsari dagokienez (Fischer, Rodríguez-Mosquera, van Vianen eta Manstead, 2004), intentsitate handiagoa terrorismoarekiko beldurrari dagokionez (Nellis, 2009), baita besteren sufrimenduarekiko sentsibilitatea -adibidez, empatia- dakarten emozioetan ere (Etxebarria, Ortiz, Conejero eta Pascual, 2009; Lennon eta Eisenberg, 1992; Rueckert eta Naybar, 2008) edo errudun-ustea dakarten horietan (Etxebarria et al., 2009; Fischer et al., 2004). Baina emozio positiboetan ere aurkitu da intentsitate handiagoa, hala nola alaitasunean edo ongizatean (Brody eta Hallen berrikustean, 2008). Haserrea dela eta, emaitzek ez dirudite sendoak, eta beraz, ezin dugu ondoriorik atera (Brody eta Hall, 2008). Azkenik, harrotasuna dela eta, aldeak aurkitu dituzten azterketetan, horiek gizonen aldekoak izan dira (Brebner, 2003; Collins eta Frankenhaeuser, 1978).

**Jokabide oldarkorra** dela eta, oso nabarmena da jokabide oldarkorrek maizago agertzen direla gizonetako artean (Eagly eta Steffen, 1986; Tangney eta Dearing, 2002). Hala, adibidez, ETako militante gehienak gizonak izan dira. Horren interpretazioa izan daiteke gizonak jokabide oldarkorrerako joera handiagoa dutela (Reinares, 1998), eta hortik ondoriozta liteke emakumeek jokabide oldarkorren ez hain aldekoak diren jarrerak dituztela. Dena dela, uste dugu ondorio hori ez dagoela inondik inora frogatua, eta beraz, kontua zehazki azalduko dugu.

Jarraian, **gizonen eta emakumeen arteko aldeak** aipatuko ditugu, **barkamenari dagokionez**. Kontuan hartuta enpatiaren eta taldeen arteko barkamenaren arteko lotura positiboa (Moeschberger, Dixon, Niens eta Cairns, 2005), eta erruaren eta taldeen arteko barkamenarena (Hewstone et al., 2004), eta emakumeek empatia eta errua gizonetakoekin baino gehiago agertzen dutenez, pentsa dezakegu oso erraza dela emakumeek gizonetakoekin baino joera handiagoa izatea barkatzeko. Hala ere, badirudi bereziki gai hori aztertu duten lanek ez dutela ondorio hori ateratzen. Miller, Worthington eta McDanielek metaanalisi bat (2008) egin zuten. 70 azterketa behatu zituzten, emakumeen eta gizonetakoekin arteko aldeak aztertu zituzten ikerketak, barkatzeko



joerari dagokionez. Egileen ondorioa izan zen emakumeek bar-katzeko joera handiagoa azaltzen dutela gizonezkoek baino, nahiz eta aldea txikia izan zen. Hala ere, gai bera aztertu zuen 175 azterketako beste metaanlisi batean, Fehr, Gelfand eta Nagek (2010) ondorioztatu zuten ez zegoela alderik emakumeen eta gizonen artean, alderdi horri zegokionez.

Azkenik, **tolerantziari** buruz arituko gara. Talde politiko eta sozial desberdinen giza eskubideen alde egiten duen jarrera dela esan genezake, batez ere, gutxien maite ditugun haien aldekoa (Avery, 1988; Sotelo, 2000). Kontu horretan genero-desberdintasunak aztertu dituzten lan gutxi izan dira, eta era guztietako emaitzekin topo egin dute; lan batzuen arabera, gizonak emakumeak baino toleranteagoak dira (Golebiowska, 1999); beste batzuen arabera, aldiz, emakumeak gizonezkoak baino toleranteagoak dira (Avery, 1988; Lozano eta Etxebarria, 2007); azkenik, beste lan batzuen arabera, ez dago alderik (Sotelo, 2000).

## 1. Helburu nagusia eta hipotesia

Lan honen helburu nagusia genero-desberdintasunak aztertzea izan zen, aldagai emozional batzuetan: indarkeria justifikatzea, ETArekiko jarrera, barkamenerako eta tolerantziarako jarrera.

Jarraian, hipotesi nabarmenenak aipatuko ditut.

Aurretiko ikerketa kontuan hartuta, uste izan genuen emakumeek puntuazio altuagoa erakutsiko zutela arrazoi politikoagatiko beldurrari dagokionez, talde desberdinekiko enpatiari dagokionez eta erruari dagokionez.

Alderantziz, uste izan genuen emakumeek puntuazio baxuagoa erakutsiko zutela kontrara pentsatzen duten haiekiko emozio negatiboetan, eta zehazki atseginkerian (*Schadenfreude*). *Schadenfreude* alemaneko hitz bat da. Bestearen ondoezaren edo minaren aurrean sentitzen den pozari dagokion emozio bat izendatzeko erabiltzen da (Ortony, Clore eta Collins, 1988). Euskaraz gehien hurbiltzen zaion hitza «atseginkeria» litzateke.

Bestalde, gizonen eta emakumeen arteko jarrera oldarkorri dagozkion aldeetan oinarrituz, gizonak indarkeria erabiltzea emakumeek baino gehiagotan justifikatuko zutelako hipotesia egin genuen.

Zehazki ETArekiko jarrera dela eta, jarrera horretan identitate eta ideologia politikoak eragin handia izan duelakoan, sexuaren eraginaz haratago, ez genuen uste izan gizonen eta emakumeen artean alderik egongo zenik.

Azkenik, emozionalitate positiboa, emozionalitate negatiboa, tolerantzia eta barkamena direla eta, esploratzeko hipotesiak egin genituen.

## 2. Metodoa

### 2.1. Parte-hartzaileak

Lagina Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako 728 herritarrek osatu zuten. Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan bizitzen zeramaten batez besteko denbora 25,98 urtekoa zen. Batez besteko adina 29,15ekoa izan zen, eta desbiderapen tipikoa 12.81ekoa. Lagina orekatua zen sexuari dagokionez (% 54,5 emakumeak eta % 45,5 gizonezkoak).

Ahalegin handia egin zen identitate eta ideologia politiko guztiak ordezkaturik egon zitezela. Horrela, galdeketa, adibidez, unibertsitatean emateaz gainera, Euskal Herriko bizitza politiko eta sozialean esanguratsuak diren hainbat talderengana ere joan ginen. Hala, alderdi politikoengana, Guardia Zibilarengana, Ertzaintzarengana, torturaren kontrako elkarteengana... jo genuen, adibidez, sentsibilitate guztiak laginean ordezkaturik egon zitezela ziurtatzeko, ideologia muturrekoenak barne.

### 2.2. Tresna

Banatu genuen galdeketa Paéz et al. (1997) egileen Klima Emozionalaren Eskalak osatzen zuen, azterketarako egokitua, eta *ex profeso* egindako neurri-multzo oso batekin. Aldagaiak operazionalak izan zitezela, beste testuinguru batzuetan aztertutako kontuei buruz egindako azterketa teoriko eta enpiriko ugaritan oinarritu ginen. Horietan oinarritu genuen gure lana.

### 2.3. Diseinua eta prozedura

Montero eta Leónen (2007) sailkatze-sistema kontuan hartuta, lan hau «*ex post facto*» azterketak kategorian sailkatzen da. Kategoria horretako lanetan aldagai askea manipula daiteke. Kategoria horren barruan, atzera begirako azterketak azpikategorian kokatuko genuke gure lana, zehazki talde bakarreko azterketak aldaeran.

Datuen bilketa 2005eko azaroaren eta 2006ko otsailaren artean egin zen, ETAk su-etena adierazi baino zerbait lehenago, 2006ko martxoaren 23an, hain zuzen.

Lehenago ere esan dudana bezala, galdeketa EHUko ikasleei banatu zitzaie, baina baita Euskal Herriko bizitza politiko eta sozialerako esanguratsuak diren beste talde batzuei ere. 2005eko azaroan gutun bat bidali zitzaie, parte hartzera gonbidatuz. Talde horien artean daude alderdi politikoak, biktimen elkarteak, presoen aldeko elkarteak, elkarte bakezaleak, euskal nazionalismoaren aldeko eta kontrako elkarteak eta polizia (Ertzaintza eta Guardia Zibila). Talde batzuk erresistentzia azaldu zuten azterketan parte hartzeko, eta kasu batzuetan uko egin zioten parte hartzeari (horrek esan nahi du, azkenean, ez

zutela talde guztiek parte hartu), baina dena dela ere, lagin zabal bat lortu zen, aukera ideologiko guztia hartzen zuena.

Hemen, arreta berezia merezi duen kontu bat nabarmendu nahi nuke: datuak jasotzean izandako zailtasunak. Pertsonalki, zaila izan zela esan behar dut, salaketa gogorak izan bainituen, lan honetako nire helburu zientifikoei, sozialei, politikoei edo are moralei buruz ere. Azken atalean, *Ondorioak* atalean, sakonduko dut kontu hori.

Parte hartzea onartu zuten pertsonen galdeketak gutun-azaletan eman zitzaizkien; gero EHUra bidaltzen zituzten eta nik neuk jasotzen nituen (gutxi gorabehera 10 egunean).

Jakina, galdeketak izengabekoak ziren.

Denbora-faltan ginela jaso ziren galdeketak, une aldakor bat nabaritzen baitzen, baikorra (2003ko maiatzetik ez da atentaturik izan). Gogora dezagun 2006ko martxoan ETAk su-etena adierazi zuela, gero, urte bereko abenduan, atentatu baten bidez hautsi bazuen ere. Indarkeriaren behin betiko etena ez zen 2011ko urrira arte iritsi.

## 2.4. Emaitzak

### Aldagaiak sortzea

Hasi aurretik, gero azterketetan erabili ziren aldagaiak sortzean erabili diren irizpideak zeintzuk izan diren argitu nahi nuke. Galdeketako item-kopuru handia aldagai-kopuru erabilerraz batera murrizteko beharraren aurrean, hiru izan ziren jarraitu genituen irizpideak.

Kasu batzuetan arrazoizko irizpide bati jarraitu zitzaion, teoriatik hala nola errealitatea ezagutzetik abiatuta. Hortik bi aldagai sortu ziren, konstruktua beraren parte irizten genituen itemen puntuazioen batezbesteko aritmetikotik abiatuta. Ondoren, barne-kontsistentziaren koefizientea kalkulatu zen, modu horretan eratorritako neurri berrien fidagarritasuna aztertzeko.

Beste kasu batzuetan, askotarikoak ziren item-multzoen aurrean, haien artean aldagaiak sortzean gidatuko gintuen irizpide teorikorik ez genuenez, irizpide enpiriko bati jarraitu genion, esplorazio-analisi faktorialen bidez. Analisi horietan gutxieneko asetasun bat hartu genuen, 0,3koa.

Azkenik, kasu batzuetan, irizpide mistotzat har genezakeenari jarraitu genion, hau da, kontu bati berari erreferentzia egiten zioten item-multzo batzuetan (adibidez, erruari dagokien itemen kasua), haietako batzuk multzokatzea erabaki genuen, haien batezbesteko aritmetikoaren bidez (zentzu komunak aldagai bakar baten parte zirela adierazten baitzigun); gainerakoak

aldagai bihurtu ziren, analisi faktorialaren bidez, ez baikeuen argi aldagai bakarrean edo gehiagotan sinplifika zitezkeen.

Bigarren, lanaren emaitzei buruz jardunean hasi aurretik, barne hartutako aldagaiak komentatuko ditut. Lehenik, aldagai emozionalak ageri dira, item-adibide batekin, aldagai horiek sortzeko erabiliko irizpidearekin, item-kopuruarekin, eta hala badagokio, Cronbachen Alphasen arabera.

### 1. Taula: Tresnaren deskribapena: aldagai emozionalak

Aldagai emozionala eta itemaren adibidea	Irizpidea	Item-kopurua	Cronbachen Alpha
Emozionalitate positiboa (adib. «Pozik nago»)	Arrazoizkoa	2	.72
Emozionalitate negatiboa (adib. «Triste nago»)	Arrazoizkoa	6	.83
Beldurra arrazoi politikoengatik (adib. «Orokorrean, zenbait leku saihesten ditut beldurragatik»)	Arrazoizkoa	7	.83
Indiferentzia («Indiferentzia sentitzen dut»)	-	1	-
Harrotasun kolektiboa («Harro nago Euskal Autonomia Erkidegoak azken urteotan lortutakoarekin»)	-	1	-
Lotsa kolektiboa [«Lotsa sentitzen dut (egungo egoeragatik, Euskal Autonomia Erkidegoak kanpoan duen irudiagatik, eta abar)»]	-	1	-
Klima politiko-sozial positiboa (adib. esperantza)	Arrazoizkoa	6	.77
Klima politiko-sozial negatiboa (adib. tristura)	Arrazoizkoa	8	.82
Enpatia ETaren biktimekiko (adib. ETaren biktimekiko pena)	Enpirikoa	14	-
Enpatia presoekiko (adib. presoen familiakoekiko pena)	Enpirikoa	14	-
Euskal sektore nazionalistarekiko enpatia (adib. Euzko Alderdi Jeltzaleko militanteekiko pena)	Enpirikoa	14	-
Enpatia sufritzen dutenekiko («Pena sentitzen dut sufritzen dutenekiko»)	-	1	-
Enpatia sufritzen duten eta nik bezala pentsatzen dutenekiko («Pena sentitzen dut sufritzen duten eta nik bezala pentsatzen dutenekiko»)	-	1	-
Enpatia sufritzen duten eta nik pentsatzen dudaren kontrakoa pentsatzen dutenekiko («Pena sentitzen dut sufritzen dutenekiko, nik pentsatzen dudaren kontrakoa pentsatzen badute ere»)	-	1	-
Emozio negatiboak norberak pentsatzen duenaren kontrakoa pentsatzen dutenekiko (adib. «Haserrea sentitzen dut nik pentsatzen dudaren kontrakoa pentsatzen dutenekiko»)	Arrazoizkoa	5	.85
Schadenfreudea (adib. «Poza sentitzen dut nik pentsatzen dudaren kontrakoa pentsatzen dutenei gauzak ongi ez doazkienean»)	Arrazoizkoa	2	.72
Errua presoen egoeragatik (adib. errua euskal presoei nahikoa ez laguntzeagatik)	Arrazoizkoa	2	.93
Errua ETaren indarkeriagatik (adib. errua ETaren indarkeriaren kontra nahikoa lan ez egiteagatik)	Enpirikoa	4	-

Hona hemen giroan sentitutako eta hautemandako emozioekin zerikusia duen aldagai-multzo bat, nolabait esateko, tenperatura emozionala. Hemen ditugu «emozionalitate positiboa», «emozionalitate negatiboa», «beldurra arrazoi politikoengatik», «indiferentzia», «harrotasun kolektiboa», «lotsa kolektiboa», «klima politiko-emozional positiboa» eta «klima politiko-emozional negatiboa».

Bestalde, aldagai emozionalen barruan, besteen sufrimendua-rikiko gure sentikortasunarekin zerikusia duten beste aldagai-multzo bat dugu. Hemen arituko ginateke «ETAren biktimekiko enpatia»z. ETAren biktimen sufrimendua-rikiko sentitutako enpatia egiten dio erreferentzia, hain zuzen, nahiz eta aldagai honetan ETAren biktimen familiakoekiko edo ETAk mehatxatutakoekiko enpatia ere sartzan den. Jarraian, «presokiko enpatia» dugu. Hemen, presokiko enpatiaz gain, presoen familiakoekiko enpatia ere sartzan da, adibidez. Azkenik, enpatia sektore nazionalistarekiko. Aipatutako hiru enpatia-neurriak oso argi desberdintzen ziren analisi faktorialetako 14 itemen bitartez. Gainera, bestelako enpatia-neurri batzuk ere gehitu ziren. Bestalde, «aurkarietako emozio negatiboak» aztertu ziren. Emozio negatibo multzo bati egiten diote erreferentzia, hala nola norberak pentsatzen duenaren aurkakoa pentsatzen duten pertsonetako mespretxua edo haserrea, eta beste alde batetik, pertsona horietako atseginkeria edo schadenfreudea. Azkenik, multzo horretan bi erru-neurri sartu ziren: «ETAren indarkeriatikiko errua» eta «presoen egoeratikiko errua».

Bukatzeko, **jarrerazko aldagaiak** topatu genituen, indarkeriarekiko, barkamenarekiko eta tolerantziarekiko jarrerak neurtzen dituzten aldagaiak. 2. Taulan agertzen dira aipatutako aldagaiak, aldagai horiek sortzean erabilitako irizpidea eta itemkopurua.

2. Taula: Tresnaren deskribapena: barkamena, indarkeriarekiko jarrera eta tolerantzia

Aldagaiaren izena	Irizpidea	Itemkopurua
ETAri eta <i>Kale borrokari</i> barkatzeko prestutasuna	Enpirikoa	14
Polizari ta Espainiako Gobernuari barkatzeko prestutasuna	Enpirikoa	14
Euskal sektore nazionalistari barkatzeko prestutasuna	Enpirikoa	14
Indarkeriarekiko jarrera, orokorrean	–	1
ETArekiko jarrera	–	1
Tolerantzia	Enpirikoa	2

Alde batetik, multzo horretan dugu «indarkeria justifikatzea, orokorrean», bost aukerako erantzun graduarekin (mutur batean: «Inoiz ez. Indarkeria erabiltzea ez dago inoiz justifikatuta», eta bestean: «Gehienetan, indarkeria erabiltzea justifikatuta dago»). Bestalde, parte-hartzaileei «ETArekiko jarrera»ri buruz galdetu zitzaion, bost aukerako erantzunekin («Erabateko arbuioa. Hala indarkeriazko metodoak nola bere helburuak arbuiaitzen ditut», «Indarkeriazko metodoak arbuiaitzen ditut, baina bat nator helburuekin», «Ez dut ez arbuiaitzen ez defendatzen, jarrera indiferentea dut», «Babesten dut, nahiz eta alderdi kritikagarriak dituen» eta «Erabat babesten dut»).

Bestetik, barkamenari dagozkion hainbat neurri aztertu genuen. Hona hemen «etorkizun batean eta baldintza idealetan» barkatzeko prestutasuna agertzen duten hiru neurri. Aldagai horiek oso argi desberdinduta agertzen ziren analisi faktorialetan, 14 itemen bitartez: «ETARI eta *Kale borrokari* barkatzeko prestutasuna», «Poliziarri eta Espainiako Gobernuari barkatzeko prestutasuna» eta «sektore nazionalistari barkatzeko prestutasuna». Era berean, «bakerako barkatzeko beharraren pertzepzioa» ere aztertu genuen. Aldagai horrek talde batzuek barkamena eskatzea Euskal Herrian bakea lortzeko beharrezkoa delako parte-hartzaileen pertzepzioari egiten dio erreferentzia (aukerako bi erantzun: bai edo ez).

Azkenik, alde batetik galdetu genuen noraino parte-hartzaileek onartzen zuten euskal herritarrek norberaren bestelako identitatea (euskalduna eta espainola terminoetan) izatea («Euskalduna bakarrik», «Espainola bakarrik», «Euskalduna eta espainola, maila berean», «Euskalduna espainola baino gehiago», «Espainola euskalduna baino gehiago»). Onarpen-graduari buruz galdetzean, aukerako 7 erantzun ematen ziren (1 = *erabateko arbuioa*; 7 = *erabateko onarpena*). Bestalde, parte-hartzaileei galdetu zitzaion zein gradutan zeuden prest haien helburu politikoetako batzuetan amore emateko, bakea lortzeko (1 = *inongo prestutasunik ez*; 7 = *erabat prest*). Aipatutako bi aldagaietatik abiatuta, analisi faktorial bat egin zen, eta emaitza aldagai bakar bat izan zen: «tolerantzia».

Lagineko gizonak eta emakumeak aldagai garrantzitsu batzuetan (hala nola adina, identitatea, ideologia eta biktimizazioa), proiektu nagusian ere aztertu genituen aldagaietan, bat ez etortzea gerta zitekeela susmatzen genuenez, *t*-test moduko proba batzuk egitea erabaki genuen. Hala, lagineko emakumeak gizonetakoak baino gazteagoak zirela aurkitu genuen:  $t(659) = 6.25$ ,  $p = .001$ ,  $d = \% 44$ , 95 CI [4.05, 7.76]; baina ez hori bakarrik, identitate ideologizatuan ere puntu gehiago zutela ikusi baikegun (hau da, politikaren arloan, euskal nazionalismoarekiko eta ezkerrearekiko kidetasun handiagoa erakusten zuten, euskaldunekin gehiago identifikatzen ziren eta espainolekin gutxiago):  $t(571) = -4.84$ ,  $p = .001$ ,  $d = \% -36$ , 95 CI [-.54, -.23]. Azkenik, emakumeek ETAREN aldetik biktimizazio gutxiago sufritu izana

ere aipatu zuten:  $t(364) = 4.79$ ,  $p = .001$ ,  $d = \% 35$ , 95 CI [.25, .60]. Cohenen  $d$  kalkulatzeko gizona zkoen desbiderapen tipikoa erabili zen erreferentzia gisa kasu guztietan.

**Gizona zkoen eta emakume zkoen arteko aldeak** aztertzea helburu, **MANCOVAK** egin genituen, eta horrela hiru koaldagaiak kontrolatzen genituen. **MANCOVAK** gizona eta emakumeen arteko aldeak aldagai-multzo batean aztertzea ahalbidetzen diguten analisi estatistikoak dira, eta metodorik onena da I. Motako akatsak egiteko arriskua txikitzeo eta aldagai askeen arteko linealtasun-aniztasuna kontrolatzeko. Era berean, **ANCOVAK** ere egin genituen aldagaiantzat, modu berezian. Halaber, Fieldek (2011) kasu hauetan gomendatzen duen bezala, **analisi diskriminatzaileak** egin genituen. Helburua aldagai askeen arteko loturak hobeto ulertzea zen, eta I. Motako akatsak egiteko aukera murriztea. Koaldagaiak gainerako aldagaiekin batera sartu ziren analisi diskriminatzaileetan.

Lehenik, **MANCOVAK** egin genituen, zehazki, 4. 4 **MANCOVA** erabaki ziren, irizpide erabat teorikoei jarraikiz.

Lehen **MANCOVAK** egoera emozional orokorrak hartzen zituen: emozionalitate positiboa eta emozionalitate negatiboa, beldurra arrazoi politikoengatik, indiferentzia, harrotasun kolektiboa, lotsa kolektiboa, eta klima politiko-emozional positiboa eta negatiboa.

Bigarren **MANCOVAK** sentikortasun emozionalarekin zerkusia duten neurriak hartzen zituen: enpatia, desberdin pentsatzen dutenekiko emozio negatiboak, schadenfreudea, eta errua.

Hirugarren **MANCOVAK** indarkeria, orokorrean, justifikatzea hartzen zuen, eta **ETA**rekiko jarrera.

Eta azkenik, laugarren **MANCOVAK** barkamenari eta tolerantziari dagozkion neurriak hartzen zituen.

**MANCOVA** esanguratsua zen kasuetan, analisi diskriminatzailea egin zen. Bukatzeko, **ANCOVETAN** alde esanguratsuak ziztuzten eta analisi diskriminatzaileen funtzioan gutxienez 30eko pisua zuten aldagaien emaitza aurkeztu genuen.

Lehen **MANCOVA** (emozionalitate positiboa eta emozionalitate negatiboa, beldurra arrazoi politikoengatik, indiferentzia, harrotasun kolektiboa, lotsa kolektiboa, eta klima politiko-emozional positiboa eta negatiboa barne hartzen zituena) esanguratsua izan zen:  $F(8, 451) = 3.22$ ,  $p = .001$ ,  $\eta^2$  partziala = .054. Hori hala izanik, ondoren analisi diskriminatzailea egin zen, eta horrek funtzio diskriminatzaile bat agertu zuen (positiboa gizonentzat eta negatiboa emakumeentzat). Horrek honakoa azaltzen zuen: bariantzaren % 100,  $R^2$  kanonikoa = .17. Funtzio horrek nabar-

men desberdintzen zituen emakumeak gizonen ondoan:  $\Lambda = 0.83$ ,  $\chi^2(11) = 83.68$ ,  $p = .001$ .

Ondoren, kobariantza-analisi batzuk egin genituen, eta aldagaie-tako hirutan alde esanguratsuak aurkitu genituen (era berean, al-dagai horiek, analisi diskriminatzailean, 30 baino pisu handiagoa zuten). Alde batetik, emakumeek gizonezkoek baino intentsitate handiagoa erakutsi zuten arrazoi politikoengatik beldurrean:  $F(1, 458) = 9.58$ ,  $p = .002$ ,  $\eta^2$  partziala = .02. Halaxe planteatu genuen hipotesian. Beste alde batetik, emakumeek gizonezkoek baino puntu gutxiago izan zuten indiferentziari zegokionez:  $F(1, 458) = 6.06$ ,  $p = .014$ ,  $\eta^2$  partziala = .013; eta egoera politikoarekiko emozio positiboetan:  $F(1, 458) = 5.35$ ,  $p = .021$ ,  $\eta^2$  partziala = .012. 3. Taulan ANCOVEN batezbesteko marjinalak ageri dira.

Bigarren, bigarren MANCOVA dela eta (enpatia, desberdin pentsatzen dutenekiko emozio negatiboak, schadenfreudea, eta errua barne hartzen zituena), horretan ere efektu esanguratsu orokor bat topatu genuen; horren arabera, aztertutako aldagaian emakumeak eta gizonezkoak desberdinak dira:  $F(10, 367) = 2.69$ ,  $p = 0.003$ ,  $\eta^2$  partziala = .068. Ondoren analisi diskriminatzailea egin zen, eta horrek funtzio diskriminatzaile bat agertu zuen. Horrek honakoa azaltzen zuen: bariantzaren % 100,  $R^2$  kanonikoa = .18. Funtzio horrek nabarmen desberdintzen zituen emakumeak gizonen aldean (positiboa emakumeentzat eta negatiboa gizonentzat):  $\Lambda = 0.82$ ,  $\chi^2(13) = 72.26$ ,  $p = .001$ .

3. Taula: Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak emozio orokorretan: batezbesteko marjinalak

	Gizonak	Emakumeak
	M	M
Emozionalitate positiboa*	3.80	3.52
Emozionalitate negatiboa	3.29	3.59
Beldurra arrazoi politikoengatik*	2.40	2.73
Indiferentzia*	2.73	2.31
Harrotasun kolektiboa	4.27	4.32
Lotsa kolektiboa	3.37	3.67
Klima politiko-sozial positiboa	3.13	3.12
Klima politiko-sozial negatiboa	2.97	3.14

Oharra. Erantzunaren eskala 1etik 7ra izan zen kasu guztietan, salbu klima politiko-sozialari dagozkion aldagaian; horietan 1etik 5era izan zen.

\*Aldagai horietan desberdintasun esanguratsuak aurkitu ziren gizonen eta emakumeen artean ANCOVETAN; gainera, gutxienez 30eko pisua izan zuten analisi diskriminatzaileetan.



ANCOVEK azaleratu zuten emakumeek puntu gehiago zutela presoekiko enpatian:  $F(1, 376) = 11.84, p = .001, \eta^2$  partziala = .031; eta sufritzen duten pertsonetikiko eta norberak bezala pentsatzen dutenekiko:  $F(1, 376) = 9.91, p = .002, \eta^2$  partziala = .026. Alderantziz, emakumeek schadenfreudeari zegokionez puntu gutxiago zutela ikusi zen:  $F(1, 376) = 4.41, p = .036, \eta^2$  partziala = .012. Zentzu horretan, esan dezakegu honi buruz planteatutako hipotesiei partzialki bakarrik eusteko adina oinarri enpiriko dagoela. Gainera, gehitu nahi nuke, maila deskriptibo hutsean, enpatiazko neurrietako gehienetan emakumeek gizonen baino puntu gehiago zutela. 4. Taulan ANCOVEN batezbesteko marjinalak ageri dira.

4. Taula: Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak enpatian, norberak pentsatzen duenaren kontrakoa pentsatzen dutenekiko emozio negatiboetan, schadenfreudean eta erruan: batezbesteko marjinalak

	Gizonak	Emakumeak
	M	M
Enpatia ETaren biktimekiko	-.16	.13
Enpatia presoekiko	-.17	.12
Enpatia euskal sektore nazionalistarekiko	-.02	-.03
Enpatia sufritzen duten pertsonetikiko	5.58	5.90
Enpatia sufritzen duten eta nik bezala pentsatzen duten pertsonetikiko*	5.35	5.82
Enpatia sufritzen duten eta nik pentsatzen duenaren kontrakoa pentsatzen duten pertsonetikiko	4.98	5.22
Enpatia negatiboa nik pentsatzen duenaren kontrakoa pentsatzen duten pertsonetikiko	2.13	2.08
<i>Schadenfreudea*</i>	2.23	1.96
Errua ETaren indarkeriagatik	-.02	.08
Errua presoan egoeragatik	2.55	2.87

Oharra. Erantzunaren eskala 1etik 7ra izan zen kasu guztietan, salbu ETaren biktimekiko enpatian, presoekiko enpatian, euskal sektore nazionalistarekiko enpatian eta ETaren indarkeriagatik erruan; horietan puntuazio faktorialak erabili ziren.

\*Aldagai horietan desberdintasun esanguratsuak aurkitu ziren gizonen eta emakumeen artean ANCOVETAN; gainera, gutxienez 30eko pisua izan zuten analisi diskriminatzaileetan.

Hirugarren MANCOVA dela eta (indarkeria zein gradutan justifikatzen den eta ETarekiko jarrera, oro har, barne hartzen zituena), gizonen eta emakumeen arteko aldeak ez ziren esanguratsuak izan:  $F(2, 402) = 1.81, p = .165, \eta^2$  partziala = .009. Dena dela, bi aldagaiak nahiko desberdinak dira: bata indarkeria justifikatzeaz ari da, orokorren, eta bestea, aldiz, ETarekiko jarrerari,

talde terrorista jakin batekiko jarrerari buruz. Jarrera horrengan identitateak, ideologiak, biktimizazio-esperientziak eta abarrek eragin handia izan dezake. Gainera, hipotesietan aparte landu genituen. Hori guztia kontuan hartuta, aldagaietako bakoitza bereiz aztertzea erabaki genuen. ANCOVEK ez zuten desberdintasun esanguratsurik erakutsi, baina joera bat azaldu zuten indarkeria justifikatzeari dagokionez:  $F(1, 403) = 3.58, p = .059, \eta^2$  partziala = .009. Horren arabera, emakumeek gizonetzkoek baino gradu txikiagoan justifikatzen zuten indarkeria erabiltzea. Era berean, analisi diskriminatzailea egitea erabaki genuen, eta horrek funtzio diskriminatzaile bat agertu zuen (positiboa gizonentzat eta negatiboa emakumeentzat). Horrek honakoa azaltzen zuen: bariantzaren % 100,  $R^2$  kanonikoa = .11. Funtzio horrek nabarmen desberdintzen zituen emakumeak gizonen ondoan:  $\Lambda = 0.89, \chi^2(5) = 48.60, p = .001$ . 5. Taulan ANCOVEN batezbesteko marjinalak ageri dira.

5. Taula: Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak indarkeria justifikatzean eta ETArekiko jarreran: batezbesteko marjinalak

	Gizonak	Emakumeak
	M	M
Indarkeria justifikatzea	1.79	1.65
ETArekiko jarrera	1.57	1.54

Oharra. Erantzunaren eskala 1etik 5era izan zen.

Azkenik, laugarren MANCOVAK barkamenari dagozkion neurri batzuk eta tolerantziari dagokion bat barne hartzen zituen. MANCOVA hori esanguratsua izan zen:  $F(5, 253) = 2.71, p = .021, \eta^2$  partziala = .051. Horren arabera, desberdintasunak zeuden gizonen eta emakumeen artean barkamenean, tolerantzian edo bietan. Bere aldetik, analisi diskriminatzaileak funtzio diskriminatzaile bat agertu zuen (positiboa emakumeentzat eta negatiboa gizonentzat). Horrek honakoa azaltzen zuen: bariantzaren % 100,  $R^2$  kanonikoa = .16. Funtzio horrek nabarmen desberdintzen zituen emakumeak gizonen ondoan:  $\Lambda = 0.84, \chi^2(8) = 43.83, p = .001$ .

ANCOVETAN desberdintasun esanguratsu bakarra topatu genuen. Emakumeek beharrezkoago ikusten zuten gizonetzkoek baino barkamena, bakea eta adiskidetzea lortu ahal izateko:  $F(1, 257) = 6.24, p = .013, \eta^2$  partziala = .024. 6. Taulan ANCOVEN batezbesteko marjinalak ageri dira.

6. Taula: Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak barkamenean eta tolerantzian: batezbesteko marjinalak

	Gizonak	Emakumeak
	M	M
ETAri eta Kale borrokari barkatzeko prestutasuna	-.06	.04
Poliziarri eta Espainiako Gobernuari barkatzeko prestutasuna	-.02	-.02
Euskal sektore nazionalistari barkatzeko prestutasuna	.12	-.05
Barkatzeko beharra*	-.14	.17
Tolerantzia	-.09	.10

Oharra. Aldagai guztietan puntuazio faktorialak erabili ziren.

\*Aldagai horretan desberdintasun esanguratsuak aurkitu ziren gizonen eta emakumeen artean ANCOVETAN; gainera, gutxienez 30eko pisua izan zuen analisi diskriminatzaileetan.

### 3. Ondorioak

Emakumeak esparru politikotik eta sozialetik baztertuta egon dira, eta hala jarraitzen dute egun. Esparru horietatik baztertzea haien eskubidearen kontrakoa zen eta da, emakume guztien eskubideen kontrakoa. Baina gainera, lan honetan honakoa galdetzen diogu geure buruari: desberdinen arteko bizikidetzan garrantzia duten alderdi batzuetan, emakumeak gizonen desberdinak izan litezkeela kontuan hartuta, delako bazterketak galera pertsonal eta sozial handia ekar lezake gizarteak aurre egin dien eta egiten dien erronkei dagokienez: indarkeriarekin bukatu, bizikidetzak baketsua lortu, bakea lortu. Gure lanean gizonen eta emakumeen arteko aldeak aztertu ditugu aipatu ditugun erronketan funtsezko balio bat duten kontu batzuetan: emozioak, barkamena, tolerantzia eta indarkeriarekiko jarrera.

Alde batetik, emakumeek puntu gutxiago izan zuten emozionalitate positiboan. Emaizta nahiko harrigarria, pertsonen arteko esparruan aurkitutakoaren kontrakoa (Brody y Hall, 2008). Gainera, puntu gehiago izan zuten arrazoi politikoengatik beldurrean, eta hori badator bat lehenagoko azterketetan aurkitutakoarekin (Fischer et al., 2004; Nellis, 2009). Oro har, badirudi emakumeen esperientzia emozionala esparru politikoan gizona baino negatiboa dela. Zein ondorio izan ditzake horrek? Baliteke emakumeen parte-hartzea politikan ez izatea hain aktiboa, besteak beste, haientzat desatseginagoa delako. Hori dela eta, emakumeek saihesteko jarrera batzuk jartzen dituzte abian, eta horrek politikaren mundutik urruntzen ditu. Alderantziz, gizona baino gehiago gogobetetzen ditu politikan modu aktiboan parte-hartzeak: emozio positibo gehiago, hala nola poza, esperantza eta beldur gutxiago. Hala ere, beste alde

batetik, gogora dezagun gizonezkoek puntu gehiago zutela indiferentzian. Horrek guztiak azterketa sakonago bat eskatzen du.

Bestetik, hipotesietan esan genuenaren kontra, eta lotsari buruz horri buruzko lehenagoko lanetan (Fischer et al., 2004), eta harrotasunari buruzkoetan (Brebner, 2003; Collins eta Frankenhaeuser, 1978) aurkitutakoaren kontra, ez zen alderik topatu emakumeen eta gizonen artean emozio horiei dagokienez. Hala ere, kontuan hartu behar dugu lan honetan harrotasun eta lotsa kolektiboa aztertu genituela, eta beraz, ez dugu beste lanetako daturik (emozio kolektiboari buruz) gure emaitzak konparatzeko.

Bestalde, geure buruari egiten genion beste galdera bat zen ea emakumeek sentikortasun handiago agertuko zuten esparru politiko eta sozialean, gizonezkoen aldean. Zehatzago, emakumeek enpatia handiagoa sentituko zuten galdetzen genion geure buruari, lehenagoko lanetan topatutakoarekin bat etorritik (Etxebarria et al., 2009; Lennon eta Eisenberg, 1992; Rueckert eta Naybar, 2008). Gure azterketan, emakumeek puntu gehiago izan zuten presoekiko enpatian eta sufritzen dutenekiko eta norberak bezala pentsatzen dutenekiko enpatian, baina ez enpatiari dagozkion gainerako neurrietan. Erruari dagokionez ere, ez zuten puntu gehiago izan, pertsonen arteko esparruan topatutakoaren aurka (Etxebarria et al., 2009; Fischer et al., 2004). Hala ere, *schadenfreudean* puntu gutxiago izan zuten. Nahiz eta *schadenfreudea* emozio pasibo bat den, eta ezin duen aurkako taldeen jazarpen aktibo bat azaldu (haien sufrimenduaz poztea baino ez), eraso eta giza eskubideak urratzea toleratzen dituen testuinguru bat ekar dezake. Osotasunean, lortutako emaitzek pentsarazten digute, talde arteko gatazken eta indarkeriaren testuinguruetan, bizikidetzaz hobetzeraz bideratutako ekimeneetan emakumeak egoteak taldeen arteko erasoari aurre egiten eta gizon-emakumeenganako errespetuari eusten lagun diezaiokela. Dena dela ere, kontuan hartu behar da ez zela alderik aurkitu talde guztiekiko enpatiari dagokionez. Sakonago landu beharreko kontua da. Azkenik, erruari dagokionez, ez zen alderik egon. Horrek beste gogoeta bat egitera garamatza: baliteke talde arteko testuinguruan, beste kontu batzuek, hala nola nazio-identitateak edo ideologia politikoak, garrantzi handiagoa hartzea, beste batzuen aldean (adibidez, sexua).

Bestalde, indarkeria gizonezkoek emakumezkoek baino neurri handiagoan justifikatzen zuten aztertzeko interesa genuen. Egia da gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago sartzen direla jarrera oldarkorretan (Eagly eta Steffen, 1986; Reinares, 1998; Tangney eta Dearing, 2002), baina zer gertatzen da indarkeriaren aurreko haien jarrerarekin? Ba al dago alderik emakumeen eta gizonen artean? Gure laneko emaitzek joera bat agertzen duen desberdintasun baten berri eman ziguten indarkeria justifikatzeari dagokionez, baina ez genuen alderik aurkitu ETArekiko jarreran. Zehazki, joera arin bat ageri zen gizonen aldetik

indarkeria justifikatzearen aldekoa. Euskal gatazkaren bera-riazko alderdiekin lotutako erruan alderik ez egoteaz egiten genuen gogoetari jarraituz, baliteke ETArekiko jarreran horrek berak dituen beste alderdi nagusiagoek eragina izatea, hala nola nazio-identitatea edo ideologia, eta alderdi horiek gizon edo emakume izan bigarren lekuan uztea.

Azkenik, emakumeek eta gizonen barkamenari eta tolerantziari dagokionez duten aldea aztertzea ere helburu jarri genuen. Barkatzeko joeran aldeei buruz aipatutako metaanalisien arabera (Fehr et al., 2010; Miller et al., 2008), eta ildo horretan berean, gure emaitzek adierazten dute gizonen eta emakumeen arteko aldeak, izatekotan, eskasak direla. Zehazki, gure lanean, aldagaietako batean baino ez genuen topatu desberdintasunik: emakumeek gizonen baino beharrezkoago ikusten zuten barkamena, adiskidetzea eta bakea lortzeko. Bestalde, ez zen alderik topatu tolerantziari dagokionez. Talde desberdinen barkatzeko prestutasunean alderik ez badago ere, badirudi gizonen eta emakumeen artean desberdintasuna dagoela barkamena ulertzeko moduan. Arreta handiagoa merezi duen gaia da.

### 3.1. Mugak eta etorkizuneko ikerketak

Lehenik, tresnak berak dituen mugak nabarmendu nahi nituzke. Orokorrean, item batzuk sortzeari lotutako arazo batzuk azpimarra ditzakegu. Nahiz eta askotariko sentikortasun ideologikoko adituek xeheki eta kritikoki berrikusi, itemen espresio batzuk problematikoak izan ziren, eta erresistentziak sortu zituzten, edo are erantzun batzuetan eragin ere. Gogora dezagun galdeketa bat zela, nagusiki ad hoc, eta bertan euskal testuinguruari buruzko neurriak jasotzen zirela zehazki. Horrek, halaber, zailtasunak ekar ditzake gure emaitzak neurri desberdinak erabili dituzten beste batzuekin konparatzeko orduan.

Bestalde, galdeketa erabiltzeak oso ezagunak diren muga batzuk ere badakartza berarekin, adibidez, desiragarritasun soziala. Gizonen eta emakumeen arteko aldean azterketaren esparruan, baliteke sexu-estereotipoek nolabaiteko eragina izatea galdeketa erantzutean. Hori egia izan liteke, baina era berean izango litzateke egia eragin hori emakumeen eta gizonen sozializazio-prozesuan, eta horrek garrantzia kenduko lioke joera posible horri. Lantzen diren gaien izaera labaina dela eta, metodologia kualitatibo bat erabiltzeak (adibidez, sakoneko elkarrizketak) galdeketa bidez lortutakoak baino datu zehatza- goak eta fidagarriagoak jasotzea lekarke.

Bestalde, datuak denbora-tarte zehatz batean jaso ziren. Nahiz eta, gure ustez, aldagaien arteko lotura une jakin batez haratago joan, baldintza hori kontuan hartu behar da. Oso interesgarria litzateke, ETAk behin betiko su-etena adierazi zuenetik (2011ko urria) aldi berri batean gaudenez, antzeko ezaugarriak dituen azterketa bat egitea une honetan, une hau oso desberdina bai-

ta aurkezten dugun azterketa honetarako datuak jaso ziren une haren aldean (2005eko bukaera eta 2006ko hasiera); edo oso interesgarria litzateke azterketa bat egitea 3 edo 4 urteren buruan.

Azkenik, azterketaren beste muga bat, egin zen azterketa-mota dela eta, galdutako kasuen kopuru handiarekin dago harremanetan: 200 eta 400 bitartean. Uste dugu subjektuen galera hori ez zela modu sistematikoan gertatu, baizik eta modu gorabeheratsuan, eta beraz, galera horrek ez zuela emaitzetan eragingo.

### 3.2. Azterketa honen berariazko zailtasunez

Azken iruzkinera igaro aurretik, azterketaren kontuetako bati lerro batuk eskaini nahiko nizkioke, nire ustez esanguratsuen gertatu zen kontu bati, analisi estatistikorik izan ez bazuen ere. Parte-hartzaile batzuen erresistentziei eta kritikei buruz ari naiz, eta parte-hartzeari uko egin zioten haienei buruz. Esan beharra daukat datuak jasotzea oso prozesu gogorra izan zela pertsonalki. Jaso nituen kritikak kontu zientifikoez eta metodologikoez haratago zihoazen, eta zuzen zeuden nigana bideratuta. Telefono-deiak, gutunak edo topo egiteak, era guztietako salaketak jasan behar izan nituen nire helburu pertsonal, sozial, politiko eta moralen inguruan. Ni bezalako pertsona batentzat, euskal gatazkarekin, haren indarkeriarekin eta sufrimenduarekin kezkatua eta sentsibilizatua dagoen pertsona batentzat (hala izaten dira esparru honetan ikertzea erabakitzen duten pertsonak), prozesu zaila eta neketsua izan zen, eta, egun umiltasunez eta zintzotasunez aitortu behar dut, nire motibazioaren azpiak jan zituen neurri handi batean. Bitxiki, zalantzan jartze hori bi mutur ideologikoetatik egiten zen, hala ezker abertzaleko sektore batzuetatik, nola jarrera konstituzionalista kontserbatzaileenetatik. Hori niretzat, nolabait ere, lasaigarria izan zen. Horiek dira, zalantzarik gabe, bizirik dagoen taldeen arteko gatazka bati buruzko ikerketa bat egiteari gehitu beharreko zailtasunak. Eta hitz hauekin ikertzaileak animatu nahi nituzke bide honi heldu diezaioten, aldi berean, nire esperientziatik ohartarazteko atrebentzia hartuz.

### 3.3. Azken iruzkina

Aurkitutako aldeek honako ondorioa ateratzeko aukera ematen digute: gatazka politikoen konponketan emakumeak negozio-mahaietan sartzeko premiazko beharra. Beharrezkoa da esparru politikoan eta sozialean emakumeen parte-hartzea handitzea, batez ere, indarkeria-testuinguruetan. Eta kontuan hartu behar dugu erresistentziak topatu ditzakegula haiek sartzean, ez bakarrik gizonen aldetik, espero litekeen bezala, baita emakumeen aldetik ere, esparru horietan parte-hartzeak ez baititu nahikoa gogobetetzen.

Emakumeak esparru politikoan eta sozialean egotea lortzeko arrazoiak, alde batetik, gizatiarrak dira, egote hori eskubide-kon-

tua baita, lanaren hasieran esaten genuen bezala. Baina, azterketa honen emaitzak aztertzean argi geratu den bezala, badira, halaber, arrazoi zientifikoak haiek esparru horietan sartzeko, ez egoteak kostu politiko eta sozial handia baitu, ezin hartu dugun kostua.

#### 4. Erreferentziak

Avery P. G. (1988). Political tolerance among adolescents. *Theory and Research in Social Education*, 16, 183-201. doi: 10.1080/00933104.1988.10505564

Brebner, J. (2003). *Gender and emotions. Personality and Individual Differences*, 34, 387-394. doi: 10.1016/S0191-8869(02)00059-4

Brody L. R., & Hall J. A. (2008). Gender and emotion in context. In M. Lewis, J. M. Haviland-Jones, & L. Feldman Barrett (Eds.), *Handbook of emotions* (pp. 395-408). New York, NY: The Guilford Press.

Collins, A., & Frankenhaeuser, M. (1978). Stress responses in males and female engineering students. *Journal of Human Stress*, 4, 43-48. doi: 10.1080/0097840X.1978.9934986

Eagly, A. H., & Steffen, V. J. (1986). Gender and aggressive behaviour: A meta-analytic review of the social psychological literature. *Psychological Bulletin*, 100, 309-330. doi: 10.1037/0033-2909.100.3.309

Etxebarria, I., Ortiz, M. J., Conejero, S., & Pascual, A. (2009). Intensity of habitual guilt in men and women and differences in interpersonal sensitivity and the tendency towards anxious-aggressive guilt. *The Spanish Journal of Psychology*, 12, 540-554. doi: 10.1017/S1138741600001918

Fehr R., Gelfand M. J., & Nag M. (2010). The road to forgiveness: A meta-analytic synthesis of its situational and dispositional correlates. *Psychological Bulletin*, 136, 894-914. doi: 10.1037/a0019993

Field, A. (2011). *Discovering statistics using SPSS*. London, UK: Sage Publications.

Fischer A. H., Rodríguez-Mosquera P. M., van Vianen A. E. M., & Manstead A. S. R. (2004). Gender and culture differences in emotion. *Emotion*, 4, 87-94. doi: 10.1037/1528-3542.4.1.87

Golebiowska, E. A. (1999). Gender gap in political tolerance. *Political Behavior*, 21, 43-66. doi: 10.1023/A:1023396429500

Hewstone, M., Cairns, E., Voci, A., McLernon, F., Niens, U., & Noor, M. (2004). Intergroup forgiveness and guilt in Northern



Ireland. In N. R. Branscombe & B. Doosje (Eds.), *Collective guilt. International perspectives* (pp. 193-215). Cambridge, UK: Cambridge University Press.

Lennon, R., & Eisenberg, N. (1992). Diferencias de sexo y edad en empatía y simpatía. In N. Eisenberg & J. Strayer (Eds.), *La empatía y su desarrollo* (pp. 215-239). Bilbao, Spain: Descleé de Brouwer.

Lozano, A., & Etxebarria, I. (2007). La tolerancia a la diversidad en los adolescentes y su relación con la autoestima, la empatía y el concepto del ser humano. *Infancia y Aprendizaje*, 30, 109-129. doi: 10.1174/021037007779849673

Miller A. J., Worthington E. L., & McDaniel M. A. (2008). Gender and forgiveness: A meta-analytic review and research agenda. *Journal of Social and Clinical Psychology*, 27, 843-876. doi: 10.1521/jscp.2008.27.8.843

Moeschberger, S. L., Dixon, D. N., Niens, U., & Cairns, E. (2005). Forgiveness in Northern Ireland: A model for peace in the midst of the "Troubles". *Peace and Conflict: Journal of Peace Psychology*, 11, 199-214. doi: 10.1207/s15327949pac1102\_5

Montero, I., & León, O. G. (2007). A guide for naming research studies in Psychology. *International Journal of Clinical and Health Psychology*, 7(3), 847-862.

Nellis A. M. (2009). Gender differences in fear of terrorism. *Journal of Contemporary Criminal Justice*, 25, 322-340. doi: 10.1177/1043986209335012

Ortony, A., Clore, G. L., & Collins, A. (1988). *The cognitive structure of emotions*. New York, NY: Cambridge University Press.

Oz, A. (2002/2007). *Contra el fanatismo*. Barcelona: Ediciones Siruela.

Páez, D., Ruiz, J. I., Gailly, O., Kornblit, A. L., Wiesenfeld, E., & Vidal, C. M. (1997). Clima emocional: Su concepto y medición mediante una investigación transcultural. *Revista de Psicología Social*, 12, 79-98.

Reinares, F. (1998). *Terrorismo y antiterrorismo*. Barcelona: Paidós.

Rueckert, L., & Naybar, N. (2008). Gender differences in empathy: The role of the right hemisphere. *Brain and Cognition*, 67, 162-167. doi: 10.1016%2Fj.bandc.2008.01.002

Sotelo M. J. (2000). Individual differences in political tolerance among adolescents. *Social Behavior and Personality*, 28, 185-192. doi: 10.2224/sbp.2000.28.2.185



Tangney, J. P., & Dearing, R. L. (2002). Gender and morality. In J. M. Masling & R. F. Bornstein (Eds.), *The psychodynamics of gender and gender role* (pp. 251-269). Washington, DC: APA.

## **MASKULINITATE ETA FEMINITATE HEGEMONIKOA: EZIN-BESTEKO IRAKURKETA INDARKERIA, GATAZKA ETA BAKE-AUKERAK ULERTZEKO**

**Zuriñe Rodríguez Lara**  
**Zientzia Politikoak eta Administraritzako**  
**Departamentuko ikertzailea**  
**Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea**

ETAk jarduera armatua behin betiko utziko zuela jakitera eman zuenetik (2011/10/20) hainbat diskurtso sortu dira egunerokotasunean, eta galderak planteatzen dituzte Euskadiko egoera ireki berriari buruz. Gaurko egunean jarraitu egiten dugu gure komunitatearen errealitateaz mintzatzen, gure aisialdi-espazioetan, gure adiskideekin, hurbilekoekin. Hala, Euskadin gertatutakoak -eta oraindik gertatzen denak- toki garrantzitsua edukitzen jarraitzen du gure bizitzan. Baina orain, berriak ez izan arren, gure elkarriketetan integratzen ditugun analisi-kategoriek inoiz baino indar handiagoa hartzen dute, eta, haien bidez, etengabeko erreferentzia egiten zaie gatazkaren ondoko balizko agertokiei. Hala, indarkeriaren amaieraz hitz egiten da, gizarte-sarea konpontzeaz, bizikidetzaz, etab. Komunitateak, talde-hausnarketako prozesuen bidez, balizko agertokiak pentsatzen eta imajinatzen ditu, eta horiek bide ematen dute nolabaiteko plazera eta ongizatea sentitzeko, baina ez daude arriskuetatik libre.

Lerro hauek idaztean galdera bati erantzuteko eskatu zidaten: bakeak eragin lezake genero-harremanak berdintasun handiagoz birdefinitzea ala ez? Alegia, modu errazagoan esanda, **emakumeok bakean biziko gara Euskadin bakea eskuratutakoan?** Bake handiagoa egongo da guretzat indarkeriarik ez badago? Galderak errepikaria dirudien arren, bakea eta indarkeria hitzek hartzen duten zentraltasuna ezinbestekoa da gatazkaren dinamikak ulertu ahal izateko, bai eta hura bizi duten emakumeen bizitzak ere.

Kapitulu honen zirriborroa prestatzean, hasiera batean pentsatu nuen hizpide izan nitzakeela emakumeen gatazka ondoko birmoldatze- eta birgaitze-prozesuak; 1325eko iraultza; autodefentsa eta kontaketa feministako tresnek osatzeko duten balioetasuna; emakumeak eta beren bizipenak gatazka konpontzeko ez baliatzearen arriskuak, eta gizonak gatazkaren politika patriarkaletan duten erantzukizuna. Idazten hastean, baina, pentsatu nuen ez ote ginen azkarregi joaten ari.

Errealitate horiek guztiak gatazkaren aurreko agertoki batean karakterizatzen, ezinbestekoa da, lehenik, gai izatea gatazka-

ren kontaketa bere dimentsio guztietan eta bere konplexutasun osoarekin osatzeko. Horregatik erabaki nuen bake-kontuei erantzun baino lehen interesgarriagoa dela gatazkari buruzko galderak planteatzen jarraitzea.

Hasteko -ez dakit hasieratik, baina bai, behintzat, ikuspuntu feminista batetik-, gure erantzukizuna da geure buruari galdetzea nola gauzatu diren genero-harremanak gatazka politiko-armatuak iraun duen urteetan zehar. Alegia, zer eginkizun izan dute gizonak eta emakumeek urte hauetan guztietan? Zer rol jokatu dute? Eta zer maskulinitate- eta feminitate-eredu ekarri du berekin rol horiek betetzeak? Azken batean, **nola funtzionatu dute maskulinitateak eta feminitateak Euskadin?** Gurea bezalako gatazka armatua bizi duen gizarte batean bizi izateak badu eraginik genero-ereduetan? Berdintasun handiagoa dauka bakean bizi den gizarte batek gatazkan bizi den batek baino?

Halako galderak behartu egiten gaituzte geure buruari gai agian konplexuagoak baina erabat beharrezkoak galdetzen jarraitzea: zer da genero-berdintasun delako hori? Posible al dira berdintasunezko harremanak gizarte baketsu batean? Baina, batez ere, zergatik mintzo gara horretaz orain? Edo hobe esanda, zergatik deritzogu interesgarri horri guztiari?

Euskaldunen talde-iruditerian ageri diren galdera horiek guztiek eztabaida intelektualak eragiten dituzte euskal bazter akademiakoetan, eta kezkak sorrarazten dizkiote euskal feminismoaren zati handi bati. Galderon atzean, halaber, benetako kezka ezkututzen da: bakea etorkizunean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna katalizatzeko bidea izan daiteke ala, besterik gabe, indarkeriaren eta bere dimentsio ugarien konplexutasunari buruzko gizarte-eztabaidari ez heltzeko aitzakia? Bakea eskuratzen badugu, orduan indarkeriaz hitz egiteari utziko diogu?

Gutxienez planteatutako galderetako batzuei erantzuteari ekin baino lehen, oraindik ere beharrezkoa da haritik tiratzea eta gatazka-testuinguruaren karakterizazioa are gehiago korapilatzea. Horregatik, genero-harremanez mintzo bagara, alde zuzenetik generoa zer den eta zergatik behar dugun aipatu beharko dugu. **Funtzionalak dira generoak gatazka politiko-armatu bat behar bezala garatzeko?** Hau da, zenbait konturi erantzuteko gai izan behar dugu: zergatik behar ditugun gizonak eta emakumeak, zertarako behar ditugun eta nola baliatu ditugu gatazkan; eta, aldi berean, ikusi beharra dugu zer modutan erabiltzen ditugun feminitatea eta maskulinitatea gatazkan eta horrek zerikusirik izan dezakeen gizon eta/edo emakume izatearekin. Hainbeste galderaren eta errealitatea korapilatzeke ariketaren artean, hori guztia elkar erlazionatzeko gai izateko erronka sortzen da. Erronka euskal gatazkan berdintasunarekin, generoarekin, gizon-emakumeekin, maskulinitatearekin eta feminitatearekin zer gertatzen den jakitean datza.

Baina, berriz ere, zaila da aurrera egitea, euskal gatazkaz mintzatzeak galderak egitera eramaten gaituelako erremediorik gabe: **zer da euskal gatazka?** Egoera horrek zer eragin dauka genero-harremanetan? Noiz uzten diogu gatazkan egoteari? Noizbait uzten ote diogu? Eta hala bada, gatazkan egoteari uzteak genero-harremanak aldatzen ditu ala ez? Eta aldatzekotan, onerako ala txarrerako izaten da? Nori egiten dio mesede eta nori kalte?

Hasieran aurreratu dugun moduan baina gune eta une honetara ekarrita, baieztatu genezake borroka armatuaren amaierarekin batera indarkeriaren amaiera datorrela? Zer indarkeriarena? Puntu horretan iristen gara behingoz gatazkaren karakterizazioaren errora. Orain arte geure buruari bakea zer den galdetu badiogu, orain gai izan behar dugu, orduan, indarkeria zer den eta gizonentzat eta emakumeentzat gauza bera den jakiteko.

Borroka, pentsamendu eta teoria feministaz beteriko urteek erakutsi digute sistema patriarkal batean gizonen eta emakumeen ez dutela indarkeria inolaz ere modu berean gorpuzten, bizitzen, eragiten eta sufritzen. Orduan, gizonen eta emakumeen zergatik gorpuztu, bizi, eragin eta sufritu beharko lukete bakea modu berean?

Hainbeste galderaren artean ezinbestekoa da halako korapiloa desegiten hasten lagunduko digun erantzun edo, gutxienez, tesiren bat planteatzea. Hasteko, euskal komunitateko indarkerietako bat izan zitekeenarekin ekingo diot: gizarte patriarkal batean bizi garenaren ideia. Halako indarkeria nabarmendu da, ideia hori egia absolutu gisa eta nortasunaren eta Espainiarekiko bereizketaren errealitate gisa naturalizatzearen bidez. Gure komunitatea besteak -Espainia eta Frantzia, nagusiki- bezain patriarkala eta matxista ez izatearen ideia esportatu nahi duen benetako nortasun-seinalea, nolabait.

Iruditerian finkatutako eta are txisteak eragin dituen ideia horrek zuzeneko ondorioak ditu berdintasuna ulertzeko daukagun eran. Espazio pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketa lausotzen du; horrela, euskal familiaren eta etxeoandarearen ideia idiliko eta askatzailea sortzen du, baina, egiatan, indartu egiten du edozer gizarte patriarkaletan existitzen den eta berez genero-ezberdinkeriarik bere horretan eusten dion publiko-pribatu dikotomia; hori bai, beste batzuen baina ezberdinkeria-kutsu txikiagoa emanez. Euskadi inoiz ez da izan emakume deitu izan ditugun horiei, gainerako gizartearen aldean, status berezia eman dien uharte idilikoa. Hemen ere, bakean nahiz gatazkan, gizonen baina gutxiago kobratzen dugu, emakume izateagatik hiltzen gaituzte, ez dugu lan-status berdina, gehiago arduratzen gara ume txikiez, etab.

Etorkizuneko bake-prozesu batean ezinbestekoa izango da iruditeria hori eztabaidagai izatea; izan ere, gezur handi horrek

eraman gaitu gure analisisian **euskal gatazkaren osagai patriarkal bizia** karakterizatzeko, azaltzeko eta ezagutarazteko beharra ikusezin egitera edo aintzat ez hartzera. Modu horretan, gatazka armatu eta politikoaren ondorioz, ezberdinkeria-harreman, bereizkeria eta indarkeria espezifikoko eta sistematikoak eman dira, eta batez ere emakumeek sufritu ditugu horiek, jaiotzean emakume diagnostikatu gintuztelako baino ez. Hori da heldu beharreko lehen mintzagaietako bat gatazkaren irakurketa desberdinduari ekiten diogunean. Hori da, hain zuzen, gatazkaren irakurketa edo kontaketa feminista egiteko eman beharreko lehen urratsa.

Ezberdinkeria, bereizkeria eta indarkeria horiei heltzeko modu bat litzateke geure buruari galdetzea **euskal gatazkek sexurik edo generorik baduen**. Hala bada -eta bistakoa dirudi orain arte aukez-tutakoarengatik-, ez genioke soilik genero bakoitzaren zereginari erreparatu beharko, baizik eta haietako bakoitzaren erantzukizunari eta horren ondorio diren menderatze-gailuei. Jakina, gatazkaren ondoren erantzukizun hori onartu beharko litzateke, pribilegioa eduki dutenen eginkizuna birdefinitzearen bidez, itxuraz bakean bizi den gizartean rol-bereizketa berdina gerta ez dadin.

Gizarte patriarkalak gizarte binomikoak dira, eta emakumeak, horietan, gizonak diren eta izan behar duten guztiarekin kontrajarrira eraikiko dira. Orain arte gai izan bagara euskal patriarkatuaren iruzurra agerian uzteko, baieztatu egin dezakegu euskal gizartea gizarte patriarkala dela eta, hortaz, binomikoa dela ere bai. Gizonek, gizarte horietan, arrazionalak, publikoak, produktiboak, subjektuak eta maskulinoak izan beharko dute; emakumeek, berriz, irrazionalak, pribatuak, erreproduktiboak, objektuak eta femeninoak. Kategoriatu horiek erreproduzitzen ez dituzten gizon guztiak homosexualtzat joko dira eta ez-gizon bilakatzeko arriskua izango dute, hau da, emakume bilakatzeko arriskua. Emakumeen kasuan lesbianak, emagalduek, presoak eta eroak izango dira.

Illo horretan, gatazka armatu bat bizi duen gizarte bat ere gizarte binomikoa da, aldi berean patriarkala izango baita eta, ondorioz, sistematikoki estereotipoz beteriko ezaugarriak dituzten gizon-emakumeak eraikiko baititu. Itxuraz bakean bizi den gizarte batekiko aldea da gatazka bizi duen gizartean beselako elementuak sartzen direla jokoan. Horiek estereotipoak eta kategoriak bikoizten dituzte, eta gizon edo emakume izatearen arteko diferentziak are hermetikoago eta bereziago bilakatuko dituzte, itxuraz bakean bizi den gizarte batekin alderatuta. Gatazka bizi duen gizarte batean, esaterako, indarkeria, militarismo, errepresio, klandestinitate, ilegaltasun, duela edota oinazearekin lotutako kategoriak sartzen dira jokoan. Kategoriatu horiek ez dira neutroak ez eta unibertsalak ere; aldiz, sexua edukiko dute eta generoetako bati esleituko zaio hura erreproduzitzeko ardura, estereotipoak ezarriz eta modu jakin batekoa izatera behartuz.

Hala, indarkeria definitzen duten atributu gehienak gizon gisa diagnostikatutako horiei esleitu beharko zaizkie. Emakumeen kasuan, ordea, bakea definitzen duten atributu guztiak izango dira. Ez du inolako zerikusirik biologiarekin, ez eta emakumeek bakearekiko eta gizonak indarkeriarekiko duten prestutasun natural batekin ere, baizik eta generoak definitzeko eta eraikitzeko baliatzen ditugun kategoria patriarkalekin, hobe esanda.

Bakea	Indarkeria
Emakumea	Gizona
Baketsua	Bortitza
Zaintzailea	Borrokalaria
Ahulezia	Indarra
Koldarkeria	Ausardia
Maitasuna	Odoltsua
Elkarrizketa	Armak
Ikusezinak	Heroiak


Kategoria horiek lagundu egiten digute gatazka politiko-armatua aditzera ematen eta definitzen, eta horregatik erabiltzen ditugu. Baina, modu paraleloan, gatazka korapilatzen dute aldi berean, genero-estereotipoei (hasieran aipatutakoei) gatazkarenak (taulakoak) gehitu behar baitizkiegu. Konplexutasun horren eraginez, gatazkaren barruan aldi berean gauza asko izan beharra dago gauza bakar bat izateko. Gatazka bizi duen lurralde batean, emakume batek irrazionala, emozionala, pribatua eta femeninoa izan behar du, baina baita baketsua, bakegilea, ikusezina eta zaintzailea ere, adibidez. Kategoriatu horiek guztiak betetzen badira soilik eskuratuko da emakume ona izateko aukera. Haietako bat betetzen ez bada, edo bat ere ez, orduan emakume txar bilakatuko da: emagaldua, eroa eta/edo lesbiana.

Alegia, gatazka politiko-armatuak, patriarkatutik kanpokoak ez izateagatik, gizonak eta emakumeak behar ditu, eta sortu egiten ditu horregarik, **gatazkaren/gatazkako sexualizazio-prozesuak** izendatu ditugun horien bidez. Gatazkaren errealitatea ez da neutrala; bertan gaudenak ez gara pertsonak, gizonak eta emakumeak baizik. Hortaz, gatazkak badu sexurik eta generorik, eta horrek zehaztuko ditu bertako subjektu bakoitzaren posizioa, rola eta kategoriak.

Sexualizazio-prozesua eta bere konplexutasuna dira bake-prozesu batean mahaiaren gainean ipini beharreko dinamiketako bat. Jakin beharra dugu zer indarkeria eta zer menderatze-prozesu gauzatu diren gizonen eta emakumeen fabrikazio-prozesu

horretan, eta horren bidez indarkeria eta menderatze horien erantzukizunak ezagutu eta geure gain hartu. Hori jakinez bakarrik saihestu ahalko ditugu. Haiei buruz hitz eginez gero indargabetu ahalko ditugu bakean bizi den etorkizuneko gizarte horretan.

Aurretik azaldu den moduan, aldi berean gauza asko izatera behartzen dituzte emakumeak (genero-kategorien eta gatazkaren horien arteko batura), eta, horren ondorioz, tirabirak, hutsak eta bateraezintasunak sortzen dira gatazkako feminitatearen -eta maskulinitatearen- eraikuntzan bertan. Adibide bat jartzearren, gatazka armatua bizi duen gizarte batean emakume on bat fabrikatzen dugunean, emakume baketsua fabrikatzen ari gara. Baina emakume baketsu batek ezin du bortitza izan, bortizkeria edo indarkeria eta bakea kontrajarriak baitaude. Bortitza den neurrian, ezin du baketsua izan. Horrek esan nahi du emakume bortitz bat beti izango dela emakume txarra. Ondorengo taulan hobe ikus daiteke:



Puntu horretan ahalegina egiten badugu euskal talde-iruditeriak berreskuratzeko, ikus dezakegu gatazkaren talde-iruditeria jakin batek kategoria positiboa esleitu diela gudariei. Hau da, gudariak onak dira iruditeriaren arabera, eta, aldi berean, indarkeria erabil dezakete konnotazio positiboa galdu gabe. Emakumeen kasuan, aldiz, indarkeria baliatzen duten unean emakume txar izatera pasatzen dira, berez; hortaz, **emakume bat gudari izan daiteke?** Horrelako adibide errazarekin ikus dezakegu zeinen hermetikoak eta mugatzaileak diren feminitatea eta maskulinitatea gatazka armatuaren testuinguruetan.

Horren bidez eta feminitatearen eta maskulinitatearen definizio klasiko, tradizional eta patriarkalak hartuta, maskulinitaterik eta feminitaterik zorrotzenak gatazkan nolakoak diren erakutsi

nahi da. Fabrikatzen ditugun gizonak askoz gizonagoak dira, edo izan behar dute, behintzat; eta, aldi berean, emakumeak askoz emakumeago.

Horregatik guztiarengatik, gatazka maskulinitatearen erreproduzioaren agertoki bilakatzen da nagusiki, eta bertan, gizonak, espazio publikoa eta borroka -ideologikoa eta armatua- erabilita, beren gizontasuna indartzen dute. Baina, zergatik da maskulinitatearen espazioa eta ez feminitatearena? Besterik gabe, maskulinoa denak definitzen duelako gizon izatea zer den eta, aldi berean, gizonak definitzen duelako publikoa zer den. Gatazka espazio publikoan gauzatzen da batik bat, hots, gizonen espazioan, maskulinitatearen espazioan, beraz.

Puntu horretan aurki dezakegu gatazka-ondoa karakterizatzeko beste giltzetako bat. Bakearen eraikuntza espazio publikora mugatzen badugu, arriskua dago maskulinitatea eta gizonak izatea gatazka zer izan den eta, hortaz, bakeak zer izan behar duten definituko dutenak. Publiko-pribatu dikotomia eta, bereziki, familiek gatazkari sostengua emateko rola alde batera uzteak erdizka uzten du gatazkaren irakurketa, eta, hortaz, ez du zimentu onik ziurtatzen bakea eztabaidatze aldera.

Gatazkan fabrikatutako maskulinitatea, hermetikoaz gain, benetan eskurazina da jaiotzean gizon diagnostikatu dituzten gehienentzat. Gainera, araua sortuko du, arau eskurazina, eta kasu askotan frustrazioa, estutasuna eta norberaren zentsura ekarriko die hura betetzen ez dutenei. Bertan, gizonak «gudua irabazi» beharko dute (armatua, politikoa eta sinbolikoa), baina, era berean, gizona zer den zehazten duten kategoria horiek guztiak betetzen dituztela frogatu beharko dute.

Gatazka ebatztean, zalantzarik gabe, haren esanahiaz galdetu beharko diogu geure buruari, eta, batez ere, **zer ondorio izan duen emakumeentzat maskulinitatearen esanahiaren inguruko borroka sinboliko etengabea jasaten duen lurralde batean bizitzeak**. Hau da, zer eragin izan du emakumeen gorputzean gizon izateko eredu horrek? Zer maitasun-, familia- eta sexu-eredu izan ditu ondorio? Gatazka maskulinitatearen esanahiaren espazioa eta gizon eta emakume prototipikoak sortzeko fabrika izan bada, geure buruari galde geniezaioke heterosexualitatea indartzeko agertoki ezin hobea ere izan den eta lesbianismoa eta homosexualitatea disidentzia- eta erresistentzia-jarrerak izan diren gatazkan zehar.

Hasieran planteatu dugun moduan, ezinbestekoa da gatazka politiko-armatuaren inguruan sakonki hitz egitea bakean eta gatazka-ondoan pentsatzen hasi baino lehen; baina, egiazki, horretan ari gara jada. Dagoeneko ari gara memoria- eta birmoldatze-agertokiak imajinatzen eta -prozesuak inplementatzen; beraz, ez dugu eztabaida geldiarazi behar. Ildo horretan, praktika eta teoria feministatik, analisisian eta proposamenetan aurre-



ratzeko erantzukizuna daukagu. Modu horretan, garrantzitsua da agenda akademikoan eta mugimendu feministaren agendan «eta orain zer?» bat gehitzea. Premiazkoa eta beharrezkoa da jakitea zer gertatzen den orain azken 50 urtean eraikitako maskulinitatearekin eta feminitatearekin. Zer gertatzen da horiekin gatazkaren agertokia desagertzen denean? Maskulinitate hain hermetiko hori eta bizitza hain leialaren sostengu hori beharrezkoak ez diren unean, borroka armaturik ez dagoenean, gertatzen denaren mugak likidoagoak direnean, zer emakume eta gizon mota izan nahi dugu? Gizon eta emakume izaten jarraitu nahi eta behar dugu? Baina, batez ere, badakigu gizon horiek edo emakume horiek ez diren beste zerbait izaten. Eta guztietan zailena: **nola birpentsatu zer maskulinitate eta feminitate nahi ditugun gatazka-ondorako?**

Indarkeria armatuaren amaierak, kapituluan zehar ikusi ahal izan dugun moduan, hainbat galdera dakar berekin, eta, erantzun errazik ez badute ere, beharrezkoa da horiei erantzuna ematen hastea. Alde batera utzi ezin ditzakegun erronkak irekitzen dira, eta horrek behartzen gaitu indarren korrelazioa berriz orekatzea eta gatazka-ondoko lider, kontalari eta entzule izango diren eragileen posizioa birbideratzera. Hau da, gizonek urrats bat atzera ematera emakumeen lidergoaren alde. Hori bai, posible da maskulinitateak gatazkan zehar eragile nagusi izan izanaren pribilegioa uzteari uko ez egitea? Bestalde, feminitate hegemonikoak exijituko al du gatazka-ondoan bere izatea birdefinitzea? Eta rol horiek irauliko al ditu gatazka-ondoan lidergoa eskuratu ahal izateko?

Hasieran saiatu gara erantzuten gatazkek sexurik eta generorik izan ote duen eta gure gorputzen sexualizazio-prozesu horiek zer ondorio duten planteatzen duen galderari. Era berean, bukatzeko honako hau galde geniezaioke geure buruari: sexurik eta generorik dauka bakeak? Emakume gehiago hilko dituzte bakean bizi den gizarte batean? Hala bada, hori bakea ala beste zerbait ote da? Alegia, bakea existitzen da ala bakearen atzean mendekotasuna eta indarkeria gordetzen da? Horra hor gure zalantzak.

## EMAKUMEEN AURKAKO MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIA EUSKAL KASUAN

ARGITUZ,  
giza eskubideen aldeko elkarteak, 2016

Ikerketaren koordinatzaileak:

**Gaztelumendi, Bertha**  
**Naredo, María**

Ikertzaile-taldea:

**Astigarraga, Juana Mari**  
**Gaztelumendi, Bertha**  
**Naredo, María**  
**Ormazabal, Sabino**  
**Pego, Laura**

Laguntza administratiboa:

**Krakenberger, Andrés**

### 1. Sarrera

Indarkeriaz eta giza eskubideen urraketa larriez osatutako iraganean gertatutakoa argitzeko, ikerketa zabal eta sakonak egin behar dira; jazotako indarkeriazko gertakariei buruzko ezagutza ahalik eta handiena emango diguten azterketak. Sufrimenduzko iragan horri buruz zenbat eta gehiago eta zehaztasun handiagoz jakin, orduan eta aukera handiagoak egongo dira biktimentzat justizia eta ordain hobea lortzeko, eta, era berean, hautsitako bizikidetza berreskuratzeko ahaleginak geldiarazten dituzten jokabideak desblokeatzeko.

Oroimena lantzen duen azterlan orotan genero-ikuspegia sartzea edo, bestela esanda, edozer esperientziak edo jarduerak emakumei eta gizonei nola eragiten dien -rolak eta aukerak sexuaren arabera banantzen dituen gizarte batean- aztertzeak iraganean sufritutako indarkeria eta giza eskubideen urraketak modu zehatzagoan eta doiagoan ezagutzera, balioestera eta azaltzera garamatza. Hortaz, ikusmolde horri esker pertsona guztientzat -emakume eta gizon- justiziaren eta konponketaren arloko esku-hartzea hobea izango dela espero izatekoa da.

Emakumeek gatazkak konpontzeko prozesuetan parte hartzea munduko emakumeen mugimenduen aldarrietako bat izan da eta da oraindik, eta 2000ko urrian aintzatetsi zen, emakumeak bake-prozesuetan barne hartzeari buruzko Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenean. Ebazpen horretan, Segurtasun Kontseiluak «*bakea gizon eta emakumeen arteko berdintasunari hertsiki lotuta*» dagoela ez ezik, honakoa ere onartzen du: «*emakumeek botere egituretara erabateko irismena izatea, horietan osoki parte hartzea eta gatazkak konpontzeko eta prebenitzeko ahaleginetan guztiz inplikatur*

*egotea funtsezkoa da bakea eta segurtasuna mantentzeko eta horiek sustatzeko».*

1325 Ebazpenak Segurtasun Kontseiluari, idazkari nagusiari, es-tatu kideei eta gainerako alderdiei (agentzia humanitarioak, mi-litarrak, gizarte zibila) neurriak hartzeko deia egiten die, esate-rako: «*Nazio Batuen datu-bilketetan eta informazio-sistemetan generoa zeharka sartzeko, bai eta programak praktikara erama-teko ere*». Nazioarteko Zuzenbideak agindutakoa gorabehera, sa-rritan, emakumeek sufritutako indarkeria-esperientziak gutxietsi dira eta horien garrantzia txikiagotu da, bereziki giza eskubideen urraketak kuantitatiboki laburbildu direnean.

lido horretan, gure helburuetako bat emakumezko biktima horiek eta beren esperientziak ikusgai egitea eta aintzatestea ere bada, euskal kasuan giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten biktima guztien artean daukaten proportzioa gorabehera. Bikti-mak ikusgai egiteaz eta zenbatzeaz gain, indarkeria horiek era-gin dituzten alderdi kualitatiboak azpimarratzea funtsezkoa da. Erasoaldi horiek ahalbidetu zituzten baldintzak nabarmentzea garrantzitsua da. Baldintza horiek, hainbat kasutan, emakumeek gizonekin alderatuta sufritzen dituzten egiturazko desberdinta-sunen artean kokatzea garrantzizkoa izango da.

Aipatutako indarkeria larria izan arren, justiziaren eragina eskasa da kasu horietan; zigorgabetasuna emakumeek egindako salake-ten ohiko beste aliatu bat izaten da, batez ere sexuarekin lotu-takoak badira. Zigorgabetasun-patroi hori motibazio politikoko indarkeriaren esparruan gertatutako gizonen nahiz emakumeen kontrako beste tortura-kasu askotan agertzen da. Baina testuin-guru honetan sexuarekin lotutako torturen edo tratu txarren bikti-ma izan diren emakumeen kasuan eragin handiagoa duela dirudi.

Beste alde batetik, ordainari dagokionez, motibazio politikoko indarkeriaren biktimentzako laguntzak artikulatzen dituen es-tatu-araudia aintzat hartuta, deigarria da Espainiako Estatuan atentatu terroristetako biktimen eskubideen babes egokia beste biktima-kategoria batzuetara zabaldu ez izana. Oro har, Indarke-riazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzko 35/1995 Legea eta berau garatzen duen erre-gelamendua dira ordaina eskuratzeko bide bakarra. Lege horren gabeziak Amnistia Internazionalak 2009an egindako txosten ba-tean jarri ziren agerian. Txosten hark Indarkeriazko eta sexu-as-katasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzko abenduaren 11ko 35/1995 Legea eta Terrorismoaren biktimen elkartasunerako 32/1999 Legea alderatu zituen, behin-behineko laguntzak eskuratzeko baldintzei, baremoei, zenbatekoei, esku-ratzeko aukerei, tratamendu-gastuetarako laguntzak lortzeari eta hainbat laguntza bateragarri egiteko aukerari dagokienez. Alor guztietan, indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimekiko konparaziozko bidegabekeria hautematen da, terro-rismoaren biktimei laguntzeko legean xedatutakoaren aurrean.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzaren 2012ko 107 Dekretuak garrantzi handia du, legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioek egindako giza eskubideen urraketen biktimei ordaina ematea helburu duen Estatuko lehenengo araua baita, nahiz eta aipatutako dekretuak zenbait gabezia eduki -horien artean, genero-ikuspegirik eza-.

Azterlan honek, hortaz, emakumeek sufritutako giza eskubideen urraketetan jartzen du arreta, «*gatazka armatuetan eta gatazka osteko egoeretan emakumeak babesteari*» buruzko 1325 Ebazpean jasotakoa oinarritzat hartuta. Instituzioek haien aurrean ematen duten erantzunarekin lotutako auziak arin aztertzen ditu, gaiaren inguruko etorkizuneko ikerketetan zirriborro modura baliatu ahal izan daitezten. Era berean, emakumeek zuzenean eta zeharka sufritutako indarkeriaren ondorioak beharrezko sakontasunarekin aztertuko dituen ikerketa kualitatibo bat osatuko duten auzi guztiak gerorako azterlan baterako uzten ditu. Eragin horietako batzuen berri jaso da dagoeneko azterlan honetan, sufrimendu horrek beraientzat izan duen esanahiaren aipamen labur gisa, baita ETAren -hark utzi du hildako gehien-, talde parapolizialen eta eskuin muturreko taldeen atentatuen krudelkeriak eragindako terrore-egoera ugariari aurre egiteko izan duten adorearen erakusgarri moduan ere. Sufrimendu hori poliziaren zaintzapean gauzatutako torturek eragindako ondorioetan ere hauteman daiteke; gainera, emakumeen kasuan, sarritan, sexu-osagaia ere gehitu behar zaio, indarkeria sexistako elementu nagusi gisa.

Lehen aldiz, indarkeria motaren eta zuzenean emakumeengan eta haien gorputzetan gauzatzen denean dituen ondorioen desberdintasunak ikusgai egiteko eta nabarmentzeko ahalegina egin da. Lehen ekarpen bat da eta muga handi bati egin behar dio aurre, informazio faltari, ezkutatutakoaren barruko errealitate ezkutu bat baita.

## 2. Txostenaren edukia

Txosten hau uste sendo batean oinarritzen da; emakumeek eta gizonek bakearen eraikuntzarekin zerikusia duten ekimen anitzetan dauzkaten funtzio, erantzukizun, harreman, beharrian eta ikuspuntu ezberdinak bilduko dituen begirada bat edukitzeak errealitatearen diagnostiko eta analisi egokiagoa egiten laguntzen duen ustean, alegia. Kasu honetan, emakumeengan eragina zuzena izan duen indarkeriak eta sufrimenduak markatutako iraganaren errealitateari begiratzen diogu, indarkeria zuzenean haiengan gauzatu deneko problematikaren aurretiazko ikuspegi bat eskaintzeko, euskal kasuaren 1960tik gaur egun arteko esparruan. Hori da ikerketaren helburu nagusia.

Orain arte ez dago euskal kasuan indarkeria politikoak emakumeengan izan duen eragin desberdindua kontuan hartu duen ikerketarik. Txosten hau lehen urratsa da, ildo horretan. ETAk, Estatuko

segurtasun-kidegoek, talde parapolizialek eta eskuin muturreko taldeek euskal kasuan emakumeen eta haien gorputzen eta bizitzen aurka gauzatutako giza eskubideen urraketen hala nola bestelako indarkeria-ekintzen bilduma bat aurkezten du.

lkerketa bigarren mailako iturrietan, kazetaritza-materialetan aurkitutako datuetan eta oroimenarekin lotutako argitalpenetan oinarrituta dago. Dokumentazio horren azterketak agerian utzi duenez, giza eskubideen urraketa larriei buruz eskuragarri dauden datuak sexuaren arabera bereizi gabe daude kontsultatutako zerrenda ia guztietan. Badira salbuespen txikiak zenbaketa osoetan. Era berean, bizitzeko eskubidearen urraketak emakumeen eta gizonen osotasun fisikoari edo psikikoari eragiten diotenak baino hobeki dokumentatuta daudela hauteman dugu. Zauritutako pertsonen eremuan, informazio-hutsune handiak daude eta horrek kopuruak ateratzea eta emakumeengan eta gizonengan izandako eraginak alderatzea galarazi digu. Hurbilketen eta aurretiazko datuen eremuan gelditu gara. Horregatik, azterlan hau lehen aurrerapena dela uste dugu; aurrerapen irekia, Euskal Herrian motibazio politikoko indarkeriaren azterketan sakontzeko ekimen berriak egin ahala informazio gehiago eransteko aukera barne hartzen baitu.

Azterlanaren muina urraketa larriek osatzen dute; hain zuzen, bizitzeko eskubidearen eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidearen aurkakoek. Bi kategoria horietan sailkatu dira emakumeen eta beren gorputzaren aurka gauzatutako zuzeneko indarkeria motak, egileen eta *modus operandiaren* arabera:

1. ETAren eta beste batzuen indarkeria <sup>31</sup>

- ETAren atentatuak eta bahiketak
- ETA pm-ren atentatuak
- ETA m-ren atentatuak
- DRILen atentatuak
- Kale-borrokako atentatuak

2. Segurtasun-indarren indarkeria

- Poliziaren zaintzapean. Tortura-salaketak
- Poliziaren zaintzapean. Sexu-indarkeria salaketak
- Errepide-kontroletan
- Manifestazioetan
- Liskarretan, zerbitzuz kanpo, akatsen ondorioz

3. Talde parapolizialen, eskuin muturreko taldeen edo ultren indarkeria

- Bahiketak
- Sexu-indarkeriadun bahiketak
- Manifestazioetan
- Atentatuetan

Badakigu txosten honen xedea gainditzen duten beste urraketa mota batzuk jorratu behar direla, esaterako: askatasun-es-

kubidearen urraketak mehatxu-, segitze- edo jazarpen-kasuetan; atxiloketa arbitrarioak, ondasunen aurkako atentatuak, estortsio ekonomikoa eta espetxeetako eskubideen urraketa, besteen artean. Berriz ere, muga berberarekin egiten dugu topo: sexuaren arabera banandutako datuen faltarekin. Problematika horren dimentsioari buruzko oso informazio gutxi dago, eta aurkitu ditugun datuek, beste behin, ez dute biktimen sexua islatzen.

Txostenean nazioarteko eta Europako araudiaren berrikuspen bat barne hartu da, Estatuak gai horren inguruan hartutako konpromisoak nabarmentzen dira eta erkidegoko lege-esparruraz iristen da; horrek guztiak txosten honen egokitasuna babesten du.

Bestalde, beste latitude batzuetako emakume askok egia argitzen eta bakea genero-ikuspuntutik eraikitzen laguntzeko egin dituzten ekimenak eta ahaleginak beste kapitulu batean jaso dira. Munduko hainbat tokitan egin diren prozesu eta ekimen batzuk «jardunbide» edo «esperientzia egoki» deitu daitezke, gatazkak emakumeengan izandako eragin desberdindua eta emakumeek bakearen eraikuntzan izandako parte-hartzea ikusgai egitea ahalbidetzen duen begirada hori barne hartu dutelako. Nahiz eta gureaz bestelako testuinguruetan ezarri diren, ekimen horiek gure lurraldean abiarazten ditugunetarako erreferente eta gida moduan baliatu ditzakegu.

### 3. Ondorioak

Aipatutako dokumentazio-mugak gorabehera, esku artean ditugun datuak aztertuta, **Euskal Herrian gauzatutako giza eskubideen aurkako urraketek ez dutela emakumeengan eta gizonengan eragin berdina izan** ondoriozta dezakegu. Zehazki, honako hau ondoriozta daiteke:

- Bizitzeko eskubidearen urraketek, euskal kasuan, banaketa desberdindua dute generoaren arabera: gatazkan hildako gizonen proportzioa emakumeena baino hamar aldiz handiagoa da. Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan sufritu dituzte bereizketarik gabeko atentatuak. Emakumeen heriotzen % 70 bereizketarik gabeko atentatuetan gertatu da, hasieran erasoaren helburu zuzen izan gabe. Kasu bakarrak izan ez diren arren, ETaren adarrak izan dira biztanleria zibilaren aurkako bereizketarik gabeko atentatu nagusiak gauzatu dituztenak (Rolando, Hipercor, El Corte Inglés, Barajas, Atocha eta Chamartín geltokiak...), bai eta adingabeen heriotza kopuru handi baten erantzuleak ere, gehienbat neskena (Zaragoza, Vic, Santa Pola...) eta bonba-autoenak.

---

<sup>31</sup> Komando Autonomo Antikapalistei edo Iparretarrak taldeari egotzitako atentatuetan emakumerik erail, bahitu edo zauritu izanaren berririk ez daukagu. GRAPOK ez zuen atentatu hilgarririk egin Euskal Herrian.

- Talde parapolizialek edo eskuin muturrekoek gauzatutako sexu-indarkeria emakumeen aurka baino ez da zuzendu. Sexu-erasoaldi horiek aldi jakin batean gertatu ziren, 1979 eta 1980 artean, eta jarduketa-patroi zehatza izan zuten. Hala, sexu-indarkeriazko 16 kasu zenbatu ziren guztira - horietatik bitan biktima hil zuten- eta bahiketa eta tortura kasu bat -biktima hil egin zuten-.
- Deskribatutako *modus operandi* hori kontuan hartuta eta beste gatazka batzuetako esperientziak ezagututa, ondoriozta genezake euskal kasuaren testuinguruan sexu-indarkeria hori guztia kalkulatu eta planeatua izan dela, eta emakumeen gorputzaren gaineko abusua «gerrarako arma» gisa baliatu dela.
- Poliziaren zaintzapean gertatutako tortura-salaketei buruzko datu ofizialak falta dira. Nazioarteko hainbat erakunderen arabera, tortura hori ohikoa izan zen 80ko hamarkada arte eta gaur egun «oso noizean behin» gertatzen da. Sexu bidezko torturaren irismena ere ezezaguna da; hala ere, azterlan honetan hamar emakume baino gehiagoren lekukotasunaren berri ematen da, eredu gisa -hainbat iturritatik jasota daude-.
- ETak bere era askotako atentatuen xede ziren gizonekin batera zihoazen emakumeak bahitu eta gatibu moduan erabili zituen. Gutxienez beste 13 emakume ere bahitu zituen, haien ibilgailuak ostu eta gero.
- Emakumeen kasuan, haien gorputzak «gudu-zelai» eta etsaiari mezuak bidaltzeko «lurralde» gisa erabiltzeko jarduna nabarmentzekoa da. Talde parapolizialek egindako atentatuetako askotan, emakumeak bahitu eta, ondoren, objektu zorrotzekin haien gorputz-ataletan esbastikak edo GAL siglak grabatu dizkiete.
- Eskuragarri izan ditugun bigarren mailako iturrietan aztertutako kasuen ondorio judizialen inguruko informazio gutxi dago, baina zigorgabetasun-marjinak egon direla erakuts dezakete, bereziki sexu-indarkeriazko kasuetan. Oro har, ez daukagu nahikoa informazio jakiteko justizia zer neurritan egin den eta zigorgabetasuna nola eta zer kasutan nagusitu den. Ez daukagu informaziorik jakiteko emakumeen aurka egindako krimenetako zenbatetan jarri ziren salaketak eta, ondoren, zenbatetan zigorrak.
- Ordainari dagokionez, ez dakigu zer-nolako ordaina eman zitzaizen biktimei eta egokia izan zen.

### 3.1. Datu faltak biktima guztiak bilduko dituen iragan bati erreparatzea galarazten du.

- Datuak ez dira sexuaren arabera bananduta agertzen, bereziki osotasun fisiko eta psikikorako eskubideekin lotutakoak.
- Giza eskubideen urraketari buruzko datu falta biktimek abusuen ondoren instituzioen eskutik jasotako erantzunari buruzko informaziora ere hedatzen da.



- Ezaguna den sexu-indarkeria gauzatutakoaren zati txiki bat baino ez da. Kasu horiek sarritan ikerketetatik baztertzeak are gehiago bultzatzen du horiek ikusezin bilakatzea.

### 3.2. Estatuko araudiak eta euskal araudiak ez dute genero-ikuspegia barne hartzen

- Delituen biktimen eskubideei buruzko Estatuko araudiak ez dio genero-ikuspegiari erreparatzen, ez bada bikotekideen edo bikotekide-ohien arteko harremanetan gauzatutako indarkeriari dagokionez. Ikuspuntu hori ez da ageri terrorismoaren biktimen eskubideei buruzko Estatuko arautan. Memoria Historikoaren Legeak ere ez du jasotzen.
- Motibazio politikoko biktimei ordaina emateko euskal araudiak ere ez du genero-ikuspegia aintzat hartzen. 107/2012 Dekretuak, urriaren 16ko 426/2013 Dekretuak aldatutakoak, ez zituen aintzat hartu Emakundek, Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeak xedatutakoaren araber, generoaren eraginari buruz egindako txosten batean emandako gomendioak.

### 3.3. Nazioarteko jardunbide egokiek honako hau aholkatzen dute:

- Emakumeek gatazketan sufritutako biktimizazioa ikusgai egitea. Prozesu batzuk, Peruko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea besteak beste, sendoak dira ildo horretan, sexu- eta genero-indarkeria beren ardatz nagusietako bat baita.
- Informazioaren bilketan ikuspuntu hori barne hartzea instituzionalizatu behar da. Informazio kualifikatua biltzea ezin daiteke gizarte zibilaren funtzio bat gehiago izan, baizik eta administrazio publikoen betebeharrak, egia jakiteko eskubidea bermatzeko duten eginbeharraren ondoriozkoa.
- Sentsibilitate politiko eta sozial ezberdineko emakumeen arteko batasunak babestea, bake-eraikuntzako prozesuetan funtsezko lanabesak baitira.
- Gatazka ondoko prozesuetan bakea berdintasunean oinarrituta eraikitzea bultzatzea.

## 4. Gomendioak

### 4.1. Genero-ikuspegitik barne-hartzailea den oroimen bat berreraikitzea bideratuak

- Landa-lana barne hartuz euskal kasuan motibazio politikoko indarkeriaren biktima izan diren emakumeak edo haien senideak aurkitzea eta elkarrizketatzea helburu duen lehenengo ikerketa bat gauzatzea edo bultzatzea. Azterlanak sufritutako indarkeriaren ondorioen alderdi kuantitatiboak eta kualitatiboak buruzko beharrezko informazioa jasoko du.

- Bizitzeko eskubidearen biktima zuzena gizon bat izan den familien kasuetan, emakumezko biktimen giza eskubideetan izan duen eragina ezagutzea. Emakumeek zer-nolako zama jasan duten, zama horrek zer neurritan eragin dien beste eskubide batzuk modu eraginkorrean gozatzeko orduan, emakume horiek ordainik jaso duten eta zer modutan lagundu zaien aztertu beharko litzateke.
- Problematika horri buruzko dokumentazio guztia eta estatistikak hobetzea eta, etorkizunean, gutxienez biktimen sexua islatzen duten zerrendak osatzea.

#### 4.2. Arau-esparrua eta bere ezarpena hobetzeraz bideratuak

- Euskal Herrian talde parapolizialen edo eskuin muturreko taldeen eskutik sufritutako indarkeriaren esparruan, giza eskubideen urraketen biktima diren emakumeen kasuen ibilbide judizial posiblearen azterketa sustatzea, berriki 1977ko Amnistia Legeaz egin diren interpretazioak ikusita. 1977ko Amnistia Legea izenekoak frankismotik legea bera onartu arte jazotako gertakizunak zigorrak gabe uzten ditu. Gaur egun, arauaren interpretazio berriek ulertzera ematen dutenaren arabera, legea betearazteko ardura zuten funtzionarioek ez baizik eta talde parapolizialek eragindako heriotza-kasuak justiziaren aurrera eramateko aukera dago.
- Bake-eraikuntzari eta biktimei ordaina emateari buruzko euskal araudian eta politiketan genero-ikuspegia erantsa; zehazki, onartzekoak edo praktikan jartzekoak diren biktimen inguruko legeetan eta dekretuetan.

#### 4.3. Nazioarteko esperientziaren bidez ikasitakotik

- Indarkeria politikoaren esparruan gertatutako giza eskubideen urraketen biktima diren sentsibilitate politiko eta sozial ezberdineko emakumezkoen artean sortutako batasunak bultzatzea eta babestea. Horretarako, topaketa horiek sustatzen dituzten ekimenak bultzatu beharko lirateke, berezkoak nahiz gizarte zibiletik datozenak, bakerako motore bilakatu ahal izan daitezten.
- Egiaren eta adiskidetzearen batzordeek, aldi baterako erakunde ofizial gisa, judizialak edo ohiko justiziaren ordezkariak izan gabe, baina bai iraganean gertatutako giza eskubideen urraketak argitzeko xedearekin, betetzen duten funtzioa aztertzea. Genero-ikuspegia barne hartzen duten egiaren batzordeetatik ikastea.

### **NOLA EZAR DITZAKEGU GENERO-IKUSPEGIA ETA IKUSPEGI FEMINISTA BAKEAREN ERAIKUNTZAN?**

Patriarkatua desberdintasuna, bazterkeria eta gizonen emakumeen gaineko esplotazioa egituratzen dituzten elementu guztiak errealitate bihurtzen dituen patroizko sistemiko bat da. Hori da

genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista bakearen eraikuntzan aplikatzeko abiapuntua. Emakumeen aurkako indarkeria izoz-mendiaren tontorra da, sistema honen adierazlerik handienetakoa, eta indarkeria horren dimentsio publikoa eta politikoa ideologia jakin bat eta proiektu politiko patriarkal jakin bat inposatzeko tresnatzat hartu beharko litzateke; hortaz, indarkeria terroristaren pareko larritasuna duela onartuko litzateke.

Ikuspegi feminista gaizki ikusita dago zenbait gizarte-espaziotan, baita emakume askoren artean ere, ideologia patriarkala ez baita gizonei soilik eragiten dien fenomeno bat. Horregatik, genero-ikuspegiaren irudi positibo bat eraikitzeko premia adierazi da, guztiontzat erakargarriagoa egite aldera, gure ikuspegitik feminismoak duen esanahiari eta, aztertzen ari garen kasuan, Euskadiko bakearen eraikuntzan duen funtzioari buruzko eztabaida irekiz. Emakumeen kolektiboek eta feminismoak bakeari dagokionez egindako proposamenak ikusgai egiteko beharrak maiz gizartearen ikuspegi paternalista bati aurre egin behar izaten dio. Horregatik, ekarpen horiek kontuan edukitzea garrantzitsutzat jotzen da, emakumeak arlo guztietan subjektu aktibo bihurtze aldera, emakumeen espazio autonomoak sortuta eta gizarte-mugimendu eta -erakunde mistoen buru izanik, baita politika- eta instituzio-alorretan ere, horietan guztietan patriarkatuaren balioak nagusi baitira.

Emakumeen kolektibo plural batek 2006an bultzatu zuen *Ahotsak* ekimena Euskadin bakeari ekarpenak egiteko zeharkako espazio baten adibide gisa aipatu da. Esperientzia horri dagokionez, ikaskuntzak berreskuratzeko beharra azpimarratu da, bereziki, emakumeak bakea egituratzeko eragile moduan ahalduztzeko espazio autonomoak eraikitzeko premia; gizonok okupatutako botere-posizio alderdikoien eragin negatiboaren aurrean blindatutako espazioak, gainera.

*Jakintza Elkarrizketan* parte hartu duten pertsonak adierazi dutenez, lan akademikoaren bidez emakumeek bake-eragile gisa bete duten rolari buruzko azterlanak sustatu daitezke, ikuspegi feminista batean oinarrituak, emakumeek Euskal Herriko gaztazkaren eta bakearen esparruan izan duten historia aldarrikatu, bizi-ibilbide eta sentsibilitate ezberdineko emakumeen ekintzak, interesak eta lorpenak agerian utzi, testuinguru horretan dauden emakumeen estereotipoak apurtu eta beren beharren, bizipenen, emozioen eta interesen gainean argia jarri. Historiaren alorrean genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista hartu ahaliko litzateke, mugimendu politikoak eta indarkeriazko ekintzak burutu dituzten eta askotan heroitzat hartzen diren gizonak erdigunean kokatzen dituen ikuspegia aldatuta. Hala, emakumeen bizipen heroikoak azpimarratuko lirateke, esaterako bikoteki-deak edo senarrak galdu ondoren familiak aurrera atera behar izan dituzten horienak. Era berean, gerra zibilean eta diktaduran emakumeen aurka izandako indarkeria aztertzea garrantzitsutzat jotzen da. Ekarpenen artean, ikuspuntu autokritiko batetik, ze-

harkako biktima izanik seme-alabei bakearen aldeko eta mendekuaren aurkako ideiak helarazi dizkieten eta beraien inguruan ere halako ideiak proiektatu dituzten emakumeen inguruko ikerketa falta aipatu da.

Hezkuntza-sistema eta hedabideak oinarrizko tresna gisa planteatzen dira, bai emakumeek sistema patriarkalak inposatutako ardura guztiak ez onartzeko bai gizonak beren pribilegioez eta, Euskadiko gatazkaren kasuan, haren garapenean eta indarkeriaren adierazpenetan daukaten erantzukizunaz ohar daitezten; izan ere, gatazka sexu-espezifikoa izan da, hots, gehienbat gizon-nezkoak izan dira emakumeen eta beste gizon batzuen aurkako indarkeria eragin dutenak.

#### 4. KAPITULUA. KOMUNIKABIDEAK GATAZKAREN ETA INDARKERIAREN AURREAN

##### KOMUNIKABIDEAK GATAZKAREN ETA INDARKERIAREN AURREAN: PRENTSA-BINETAK “TIRABIRAK/TIRAS QUE AFLOJAN” PROIEKTUAN.

Mario Zubiaga  
(UPV/EHUko EMAN ikerketa-taldea)<sup>32</sup>

#### 1. Sarrera

“TIRABIRAK/Tiras que aflojan” erakusketa-proiektu bat da, gure iragan gatazkatsua landu duten prentsa-binetei buruzkoa. Euskal Herriko Unibertsitateko EMAN ikerketa-taldeak lagin zabal eta sistematikoa sortu du Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren programarako; lagin horretan, gatazka jorratu duten tira grafikoak bildu dituzte, Espainiako trantsizio politikotik gaur egunera arte. Transmedia proiektu bat da, eta erakusketa ibiltaria haren lehen urratsa da.

“Tirabirak/Tiras que aflojan” ekimena, beraz, ez da areto batean egin den bineten erakusketa fisikoa soilik; tresna hauek ere badarabiltza:

-Uda ikastaro bat UPV/EHU: Komunikabideak, gatazka eta bizikidetzak: tirabirak binetetan. 2016ko ekainean.

Ikastaroan, bineta grafikoek, bereziki, eta komunikabideek, oro har, gatazka-egoeretan nolako zeregina duten hausnartu da, gai horretako adituen eskutik. Ikastaroko hitzaldiak erakusketaren katalogoan jasoko dira aurrerago.

-Artxibo interaktibo bat:

Horren bidez, erakusketarako hautatu diren binetak eta

---

<sup>32</sup> Ikerlan honetan, pertsona hauek hartu dute parte: Josu Amezaga, Edorta Arana, Tania Arriaga, Patxi Azpillaga, Iñaki Barcena, Estitxu Garay, Sahatsa Jauregi, Libe Mimenza, Bea Narbaiza eta Mario Zubiaga.

beste asko (guztira, 1.200) formatu digitalean ikus daitezke. Datu-base horretan, gainera, erabiltzaileek zenbait aukera dituzte kontsulta egiteko: data, egunkariak, egileak...

- Elkarrizketak:

Erakusketan bertan, hainbat marrazkilariri, komunikabideen arduraduni eta adituri eginiko elkarrizketak ikusten dira pantaila batean, eta komiki politikoa nahiz umore grafikoa aztertzen dituzte haietan.

-Ikus-entzunezko artxibo bat:

Aretoan, halaber, EiTbren (Euskal Irrati Telebista) artxiboko funtsekin eginiko ikus-entzunezko lan bat ikus daiteke, bineten narrazioa garaian garaiko irudiekin osatzeko.

-Webdoc bat:

Dokumental interaktibo honen bitartez, erakusketaren, elkarrizketen eta ibilbide kronologikoaren oinarri den datu-base osoa kontsultatu daiteke. Hala, zenbait bide daude webdocean, eta bisitari bakoitzak erabaki behar du zer bide aukeratu tirabiren unibertsoan barneratzeko.

## 2. Ikerketaren metodologia

Zehatz-mehatz, 1977tik 2016ra bitartean argitaratutako bineten lagin handi bat dago ikusgai "TIRABIRAK/Tiras que aflojan" erakusketan. Binetak hautatzeko, esparru kronologiko bat finkatu da, lau hamarkada horietako 150 gertaera garrantzitsuren arabera. Halaber, gertaera bakoitzaren garaiko binetak ikertu dira, zehazki, ondorengo 10-15 egunetan kaleratutakoak. Gehienak erakusketaren mahai kronologikoan jaso dira.

Lehen hamarkadetarako, sei egunkari hauek erabili dira: *Deia*, *Egin*, *El Diario Vasco*, *El Correo*, *ABC* eta *El País*. Alabaina, 1988tik aurrera, *Diario de Navarra* ere erabili da; 1989an, *El Mundo*; eta 1990ean, *Euskaldunon Egunkaria*. Geroago, *Gara* eta *Berria* ere erabili dira. Hortaz, azken hogeita sei urteak aztertzean, zortzi egunkari erkatu dira gertaera bakoitzeko, gutxienez. Gainera, zenbait kasutan, argitalpen hauetan kaleratutako tirak aberasgarri gertatu zaizkio erakusketari: *La Razón*, *Diario de Noticias de Navarra*, *Diario 16*, *Ya*, *La Vanguardia*, *Enbata*, *Sud Ouest* eta *Le Journal du Pays Basque*.

Jakina, erakusketako tirak ez dira urte horietan guztietan plazaratu ziren guztiak. Beharbada, onenak ere ez dira, ezta egileen gogokoenak ere. Hautaketa gertaera jakin batzuekin lotuta dago, baita ikerketa-taldearen irizpide pertsonalekin ere; halaber, kontraste-talde batek ere parte hartu zuen, hainbat diziplinatarako hamar bat pertsonak osatutakoak. Emaitza askotarikoa da, hala forma nola funtsa, eta beraz, marrazkilarri hauen guztien unibertso zabala islatzen du: Zaldieroa, Máximo, Zulet, Peridis, Tasio, Forges, Máximo, Oroz, Olariaga, Ripa, Mattin, Ricardo & Nacho, Martín Morales, Aós, Martintxo, Ramón, Iñaki & Pintu, Dusón, Idígoras & Pachi, Mingote, Ángel & Guillermo, Jon Za-

baleta, Michel Iturria, Juan Carlos Eguillor, Romeu, Puebla, Rafa Ramos, Adur, Antón, Axi, Endika, Eneko, Ferreres, Gallego & Rey, Jon Pedro, Koldo, López & Pérez, Mad, Mokordo, Ori, Peli, El Perich, Ricardo, Romeu, Tulino eta Xim...

Hala, "Tirabirak" erakusketaren edukia osatzeko, 15.000 egunkari inguru aztertu dira; zehazki, 30.000 bineta baino gehiago. Tira horien artean, 3.500 hautatu dira, gatazkaren zenbait alderdirekin zuzenean erlazionatuta daudenak. Azkenik, 448 bineta aukeratu dira erakusketa fisikorako, eta ia 1.200 webgune honetan ikusi ahal izango dira: <http://www.tirabirak.eus/eu>.

Erakusketa Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko Bakearen itsasargiaren barruan dago; hau da, bakeari, errespetuari eta bizikidetzari buruz gogoeta egiteko espazioan. Iraganari buruzko askotariko begiradak ditu oinarri, eta hauxe da, hain zuzen, haren erronkarik handiena: ikuspegiak jaso eta biltzea, kontakizun partekatuen hazia erein ahal izateko, beharbada. Ikertu bitartean, eta gertaeren ziklo luzea aztertzean, norberaren gogoetak eta taldekideen arteko eztabaidak oso biziak eta erakusgarri handikoak izan dira. Iraganera itzuli gara, eta asko ikasi dugu bidaia horretan. Etikoki aberastu dugu elkar. Horrexegatik helarazi nahi diegu esperientzia kolektibo hau "Tirabirak" erakusketa ikustera datozen pertsona guztiei.

Illo horretatik, agian, egunkarietako binetak bide onenetako bat dira gatazkari buruzko askotariko narratibak ezagutzeko eta aintzat hartzeko. Egiatan, irudiek hein handiagoan lagundu dezakete kontakizun partekatua sortzen diskurtsoek baino; diskurtsoek, zehatzegiak izateagatik, elkar ulertzeko bideak itxi ditzakete, eta lausoegiak edo eufemistikoak izateagatik, zentzu oro gal dezakete.<sup>33</sup>

Horregatik guztiagatik, "Tirabirak" proiektuan helburu orokor hauek finkatu dira:

- Gure iragan gatazkatsua onar/ezagut dezagun bultzatzea.
- Jakintza partekatu horretatik abiatuta, gertatutakoari buruzko gogoeta eta pentsamendu kritikoa bideratzea, berriz gerta ez dadin.
- Gatazken oinarriari eta kausei buruzko gogoetan laguntzea; hartara, gatazkek konpontzeko saiakerak erakustea, egungo eta etorkizuneko bizikidetzara eraikitzeko erabilgarri izan daitezkeen.
- Komunikabideen zereginari buruzko eztabaida publikoa sustatzea; zehazki, egunkariaren misioari, erantzukizun publikoari eta umore grafikoari buruzkoa.

---

<sup>33</sup> "Binetek, bereziki, eta irudiek, oro har, hobeto kontatzen dituzte istorioak hitz idatziak baino, idazketak bilakaera etengabea baitu, eta ikurrek, aldiz, iraunkorrak dirudite". Victor S. Navasky (2013). *The Art of Controversy*. New York, Alfred A. Knopf, 41. or.

Lau helburu nagusi horiek tarteko, gure iragana gogora ekartze-ko modu ugari hartu behar izan ditugu aintzat; horiek erakusketan islatu dira gaikako hiru moduluren bitartez. Berehala azalduko dugu zertan datzan modulu bakoitzaren filosofia.<sup>34</sup>

## LEHEN MODULUA: “Tiras que tiran” / “Titularren talka”.

Liskar politikoa egunkarietako binetetan islatu da, ezinbestez. Artikulu editorialetan eta albisteak prestatzeko moduan bezala, binetetan ere iritzi eta kontakizun kontrajarriak adierazi dira. Izan ere, ezin dugu alde batera utzi binetak arma diskurtsibo eraginkorrak direla, eta askotan indartu egin dituztela lerro editorial beligeranteak.<sup>35</sup>

Haatik, aldi berean, formatu horren ezaugarrien eraginez, pentsamendu kritikoa bi aldeetako lubakietan sartu da.

Binetak batera ikuskatuta, gatazka ulertzeko askotariko erak —baita era kontraesankorrak ere— modu partekatuan ikusten dira. Ildo horretatik, egunkarietako binetak beren testuinguruan aztertuz, azken hamarkadetan gertatutakoaren narratibak eza-gutzeko aukera dugu. Kausak, batzuen eta besteen motibazioak, gatazkaren oinarri ideologikoa.

Izan ere, Judith Butlerrek dioen bezalaxe, dolua eragin zuten une asalatuak beren testuinguruan kokatu beharko genituzke; alegia, gertatu ziren garaira hurbildu beharko genuke, iraganari begi kritiko-z begiratuta horrelako atsekaberik gerta ez dadin etorkizunean.

Horrelakorik berriz ez gertatzeko, zer gertatu zen ongi jakin behar da, argitasuna eta egia behar dira, nork bere erantzukizuna onartu behar du. Nork berea. Iraganari buruzko begirada etikoa behar da, gure burua onartu behar dugu jasandako eta eragindako sufrimenduan, lasterbide moral sinplifikatzailerik gabe, presentismo moralik gabe. Horren harira, Kristin Rossek memoria despolitizatzearen arriskuaz ohartarazten gaitu; adibidez, horixe ikusi du Rossek 68ko maiatzari buruzko historiografian.<sup>36</sup>

---

<sup>34</sup> Erakusketan, O. modulua ere sartu dugu, eta bertan hainbat prentsa-bineta historiko bildu ditugu, XIX. mendearen amaiera asaldatuko gatazka politikoekin lotutakoak. Horiek ikusita, bineta/gatazka politikoa binomioa denbora-tarte zabalagoan koka daiteke. Hala, ikusi dugu XX. mendearen amaierako tirtetan ageri diren osagai diskurtsiboak eta irudi prototipikoak bazeudela jada mende bat baino lehenagoko prentsan. Gure esker ona Ormaiztegiko Zumalakarregi

<sup>35</sup> “Binetak edo umorezko tirak funtsezko zeregina du estrategia editorial berri horretan, garrantzi handiko gertaeretan —terrorismoarekin lotutakoetan, esaterako— konplexurik gabe gauzaten baitu bere zeregin editorializatzailea, eta erabateko eraginkortasunez eragiten baitio iritzi publikoaren eraketari”. Blanco, E. (2007): “La viñeta como nueva estrategia editorial de los medios. Visualización del 11-M en los principales escenarios mediáticos” *in* *Ámbitos*, 16, 27. or.

<sup>36</sup> Ross, K. (2008): *Mayo del 68 y sus vidas posteriores. Ensayo contra la despolitización de la memoria*. Madril. Acuarela.



Hutsaltze hori Rossek *historiaren ikuspegi poliziala* deritzonarekin konbinatzen da; hartara, *moda* hutsala edo *fenomeno kultural hutsa* ez denak delituzko asaldura izan behar du ezinbestez. Nahitaezko unibokotasun horrek nola azalekoa izatera hala arlo kriminal-penalera bideratzen du gertatutakoaren irakurketa oro, eta gatazka guztien azpian den dimentsio etikoa eta politikoa iluntzen ditu.

Alabaina, aldi berean, hutsaltzea edo ahaztea eragotzi behar digun memoriaren ezinbesteko politizazioa, haren berreraikitze etiko eta komunitarioa, ezin da presentismo moral sinplistan erori, horrek epaitzea baitu helburu, ez ulertzea. Hots, bere garaian gatazka elikatu zuten jokabideak edo diskurtsoak moralki epaitzea eta zigortzea, errealitatearen irakurketa garaikidetik abiatuta eta testuinguru orotatik at.

Zigor horrek Judit Butlerren<sup>37</sup> *gerra-esparruen* jarraipena dakar, aurkaria despertsonalizatzea eragiten duten esparru interpretatiboen jarraipena, memoria "(zintzoen) garaipena / (gaiztoen) porrota" binomioaren arabera eraiki dadin, kasu honetan. Guk jasandakoa bezalako gatazkak ezin dira aztertu parametro horiei soilik erreparatuta. Berriz gerta ez dadin, gertatutakoa ulertu behar da, eta ulertze horrek zentzukoa, aldeaniztuna eta, aldi berean, kritikoa izan behar du.

Onartu beharko da ezen, orain arte iraganari buruzko kontaktuzun partekatua lortu ez bada, etorkizunean hura eraikitzea ere ez dela erraza izango, apika. Ildo horretatik, hamarkada horietan bizi izan ditugun ilusio kolektiboko uneei balioa ematea gida aproposa izan daiteke begirada etikoa bultzatzeko. Hau da, gatazkarekiko hurbiltze zuhurra eta zentzuduna gerraren logika odoltsuari nagusitu zitzaioala zirudien uneak.

Egiaz, azken urteotan hainbat saiakera egin dira liskarra bideratzeko, etorkizuna baketsua izan dadin. Nahitaezkoa den begirada etikoa ahaztu gabe —zer dagoen justifikatuta eta zer ez, unean uneko helburu komunitarioen arabera—, konponbidea eskura zegoela ematen zuen une horietan, eta horiek ematen dizkigute gakoak bizitakoa errepikatu ez dadin.

Eta bistan denez, binetak ere gatazka konpontzeko (huts egingako) saiakeren lekuko izan dira.

Askotan, binetek arrazoitze-ahalegin horretan lagundu dute, eta mina gainditzeko oztopoak erakutsi dituzte: besteak beste, alderdikeria eta nork bere helburuak erdiesteko grina, kosta ahala kosta, ondorioak kontuan hartu gabe. Beste zenbaitetan, ordea, binetak herritarren konfiantzarik ezaren lekuko izan dira, eta tar-teko aktoreen zorroztasuna eta itxikeria salatu dituzte.

Azkenik, konponbidea bideratzeko saiakerek huts egindakoan, binetek ere herritarren harridura eta mina adierazi dituzte. Era berean, itxaropenari eta zentzuari atea zabalik utzi dieten ilustrazio ugari plazaratu dira, egiazko bakearen itsasargi bihurtu direnak.

### **BIGARREN MODULUA: “El corazón a tiras” / “Miñetak: zama bihotzean: Kra!”**

Sufrimendua eta eskubide-urraketa behin eta berriz jorratu dira azken hamarkadetako umore grafikoan. Indarkeria oso presente egon da gure herrialdean, eta eskubide-urraketa ugari eta sufrimendu orokortua eragin ditu. Gizarte batean ere ezin da zokoratu begirada etiko etengabea, baina gurean, ordea, besteen minarekiko enpatia baztertu egin da askotan. Aldiz, hurbiltasun hori aztergai izan ditugun binetetako ugaritan ageri da.

Oso bineta gogorak eta gordinak erakutsi ditugu, baita erruki-gabeak ere. Bineta desatseginak, jasan daitekeenaren mugan. Bineta askok min ematen dute, eta beti ez gatoz bat min horrekin. Baina tira grafikoek, gainera, interpelatu egiten digute, eta modu kritikoan hausnartzeko aukera ematen. Binetek ez diote bizkar eman herritarren sufrimenduari, baina haien begirada alde bakarrekoa izan da ezin konta ahalako alditan.

Dena den, bineta guztiak ikuskatzea oinarri duen ikuspegi pluralak lagundu egiten digu mina partekatzen, ondoez hori topagune bihur dadin, gaur eta bihar bizimodu kolektibo duina erakitzeke aukera ematen digun hazi bihur dadin. Hori da parteka dezakegun tokia: sufrimenduarena.<sup>38</sup>

### **HIRUGARREN MODULUA: “Tiras que aflojan” / “Umerez irauli”.**

Aldi berean, binetek islatu eta sustatu dute bakearen eta giza eskubideen aldeko mobilizazio soziala.

Euskal gizarteak ere topaguneak eraikitzeke borondate sendoa erakutsi du. Egiatan, bineta askok eskubide guztiak errespetatzeko dei etiko etengabea egin dute, eta aitzindari izan dira hala indarkeria nola eskubide- eta askatasun-urraketa salatzen.

Egia da zenbait planteamendu daudela dei horren pean, baina azkenean, denak bideratu dira pertsona guztien eskubide guztien aldeko konpromisorantz. Hamarkada hauetan, euskal gizartearen mobilizazioa indarkeriaren kontra etengabea izan da, eta binetak horren isla bizia izan dira, baita eskaera etiko horren eragingarri ere.

---

<sup>38</sup> Butlerrek hauxe gogorarazten digu: “Mina izatea minari buruz hausnartzeko aukera da, zer banaketa-mekanismo ditugun ohartzeko aukera, muga irazko-  
rren, ustekabeko indarkeriaren, desjabetzearen eta beldurraren biktima nor den jabetzeko aukera, eta nola jabetu, gainera”. Butler, Judith (2006): *Vida precaria: El poder del duelo y de la violencia*. Buenos Aires, Paidós.

Baina binetak ez dira diskurtso burutsu, aspergarri, korapilatu eta trinkoak. Binetak umore grafikoa dira, satira eta karikatura. Ironiarako baliabide, eta zenbaitetan jasanezina izan den egunerokotasuna arintzeko umorerako baliabide.

Esan liteke edozein pertsonaia errazago identifika daitekeela haren karikaturaren bidez, argazkiaren bidez baino; figuraren abstrakzioak hura ezagutzen laguntzen du, paradoxikoa bada ere. Hori dela eta, binetek eragin azkarra eta eraginkorra dute herritarren artean, eta askotan, luzaroago irauten du beste edozein irudik edo diskurtsok baino. Ez da xehetasunetan galtzen, eta haren komikotasunak berak sarritan laguntzen du hesi mentalak gainditzen. Horren harira, bereizezinak dira satira politikoaren funtzionaltasuna eta hark mintzeko, haserrearrazteko eta eskandaluak pizteko duen gaitasuna.<sup>39</sup>

Horixe da, hain zuzen ere, binetek autogogoetarako zabaltzen duten leihoa, norberaren eta besteen tabuak hausteko aukera ematen duen judiziora... Paradoxatza jo daitekeen arren, Hannah Arendtek gogorarazten digu gure adimena gogoeta saketara hel daitekeela dimentsio berri batetik umorearen eta barrearen bidez, eta dimentsio horretan, aurreiritzien eta alde aurretik pentsatutako ideien muga hertsia hautsi egiten da.<sup>40</sup>

Hala, umorearen bitartez, bineta askok ondoez pertsonala eta kolektiboa arintzen lagundu dute. Umorearen ekarpena oso garrantzitsua izan da gatazka luze honetan egunerokoaren zama arintzeko, eta zergatik ez, gatazka ulertzen ere lagundu digu, baita gainditzen ere.

“Tirabirak” proiektuak tresna hori gure eskura jarri du, besterik ez; horretarako, lagundu ziguten edo hainbeste haserrearazi gintuzten binetak bildu ditugu, gugandik tira egin zuen edo gure tentsioa arindu zuen tira hori, honezkero ahaztuta geneukana. Edo inoiz ikusi ez ditugun binetak, edo beharbada, lausoki gogoratzen ditugunak, txikitan gurasoek arreta eta atsekabe handiz irakurtzen zuten egunkariari begiradaxoa ematen genionekoak.

Azkenik, lan honetatik abiatuta zabaltzen zaigun ikerketa-leerroan, gatazken azterketan eta gatazkek eraldatzeko moduen ikerketan sakontzeko aukera izango dugu, eztabaida sozial eta politikoa ahalik eta sufrimendu txikiena eragiten duten bidee-

---

<sup>39</sup> “Ridicule is a distinct kind of expression: its substance cannot be repackaged in a less offensive rhetorical form without expressing something very different from what was intended. That is why cartoons and other forms of ridicule have for centuries, even when illegal, been among the most important weapons of both noble and wicked political movements”. Victor S. Navasky (2013). *The Art of Controversy*. New York, Alfred A. Knopf, 49. or.

<sup>40</sup> Horren harira, Marie Louise Knottek gogoeta egiten du Hannah Arendten *Eichmann en Jerusalem* lan klasikoa dela-eta sortutako eztabaidari buruz. Knott, M.L. (2015): *Unlearning with Hannah Arendt*. New York. Other Press.

tatik eraman ahal izateko. Aldaketa guztiak traumatikoak dira. Eskubideen eta askatasunen demokratizazioa eta hedapena inoiz ez da erabat baketsua, baina konpromiso etiko txikiena ere izanik, kanpotik aztertu behar dugu gure burua, eta bestearen larruan jarri. Eta gatazkei begiratzeko era humanista hori arte-tik, sorkuntzatik... dator askotan, baita umoretik ere.

## BAKE-KAZETARITZA: INFORMATU, (TRANS)FORMATU

**Josune Murgoitio**

«Kazetaritzak gerra-berriemailearen irudia sortu zuen, baina munduak bake-berriemaile gehiago behar ditu». Esaldi hori erruz erabiltzen da bake-kazetaritzan, baina ez hainbeste mundu errealean. Zenbat irakurlek entzun du inoiz gerrari buruz? Zenbatek daki zertan datzan bakea? Posible litzateke ariketa berdina egitea gerra-kazetaritza zer den edo zein gerra-kazetari ezagutzen dituzten galdetuko bagenu? Zer da bake-kazetaritza eta zein bake-kazetari daude? Nola lantzen dituzte komunikabideek gatazka eta bakea?

Gatazkek komunikabide tradizionalen zati handia hartzen dute. Aldiz, bakeak ez du hainbeste garrantzi. Esaterako, abenduaren 21eko hauteskunde orokorren aurreko eztabaida erabakigarria une ona izan zatekeen bertan zeuden lau indar politikoko hautagaiei Euskadiko bake prozesuari buruz zituzten asmoei edo programari buruz galdetzeko. Baina ez zen Euskadiko bake-prozesuari buruz hitz egin, nahiz eta euskal gatazka deiturikoari eta/edo Euskadiko terrorismoari buruz asko hitz egin den. Une horretan, aldiz, beste gatazken inguruan «eztabaidatzea» nahiago izan zuten, hala nola Kataluniako erabakitze eskubidearen inguruan.

Hain zuzen bake-kazetaritzaren inguruan hitz egiteko gonbidatu ninduten Jakintza Elkarrizketa guneetara, eta oraingo honetan ekarpen txiki hau idazteko eskatu didate. Bake-kazetaritzaren ikuspegia orain lantzen ari naizen gaia da, edo behintzat horretan saiatzen naiz, oraindik akats asko egiten baitut. Izan ere, aurreko urtean Bilbon GEUZk (Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa) antolatutako bake-kazetaritzaren inguruko ikastaroa egin arte, intuizioz egiten nuen lan, eta jakin ere ez nekien gatazkari begira baino, bakeari begira idazten nuenik. Bake-kazetaritza aurkitzeak lasaitasun handia eman zidan; norbere burua munduan kokatzen lagundu zidan, baina etsipena ere ekarri zuen. Izan ere, zaila da praktikan aplikatzea, bakearen dinamika erabili eta bizitzako benetako sistemaren aurka borrokatu behar da. Gatazken inguruan idaztera jotzen dugu, baina bakearen inguruan ongi idaztea benetan zaila da. Mutur batean kokatzea ekidin beharra dago, testuak berrikusi behar dira eta balantza orekatua al dagoen galdetu, zer aurreiritzi ditudan, ezabatu, dena berriro ordenatu, A agertzen den tokian A, B, C, D... ikusi,

dauden indarkeria desberdinak bereizten jakin, herritarrei begiratu; esfera politikoa kontuan hartu behar da, baina ez da erreferentzetan hartu behar; alde guztiei begiratu behar zaie, ez soilik gatazka batean agertu ohi diren bi aldeei; alde bakoitza ikertu behar da, horien egiak eta gezurrak erakutsi eta, batez ere, dena zintzotasunez eta apaltasunez egin behar da.

Oraindik zeuen buruari zera galdetuko diozue, «*Zer da bake-kazetaritza?*». *Gerra, gatazka, gerra-kazetaritza bezalako hitzak ezagutu ohi ditugu. Aldiz, bakea, bakearen eraikuntza, bake-prozesua, bake-kazetaritza, justizia trantsizionala bezalakoak ez zaizkigu hain ezagunak egiten.*

Bake-kazetaritzak bakea, egia, pertsona eta konponbideei begiratzen die. Gatazkan eta haren bake-transformazioan jartzen du ikuspuntua da. Ikuspuntu sortzailea da, bakea barne hartzen duena. Kontrakoz, gerra- edo indarkeria-kazetaritzak gerrari eta indarkeriari begiratzen dio, gatazka gudu balitz bezala ulertzen du, propaganda darabil, gatazka polarizatzen du eta eliteetara eta garaipenera orientatzen da.

Bake-kazetaritza gerra-kazetaritzari kontrajartzeko jaio zen, baina paradigma berri horrek gatazkek markatutako agertoki guztietarako balio du: etxeko gatazka edo gatazka pribatuetatik estatuen arteko gatazketara, testuinguru sozial anitzetan gerta daitezkeen gatazketatik igaroaz (hala nola eskolan, komunitatean, bizilagunen artean...).

Azken finean, lan egiteko estiloa da, begirada mota bat da. Laburbilduz, hauexek dira bake-kazetaritzaren ezaugarri nagusiak:

**Bake-kazetaritzak ez du informazioa polarizatzen**, kontuan hartuta horrek dakartzan zailtasunak eta egun muturren gizartean bizi garela, eta muturrek lantzen ditugun gatazkek elikatzen dituztela. Zenbatetan identifikatzen dugu komunikabide bat, soilik gatazkaren ikuspegi zehatz bat lantzen duelako? Eta informazio batek desadostasunaren bi aldeak erakutsiko balitu?

Hau da, gatazka armatu bat edo giza eskubideen urratzea lantzen badugu, indarkeria asimetrikoa izan arren, ez dugu alde bat ona eta bestea gaiztoa balira bezala erakutsi behar. Hain zuzen ere, gerra-kazetaritzaren dualismo hori ekidin behar da: «gu» eta «besteak»en ikuspegia ekidin, baita irabazi-galdu motako konponbideak ere. Kazetari izanik, nire betebeharra liskarraren alde guztiak ikertzea da —ez dute zertan bi izan behar— eta bakoitzaren egiak eta gezurrak erakustea, biktimak eta herritarren sufrimendua indarra metatzeko erabiliz. Informazioaren polarizazioak gatazka handitu eta iritzi publikoa zehazten du, eta horrek ez du konponbide bat lortzeko bat ere laguntzen. Egia simetrikoa bilatu, alde guztiak ikertu eta horien inguruan berri eman behar da, besterik ez.

Zentzu horretan, beharrezkoa da euste-ariketa egitea, hots, neutralizatzea; baina horrek ez du esan nahi ematen diren giza eskubideen urratzeak isildu behar direnik.

**Bake-kazetaritzak pertsona arruntei, jendeari, herritarrei begiratzen die.** Funtsezko ezaugarria da hori. Nire ustez, herritarrak dira herrialde baten benetako motorra, eta haiek jasaten dituzte elite politiko eta ekonomikoen inpaktu negatibo eta positiboak. Bake-kazetaritzak informazioa pertsonengan zentratu eta orientatzen du. Horren adibide da komunikabideek bakea lantzerako garaian herritarrei ematen dioten garrantzi eskasa. Euskadiko edo estatuko komunikabideek erakusten al dute herritarrek nola bizi duten euskal gatazka? «Zer da euskal gatazka?» Agian lehenbizi hori galdetu beharko genioke geure buruari. Euskal gatazka ETA eta ETAREN biktimen arteko harremana al da soilik, edo GAL eta GALen biktimen artekoa, edo gobernu zentrala eta ETAREN artekoa, edo Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako alderdien artekoa? Zein esferatan kokatzen dugu bake-prozesua? Aurreko urtean komunikabideen eta bakearen inguruan izandako jardunaldi bat dut gogoan. Kazetariak ordu eta erdiz hitz egin zuten. Ez zuten herritar «arruntei» buruzko erreferentzia bat bera ere egin. «Nola bizi izan dute egoera?», «Sufritu badute, nola sufritu dute?», «Biktimak ala biktimarioak izan dira?» Azken hori biktimaren definizioarekin ere lotuta dago, oso subjektiboa den afera, alegia. «Atentatu bat ikusi duen pertsona biktima al da?», «Errepresalien beldur hitz egin ez duena biktima al da?», «Bere jatorriarengatik bereizkeria jasan duen pertsona biktima al da?». Bake-kazetaritzak galdera guzti horiek jaso eta herritarrengan ardazten ditu.

Horretarako, beharrezkoa da kalera ateratzea, pertsonekin hitz egitea, ikusezin bihurtzea, haiekin konfiantza sortzea beren poztasunak eta sufrimenduak konta ditzaten. Eta hori guztia zintzotasunez eta apaltasunez egin behar da. Noski, egiten zaila da. Zaila da gizarteko segmentu desberdinetara heltzea, baina gerturatzen eta erakusten saiatu behar gara; halaxe zehazten du kazetaritzaren zerbitzu publikoko funtzioak.

**Bake-kazetaritzak gatazka eta indarkeria gauza bera ez direla ulertzen du.** Bake-kazetaritzak indarkeria gatazkaren adierazpen bat dela ulertzen du, eta dauden hiru indarkeria motak lantzen ditu. Indarkeria zuzenaren baliokideak lehergailuak, hilketak, erasoak, sastakatzeak... lirateke. Gertuen ikusten eta sentitzen dugun indarkeria da. Kultura-indarkeria zera da, *indarkeria zuzena edo egiturazko indarkeria legitimotzat hartzeko erabil litekeen kulturako edozein aspektu*: gorroto-diskurtsoak, xenofobia, gerrako heroien inguruko mito eta kondairak (izan ere, bake-heroi gutxi daude, Mandela salbu), gerra erlijioarekin justifikatzea. Kultura-indarkeriaren adibide litzateke Arrasateko jaietan dagoen ohituretako bat; urtero, herriko plazan, bertako jende ugari (haurrak ere) elkartuta, «Madrid se quema, se quema Madrid...» (Madrid sutan dago) abesten dute. Horrez gain,

jarraitutasun gehiago edo gutxiagorekin, euskal gatazka deiturikoaren zati baten eskubideak aldarrikatzen dituzten pintadak agertzen dira herriko hormetan. Egiturazko indarkeria pobrezia, esplotazioan oinarritutako sistemak, apartheid... bezalakoek osatzen dute. Euskadiren kasuan, horren baliokide litzateke terrorismoarekin lotutako delituei buruzko espetxe-zuzenbide eta zuzenbide penaleko egungo legedia, edo Parot doktrina deiturikoa, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak indargabetu zuena.

Oro har, informazio gehiena indarkeria zuzenean zentratzen da. Baina egun Euskadin ez dago indarkeria zuzenik. Zertan zentratzen da, orduan? Bada, indarkeria batzuk lantzen ditu (agian egiturazkoa nabarmenago), baina elite politikoan edo ETA eta ETako biktimen arteko harreman eksklusiboan dute oinarri nagusia. Hori garrantzitsua da, baina alde batera uzten du gizartea badagoela eta euskal gatazka deiturikoan eta egun bizi dugun bake-prozesuan duen parte-hartzea.

Psikologiaren aita Freud bada, bake-ikasketen eta -kazetaritzaren aita Johan Galtung da. Galtungek dagoeneko honakoa ohartarazten digu: indarkeria zuzena gertakari bat da, egiturazko indarkeria gorabeherak dituen prozesua da, baina iraunkorra eta etengabekoa dena kultura-indarkeria da. Eta, nire ustez, iraunkorra, etengabekoa den horretan ekin behar du kazetaritzak. Beste bietan ere, erakutsi egin behar baititu; baina batez ere kultura-indarkerian zentratu behar da, arakatu behar du gatazka gutxiagotzen laguntzeko edo, behintzat, ahalik eta egia osoena erakusten saiatzeko. Hala, irakurleak ikuspuntu orokorra, sarkaria izango du, eta hortik bere iritzi propioa aterako du.

Hala ere, kultura-indarkeriaren inguruan berri ematea gauza konplexua da. Izan ere, indarkeria ikusezina da oso. Duela gutxi, Arrasaten, etorkinen ondorengoak ziren hiru herritarren inguruko erreportaje bat idatzi nuen. Horietatik zaharrena, Andaluziako adineko andre bat, Arrasaten harrera ona izan zuen, baina Espainiako Gerra Zibilean izugarritzko indarkeria jasan zuen: gurasoak galdu zituen. 50 bat urteko begi handiko emakumea oso baztertua sentitu zen ez zuelako euskara ikasi nahi izan. Ikasi nahi ez izatearen ardura onartzen zuen, baina faktore sozial batzuek hein batean euskara ikastea galarazten zioten. Herritarrekin hitz egitean ohartzen zara zer nolako inpaktu handia eragin duen euskara edo gaztelania hautatu behar izateak, eta zenbat pertsona sentitu diren deseroso aukera horren aurrean. Emakume hori ez zen euskalduna ere sentitzen, Extremadurako azentua ere bazuen. Euskadin jaio eta hazi zen, eta pasa den martxoan Euskadira lan egitera etorritako etorkinei Urrezko Domina eman ziotenean, ezin zuen sinistu ere egin. Ez zuen sinesten horrelako aitortpena zegoenik ere. Ondoren, 30 urteko neska batekin hitz egin nuen. Bere jatorriarengatik berezia sentitu zen, baina ez hainbeste, euskaraz baitzekien.



Euskadiko komunikabideok, kazetariok, blogariok... informazioa pertsona arruntei begira jarri behar dugu, izugarrizko tragediak bizi izan ez dituzten pertsonak, baina indarkeria jasan dutenak. Eta haien iritziak eta konponbideak zein diren ezagutzera eman behar dugu. Kazetari izanik, uste dut hain zuzen ere indarkeria ikusezin horren inguruan informatzeko ardura dudala, hitz egiten dudan pertsonengan eta bizi naizen gizarteetan ikusten den min ikusezin horren inguruan, alegia. Eta testu horiek erraz eta zuzen erakusten ere jakin behar dugu. Batzuetan hizkuntza konplexuak herritarrak uxatzen dituela iruditzen zait.

Israel eta Palestinaren arteko gatazka bezala da, bertako hiri askotan gertatzen diren istiluen berri ematen dutenean. Baina nolakoa da israeldar eta palestinarren eguneroko bizitza? Elkarrekin bizi al dira? Zer pentsatzen dute bata besteari buruz? Indarkeria higuigarri hori eragiten duen gatazka zein forman agertzen da? Azken finean, indarkerien berri nola ematen den ikasi behar dugu, horiek bereizten; indarkeria oro arrazoi baten edo alde baten ondorio denaren sistema orokortuak ez gaitu engainatu behar; istorioei, biktimarioei eta biktimei denbora eta lekua eman behar diegu, aipatutako indarkeria zuzena jasan ez badute ere.

**Bake-kazetaritzak gatazka eta haren eragileen rola ulertzen du eta ulertzen saiatzen da.** Ezaugarri hori aurrekoarekin lotuta dago. Erroa ulertzen saiatu behar gara, nortzuk diren eragileak, zein jarrera eta interes dituzten. Hala eta guztiz ere, zenbait gai deskodetzen oso zailak dira. Denbora eta dirua inbertitu behar da eta hori zaila da, kontuan hartuta egun kazetaritzak ez duela bere unerik onena bizi eta garai berriek berehalakotasuna eskatzen dutela. Aldiz, Internet oso tresna lagungarria da.

**Bake-kazetaritzak genero-ikuspegia barne hartzen du.** Funtszko ezaugarria da hori. Orokorrean, indarkeriak emakumeei eta haurrei oso modu zehatzean eragiten die. Euskadiren kasuan, emakumeek agian jasan izan dituzten gehiegikeriak edo emakumeak ETAn izandako rola aipa daitezke. Aspektu hori argiago ikusten dut Turkian. Adibidez, emakume kurdu borrokalariei buruz asko hitz egiten da, baina apenas dago informazioa emakume kurduen (borrokalari edo ez borrokalari) eskubideei buruz, nola bizi diren, egunero bizi duten indarkeria. Zorionez, gaur egun sexu-indarkeriako gero eta kasu gehiago argitaratzen da. Gerrarako arma gisa asko erabili da. Izan ere, hori izan zen Kolonbiako herritarren aldarrikapenetako bat, hots, emakumeei egindako mina bake-jurisdikzio berezian sartzea.

Azkenik, **bake-kazetaritzak konponbideei begiratzen die, eta proposamenak eta bake-ekimenak barne hartzen ditu.** Horretarako beharrezkoa da gatazkaren, eragileen eta haien jarrera eta interesen ikuspegi orokorra zein xehetasunekoa izatea, konponbideak eta eskaini daitezken proposamenak zeintzuk diren jakiteko. Bake-ekimenei dagokienez, berariazkoa da

bake-prozesua indartzea eta erakundeen lana —tartean diru publikoa badago, erakundeak ikertu egin behar dira— eta bakearen aldeko eragileen lana erakustea. Denok sentitzen ditugun bakearen onurak ere erakutsi behar dira.

Gomendioa: bakearen ikuspegian zentratzea, egoera, elkarrizketak... nola aldatu diren pentsatzea...

Oztopoa: beharrezkoa da mentalitate-aldaketa eta bakean espezializatutako autoreen inguruko prestakuntza minimoa izatea.

Aukera: Kolonbiaren adibidea dugu. Bertan, ekimenen bidez, kazetariak prestakuntza jasotzen dute bakea nola kontatu ikasteko.

## PRENTSA ETA EUSKAL GATAZKA: 1975-2015

**Txema Ramírez de la Piscina**  
**UPV/EHUko Kazetaritza irakaslea**  
**HGH Ikertaldeko partaidea**  
**txema.ramirezdelapiscina@ehu.eus**

*Komunikabideek Euskadiko azken hauteskunde-kanpainan egin dutenak higuina ematen du. Kode deontologiko guztiak urratu dituzte, informazioa lapurtu dute, iritziak manipulatu dituzte, salaketarik okerrenak egin dituzte inongo oinarri logikorik gabe, ideia demokratikoak kriminalizatu dituzte, nortasunekin jokatu dute; laburbilduz, objektibotasunaren tenpluek alegatu alderdikoi zakarrena egin dute. Horixe da hedabideek terrorismoaren aurka borrokatzeko duten modua? Birus banpirikoen aurkako nire formula errepikatuko dut berriro: terrorismoaren aurka, demokrazia. Ezinezkoa da moraliki distantziakidea izatea; kazetariak, ordea, deontologikoki distantziakideak izan behar dute.*

Antoni Batista, 2001.

Hamabost urte baino gehiago igaro dira Antoni Batista kazetari kataluniarrak atariko aipua idatzi zuenetik. Orduetik hona jazoe-ra dezente gertatu dira Euskal Herrian, Espainian baita Katalunian bertan ere. Orduan, Antoni Batista La Vanguardia egunkari-ko kazetaria zen. Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitatean irakasle jardun duen aldirian "Gatazketan espezializatutako kazetaritza" izan da bere irakasgaietako bat. Egun, euskal gatazkaren ikertzaile bezala jarraitzen du. Gogoetan aipatzen zen kanpaina 2001eko autonomikoena izan zen, Juan Jose Ibarretxe eta Jaime Mayor Oreja aurrez-aurre jarri zituena, alegia. Orduko hartan komunikabideek artilleria astuna erabili zuten. Handik aurrera erabilitako arma-motak dibertsifikatu egin dira. Teknologia aurrera egin arren, manipulatzeko teknikek bere horretan dira. Sofistikatu egin dira, agian. ETAREN jarduera armatua amaituta, euskal gatazka, neurri handi batean, komunikabideen agendatik

at atera da. Agertzen denean, inertzia zaharrek agintzen badute ere, tonua eta tenorea nabarmen aldatu egin dira, batik bat, Euskal Herriko komunikabideetan. Hala eta guztiz ere, atariko aipuak ez du, tamalez, gaurkotasunik galdu.

Antoni Batista izango da seguru asko Euskal Herritik kanpo euskal gatazkaz gehien idatzi duen idazleetako bat. Bederatzi liburu idatzi ditu gai horretaz, besteak beste, Plaza & Janes eta Random House Mondadori argitaletxeen eskutik, eta ehunka artikulua eta erreportaje. Bere azken liburua: Otegi, la fuerza de la paz (2015, La Campana). Euskal gatazkan aditua da. Bere lanagatik hainbat sari jaso ditu: 2001ean Ramon Barnils saria ikerkuntza kazetaritzan egindako lanagatik. 2006an Mañé i Flaquer saria jaso zuen, "euskal gatazkaren inguruan landutako kazetari-ibilbideagatik".

Esku artean duzun ekarpenak euskal gatazkek Francoren ondoren prentsan izan duen isla aztertu nahi du; hots, 1975etik 2015era bitartean. Lau hamarraldi hauetan aldaketa sakonak gertatu dira bai Euskal Herrian, bai euskal gatazkan baita prentsan ere. Baina, euskal gatazka ez da munduan dagoen bakarra, ezta zaharrena, edota korapilatsuena ere. Baina "gure" gatazka da; gure baitaren zerbait, gure biografiaren parte, gure bizitzaren zati.

Komunikabideak, gatazka eta indarkeriak. Hiruko horren inguruan aritu gara zenbait ikertzaile EHU azken bi hamarraldi hauetan. Gure ikerketa taldean, esaterako, bi azterketa here-mografiko egin ditugu. Lehenengoa 1997an amaitu zen. Bertan Euskal Herriko eta Madrilgo kazeta garrantzitsuenek euskal gatazkari ematen zioten trataera aztertu zen (1979-1996 urtealdian). Bigarrena, 2002an bukatu zen eta bertan Estatuko hamaika egunkarik Lizarra-Garazi garaian (1998-1999 urtealdian) euskal gatazka lantzeko erabilitako irizpideak aztertu ziren.

## 1. Komunikabideen funtzioak

Komunikabideak, eta egunkariak bereziki, aktore garrantzitsuak dira gizarte demokratiko guztietan, aktore politikoak, alegia (Borrat, 1989). Albisteak, kronikak, erreportajeak, elkarrizketak, analisiak, editorialak, e. a. argitaratzen dituzte. Beren idazlanetan agertzen diren diskurtso eta interpretazioek ikuspuntu ideologiko desberdinak islatzen dituzte. Bitartekari ideologikoak dira eta agenda setting funtzioaren bitartez, gizartearen pertzepzio politiko, sozial, kultural eta ekonomikoak baldintzatzen dituzte. Era askotako funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte gaur egun komunikabideek. Hauek, besteak beste:

- Gertaeren deskribapena eta interpretazioa egiten dute.
- Iritzi publikoa eraikitzen laguntzen dute.
- Hizpide izango diren gai-zerrenda mugatzen dute.
- Aktore kolektiboak eta gizarte-eragileak identifikatu eta epaitzen dituzte.

- Sistema politikoarekiko funtzio bikoitza betetzen dute: batzuetan, bozgorailu-lana egiten dute; besteetan, haren watch-dog edo kontrol funtzioa burutzen dute.
- Eskari sozialak eta politikoak bideratzen, hedatzen edo ezkututzen dituzte, gizartearen partaidetza bultzatuz edo motelduz.

Modu batera edo bestera, aipatu funtzioak gizarte demokrati-ko guztietan betetzen dira. Beste gauza bat da, noski, funtzio orokor horiek nola interpretatzen diren eta komunikabideek nola gauzatzen dituzten. Izan ere, komunikabideen osasun demokratikoa dezente aldatzen da estatu batetik bestera edota bake-egoera batetik enfrontamendu-une batera. Gatazka egoeretan kode etiko eta deontologikoak sarritan birrinduta geratzen zirela ohartuta, Unescoren Batzar Nagusiak Parisen 1978ko azaroaren 22an egindako bere XX. Konferentzian dokumentu garrantzitsua onartu zuen. “Hedabideen egitekoa gatazka garaietan” zuen izena eta helburu garbia zuen: komunikabideek nazioarteko elkar-ulertze, giza-eskubideen suspertze eta arrazakeria, apartheid eta gerra-zaletasuna guztiz ezabatzearen alde egin dezaketen lanari buruz printzipio orokor batzuk ezartzea. Agiriaren azken artikuluan Unescok “gutziz beharrezkoa” ikusten zuen erakundearen beraren estatu-kideek —193 kideen artean Espainia eta Frantzia daude— orduan aipatzen ziren printzipio horiek errespetarazteko behar ziren lege, administrazio-xedapen eta arauak garatzea, nor bere estatuaren legedia errespetatuta betiere. Aipatu agirian ikuspuntu demokratiko batetik oso oinarritzekoak diren aholkuak egiten ziren, hala nola: “egia objektiboa mugarik gabe bilatu behar da eta ideien eta ezagutzen trukea izan behar da ardatz”. Alde horretatik agiriaren 1. artikuluan bertan dokumentu osoan azpimarratzen zen ideia agertzen zen: “gerrarako indukzioaren aurkako borroka sendotzeko, ezinbestekoak dira informazioaren jardun askea eta haren hedapen zabal orekatua”. Funtsean haxe zen dokumentuaren ekarpena: bakea eta nazioarteko elkar-ulertzea sustatzeko iritzi, adierazpen eta informazio askatasunak erabiltzea guztiz beharreko dira.

## 2. Gatazka armatuaren trataera

Gatazka armatuak iraun duen urteetan, sumina sumatu da sarritan edukietan, baita samina egunkarietako erredakzioetan ere.

ETA erakundeak prentsaren munduarekin zuzenean loturiko hiru pertsona erail ditu: Bilboko *Hoja del Lunes* kazetako zuzendari eta *La Gaceta del Norte* egunkariko erredaktore-buru José María Portell (1978ko ekainaren 28an), *El Mundo* kazetako zutabegile eta Ermuko Foruko kide José Luis Lopez de Lacalle (2000ko maiatzaren 7an) eta *El Diario Vasco* egunkariko finantza-zuzendari Santiago Oleaga (2001eko maiatzaren 25ean). Bestetik, Ofa Bezunartea ikertzaileak bere *Memorias de la violencia* liburuan aipatzen duenez, 1992-2002 urtealdian 140 kazetarik jasan zuten ETAREN jazarpena. Adibidez, *Cambio 16* aldizkariko

zuzendari Gorka Landaburuk zauri larriak izan zituen 2001eko maiatzaren 15ean bere etxera ailegatu zen pakete batek eztanda egin zionean. ETAk hainbat atentatu burutu zituen komunikabideen aurka ere. Deigarriena, agian, 2008ko abenduaren 31n burutu zuen EITBk Bilbon duen egoitza nagusiaren aurka. Kalte handiak sorrarazi zituen atentatua izan zen. Horrez gain, ETAk jardunean egon zen azken urteetan, 50 kazetari inguruk bizkartzainen eskoltarekin bizi behar izan zuten.

Beste aldetik ere kazetarien heriotzak izan ziren: GAL erakundeak *Egin* kazetako bi kazetari erail zituen: Javier Galdeano Ipar Euskal Herriko korrespontsala (1985eko martxoaren 30ean) eta Josu Muguruza kazetari eta HBko diputatua Madrilen (1989ko azaroaren 20an). Jose María Aznarren gobernuak ere gogor astindu zituen egunkari eta kazetari abertzaleak. Bere agintaldian komunikabide hauek behin betikoz itxi ziren: *Egin* egunkaria eta *Egin Irratia* (biak 1998ko uztailaren 15ean burutuak), *Ardi Beltza* ikerkuntza-kazetaritzako aldizkaria (2001eko maiatzean), *Euskaldunon Egunkaria* (2003ko otsailaren 20an). Itxiera horiek epaileen aginduz egin ziren aipatu komunikabide horiek "ETA-ren tresna" zirelakoan. Ekintza horien ondorioz, hamarnaka pertsona atxilotuak —tartean komunikabide horietako zuzendariak— izan ziren. Batzuek, gainera, torturak salatu zituzten. *Egineko* zuzendari Jabier Salutregik zazpi urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra bete zuen "banda armatuko kide" bezala. *Euskaldunon Egunkariaren* auzian (euskaraz argitaratzen zen kazeta bakarra), epaileek akusatu guztiak errugabeak zirela ebatzi arren, ez zitzairen inoiz inolako kalte-ordainik eman.

Samina alde batera utzi gabe, galdera da: prentsak, oro har, nola landu du euskal gatazka edo, zehatzago izanda, gatazka armatua? Makro-galdera bati ezin zaio mikro-erantzuna eman. Garai desberdinak egon dira. Diktaduraren garaian, adibidez, oinarrizko askatasunen faltak guztiz ezinezko egin zuen informazio askea, ez bazen bide ilegalak edo paraleloak erabiliz. Horrelakoak dira diktadurak: garai ilunak non informazioa bera ere gatibu da; preso alegia.

Diktaduraren ostean, gutxienez, lau urtealdi hauek bereizi daitezke:

- 1975-1988: Irizpide bateraturik gabe.
- 1988-2000: Bateratze / sumintze bidean.
- 2000-2011: Lubakietako kazetaritza.
- 2011-2015: Argitalpen-lekua, inoiz baino ardatzago.

## 2.1. 1975-1988: Irizpide bateraturik gabe

Lehen urtealdia Francoren heriotzarekin hasi eta Ajuria Eneko Itunaren sinadurarekin amaitzen da. Gertaera biak mugarri izan dira Euskal Herriko historia politiko garaikidean.

Diktaduraren osteko lehen urteetan komunikabideek gatazka armatuari eman zioten trataerak gorabehera handiak izan zi-

tuen. Urte oso nahasiak izan ziren eta hedabideak nahasmen horren isla ere izan ziren. Atxiloketak, atentatuak, talde para-polizialen ekintzak, tortura salaketak ia egunero agertzen ziren komunikabideetan. 1977an *Egin* eta *Deia* kazeta abertzaleen sorrerak euskal prentsa osoaren agenda aldatu zuen; izan ere, lehendik zeuden kazetek —diktaduran sortuak— moldatu behar izan zuten egoera berrira. Gai desberdinak agertzen hasi ziren agendan: preso politikoen askapena, askatasun demokratikoen aldarria, autonomiaren errebindikapena, e.a. Jatorri frankistari eutsi eta agenda berriari muzin egin ziotenak, berriz, denboraren poderioz, irakurlerik gabe gelditzen joan ziren. Hauek, adibidez, ateak itxi behar izan zituzten<sup>41</sup>: *Arriba España* 1975ean, *La Voz de España* 1980an, *Unidad* 1980an, *Norte Express* 1982an, *Hierro* 1983an eta *La Gaceta del Norte* 1984an.

Egunkari batzuek beste batzuek baino garrantzi gehiago ematen zieten agendan agertzen ziren albiste horiei, jakina, nork bere ildo ideologikoari jarraiki, baina irizpide bateratuak erabili gabe. Izan ere, 1975-1980 urtealdian panorama politikoa argitzeke zegoen, alderdi politikoak ere egituratu gabe zeuden, instituzioak sortzear edo sortu berriak. Maila guztietan sumatzen zen indefinizioa —gizartean, erakundeetan, alderdi politikoetan, sindikatuetan, unibertsitatean— euskal prentsan ere islatzen zen. Horren ondorioz, gaurko perspektibatik ikusita, fenomeno bitxiak gertatu ziren. Garai hartan gatazka armatuaren presentzia prentsan ia egunerokoa zen. Hain izan zen “arrunta” ezen batzuetan berriok ez ziren egun horretako albiste nagusia izatera ere iristen. Horren adierazlea da, adibidez 1980ko urtarrilaren 15ean *El Correo español*/kazetak argitaratu zuen albistea. Egun hartan albiste nagusia zen Adolfo Suarez Espainiako presidentea AEBetara egindako ezusteko bidaia. Bezperan ETAk egindako atentatua —non guardia zibil bat hilik suertatu zen Elorrion— bigarren mailako albistea zen. Bertan kazetariak gertaeraren berri soila ematen du kalifikatzaile gutxi erabiliz. Hauxe zen lehen orrialdean agertu ziren lerro-buru nagusia eta azpigitulua:

*Elorrio (Bizkaia): Guardia zibil bat erailik  
Egileak, pistolaz eta metrailetaz armaturiko bi gazte*

Albisteak barruko orrialdeetan zuen garapenean, berriemaileak atentatuaren xehetasunak ematen zituen zehaztasun handiz eta lekukoen hitzak erabiliz. Hildakoaren inguruan, Elorrion entzundako iruzkin desberdinak jaso zituen:

*(...) herriko sektore batentzat, oso gizon atsegina zen, herritar gehienekin harreman onak zituen; beste batzuek, berriz, diote ideologia eskuindarra duten pertsonekin harremanetan zegoen-*

---

<sup>41</sup> Horietako batzuk geroago berriro agertu ziren, beste jabe eta ildo editorial desberdinekin —*La Gaceta del Norte* eta *La Voz de Euskadi* (Espainakoa zen lehen), baina urte gutxi iraun zuten. Ordurako euskal prentsaren panorama oso lehiakorra zen eta merkaturik gabe gelditu ziren.







alderdiak batuago agertu ziren. Paktu hark erabat baldintzatu zuen euskal politikagintza. Ordutik aurrera, prentsan —Itunean bertan agertzen zenari jarraiki— dikotomia batek hartu zuen indarra: *biolentoak* alde batetik eta *demokratik* bestetik. Lehen kategorian ez ziren soilik sartzen ETAko militanteak baizik eta ezker abertzale osoa.

## 2.2. 1988-2000: Bateratze / sumintze bidean

Urtealdi honetako mugarririk garrantzi handiko bi hitzarmen izan ziren: abiapuntuan, aipatu Ajuria Eneko Ituna (1988) eta amaieran 2000ko abenduaren 8an PP, PSOE, CIU, CC eta Partido Andalucista alderdiek sinatu zuten *Askatasunen alde eta Terrorismoaren aurkako Ituna*<sup>43</sup>. Itun horrek bide eman zion geroago onartu zen Alderdien Legeari (2002). Testu horretatik eratorri ziren 2003-2013 urtealdian egon ziren ezker abertzalearen hainbat erakunderen legez kanporatzeak.

1990ko hamarraldian ETAk bere jarduera armatua aldatu zuen. Estatua negoziazio-mahaian eseraraztea zen helburu (1992an Bartzelonan egitekoak ziren Olinpiadak gogoan). Horretarako, bonba-autoaren erabilera areagotu eta kargu politikoen —bati bat PP eta PSOE alderdietako ordezkarien— kontrako atentatuak ugaritu zituen. Komunikabideek neurri berean erantzun zioten estrategia berriari: atentatuei espazio gehiago eskainiz eta ETaren jarduera are eta indar handiagoz gaitzetsiz. Salbuespena ziren ezker abertzalearen inguruko komunikabideak. Horietan ETaren ekintzak modu deskriptiboan aipatzen ziren aparteko baloraziorik —ez aldeko, ezta kontrako ere— egin gabe. Aurreko urtealdian zegoen irizpide aniztasuna eza-batzen joan zen. Alde batetik, ETaren kontra zeuden komunikabideak beren irizpideak bateratzen joan ziren. Beste aldetik, gatazka politikoarekiko zuten ildo editorialak nabarmenago aldentzen hasi ziren; aldentzen eta sumintzen ere. Izan ere, komunikabideak gizartean bizi zen polarizazio eta tenkatze politikoaren adierazle zuzena izan ziren. Are gehiago, egoera horretara —apurka apurka— ohitzen joan ziren, nork bere audientziari begira betiere, distentsioaren bidetara ateak ixten, alde bateko edo besteko sufrikarioa erabiliz (neurritz kanpo ere, batzuetan), lengoia politikoa hutsalduz edo desitxuratuz eta estereotipo manikeoak behin eta berriz errepikatuz (Ehuki taldea, 1997:149).



Egin eta El Mundo kazeten azalak (1997/07/01)

Atentatu odoltsu asko burutu zituen ETAk, baina 1997ko uz-tailaren 12an Miguel Angel Blanco Ermuko PPko zinegotziaren kontra egindakoa mugarririk izan zen. Ezaugarri bereziak izan

<sup>43</sup> IU, EAJ-PNV, BNG, ERC, ICV, EA eta CHA alderdiek lege horren kontra bozkatu zuten oinarrizko askatasunen aurkakoa zela iritzita.

zituen<sup>44</sup> eta oihartzuna ere horrelakoa izan zen mundu osoko komunikabideetan. Orduz gozotik, ETAREN atentatuei eta bere biktimei askoz espazio gehiago eman zitzaien komunikabideetan (Caminos, Armentia eta Marin, 2013: 139-160). Euskal gatazkaren historian atentatu hura gakoa izan zen, Kepplinger eta Habermeier-ek (1995) *key event* bezala identifikatu zuten gertaera horietako bat izan zen, zalantzarik gabe.

Miguel Angel Blancoren erailketa izan baino egun batzuk lehenago, 1997ko uztailaren 1an hain zuzen ere, Guardia Zibilak askatu zuen Arrasaten ETAK bahitua zuen Jose Antonio Ortega Lara Espetxetako funtzionarioa. ETAK 532 egunez izan zuen preso pertsona hori oso baldintza kaxkarretan, erakundearen zulo batean. Miguel Angel Blancoren kasuan bezala, bahiketa haren bidez ETAK euskal presoek Euskal Herriratzea exijitzen zuen. Gatazkaren gordinaren erakusle dira *Egin* eta *El Mundo* kazetek askapenaren biharamunean argitaratzen dituzten azalak.

Lehenengoan “bestearen” saminarekiko errespetu falta nabaria da. Bigarreneko lerro-buruak informatiboa baino editoriala zirudien; zama erretorikoa oso begi bistakoa da. Egoera gordina zen oso. Ikuspuntu deontologiko batetik lerro-buru biak kritikagarriak dira gaiarekiko behar besteko distantzia erakutsi ez zutelako<sup>45</sup>.

Gertaera dramatiko horien ostean, inor gutxik uste zuen momentuan, Lizarra-Garazi hitzarmenaren sinadura etorri zen

---

<sup>44</sup> ETAK 1997ko uztailaren 10ean bahitu zuen Miguel Angel Blanco zinegotzia. Euskal presoek Euskal Herriratzea eskatu zion Madrilgo Gobernuari. Horretarako 48 orduko epea eman zion. Epea igorrita ETAK erail zuen zinegotzia uztailaren 12an, garunean bi tiro emanda. Atentatuaren ezaugarri bereziek iragarritako heriotza baten kronika bihurtu zuten gertakaria. Atentatuaren ondoren, nabarmen areagotu zen ezker abertzalearen aurkako jazarpen politiko, polizial eta mediatikoa.

<sup>45</sup> Egiari zor, esan beharra dago, bi kazeta horien portaera ez dela beti berdina izan. Caminos, Armentia eta Marin ikertzaileek aipatzen duten bezala (2013:157), Blancoren hilketaren ondoren, *Egin* egunkariak tarte handiagoa eskaini zien Herri Batasuna alderdia (kazetako ildo ideologiko nagusia) kritikatzeko zuzten informazioei. *Egin* itxi ondoren sortu zen Gara kazetaren portaera ere desberdina izan zen. Imanol Murua ikertzaileak bere doktore tesian azpimarratu duen bezala (2014:186-191), egunkari honen ildo editorialak nabarmen lagundu zuen ezker abertzalearen estrategia aldaketa gauzatu zedin. 2007-2011 urtealdian izan zen hori eta autoreak *the Gara factor* bezala kalifikatu du. *El Mundo* kazetak euskal gatazkarekiko izan duen jarrera editorialean ere historikoki gorabehera ugari egon dira. Oro har, ideia soberanisten aurka agertu bada ere, eta bereziki ETAREN indarkeriaren auka, bixia izan zen, adibidez, Lizarra-Garazi itun politikoaren aurrean lehendabiziko hilabeteetan izan zuen jarrera. Izan ere, pakto hori “bake-proposamen” bezala identifikatu zuen 1998ko irailean argitaratutako editorialetan (Idoyaga eta Ramirez de la Piscina, 2002b: 80). Gerora, bestelako jokabidea erakutsi zuen, ideia konstituzionalisten aldekoagoa, hain zuzen ere.

(1998)<sup>46</sup>. Haren bidez, hainbat alderdi politikok eta gizarte-eragilek azpimarratzen zuten euskal gatazkak izaera politikoa zuela eta, beraz, konponbidea ere negoziazio politikoaren bidez erabaki behar zela. Sinatu eta berehala, ETAk mugagabeko su-etena adierazi zuen 1998ko irailaren 16an. Egoera horrek iraun zuen 14 hilabeteetan (1999ko abendura arte) polarizazio politiko eta mediatikoa nabarmena izan zen. Madrilgo kazetek, batik bat, ez zuten batere ongi ikusi paktu hura indar abertzaleen arteko batasun haren atzean Euskal Herriaren independentziaren atarikoa izan zitekeen beldur baitziren. Armak isildu zirenean gatazka politikoa agerian geratu zen, gori-gori.

Beste alde batetik, interesgarria da orduko giro hura kazetarietara beraiek nola bizi zuten orain gogoraraztea. *Kazetariak zer dira: gatazkaren lekuko, eragile?* Hori galdetu zien Ehuki ikertaldea orduan ardura handia zuten hiru kazetariri. Elkarrizketa 1995ean izan zen, gatazka puri-purian zegoen garaian. Kazetariok hauek ziren: *Egin* kazetako zuzendari Jabier Salutregi<sup>47</sup>, Donostiako *Herri Irratien* ziharduen Mariano Ferrer berriemaile ezaguna<sup>48</sup> eta *El País* kazetako Euskal Herrian zuten zuzendari Emilio Alfaro<sup>49</sup>. Elkarrizketa horiek egin zirenetik 20 urte baino gehiago igaro arren, ez dute interesik galdu, orduko giroaren erakusle zuzenak baitira.

Jabier Salutregik argi azaldu zuen bere iritzia; oso modu garbi eta autokritikoan (Armentia et al., 1997: 136):

*Berriketariok parte hartu dugu auzi honetan, eta, logikoa denez, gizartean antzematen den krispazio horren eragile gara. Ez dakit aktiboki ala pasiboki. Hau da, ez dakit krispazioa gertaera horien berri ematen dugulako gertatzen den ala gure iritzia ote den jendea benetan sumintzen duen (...). Nire ustez, gainera, kazetariok ez dugu enfrentamendua indargabetzeko gogo sendorik. Are gehiago, nik kontrakoa esango nuke. (...) Neronek ere aitortzen dut erruduna naizela. Nire ustez kazetarien artean une honetan ez dago inor animoak baretzeko asmoz.*

---

<sup>46</sup> Hitzarmena 1998ko irailaren 16an sinatu zen Lizarrako herrian. Alderdi eta sindikatu abertzale guztiez gain, IU/EBk ere bat egin zuen testuarekin. Bertan Euskal Herriko gatazka politikori amaiera emateko asmoa agertzen zen. Horretarako, denen arteko negoziazio politikoa ahalbidetu behar zela aldarrikatzen zen, inor baztertu gabe eta aurrebaldintzarik gabe. Urte bereko urriaren 2an Donibane Garazin Ipar Euskal Herriko hainbat eragilek bat egin zuten hitzarmenarekin. Orduz geroztik, Lizarra-Garaziko hitzarmen bezala ezagutu zen.

<sup>47</sup> Jabier Salutregi Burgosko kartzelatik atera zen 2015eko urriaren 29an, Madrilgo Audientzia Nazionalak ezarritako zigoro osoa (zazpi urte eta sei hilabete) bete ondoren. Bera zen Europako Batasunean preso zegoen egunkariko zuzendari bakarra, Mugarik Gabeko Erreportariak erakundeak salatu zuen bezala.

<sup>48</sup> Mariano Ferrer egun jubilatuta dago, baina aktibo mantentzen da hainbat tertulia eta forotan.

<sup>49</sup> Emilio Alfaro egun PSE-EE/PSOE alderdiko komunikazio-arduraduna da Eusko Legebiltzarrean.

Mariano Ferrer bera ere etsituta zegoen orduan (Armentia et al., 1997: 147):

*Urte askotxo daramagu arazo berdinen inguruan bueltak ematen eta jende artean dagoen nekea, ezinegona eta etsipena ikaragarria da. Dena dela, nire ustez, kazetariak une honetan ez daude giroa baretzeko edo lasaitzeko, baizik eta gehiago bizkortzeko eta xaxatzeko; hau da, distentsioa lagundu baino gehiago polarizazioa gehiago maite dutela dirudi. Eta horrela zaila da aurrera egitea.*

Emilio Alfarok bestelako iritzia zuen (Armentia et al., 1997: 147):

*Kazetariok lekukoak besterik ez gara. Ez nuke esango neutralak garenik, baina bai lekuko hutsak, besterik ez. Gure zeregina gizartean gertatzen den guztia azaltzea da, eta kito. Gehiago egin nahi izatea, gure zereginetatik kanpo irtetea litzateke. Beste kontu bat da iritziari dagokion arloa. Eta hor, nire ustez, inor ez dabilugarra alperrik biztu nahian, ez ohartuki bederen.*

Kazetariak, gatazkaren lekuko edota eragile; seguru asko, inoiz amaituko ez den eztabaida. Ez dira, halabeharrez, kontrajarrita dauden kontzeptuak. Kazetaria lekuko izateaz gain, eragilea ere izan daitekeelako bere printzipio etikoei uko egin gabe. Izan ere, Lizarra-Garazi ituna indarrean egon zen garaian (1998-1999), kazetari talde bat saiatu zen, euskal gatazkaren inguruan, Euskal Herriko kazeta guztiek editorial bateratua atera zezaten. Ez zen posible izan. Urte batzuk lehenago, berriz, Ipar Irlandako kazeta *unionista eta errepublikazaleak* bai izan ziren gai horrelako testu bat egiteko. Ekimenak oihartzuna izan zuen, batik bat Ipar-Irlandako gizarartean. Ekimen hark frogatu zuen komunikabideak lekuko izateaz gain gatazkaren eraldaketa prozesuetan ere eragile izan daitezkeela.

### 2.3. 2000-2011: Lubakietako kazetaritza

Hirugarren aldi hau aurrekoan sumatu ziren joerak indartu egin ziren. Bi dira urtealdi honetan bereziki aintzat hartzeko moduko mugarrak: aipatutako Itun antiterrorista (2000) eta ETAk 2011ko urriaren 20an borroka armatua amaitutzat ematen zuela adierazi zuen eguna. Bizkitartean, hamaika urte horietan garrantzi handiko eta izaera oso desberdineko gertakariak jazo ziren: inoizko hauteskunde autonomiko polarizatuenak EAE Euskal Autonomia Erkidegoan (2001), ezker abertzaleko hainbat erakunderen legez kanporatzea (2003-2013 bitartean), kazetari eta komunikabideen aurkako atentatu ugari, Euskaldu-non *Egunkariaren* itxiera<sup>50</sup> (2003), Ibarretxe planaren onarpena Eusko legebiltzarrean (2004) eta hari emandako ezetza biribila Espainiako Gorteetan (2005), Loiola eta Genevako negoziaketak (2006-2007), Batasuna alderdiko buruzagien atxiloketa

---

<sup>50</sup> Lehenago, 1998an, Egin kazetarena gertatu zen.

(2009), ezker abertzalearen ziklo aldaketa (2010 Zutik Euskal Herria ponentziarekin), Aieteko Nazioarteko Bake Konferentzia (2011) eta aipatutako ETArekin adierazpena. Gertaerok isla zuzen izan zuten komunikabideetan; denek nor bere ildo editoriala sendotzeko erabili zuten, nola ETArekin gordinkeria nabarmentzeko hala irtenbide negoziatuen beharra azpimarratzeko.

2001eko maiatzaren 13an EAEn izan ziren hauteskunde autonomikoen testuingurua oso berezia izan zen: Lizarra-Garaziko Ituna hautsita zegoen eta ETak berriro ekina zion bere jardun armatuari oso modu bortitzean gainera. Zenbait komunikabideetan, Madrilgoetan batik bat, EAJ Eusko Jaurlaritzatik bota behar zelako beharra instalatu zen. Higiene demokratikoa zen, haien ustez. Horregatik euren ildo editorialetatik PP/PSOE aliantza bultzatu zuten EAJ boteretik kentzeko. Juan Jose Ibarretxeri ez zioten barkatu Lizarra-Garazi garaian Euskal Herritarrok koalizioarekin legealdi-hitzarmena sinatu eta gatazka armatuari irtenbide negoziatua saiatu izana. Orduan gertatu zen Antoni Batista kazetari kataluniarrak aipatzen duen ideologia demokratikoen kriminalizazioa. Prentsak esku hartu zuten kanpaina, modu nabarmenean gainera. Juan Jose Ibarretxe zen orduan EAJ-EA koalizioaren lehendakariagaia. PP-UA koalizioko hautagaia, berriz, Jaime Mayor Oreja. Hautagai honek, gainera, PSE-PSOE-EE alderdiaren babesa ere jaso zuen hauteskundeak izan baino lehen (Nicolas Redondo Terreros hautagaiak horrela azalduta). Komunikabideek Ibarretxe eta Mayor Orejaren arteko norgehiagoka bezala aurkeztu zituzten hauteskunde haiek. Hedabide gehienek (Madrilgoek, batez ere), Mayor Orejaren aldeko hautu nabarmena egin zuten, bai prentsan, zein irrati edo telebista-kateen bitartez. Espainian hedapen gehien duen kazetak ere, *El País*-ek alegia, nabarmen utzi zuen agerian bere aukera 2001eko apirilaren 29ko azalak agertzen zuen bezala.



El País (2001/04/29).



Batzuen eta besteen arteko desoreka informatiboa oso nabarmena izan arren, EAJ alderdiak inoiz izan duen boto-kopururik handiena lortu zuen (604.222 boto eta 33 jarleku Legebiltzarrean). Ibarretxek gobernua osatzea lortu zuen; izan ere, PP-UA eta PSE-PSOE-EE alderdien baturak 32 jarleku antzeman zuen<sup>51</sup>.

Orduan sortutako polarizazioak eta komunikabideen arteko arrakalak ondorengo urteetan jarraitu zuten. *Ibarretxe plana* bezala ezagutu zen proposamena Eusko Legebiltzarrean onartu zenean ere, nabarmen geratu ziren batzuen eta besteen tasunak eta keriak. EAEko lehendakariak proposamen hura Madrilgo kongresura eraman zuenean Madrilgo prentsak, *El Mundo* eta *ABC* kazetek batik bat, mehatxu egiten zuen *fanatiko* bezala aurkeztu zuten.

*El Mundo* kazetak 2005eko otsailaren 2an bere edizio digitalean sareratutako albistea.



Garai hartan hedapen zabala zuen 20 minutos doako kazetak ere bat egin zuen Ibarretxe fanatiko bezala islatzen zuen irudiarekin.



<sup>51</sup> 2001ean gertatu ez zena, 2009an gauzatu zen. Orduan, esker abertzalea legez kanporatuta zegoela, PSE-PSOE-EE eta PP alderdiek euren botoak (25 eta 13 jarleku hurrenez hurren) batu zituzten Patxi Lopez (sozialisten hautagaia) lehendakari izendatzeko, nahiz eta EAJko Juan Jose Ibarretxe hautagairik bozkatuena izan (30 jarleku).

Ondorengo urteetan antzeko joerak detektatu ziren Euskal Herriko eta estatuko prentsan ere. Iker Merodio ikertzaileak bere doktorego tesian aipatu zuen bezala, sarritan kazeta bakoitzaren argitalpen-lekuak baldintzatu du, neurri handi batean, euskal gatazkaren pertzepzioa eta berari ematen zaion irteera (Merodio, 2010: 288):

*Euskal gatazkaren eta berau konpontzeko proposamenen definizioak egunkarien zentro igorleek sortzen dituzte; eta ez hainbeste informazioek edo iturriek beraiek. Ildo horretatik, Euskadiko hainbat egunkariak (Deia, El Correo eta Gara) gatazka politiko baten existentzia onartzen dute, baita hori konpontzeko izaera bereko neurriak behar direla ere (El Correo egunkariak izan ezik). Kataluniako egunkariak (El Periódico eta La Vanguardia), aldiz, Estatu osoan eskumenen gaineko gatazka bat dagoela azaltzen dute, eta Ibarretxe Plana gatazka horretako adierazpen bat dela. Hala, irtenbide arauemaileak proposatzen dituzte, baita indarkeriaren aurkako irtenbide judizial eta polizialak ere. Madrileko egunkariak (El País eta ABC), bestalde, gatazkaren izaera politikoa ukatzen dute eta irtenbide bakarra Espainiako Estatuak ETArek aurka borrokatzea dela defendatzen dute (El Correo egunkariak bezala).*

Gorago aipatu dugun bezala, euskal gatazkan, komunikabideak eta kazetariak lekuko eta eragilea izateaz gain, biktima ere izan dira. Urtealdi hau hasi baino lehen gertakari larriak jazo ziren (Egin eta Egin irratiaren itxierak besteak beste, 1998an, El Mundoko kolaboratzaile José Luis Lopez de Lacalleren erailketa 2000an). Gertakari haiek, eta beraien aurrean kazeta bakoitzak erakutsi zuen jarrerak edo jarrera-ezak zeharo gaiztotu zituzten Euskal Herriko komunikabideen arteko harremanak. Hirugarren urtealdi honetan beste hainbat gertaera larrik ikaratu zuten komunikabideen mundua Euskal Herrian: El Diario Vasco egunkariako finantza-zuzendari Santiago Oleagaren erailketa 2001ean, Euskaldunon Egunkariaren itxiera judiziala 2003an eta berari eratorritako ondorioak (tortura-salaketak), Egin auziaren ondorioz kartzelaratuak 35 pertsonak 2007an, ETAk hainbat kazetari eta komunikabideri egindako eraso (ikusgarriena EIT-Bren aurkako atentatua 2008an) eta jazarpenak (50 profesional bizkaitzainen babesarekin egun osoan bizi beharra hamabi urtez), besteak beste. Gertakariok sakondu egin zuten komunikabide eta kazetarien artean zegoen inkomunikazioa. Lubakietako kazetaritzari ateak parez pare ireki zitzaizkion: nork bereari eutsi eta aldamenekoaren sufrikarioa bost. Arazoa zornatu egin zen. Komunikabideak gatazkaren parte bilakatu ziren.

Testuinguru honetan inoiz baino beharrezkoa zen Unesco erakundeak 1978an emandako aholkua aintzat hartzea: Iritzi, adierazpen eta informazio askatasuna erabiltzea bakea eta nazioarteko elkar-ulertzea sendotzeko hil edo biziko faktorea da. Ildo beretik jo zuten (In)komunikazioaren atarian. Prentsa eta euskal gatazka liburuaren egileek (2002). Orduan egindako go-



mendioetan ageri zen gogoeta nagusia hau zen: hitza desarmatu, arrazoia indartu (Idoiaga eta Ramirez de la Piscina, 2002: 261-269). Proposatu zituzten neurrien artean bereziki gogoangarriak ziren ondorengo hauek:

- Bortxaren biktima guztiekiko aparteko errespetu eta informazio-begirunea erakutsi.
- Distentsioa eta elkarrizketa soziala ahalbidetu.
- Lengoaia beligerante eta sinplista alboratu.
- Gertakariak sakon aztertzeke analisiak egin.
- “Bestea” (komunikabidearen ildo editorialarekin bat ez datorrena) eta bere errealitatea ezagutzeko bidea eman.
- Herritar guztien intimitaterako eskubidea bermatu.
- Profesionalen autonomia handitu.
- Komunikabide publikoei bereziki eredu zko jokaera eskatu.

Oro har, gomendiok ez ziren kontuan hartu. Hala ere, 2010-2011 urteetan euskal gatazka fase erabakigarrian sartu zen. Behin betiko ziklo-aldaketaren sintomak ageri ziren: ezker abertzalearen estrategia politikoaren aldaketa (2010), ETAren su-eten partziala (2010), Aieteko Nazioarteko Bake Konferentzia (2011) eta borroka armatuaren amaiera (2011). Lubakietako kazetaritza pitzatzen hasi zen.

#### 2.4. 2011-2015: Argitalpen-lekua, inoiz baino ardatzago

2011ko urriaren 20an ETAk egindako iragarpenak sekulako oihartzuna izan zuen prentsan. 52 urteko ibilbide armatuari amaiera eman zitzaion. Garai berria ireki zen; edo hori pentsa zitekeen, bederen. Prentsan kasuan, portaera aldaketak gertatu badira ere, (kasu batzuetan oso modu nabarmenean gainera), gatazkaren garai ilunenetako inertzia zaharrek oraindik ere bizirik dirautela esan daiteke. Euskal Herriko eta Madrilgo prentsaren arteko desberdintasunak inoiz baino ageriago gertatu dira; argitalpen-lekua inoiz baino ardatzago.

Johan Galtung bake-ikasketetan prestigio handia duen nazioarteko aditua da. Jatorri burgesa duen Norvegiako soziologo, matematikari eta bakezale honek bibliografia zabala du gatazkaren konponbidearen inguruan. Berea da ondorengo gogoeta hau (Galtung, 1998:13):

*Bakea hitza inozoek eta ez hain inozoak ez direnek ere erabiltzen duten elea da. Inozoek nahasten dituzte bakea eta bortxa-eza zuzena. Ez dute ulertzen bakegintza eta bakearen eraikuntza orduantxe hastear dagoela. Hain inozoak ez direnek, ordea, ongi asko dakite zein den hitz horren esanahia; horregatik ez dute langintza horrekin hasi nahi.*

Izan ere, bere ustez bakea hitza bera ere, sarritan, bakea oztopatzeko tresna ikaragarri indartsua bilakatzen da. Galtung-en aburuz bortxakeria zuzena amaitu eta gero “3 R” aktibatu be-



2011ko urriaren 21eko Euskal Herriko eta Madrilgo zenbait kazetaren azalak.

har dira; hau da: *Reconstruction* (berreraikuntza), *Reconciliation* (adiskidetzea) eta *Resolution* (konponketa). Lehenengoak ikusten den bortxakeriarekin du harremana. Beste biek, berriz, ikusezina den beste bortxakeria mota batzuekin. Adiskidetzeak, jatorri kulturala duen indarkeriarekin (*besteen* aintzatespena) eta konponketak, berriz, egiturazko indarkeriarekin; hots, gatazkaren erroekin. Galtung-en iritiz, bakea lortu nahi bada 3 R horiei heldu behar zaie, bestela, bakea lortu aurretik zegoen egoerara bueltatzeko arriskua dago eta horretarako enpatia, bortxakeria-eza eta sormena landu behar dira.

Madrilgo prentsan antzematen den ideia nagusia da euskal gatazkak ez duela jatorri politikorik: *ETA eskrupulurik gabeko hiltzaile talde bat baino ez da, bere ideiak bost hamarraldietan Euskal Herriari eta Espainia osoari inposatu nahi izan dizkien erakunde terrorista gupidagabea*. Interpretazio horren arabera, hirugarren R-a ez da existitzen; ez da behar, adibidez, egungo marko juridikoa aldatzea. ETAREN borroka armatua amaitu eta gero, euskal gatazkaren pertzepzioa desagertzen joan da Madrilgo kazeta gehienek agendatik, neurri handi batean hutsune hori Kataluniako prozesuak bete duelako.

Aieteko Nazioarteko Bake konferentzia izan zenean Patxi Lopez sozialista zegoen Ajuria Enean. Lehendakariak ez zion aparte-ko garrantzirik eman gertaera hari. Hura aitortzeak gatazkaren

jatorri politikoa aintzat hartzea esan nahi zuelako, seguru asko. Lopez lehendakari izendatu zutenean, ezker abertzalea legez kanpo zegoen, Sortu alderdiaren legalizazioa 2012an gertatu baitzen. Bitarte horretan, 2009-2012urtealdian, kartzelan ez zeuden ezker abertzalearen buruzagiak saiatzen ziren ekitaldi erdi-publikoak antolatzen, legalitatearen muga-mugan. Eusko Legebiltzarrak, ordea, 2011ko otsailaren 28an, onartu zuen PSE, PP eta UPyDren botoekin proposamen bat zeinaren bitartez dei egiten zitzaion EITBri “legez kanpo dagoen Batasuna alderdiko buruzagiei elkarrizketak egin ez ziezazkieten”. *Euskadi Irratiak*, ordea, Batasuneko buruzagi Rufi Etxeberria elkarrizketatu zuen urte bereko martxoaren 15ean. Hasiera batean, zirkulu politikoetan zalaparta dezente sortu zen arren, gainerako komunikabideak onartzen eta ohartzen joan ziren gauzak emeki emeki aldatzen ari zirela euskal politikagintzan eta ezker abertzaleak berak bazuela komunikabideetan bere diskurtsoa zabaltzeko eskubiderik.

Paradigma aldaketa 2012an gertatu zen, Vocento taldeko euskal kazetek —*El Correo* eta *El Diario Vasco*, alegia— Rufi Etxeberria legez kanpo zegoen buruzagiari egin zioten elkarrizketa. Ez bakarrik hori, igande batean kaleratu zuten eta beren lehen orrialdean, gainera. Distentsioa Euskal Herriko prentsara iritsia zen.



Paradigma aldaketaren adierazle. Vocento taldeko *El Diario Vasco* eta *El Correo* kazetek Rufi Etxeberria elkarrizketatu zuten 2012 urtarrilaren 29an eta ekainaren 3an, hurrenez hurren. Kasu bietan igandea zen.

ETAren iragarpena izan eta gero, Euskal Herrian argitaratzen den prentsaren aldetik jarrera aldaketa nabarmena izan du. Batzuek *Gara* eta *Berria*, esaterako bake prozesuaren lekuko izateaz gain, eragile eta bidegile ere izaten saiatu dira. Horra hor, beste beste *Gara* egunkariak ezker abertzalearen ziklo aldaketa ahalbidezko jokatu duen funtzio berezi horren adierazle bat (*the Gara factor*, Murua, 2014: 186).



Gatazkaren biktimen trataeran ere aldaketak sumatu dira, batik batik Euskal Herriko kazeten artean. Madrilgoentzat biktimen monopolioa ia erabatekoa ETaren biktimek daukaten bitartean, euskal prentsak bestelako ikuspuntua du eta bizikidetzari eman dio tarte handiagoa. Horren adierazle da Berria kazetak 2015eko urriaren 4an (igandea zen) kaleratu zuen informazioa non alde bateko eta besteko biktimek protagonismo nabarmena hartzen zuten.



Madrilgo zenbait kazetak, berriz, jarraitzen dute garaile eta garrantuen arteko dialektikarekin. Alde horretatik ez dute begi onez ikusten euskal alderdien artean —PP eta EH Bilduren artean kasu— egon litekeen balizko hurbilpen bat. Oso esanguratsua izan zen Arantza Quiroga euskal *popularren* presidentearen dimisioan Madrilgo prentsak, eta zehazki kazeta batek, jokatu zuen funtzioa. Sekuentzia honela gertatu zen:

1. EH Bilduko buruzagiek 2015eko urriaren 1ean iritzi artikulua garrantzitsua argitaratu zuten ohikoa ez zen kazeta batean *El Correo* egunkarian, alegia. Titulua, haxe: *Nuestra decisión, la paz* (Gure erabakia, bakea). Bertan, “bortxakeriaren hautua beti okerrena” dela esaten zen.





El Correo (2015/10/01).

2. Bost egun geroago EAEko PPK bakegintzaren inguruan EH Bildu barne hartzen zuen proposamena aurkeztu zuen.



eitb.eus, 2015/20/06

3. Hurrengo egunean, urriaren 7an, *El Mundo* kazetak eta *Libertad digital* agerkari elektronikak Quirogaren proposamena txarretsi zuten.



El Mundo eta Libertad digital (2015/10/07)

4. *El Mundok* ETAREN biktimen erreakzioa hauspotu zuen biharamunean.



*El Mundo* (2015/10/08).

5. Presioen ondorioz, urriaren 13an Quiroagak dimisioa aurkeztu zuen. Hona Madrilgo *El Mundo* eta *Abc* kazetek egindako interpretazioa urriaren 14an eta 15ean, hurrenez hurren



*El Mundo* eta *Abc* kazetek Quiroga-ren dimisioaz egindako interpretazioa

Quiroga auziaren inguruan gertatutakoak garbi adierazten du Galtung-ek defenditzen duen bigarren R *Reconciliation* horretan zenbait prentsak, eta bereziki kasu honetan El Mundo egunkariak, ez zuela gehiegi sinesten. *El Correo* kazetak, berriz, garai berrira moldatzeko egindako ahalegina ere —artikulua argitaratuz— bistan geratu zen.

Euskal gatazkaren izaera politikoa bazterrean geratu da, batik batik Madrilgo prentsaren agendatik. Izan ere, bitarte honetan beste gatazka batek protagonismo osoa kendu diolako, Kataluniako prozesu subiranistak, hain zuzen ere. Madrilgo prentsaren sektore handi batek 2005ean Juan Jose Ibarretxe *desafiatzaille eta fanatikotzat* jotzen bazuen, 2015ean beste honenbeste gertatzen da Artur Mas-ekin. Horren lekuko dira hiru azal hauek:



El País, El Mundo eta Abc (2015/10/16)

Katalunia zein Euskal Herriaren kasuan, gatazka politikoaren atzean marko juridikoaren aldaketarekin zerikusirik duen eztabaida dago, zalantzarik gabe. Komunikabide nagusiak historikoki elite politiko, ekonomiko eta finantzarioei lotuta egon dira, bai Euskal Herrian, zein Katalunian eta Espainian ere. Beraz, utopikoegia litzateke pentsatzea komunikabide nagusiek eta, kasu honetan, prentsak inoiz sutuki babestu edo hauspotuko dutenik *statu quo*-ren bat bateko aldaketa (Kataluniaren independentzia, kasu). Espainiako estatuaren kasuan gainera, krisi finantzarioak lehertu zenetik (2008) adierazpen askatasunak nabarmen egin du behera, *The New York Times* kazetak nabarmendu zuen bezala<sup>52</sup>. Sektore finantzarioak kazeta garrantzitsuenen jabe egin dira eta horrek eragina izan du egunkari horien ildo editorialean (gero eta eskuindarragoa), lan-taldeetan (Espainian 11.000 kazetari joan dira langabeziara 2008-2015 urtealdian) eta zuzendari aldaketetan (*El País*, *Abc*, *El Mundo* eta *La Vanguardia*, kasu). Aipatu artikuluan ageri zen hipotesia kezkarria zen oso: Espainian papereko prentsak kreditua irabazi du baina sinesgarritasuna galdu du. Langabeziara

<sup>52</sup> "Spain's News Media Are Squeezed by Government and Debt" in *The New York Times*, 2015/11/05.



joan diren kazetari horietako batzuek agerkari digitalak sortu dituzte. Era eta kolore guztietakoak daude, baina bai euskal gatazkaren inguruan zein Kataluniaren kasuan bestelako informazio ez-ofiziala jaso nahi duten sareko erabiltzaile askok webgune horietara jotzen dute. Horren adibide garbia da Vilaweb ([www.vilaweb.cat](http://www.vilaweb.cat)) gunea, egun Kataluniako lehen agerkari digitala dena (2014an hileko 370.000 erabiltzaile bakar eta 1.500.000 bisita zituen). Dena den, fenomeno horrek bestelako azterketa mereziko luke eta ez da hori ekarpen honen helburu nagusia.

### 3. Profesionalen autokritika (2015)

Euskal gatazkara bueltatuta, *El País* kazetako Luis Rodriguez Aizpeolea kazetariak "Euskal prentsak ETArek berunezko urteetan izandako jarreraz autokritika egin du"<sup>53</sup> erreportaje interesgarria argitaratu zuen 2015eko maiatzaren 5ean. Bertan *El Correo*, *Deia* eta *Berria* egunkarietako zuzendariek (Juan Carlos Martinez, Bingen Zupiria eta Martxelo Otamendi hurrenez hurren) eta *El Diario Vasco*ko Iritzi saileko arduradun eta EITBko zuzendari nagusi-ohi Alberto Suriok atzera begirako interesgarria egin zuten. Erreportariak nahiz elkarrizketatuek 50 urte baino gehiago zituzten eta urte askotako esperientzia metatua bizkar gainean.

*El Correo*ko zuzendariaren aburuz, bere kazeta gizartearen ispi-lu izan zen:

*Epel jokatu genuen. Garai hartako azalak hotzak, nahasiak, gatzgabeak ziren, ETArek erritmo infernutarrak bultzatuta, se-guru asko. Erailketa bat, adibidez, ez zen eguneko albiste nagusia. Euskal gizartea txundituta zegoen, ez zekien nola erreakzio-natu. Kazetek ez zuten behar besteko irmotasuna erakutsi eta, batik bat, ez ziren terrorismoaren biktimengana hurbildu.*

Kontuan izan behar da Euskal herriko kazeta garrantzitsuenak 90ko hamarkadan hasi zirela editorialak argitaratzen. *Dei*ko zuzendaria bera ere bat zetorren Martinezek egindako diagnostikoarekin:

*Fenomenoari eman zaion trataera asko aldatu da urteek aurrera egin ahala. Komunikabideek politikak markatutako lorratza segitu dute. Orduko eztabaida politikoan indarkeriaren arazoari irtenbidea ematea lehenesten zen biktimen kalterako (...) Behatzaileak izan ginen. Erratu ginen minarekiko sentiberatasun berezia izan behar delako.*

Gaur egun jokamolde hori asko aldatu delako pozik da Zupiria, baina, aldi berean, kezkatuta dago beste biktima batzuek —

---

<sup>53</sup> *La prensa vasca hace autocrítica de su actitud en los años de plomo de ETA*, *El País* (2015/05/05).

gerra zibilekoak, frankismoak eta talde para-polizialek eragindakoak edota estatuarenak bigarren mailakoak izaten jarraitzen dutelako.

Euskaldunon Egunkaria kazetako zuzendari izan zena eta egun Berriakoa dena, Martxelo Otamendi<sup>54</sup> ere, kritikoki mintzo zen bere buruaz:

*Ez genuen asmatu; komunikabide bakoitza bere biktimez arduratzen zen. Lubakietan geunden (...) profesio-kide ziren Lopez de Lacalle eta Olega hil zituztenean ere ez ginen gauza izan ezta beren familiak ikustera joateko. Gerora, Guardia Zibilak 2003an Egunkaria itxi zuenean ez genuen haiengandik elkartasuna jaso. Ordain bera jaso genuen orduan. Nork bere iraganaren azterketa kritikoa egin behar du.*

Alberto Surio<sup>55</sup> urte askoan El Diario Vasco kazetako korrespondentsal politikoa izan zen EITBko zuzendari nagusia (2009-2013) izan baino lehen. Berak aitortzen zuenez, Gregorio Ordoñez PPko zinegotzi donostiarren erailketak bereziki markatu zuen:

*Atentatu hark inpaktu itzela izan zuen gizartean. Komunikabideen kontzientziazioa gizartearenarekin batera joan zen. Orduan konpromisoz eta duintasunez jokatu genuela uste dut. Ez genuen egiten heroi izan nahi genuelako, baizik eta profesionalak ginelako.*

Era berean, ETaren amaiera elkarrizketatua lagundu zuela onartzen du:

*Euskadi emergentzia egoeran zegoen, konponbide demokratikoa behar zen, zauriak itxi eta ezker abertzalea sistematan txertatu. Ez zen zuri edo beltza. Kontraesanak zeuden. Zorionez, azkenean, lortu egin zen.*

Erreportajearen amaieran gogoeta hau egin zuen:

*Asko sufritu dugu, baina etapa berri hau ezin dugu mendeku gosez abiatu. Ramiro Pinillak dioen bezala, orrialdea pasa baino lehen irakurri egin behar da, batez ere etorkizuneko belaunaldietan pentsatuz.*

---

<sup>54</sup> Euskaldunon Egunkariaren aurkako operazioaren barruan, Martxelo Otamendi ere atxilotua izan zen beste zortzi pertsonekin batera. Guardia Zibilaren egoitzatik pasa eta gero, torturak salatu zituen. Espainiako epaileek bere salaketa artxibatu arren, 2012an Estrasburgoko Giza-Eskubideen Epaitegiak Espainiako estatua kondenatu egin zuen salaketa hura ez ikertzeagatik. 2010ean Audientzia Nazional absolutu egin zituen *Egunkaria* auzian auzipetuta zeuden pertsona guztiak.

<sup>55</sup> Beste hamarnaka kazetari bezala, Alberto Surio bera ere bizkartzainekin bizi behar izan zuen hamabi urtez, 2000-2012 urtealdian hain zuzen ere.

#### 4. Gibelsolasa

1975-2015 urtealdian prentsak euskal gatazkari eman dion trataera ulertzeko ondorengo faktore hauek kontuan hartu behar dira:

- Garaian garaiko testuinguru politikoa.
- ETAren jardunaren intentsitatea eta ezaugarritzea.
- Kazeten argitalpen-lekua.
- Egunkarien ildo editoriala.

Lau hamarraldi hauetan, aipatu faktoreek elkarreragin dute tai-gabe, batzuetan gatazkaren hauspogile eta besteetan baretzaile gisara. Urte askoan, desinformazioa, manipulazioa eta kode deontologikoen urraketa begi bistakoak izan badira ere, modu berean azpimarratu behar da, urte dezentetan, baldintza oso zailetan lan egin duten hainbat profesionalen jardun duin eta eraikitzailea. Prentsak euskal gatazkari eman dion trataera esfera poliedriko baten antzekoa izan da; aski zen esfera hori pittin bat mugitzea edo haren ardatza milimetro bat biratzea, gatazkaz jasotzen zen ikuspegia zeharo desberdina izateko.

Franco hil ondoren euskal politikagintzan sumatzen zen nahasmena islatu egin zen garai hartako prentsan ere. Dena berria zenez (erakundeak, alderdiak, sindikatuak, e.a.), irizpideak falta ziren eragile berri haiek izendatzeko, baita ETAren jarduna bera ere. Batzuetan irizpide falta zen nagusi; besteetan, irizpide desberdinak zeuden eta hori, berez, osasuntsua izan beharko litzateke. Kontua da, gaurko perspektibatik ikusita, zenbait jokabide harrigarri suertatzen direla.

ETAren jarduna gotortu eta gogortu ahala, Euskal Herriko eta Madrilgo prentsaren jarrerak definitzen, bateratzen eta argitzen joan ziren. Era berean, informazio kontrastatua, askea eta kritikoa zaildu, ildo editorialak polarizatu eta lubakietako kazetaritza tamaina hartzen joan ziren. Atentatu asko giltzarri izan dira ETAren historian, baina agian bereziena Miguel Angel Blancoren aurkakoa izan zen (1997). *Key event* bezala kalifikatu liteke, orduz geroztik prentsak bai ETA zein ezker abertzalearekiko hartu zuen jarrera askoz beligeranteagoa izan baitzen.

Gatazka armatua alde batera geratu den garaietan —Lizarraga-Garaziren hitzarmenak iraun zuen bitartean bereziki (1998-1999)— gatazka politikoaren ertzak begi-bistan gelditu dira. Orduan, beste faktoreen garrantzia nabarmendu dira: kazeten argitalpen-lekua eta bakoitzaren ildo editoriala. Euskal Herriko prentsak azken urteetan (2011-2015) hartu duen jarrera askoz eraikitzaileagoa izan da Madrilgoak baino. Inork bere ildo ideologikoari bizkar eman gabe, Euskal Herriko prentsak gehiago egin du adiskidetze, distentsioa eta konponbidearen alde. Horra hor, besteak beste, Vocento taldeko kazetek —Patxi Lopez sozialista lehendakaria zelarik— legez kanpo zegoen erakundeko bozemaile Rufi Etxeberriari egindako elkarrizketak (2012) edota EH

Bilduren buruzagien iritzi-artikulu esanguratsua —*Nuestra decisión, la paz— argitaratu zutenean (2015). Era berean, nabarmendu behar da Gara egunkariak (the Gara factor) bake prozesuari egin dion ekarpena. Izan ere, ezker abertzalearentzat oso zailak ziren urteetan (2007-2011) kazeta honen zuzendaritzak bultzatu eta erraztu egin zuen *estrategia politiko-militarretik soilik estrategia politikora* defenditzen zuen ildo. Hori gabe, agian, *estrategia* aldaketa hori ez zatekeen gauzatuko. Orobat, *Deia*-k, eta *Grupo Noticias* taldeko kazeta guziek, Berria egunkariarekin batera, ahalegin berezia egin dute alde bateko zein besteko biktimengana hurbiltzeko eta adiskidetzea errazteko.*

40 urte hauetan Euskal Herriko eta Madrilgo prentsaren portae-ran denetik egon da: euskal gatazkaren lekuko, parte, xaxatzaile, biktima eta konponbidearen sustatzaile izan da. Fase eta egoera guztietatik igaro da prentsa; gatazka bezala. Konfrontazioaren gordinak bete-betean jo du sektorea lau hamarraldi hauetan: alde bateko eta besteko kazetarien erailketak, jazarpenak, egunkarien itxierak, atentatuak, torturak eta kartzelatzeak izan dira. Egoera horretan gaiarekiko distantzia mantentzea eta informazio jardun askea sustatzea oso zaila bilakatu da. Protagonistak horren jabe dira. Autokritika egiteko prest dira orain, duela 20 urte zeuden bezala. Jarrera autokritiko hori, baina, Euskal Herriko kazetarien artean sumatzen da batik bat. Madrilgo prentsa, oro har, ez dago tenore horretan, lehengo fasean geratu da, euskal gatazkaren izaera politikoa ez baitute oraindik onartu.

Amaitzeko gogoeta apala: Euskal gatazkak, Kataluniako prozesu subiranistak bezala, Espainiako *statu quo* ukitzen du. Espainiako estatuko prentsan izan diren aldaketak kontuan izanda, utopikoegia litzateke prentsak marko juridikoaren aldaketa bultzatuko duela pentsatzea. Ez duela 40 urte, ezta oraingoan ere.

## 5. Bibliografia

ARMENTIA, Jose Inazio; CAMINOS José María; GONZÁLEZ ABRISKETA, Marian; PALAZIO Gorka Jakobe; RAMÍREZ de la PISCINA, Txema (EHUKI taldea) (1997): *Ajuria Eneko Ituna mezubideetan: Bakerako bidea ala aztoramen iturria?*, Gasteiz, Arabera.

BATISTA Antoni (2001): *Euskadi sin prejuicios*, Bartzelona, Plaza & Janes.

BEZUNARTEA, Ofa (2013): *Memorias de la Violencia. Profesores, periodistas y jueces que ETA mandó al exilio*, Kordoba, Alfaguara.

BORRAT, Héctor (1989): *Periodico, el actor político*, Bartzelona, Gustavo Gili.

CAMINOS, José María; ARMENTIA José Ignacio eta MARIN Flora (2013): "El asesinato de Miguel Ángel Blanco como ejemplo de *key event* en el tratamiento mediático de los atentados mortales de ETA", *AdComunica. Revista de Estrategias, Tendencias e Innovación en Comunicación*, 2013, nº6 / ISSN 2174-0992.

GALTUNG, Johan (1998): *Tras la violencia 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución*, Gernika, Bakeaz-Gernika gogoratzuz. IDOYAGA, Petxo eta RAMIREZ de la PISCINA, Txema (2002a): *(In)komunikazioaren atarian. Prentsa eta euskal gatazka*, Irun, Alberdania.

IDOYAGA, Petxo eta RAMIREZ de la PISCINA, Txema (2002b): *Al filo de la (in)comunicación. Prensa y conflicto vasco*, Madril, Fundamentos.

KEPPLINGER, Hans Mathias eta HABERMEIER, Johanna (1995). "The impact of Key Events on the Representation of Reality", in *European Journal of Communication*, vol. 10 (3), 271-390.

MERODIO, Iker (2010): *Análisis de editoriales e informaciones sobre el Plan Ibarretxe en la prensa generalista española de 2001 a 2006*, Doktorego tesia, UPV/EHU.

MINDER, Raphael (2015): "Spain's News Media Are Squeezed by Government and Debt" in *The New York Times*, 2015/11/05/ Internet-en eskuragarri. <http://www.nytimes.com/2015/11/06/world/europe/as-spains-media-industry-changes-rapidly-some-worry-about-objectivity.html> [Kontsulta eguna: 2015/11/25]

MURUA, Imanol (2014): *The End of ETA (2007-2011): Narratives from the Media and from the Actors* doktorego tesia, Reno, University of Nevada.

RODRIGUEZ AIZPEOLEA, Luis (2015): "La prensa vasca hace autocrítica de su actitud en los años de plomo de ETA", *El País* (2015/05/05) Interneten eskuragarri [http://politica.elpais.com/politica/2015/05/05/actualidad/1430853441\\_737112.html](http://politica.elpais.com/politica/2015/05/05/actualidad/1430853441_737112.html) [Kontsulta eguna 2015/10/26].

## **ZER EKARPEN EGIN DIEZAIOKETE HEDABIDEEK BAKEARI?**

Kazetaritza eta hedabideak lagungarriak izan daitezke bizikidetzaren sendotzeko zereginetan. Jakintza Elkarrizketak jardunaldiko lehen egunean hedabideei buruz adierazi zenez, horretarako lehen urrats bat kazetaritzaren deontologia etikari, zintzotasunari eta independentziari lotzea eta informazioaren tratamendua interes politiko eta alderdikoietatik aldentzea litzateke. Euskal errealitatea poliedrikoa da, errealitate horren inguruko ikuspuntu ezberdinak adierazten dituzten gizarte-espazio eta ahots askok osatzen dute. Horregatik, garrantzitsua litzateke hedabi-

de guztietan ikusgai egitea euskal gizartean ageri diren ahots, iritzi, ikuspegi eta sentsibilitate horiek guztiak, errealitatearen ikusmolde zabalagoak garatzea ahalbidetzeko. Era berean, iraganean oinaze bakarra, norbere ingurukoena, existitzen eta airtortzen zela aipatu da. Horregatik, egiaranzko pausoak ematea komeniko litzateke, besteen oinazea, gertatutakoaren ñabardurak, azaleratuz eta herritarrei hitza emanez, eta jendearen eguneroko errealitatera hurbiltzea, askotariko ikuspegiak erakusten dituzten tresna berrien bitartez, esaterako: dokumentalen edo erreportajeen bidez. Egokia litzateke agian bake-kazetaritzaren printzipioa aplikatzea, hots, indarkeriaren fetitxismoa gainditzea eta bakeari garrantzi handiagoa ematea indarkeriarekiko, morboarekiko eta pornografia ideologikoarekiko «mendekotasuna» saihesteko. Hedabideen lan-moldean horien demokratizazioan aurrerapausoak ematea ekarriko duten aldaketak egiteko aukera da aipatu beharreko azken alderdia.

## ERANSKINA. JAKINTZA ELKARRIZKETAKO OPEN SPACEN AKTAK

*Jakintza Elkarrizketa* jardunaldien bigarren egunak helburu bikoitza izan zuen: alde batetik, Euskadin bakea sendotzeari buruzko ezagutzaren talde-erakuntzan sakontzea, eta, bestetik, ekintza zehatzak agerrarazten laguntzea, horiek UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen eta bakearen alde lan egiten duten gizarte-erakundeen artean gauzatu ahal izateko. Helburu bikoitz hori lortzeko, solasaldi-gune bat planteatu zen, irekia, malgua eta parte-hartzaileen interesetara egokitua; askotariko ideiak, jardunbideak eta borondateak izan arren Euskadin bakea sendotzearen aldeko jarreran bat egiten duten pertsonen artean sinergiak ezartzeko modua emango lukeen gune bat.

Elkarrizketa-topaketan guztira 30 pertsonak hartu zuten parte. Erabilitako tresnak, Open Space Technology izenekoak, parte-hartzaileei jardunaldian zer gai landu erabakitzea ahalbidetu zien, betiere ardatza Euskal Herriko bake-erakuntza izanik. Elkarrizketa-topaketari hasiera emateko, parte-hartzaileek aurreko egunean zer jakintza sortu zuten irakurri zen, hau da, mahai tematiko bakoitzean talde txikitik hitz egin ondoren proposatu ziren ideien «uzta». Aurreko eguneko lanak eragindako jakintza-oinarria zehaztuta, Open Space Technology bidezko lan-dinamika definitzen duten elementuak aurkeztu ziren, eta, ondoren, Euskadiko bake-erakuntzarekin lotuta jorratu nahi zituzten gaiak proposatzeko gonbidapena luzatu zitzaizen parte-hartzaileei. Hala, goizean lantzekoak ziren gaien zerrenda finkatu zen, eta guztira elkarrizketarako hamar mahai tematiko antolatu ziren, bi ordutegi-tarte bereizitan.

Jardunaldiaren bigarren erdiaren hasieran, lehen atalean landutako gaiak kontuan edukita Euskadiko bake-erakuntzaren alde gauzatu daitezkeen ekintzak proposatzeko eskatu zitzaizen parte-hartzaileei, eta hala, bederatzi proposamen zehatz sortu

eta elkarrizketa-gune banatan garatu ziren. Jardunaldien emaitza modura, jarraian aurkeztuko dugun dokumentua sortu zen, elkarrizketa-guneetako aktez osatua.

## SOLASALDIAK

### 1. ERNIO GUNEA

Nola irakats dakiguke familian, eskolan, unibertsitatean, gizartean... pluraltasuna balioesten, ideia desberdinak errespetatu eta eztabaidatzen -beti hitzaren eta indarkeriarik gabeko ekin-tzen bidez-, beldurrak eragindako isilaldiak saihesten...?

- Nola gainditu ditzakegu belaunaldien arteko distantziak?
- Kontatzeko eta entzuteko estrategiak.
- Iturrien garrantzia. Hainbat iturri eskaintzea: hau nire historia da, baina historia gehiago daude.
- Bada kontuan eduki beharko genukeen aldagai bat. Berriz ez gertatzea bermatzeko, gaurkotasunarekin lotu beharra dago.
- Balioak, teknikak eta kritika onartzen irakatsi.
- Kritikak entzuten eta egiten irakatsi.
- Ez gara demokratiko jaiotzen, ez gara dibertsitatea balioetsiz indarkeria baztertzeko gai jaiotzen; gizartean norbere borondatez egiten den ekintza bat da. Gizabako bakoitzak, belaunaldi bakoitzak gizartean egin beharreko lana da.
- Barkatzen erakustea, gaizkian pentsatzen duen pertsona bat interpretatzeko bertutea.
- Minaren ardura hartzen erakustea, erantzukizun bat onartzen.
- «Sentitzen dut» eta «barkatu» esamoldeen arteko aldeak («barkatu» horrek beste pertsona baten erantzuna eskatzen duela ematen du).
- Laguntzen erakustea, entzuteko desagertzen, norbaiti bere zamaren zati bat eman diezagun laguntzea.
- Gertatzen zaigunaren aurrean daukagun jarrera garrantzitsua da, baina ezin gaitezke individualismoan eta elkartasun faltan erori.
- Berehalakotasunaren frenesia, azkartasuna, zeregin anitzak... zalantzan jartzen irakastea.

**OSELE 2016. Donostia Maiatzak 11-13. (Open Space European Learning Exchange) Europa mailako fasilitadoreen topaketa.**

2016ko maiatzaren 10-13 artean Tabakaleran (Donostia) Open Space Technology (Gune Irekia, Foro Abierto) fasilitadoreen, sustatzaileen eta zaleen topaketa izango da. Gune Irekiari buruz hausnartzeko, sakontzeko, aktibatze eta saretzeko aukera itzela. Nazioarteko aditu ugari eta bertakoak nahas-nahasean egun bi eta erdiko Gune Irekian. Gonbitatuta zaude parte hartzera tal-



de eragilean ere bai. Prestatzeko bilera egingo dugu Tabakalera abenduaren 21ean, 11etatik 14etara, eta nahi baduzu bertan agertu zaitezke, tarte labur baten bada ere.

Elkarrizketan OSELEren pretaketari lotutako gai batzuk agertu dira.

- Fazilitazioa nork eta nola egin dezakeen.
- Lotarako tokiak donostiarrek eurek eskaintzeko aukera, alde bitarako aberasgarria delako (Elena).
- Donostia sasoi horretan toki ugari okupatuta izan daitekeela aurrikusita, gonbidapen testua laster zabaldu, jendeak tokia erreserbatzeko erreztasuna izateko.
- Finantzazioa eta matrikula. Laster erabaki beharrekoa. Norberaren gain utzita erabakia (ezer ordaindu gabe parte hartzea barne), orientazio moduan kopuru hauek ezarri ditzakegu.
- 20-30€ diru gutxigaz dabilanarentzat (ikasle, soldata-bakoentzat,...)
- 100€ autonomo, freelance,...
- 250€ (enpresak, unibertsitateak,... norbere lantokiaren kargu ordaindu ahal dutenak).

Elena galdera bat: nola funtzionatu dezake enpresa/kolektibo batek egunerakoan OS metodoaren bidez? Badaude esperientziak? Bai, eta dextente dago idatzita nazioarteko OS zerrendan (Oslis, ingelesez). Artxiboetan begiratuta, (online eta debalde) informazio ugari aurkitu dezakegu.

Azkenik, OSELEri buruz eta Gune Irekiari buruz hizketan jarraitzeko, Gune Irekiaren Lagunen eposta zerrendan izena eman dezakezu. Horretako, bosonos13@gamil.com-era idatzi.

Merzi!

## 2. GORBEA GUNEA

**Zer da bakea edo zer jotzen dugu baketzat hemen eta orain?**

- «Ez dago bakerako biderik; bakea da bidea».
- Justizia, oroimena eta egia biltzen dituen bakea.
- Bake barne-hartzailea: emakumeak, ahaztutakoak, zuzeneko biktimak (oinazeen «harrapatutakoak»), biktimen «rola» aukeratzeko dutenak).
- Bake boluntarioa (bakea ez da inposizio bat).
- Berdintasunezko bakea.
- Pertsonak ardatz dituen bakea; gizarte-mugimenduen laguntzaz ahalduko beharreko pertsonak.
- Bake dibertigarria, umoretsua, interesgarria...
- Baina... bizitzan beti daude gatazkak. Nola konpondu? Bakearen kultura, gatazken kudeaketa, gizarte-ereduak aldatzea (telebista...). Hezkuntzaren bitartez.

**Oroimena(k), kontakizuna(k), egia. Nola eratu daitezke adostasunak hain gai konplexuen inguruan?**

**Oroimen historikoa: konpromisoa, aintzatespena, ordaina, justizia. Gatazka, non dago muga?**

**Giza eskubideen kultura: indarkeria, duintasuna, parte-hartzea, ongizatea...**

**Nola lor daiteke justizia? Justizia, bakerako beharrezko baldintza.**

- Kontakizunaren monopolioa eskuratzeko borroka, garaileak eta garaituak; horrela zaila da ixtea eta berriz ez gertatzea.
- Indarkeria ikusezinaren iraunkortasuna.
- Kontakizun bakarra inposatzea akatsa da.
- Egiaren inguruko adostasuna, giza eskubideen urraketak.
- Zenbait egia (egiletza) ez dira ezagutuko.
- Kontakizun barne-hartzaileak, poliedrikoak.
- Gauzak gizarte-testuinguru batean sortzen dira.
- Oroimen historikoa giza eskubideekin lotuta dago, bai eta hura aldarrikatzen duten edo bizi izan duten pertsonak egotearekin ere.
- Nola itxi daitezke zauri zaharrak (gerra zibila)?
- Eta transmisioa? Gure seme-alabek ez dute oraintsuko historia ezagutzen... «Historia ezagutzen ez duena errepi-katzera behartuta dago».
- Enpatia bilatzea eta aurreiritziak baztertzea.

### 3. KALAMUA GUNEA

**Hipotesia: ETAREN sorrera sustatu zuten balioen eta filosofiarren ordeztasun batzuk ezarri ziren.**

**Historiatik ikasi etorkizuna eraikitzeko.**

ETA sortu zenean (1958), euskal gizartearen zati handi batek (erbestean zegoenak ere bai) askatasunaren aldeko borroka-mugimendutzat jotzen zuen, diktadura frankistak eragindako zapalkuntza-testuinguru batean. Hasieran, eztabaida intelektualak garrantzi handia izan zuen ETAREN baitan. Urteak igaro ahala, ETAREN jardueraren bilakaerak berak (ankerkeriak ikuspuntu etikotik, giza eskubideen urraketa nabarmenak) euskal gizartearen zati handi batek apurka-apurka bizkarra ematea eragin zuen. Horrekin batera, erakundea gero eta gehiago hierarkizatu eta militarizatu zen. Ondorioz, barne-elkarrizketarako bideak zaildu eta galarazi zituen eta, gainera, bere ikuspuntuak inposatu zizkien bai bere adar politikoari bai gizarte osoari. Hala, azkenean, gizartearentzat zama bilakatu zen.

**Ikusezinen bilaketa etengabea.**

**Adindunak eta bakearen eraikuntza: belaunaldien arteko alderdiak. Nola sor daitezke entzuteko guneak beren bizitzaren azken zatian sufritzen jarraitzen duten pertsonekin?**

**Nola era daitezke igarotzeko moduko guneak/bideak muturretan egon gabe beren burua dinamiketan harrapatuta ikusi duten horientzat?**

- Emakumeak ikusgai egitea. Mikromatxismo-ekintzak.
- Uko egitea, M<sup>a</sup> Luz Esteban. Uko egitearen kontzeptua: boterea ez da amaigabea, talde bat ahaldundu ahal izateko, boteretsuak bere boterearen zati bati uko egin behar dio.
- Euskara ikustarazi: zegatik ezer esan gabe talde txikietan erdaraz hasten gara.
- Etorkinak. Nola erakarri etorkinak mota honetako foroetara? Eta zertarako erakarri? Eginkorrek izan behar dira ere.
- Beste ikusezinak: umeak, agureak.
- Idazteko zailtasunak dituztenak.

#### 4. ANBOTO GUNEA

***Dibertsizitza:*** dibertsitatean elkarrekin bizitzea. Nortasun anizkun irekiak, gatazkaren aurkako txertoa.

**Gatazka, nola bizi duzu? Nola irudikatzen duzu polaritateen arteko tentsioa? Zerk aztoratzen gaitu? Egunerokoan, zer keinu, zer begirada, zer egoera? Nola sentitzen gara? Nola heldu nahiko genieke?**

**Gatazka - gatazkak. Bakea - bakeak. Mikrotik makrora eta bakearen zeharkakotasuna pertsonengan eta alorretan.**

**Indarkeria (gatazken erantzun gisa), egunerokoan dituen ondorioak... Ikusgai egitea.**

**Enpatia bilatzea eta aurreiritziak baztertzea.**

- Pertsona batek hainbat nortasun dauka, ezagutza.
- Pertsona bat rol/etiketa batean sartzen saiatzea.
- Maila praktikokoan, egunerokoan, nola eragiten digu?
- Gatazken orokortasuna eta konplexutasuna. Gatazka guztiena (euskal gatazka, zaborrak, Donostialdeako metroa, San Martzial...). Zer egin daiteke egunerokoan gatazka gauza positibo moduan ulertzeko? Eguneroko ekintzetan.
- Gatazka: bestearen ezberdintasunaren aurrean behartuta edo mehatxatuta sentitzen garenean sortzen da. Indarkeriazko sentimendu hori norberarena dela ulertzea, ez dela bestearen errua, norberaren erantzukizuna dela.
- Enpatiaren garrantzia. Bakoitza bere tokian egon ahal izatea, bestearen alboan egoteko, aurreiritziak gainditzeko.
- Norbere nortasunaren lanketa, norbere nortasun sendoa edo egonkorra sortzeko lanketa. Berezko beldurrak lantzea. Zer naiz ni? Zer egiten dut hemen?
- Norberaren nortasuna zerbait orokorragoa izan daiteke, komunitate baten zati, hain indibiduala izan gabe.
- Nortasun-itxitasuna: ez gara gauza bat edo ez daukagu nortasun bakarra; aldatu egiten gara, eboluzionatzen dugu... Jakitea eta onartzea. Aldatzea eragozten diguten estereotipoak, etiketak.
- Gatazkaren aurrean nola aritu elkarrizketan: zartada bat eman edo hitz egitera eseri. Bata azkarragoa da eta gutxiago kostatzen da; besteak lana eta ardura eskatzen du.
- Ikusezin bihurtutako indarkeriak, txikiagoak... ez ikusi ez lantzen ez direnak.

- Hezkuntzan ez ditugu gauza horiek jorratzen.
- Eskolan nortasunak pasiboki hartzen ditugu; haurrak ez dira aktiboak. Ez gara protagonistak. Hezkuntzak hobera egin du, baina asko dago hobetzeko.
- Eskolako kirolean gatazka eta lehiakortasun handia dago.
- Egunerokoan, mikro mailan, eragiten diguten zenbait gatazka daude: alardea, zaborrak... Baina ez gara ohartzen edo ez zaio garrantzirik ematen.
- Kuadrillak oso itxiak dira, kuadrillen artean indarkeria dago; kritikak, posesibotasuna, abegikortasunik eza...
- Baita euskaraz hitz egin eta beste pertsona bat deseroso sentitzen denean ere. Ez al dugu ezer egiten horren aurrean? Babes-erreakzioak.
- Gatazkak konpontzeko kultura falta.
- Irekitzeko eta besteari harrera egiteko beharra.
- Eskema apurtu behar dugu! Ahalegina egin behar da, egoe-rak unean bertan argitu.
- Pertsona ezberdinekin elkartu behar dugu, horrek urdaila nahasten badigu ere.
- Nola has gaitezke? Komunean ditugun gauzak, positiboak, bilatzen.
- Hizkuntza-indarkeria: bakoitzak bere buruarekin bakean egon behar du.
- Etiketen arazoa: ideologiak beste nortasun batzuk ditu, gizar-teak mikroetiketak ditu. Politika: Euskadi edo Euskal herria hitzak erabiltzen baditugu etiketa jartzen digute.
- Sormenezko alternatibak bilatu, euskara hizkuntza gutxitua izanik hitzaldiak interprete batez lagunduta eman daitezke.
- Hizkuntzak komunikatzeko modu bat izan behar du, ez bandera bat. Euskaldun bati gogaikarria gerta dakioke Euskadiko beste pertsona batek, alferkeria dela-eta, euskaraz hitz egin edo euskara ikasi nahi ez izatea.
- Euskal Herriko elebiduntasunaren erabilerari buruzko Open Space bat antolatuko da (Eleder).

### **Nola iritsi beren biktima-rola gainditzea lortzen ez duten biktimgana?**

- «Bizirik atera dena» terminoa gehiago gustatzen zait. Zer egiten dugu minak suntsitu ez gaitzan?
- Biktima batek ezin dio beste biktima bati esan nolakoa izan behar duen (Consuelo Ordóñezek Bárbara Dührkopi bidalitako eskutitz batean, «benetako biktima» baten modura ez jokatzearpegiatu zion).
- Politizatu gabeko gune publikoak sortzea.
- Batzuek beren mina bakardadean bizi nahiko dute; beste batzuek beren bizitzaren leitmotiv bilakatu nahiko dute. Eta hori guztia herri batzuetan gizar-tearen babesik haute-maten ez bada.
- Gizarte- eta osasun-zerbitzuek prestakuntza eta baliabide hobeak eduki beharko lituzkete, suspertzea eta ordaina lantzeko norbait eduki.

- Justizia eskura izatea oso zaila da. Beste justizia mota batzuetan pentsatu.
- Genero-indarkeriaren kasuan, antzeko auziak gertatzen dira finkapenari dagokionez, ahalduntzerik gabeko biktima izateari dagokionez.
- Pertsonak biktima bihurtu dituzten gertaerek eragindako kalte soziala biktimizazioan finkatu da.
- Ordain materiala, hitzik gabea, laguntzarik gabea eta sinbolikoa bada, ez da nahikoa.

## 5. AIZKORRI GUNEA

**Emakumeen funtzioa edo parte-hartzea bake-prozesuetan. Ahaztuetan ahaztuenak.**

**Emakumeen parte-hartzea, beti.**

- Emakumea Errepublikan.
- Diktadura izugarria izan zen, bereziki emakumeentzat.
- Berdintasunik eza.
- Barne-kontraesanak.
- Emakume-eredua politikan: lanbidearengatik bere bizitzari uko egitea.
- Gizon bat erakargarriagoa izan daiteke enpresa batentzat emakume bat baino.
- Emakumeen eskubideen arazoa.
- Euskadiko oraintsuko immigrazioa.
- Emakumeentzat arazoak ugaritu egiten dira.
- Emakumeen aurkako sexu-erasoak.
- Emakumearen biktimatasuna.
- Bake-eraikitzaileak.
- Gizonaren rola.
- Emakumearen rola.
- Emakumeek politikaren lehen lerroan parte hartzeko errezeloak dituzte.
- Gizonen erantzukizuna.
- Emakumeei lider izaten laguntzen dieten gizonak zailtasun handiagoak dituzte.

**Nola nahas ditzakegu herritarrak bake-prozesuan?**

**Nola birkokatu gizarte antolatua?**

**Bakea: nola? Umorea, amorea, dibertsioa, sormena, holistikoa...**

- Bake-prozesuaren inguruko tokian-tokiko ekimen ugari dago, mikroagoak (Baketik, Bakeola...). Nahasmendu handia egon arren, EH mailan ez dago egitura bateratzailerik. Batasuna, elkartasuna garrantzitsuak dira. Tokiko mailan lan egin beharra dago, baina baita bateratzeko eta baliabideak optimizatzeko sare bat sortu beharra ere.
- Nola sentitzen gara pertsona moduan? Gizarte zibila da ardatza. Jolas-guneak sortzea, parte hartzekoak, tera-

peutikoak, meditazio-guneak, topaguneak, sentimenduen bidez topo egitea. Gune barne-hartzaileak sortzea, banderarik eta alderdi politikorik gabeak, guztiak bateratzeko. Pertsona guztientzako guneak sortzea, ez jarrera irekia-goia dugunontzat soilik.

## PROPOSAMENAK

### 1. ERNIO GUNEA

**Gaur” hemen egin duguna ezagutarazi - “tantaz tanta itxasoa gara”.**

- Hedatzea
- Esperientziak batzea, ekimenak biltzeko eta ikusgai egiteko toki bat.
- Jardunbide egokiak. Lotura bat ikusi ahal izateko, ikusgai egiteko, plataforma bat.
- Gune positiboak. Jarduera gauza positibo moduan saltzea. Umorea...
- «Bideoko» esperientzia.
- Sarean gune bat ikusgai egitea, harremanen arloa alde batera utzi gabe. Proiektua ikusi eta konektatu ahal izatea partekatzeko. Materiala, prozesuak, ekintzak (eragileak, hezitzaileak, familia), jardunbide egokiak. Instituzioak, Elkarten Foroa... Erraz irits dadila.
- EHUko aldizkarian ezagutzera ematea - Xavi.
- Izenburu hurbilagoak eta posibleak bilatu; «eguneroko gaiak bilatu».
- Bideo soila. Lau grabaketa eta lau argazki.

**Akademiaren, bake-kultura sustatzearen alde lan egiten duten erakundeen eta herritarren artean jakintza trukatzeko plataforma bat sortzea!!! Online? Aldian aldiko topaketak?**

Zer? Formatu digitaleko plataforma bat, hainbat mailatakoa, eta umotuta dagoenean, topaketa fisiko batera pasatzea.

Mailak:

- Akademikoa (etengabe zentralizatutako informazioa, trukatua)
- Erakundeak
- Herritarrak

Nola? Gaiaren inguruko proiektuei, argitalpenei, jardueri eta esku-hartzei buruzko informazioa. Herritarrentzako foroa. Ahots-postontzia?

Nor? Askotariko eragileak: parte-hartzaileak dibertsifikatzea, jende «ezatsegina» barne hartzea. Endogamiatik irtetea. Ez dai-

tezela beti berberak izan. Pertsona jakinak, ez da beharrezkoa instituzioak edo erakundeak izatea.

Non? Unibertsitatetik (aterkia, «neutraltasuna»), zenbait he-  
dabideren konplizitatearekin (adib. UPV/EHU + Deusto + EITB).

Nazioartera irekia, ez Euskal Herrira mugatua.

Nola konbentzitu «ezatseginak»? Eragin handiko bitarteko kon-  
taktuak bilatu (komunikazio-gaitasuna duten pertsonak, ez mu-  
turrekoak, ezta ikusmolde polarizatua dutenak ere). Forma iru-  
dimentsuak. Anonimotasuna bermatzea: nortasunari buruzko  
informazioa biltzen da, baina ez da haren publizitaterik egiten.

Gaia mugatzea: bete beharreko arauen premia; bestela,  
arau-hausleak kanporatu daitezke. Bakoitzak gaiak libreki pro-  
posa ditzake.

Ideologia ezberdineko pertsonen arteko elkarrizketak. Elkarri-  
zketa horiek ikusmolde ezberdinen arteko «zubi» baten funtzioa  
beteko lukete.

Eraginaren-neurketa: plataforma digitalek ikus-entzuleak, oi-  
hartzuna, biraltasuna... neurtzea ahalbidetzen dute, eragina  
kuantifikatu eta erraz hedatzen da.

Parte-hartzaileen pluraltasuna (ikuspuntu berriak dakartzan  
jendea): Elizako kideak. Etorकिनak. Gizartearen «ertzak» bilatzea.  
Kategoria klasikoak apurtzea, diskurtso zirkularra murrizteko,  
horretatik ez baita ezer ikasten.

## 2. GORBEA GUNEA

**Belaunaldien arteko transmisioa.**

**Ezberdina denaren irakurketa egiteko eta berari entzuteko ja-  
rrera irekia izatea.**

**Ezberdinekiko enpatia lantzea.**

**Bihartik lanean hasi. Gabonetako erronkak. Zortzi irizpide  
konpartitu gaur landutako gaiak etxean lantzeko.**

- Beste belaunaldi batzuekin, beste adin batzuekin, beste eduki batzuk komunikatzea.
- Ekarpinak egitea, gai berriak erantsita; umorez, nork bere buruaz barre eginez.
- Isiltasuna. Gure seme-alabei azaltzen diegunak haiengan edo familiarengan izango dituen ondorioen beldurra. Oroimen historikoko ariketa.
- Trauma bat dago. Nola landu trauma hori?
- Gure gurasoei (aiton-amonei) «kontatzen» utzi behar diegu.
- Kontakizunetako gauza positiboak ere berreskuratu. Bizipe-  
netako xehetasun horiek, subjektiboak. Jendeak askata-



sun osoz hitz egiteko esparruak/guneak sortzea. Kanpoko norbait gonbidatzea.

- Angeles Arrien, abestea, dantzatzea, istorioak kontatzen gustura egotea. Bermuta hartzea (drogak, tresna terapeutiko gisa).

**Biktimekin eztabaidatzeko taldeekin egiten diren ikerketetan, gizarteko kideak ere gonbidatzea (dibertsitatea eta ikusezinen bihurtutakoak barne hartuta).**

**Talde edo kolektibo bakezaleetako kideak ere unibertsitate-ikasleekin ikasgelan egiten diren elkarrizketetan parte hartzera gonbidatzea, beraien bizipenak eta esperientziak etorkizunera begira partekatzen (orain hainbat talde terroristaren eta giza eskubideen urraketen biktimekin baino ez dugu egiten).**

Zer? Biktimez gain, indarkeriaren eragina edo kaltea sufritu duten beste pertsona batzuk (horietako asko ikusezin bihurtu dira) unibertsitateko geletara, eta abar eramatea.

Nola? Dibertsitatea barne hartzeko, agian hobe litzateke hainbat esperientzia interpelatzaile jasotzen dituen bideo polifoniko bat. Aldi berean, ikasleei ere galdetzea beren familietan izandako bizipenen inguruan.

Noiz? Hainbat fakultatetako ikasgeletan, urte-mugarik gabe.

### 3. KALAMUA GUNEA

**Euskal gizartea aniztasun ideologikoa eta identitarioari (hizkuntza azpimarratuz) buruzko elkarrizketak sustatu ikaste-txeetan.**

**Ez-biolentziarekin jolastu. Umeak (txikiak, haurrak) adin bat dago noiz hortatik aurrera gauza gogorrei buruz hitz egin daiteken?**

- Euskera. Teoriatik praktikara. Formatoa: hitz egin.
- Akatsa: eskola bat homogenea izan dadin nahi izatea. Horregatik, ikastetxeek ez dute Eusko Jaurlaritzaren planak gauzatzen jakin.
- Non dago akatsa? Haurrak zergatik hasten dira gaztelaniaz hizketan eskolatik ateratakoan? Hizkuntza gorroto dute? Gorrotarazi diete?
- Eskolak ezin du ordezkatu familian, lagun artean, etab. Pasatzen den denbora eta kontsumitzen den hizkuntza.
- Unibertsitatea: klase bakarra euskeraz.
- Hizkuntzen maila oso makala da. Orduan, hizkuntzak irakasteko modua ez da egokia?
- Konponbidea: horri buruz hitz egitea, haurrek ere bai, «gorroto dut», «atsegin dut»... esateko aske izatea. Haurrak protagonista. Haurrek egin ditzatela proposamenak: Parlamentu Pirata, aldian behin elkartzea, 5-12 urte bitartean edo dena delako adinean.

- Proposamena: Hizkuntzari buruzko Open Spacea, geletan, ikastetxeetan. Eusko Jaurlaritzaren planen barruko plana.
- Ez-biolentzia jolastu
- Eskoletan dibertsitatea onartzea.
- Helburua: gatazka positibotzat hartzea.

**Gizarte-gatazken aurreko protokoloa. Nola jokatu egoera horietan? Gure jarduketak sendotzea/ahalduntzea. Zapalduaren antzezpena?**

- Zerbitzu publikoetan dauden gabeziak. Gizarte Zerbitzuetan protokolo asko daude baina mailak daude.
- Mikroindarkeriak gaituz lortu gauzak aldatzea, bestea.
- Zerbitzu publiko bat egin behar da gatazka horiek sendo eta fundamentuz tratatzeko.
- Protokoloak askotan kontraemankorrak dira. Denuntziatzea bultzatzen da baina mobiola batean sartzen da biktima. Agian, merezi ez duena.
- Zeharka jokatu: pertsona horren bizkarrean zabaldu nola jokatu duen, hori okerragoa izan daiteke, berarengana iritsi arte.
- Nori: DBH mailan esan da hurrei / auzo mailan gurasoekin.
- Zer: Zelan landu harremanak bikotekideen artean. Zelan landu maitasuna harremanetan oro har (lagun, familia...). Zelan landu auzolanean indarkeria txikitzeko. Dibertigarria izan behar da, umorea erabiiz edo eramangarria eginez.
- Zapalduen antzerkiaren metodologia moduan erabili datieke. Egoera konfliktiboak antzeztuz, hausnartu honegaz eta gero aukerak esploratu.

#### 4. ANBOTO GUNEA

**Justizia konponarazleko laborategi/gune bat eraikitzea, justizia konponarazleko praktikak mikro, meso eta makro mailetan dinamizatzeko.**

Zer? Justizia konpontzaileko praktiketarako laborategi/gune bat.

Nola? Finantzaketa txiki bat lortzea espazio fisiko bat edukitzeko, baina autokudeaketa eta independentzia defendatuz. Batez ere gaitasuna duten boluntarioek egingo lukete lan bertan. Konponketa-balioei buruzko topaketak, praktikak, harremanak eta informazioa ahalbidetuko lituzkete (gizarte, oro har, barne hartuta).

Postontzi bat edukiko du, biktimek, jendeak... bertan bere barkamen-mezuak eta barkamena eskatzeko mezuak uzteko, edo, besterik gabe, ordainari begira zerbait adierazteko edo errespetuz hitz egiteko.

Noiz? Gunea sortu eta denbora-mugarik ez jartzea.

Nor?

- Mikro: askotariko urraketak sufritu dituzten biktimen eta urraketa horien erantzukizuna (nahitaez penala izan gabe) beren gain hartzen duten pertsonen arteko konpontze-topaketak (biktimen artean hainbat talde terroristenak sartuta, ez ETArenek bakarrik).
- Meso: seme-alaben arteko topaketak bideratzea. Ateratzen diren preso-taldeen eta Foroaren artean.
- Makro: instituzio- edo gizarte-mailako barkamen-eskea ahalbidetzea.


**Ingurune bideratzaileak. Espazioak eraldatuz autosufizientzia «bideratzailea», autoebaluazioa, autokudeaketa sustatzeko tresnak.**

- Nola sortu inzpideak gure arreta beste eremu batzuetara luzatzeko.
  - Efizientzia helburu ekonomikoetaz hartago kokatu.
  - Emozioak kudeaketaren barne sortu.
  - Langileen satsifikazio maila neurtu?
- Maitasuna landu. Lana norberaren partetzat hartzea, ez ingurune isolatutzat. Lotura organikoa. Arazoa batzutan/ askotan denbora falta izaten da.
- Rolek bereiztu.
  - Sustatzale ≠ bideratzaile
  - Espazioa libre egon dadila
  - Beti kanpoko norbaitek egon behar du hau egin ahal izateko? Hasieran agian bai, jendearen erreakzioa ezagutu hartu.
- Drive (liburua)
- Autonomia, nola? Noiz? Norekin?
- Xedea.
- Maisutasuna.
- Alderdi soziala prozesu guztien (teknikoenak ere) berezko osagai moduan.
- Enpresa, kolektibo gisara.
- *Building learning organizations* (ezagutzatik ikasteko gaitasunera).
- *Leading change*, gure erakundearen aldaketa gauzatzeko 8 urrats.
- Zeharkako ikuspegia izatea funtsezkoa da, pertsona erdigunean.
- Neurketa-elementuak sortzea: lan-baldintzak, gogobetetasuna.
- Enpresak (bereziki pribatuak) oso itxita daude.
- Etorkizuneko enpresek pertsonak izan behar dituzte ardatz, ezin daiteke etekin ekonomikoa bakarrik neurtu.
- Behar baino langile gehiago dauden bitartean, pertsonak erabili eta botatzekoak izango dira, enpresek oso epe laburrera begira jarduten dute.
- Ideia une egokian abiaraztea.

## 5. AIZKORRI GUNEA

**Zerrenda (ez)legala. Justiziak ez digu asetzen. Herriaren legeak? Norabidea?**

- Biktimen indemnezioez aparte egin ezagutu, aitortza. Hau da biktimen nahia.
- Biktimariori eskatzen diogu: damua ez; barkamenak eskatzea; bai aitortza; bakean bizitzea ez behartu baina borrokan ezta.
- Biktimari eskatzen ziona: denbora eman bakoitzari, bera mina nahi duenean superatu; gizartean duen lekua berreskuratu; biktima izateaz aparte beste gauza asko gehiago baitira.
- Biktima izateagatik deskontuak.
- Herrian hartu erabakiak, galdeketak, kolektiboek galdetu.
- Biktimekin, biktimei galdetu.
- Hezkuntzan, eskolei galdetu.
- Demokrazia sendo eta erralagoa.
- Legea, biolentzia modu bat da, "gaizto"entzako eginak daude. Hezkuntza.



[DSS2016.EU](http://DSS2016.EU)